



GURE HISTORIA DA ETORKIZUNA

Standing Rock vs Dakota Access Olibidea
eta indigenen erresistentziaren tradizio luzea

Hitzaurrea:
Garbiñe Elizegi Narbarte

Katakarak argitaletxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturaren irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, maketa lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Nick Estes

***GURE HISTORIA DA
ETORKIZUNA***

*Standing Rock vs Dakota Access oliobidea,
eta indigenen erresistentziaren
tradizio luzea*

Nick Estes

GURE HISTORIA DA ETORKIZUNA

*Standing Rock vs Dakota Access oliobidea,
eta indigenen erresistentziaren
tradizio luzea*

Hitzaurrea: Garbiñe Elizegi Narbarte

Itzulpena: Danele Sarriugarte Mochales eta Amaia Astobiza Uriarte

Jatorrizko izenburua: *Our History is the Future. Standing Rock versus the Dakota Access Pipeline, and the Long Tradition of Indigenous Resistance*

Izenburua: *Gure historia da etorkizuna. Standing Rock vs Dakota Access oliobi-dea, eta indigenen erresistentziaren tradizio luzea*

Egilea: Nick Estes

Jatorrizko lizentzia: © Verso Books, 2019

Barruko argazkiaren egilea: Irantzu Pastor

Barruko argazkiaren lizentzia: CC BY-SA 4.0

Hitzaurrea: Garbiñe Elizegi Nabarte

Itzultpena: Danele Sarriugarte Mochales eta Amaia Astobiza Uriarte

Diseinua: Koldo Atxaga Arnedo

Lehenengo edizioa: 2020ko azaroa

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-52-5

Lege gordailua: NA 1915-2020

Inprimaketa: Alzate Grafikak

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
HITZAURREA (Garbiñe Elizegi)	15
ITZULTZAILEEN OHARRA (Danele Sarriugarte eta Amaia Astobiza)	17
SARRERA	
Profetak	23
BAT	
Setioa	49
BI	
Sorrera	95
HIRU	
Gerra	121
LAU	
Uholdea	167
BOST	
Red Power	207
SEI	
Internazionalismoa	243
ZAZPI	
Askapena	293
ESKER ONA	305
TESTUAN AIPATUTAKO ZENBAIT ERAKUNDE	309





ARGITALETXEAREN OHARRA IZERDIAK ETA MALKOAK

Ezin gara inoiz iraganetik bereizi, ezingo diren bezala gure seme-alabak eta gure bilobak gu geu garen orainaldi honetatik bereizi. Bizitzak aurrea darrai, eta ideiek transmigratzen dute, nolabait esan, garai batetik bestera. Mende honetan itotako ideiak garaile eta nagusi izan daitezke hurrengoan, beren txandan, eta, era berean, azken ideia horiek beste batzuek gainditu ahal izango dituzte. Hori da historiaren filosofia. Hori da bizitzaren beraren eternitatea.

Federica Montseny

2016ko udaberrian iritsi ziren Europara Ipar Ameriketatik Dakota Access oliobidearen kontrako borroken irudiak. Balia-bide naturalen ustiaketa basatia gelditzeko borrokan ari zirela ehunka natibo, dakotak eta lakotak bereziki, baina baita natioak ez zirenak ere; tartean, atzeritik etorritakoak. Lehengaiak ustiatzea helburu duen azpiegitura horren lanekin, nabarmen geratu ziren historian tradizio luzea duten zenbait injustizia: jatorrizko herrien desjabetzea, landa-eremuaren eta naturaren esplotazio basatia, Estatuaren indarkeria eta jende xehearen ezintasuna beren lurra kudeatzeko –hau da, pribatizazioa–.

Ordutik, tantaka baina gero eta sarriago, eta gehienetan paperezko prentsaren bidez, hango berri iritsi da gurera: hor dugu Miel Anjel Elustondoren elkarrizketa, aurtengo ekainean egina, lakota hiztunei buruzkoa («Euskara hizkuntza gutxitua da, eta lakota askoz gutxituagoa», *Argia* aldizkaria); baita Igone Mariezkurrena eta Irantzu Pastorren elkarrizketa ere, lakota herriak generoaz eta sexualitateaz duen ikuspegiak («Generoa eta sexualitatea dekolonizatu, Lakota herria altxatu», *Argia*); edo Ander Gartziaren 2016ko erreportajea («Siuxen azken guda

bizirauteko», *Berria* egunkarian) eta urte berean Pello Zubiriak ondutakoa («Ur garbia, frackinga eta aborigenen duintasuna jo-koan Standing Rocken», *Argia*).

Berriki ere, Aitor Fresnedok Mari Sandoz historialariaren *Zaldi Zoro* (Ataramiñe, 2020) ekarri du euskarara, lakota pertso-
naia ezagunaren biografia jasotzen duena.

Eta, halako batean, melodia bat datorkigu gogora, eslo-
gan bat abesti egina, Fermin Muguruzak *In-komunikazioa* album
garratzean jaso zuena: «Leonard Peltier free!». Hala dio: «Iparra,
hegoa, ekia eta sartaldea / Bizitzaren gorpila eta oreka / Amaie-
rarik ez duen bidea / Eguzki-dantzaren ezkutua». Leonard
Peltier lakota AEBko komunisten eta Pantera Beltzen kontrako
zigor-olatuan atxilotu zuten, eta 1975etik dago preso, egin ez
zituen eta frogatu ez diren bi hilketarengatik.

Hori ez zen, baina, Muguruzaren diskografian Ipar Ameriketa-
ko indigenei buruzko lehenengo oihartzuna. Pogoan dantzatu zuten
baita, 90eko hamarkada luzean, Negu Gorriaken «Apatxe Gaua»:

Otawak, potawatomisak
jirariarrak eta txerokiak
auzoetako gazteak
gorriz margoturiko herria
erreserbatik atera, honek mugitu behar du!
Izerdi eta malkoak beharko dituzu
eta batzuetan ez dakizu ezta zergatik ere
baina hori da askatasunaren bidea
natura hor dago, agur dezakezu
dantza, dantza, gurekin
dantza, dantza siuxen dantza
dantza, dantza errebantxa pogo
apatxe gaua jai ta dantzarako!

Bi aizkorarekin, X egina zuten Negu Gorriakekoek. Eta,
urte batzuk lehenago, Joseba Sarrionandiak «Ipar Amerikako
indioen hondamena» barnebildu zuen *Izkiriaturik aurkitu ditu-
dan ene poemak* (Pamiela, 1983) hartan. Seminolen «Miami baino
harantzago» olerkiaren azalpen gisa, zera idatzi zuen: «Gizon
zuriek, sortaldetik arribatu eta indioen lurtean eraiki zituzten
beren etxaguntzak. Indioek alde egin behar izan zuten, geroago
eta urrunago». Hamar Hartz buruzagi komantxearen «Esan diz-
kidazuen gauzak» olerkia itzuli zuen

Esan dizkidazuen gauzak ez zaizkit laket,
ez dira gozoak, azukrea bezala,
Mingotsak dira, Kalabazaren modukoak, erreserbetara
sartu behar gaituzuela diozuelako,
Eta guretzako etxeak egingo dituzuela
hantxe barruan, erreserban.
Baina, guk ez dugu hori nahi. Haizea
aske dabilen larrean sortu ginen,
Eguzkiari bidea eragotzi gabe,
baina libre.
Marrarik eta mugarririk gabe, gauza guziak
nahi eran mintzo ziren
Lurrean sortu ginen, eta hantxe nahi dugu hil,
ez harresien artean.

Sarrionandiak kontatzen du Hamar Hartz gerraren kontrakoa zela. Eta bake-akordioak egiten zituela, baina zuriak ez zituela promesarik betetzen. Joseph Gazteren, Zezen Eseriren eta Altze Beltzaren beste poema bana eta beste hainbeste azalpen historiko ere bada-kartza *Izkiriaturik*ek, Sarrionandiaren hasiera-hasierako poetikaren adibide: erresistentzia, bakea, indarkeria, natura, zibilizazio, hitza.

Erresistentziaren eta askatasunaren metafora izan dira indiarrek Mendebaldeak gauzatutako basakeriaren kontrako jendearentzat. Metafora bat, eredu bat baino gehiago. Sheriffak eta AEBko kolonoak zintzoak ziren filmak ikusi, eta indiarrekin identifikatzen ziren haurrak duela hamarkada batzuetako telebistari begira. Nerabezaroan, buruan lumak zeramatzatzen gizon-emakume haien poster erraldoiak jartzen zituzten logeletan. Baina, zer dakigu haien erresistentziaz?

Historia, antikapitalismoa eta zuztarreko ekologia

Oraindik ibilbide laburra egin badu ere, *Gure historia da etorkizuna* liburuak hamaika laudorio jaso ditu. Roxanne Dunbar-Ortiz historialari eta feministak, adibidez, nabarmendu zuen nola eraikitzen duen liburuak, 2016ko Standing Rockeko erresistentziaz abiatuta, bi mendeko erresistentzia-mugimendu indiarren genealogia, eta nola mahaigaineratzen dituen gaur egungo mugimendu sozialen erronkak.

Ildo beretik, Naomi Klein-ek liburua goraiatu zuen; haren ustez, egileak bikainki jaso du jada zenbait mendez dirauen indigenen askapenerako borroka, zeinak etorkizun seguru eta justu

baterako dugun itxaropena irudikatzen baitu. Bestalde, Louise Erdrich-ek nabarmendu zuen mundu osora zabaldu zela Standing Rockeko protesta baketsuen aurkako estatu-indarkeriaren berri, eta azpimarratu zuen liburu honek bi alderdi biltzen dituela: erresistentzia natiboaren dokumentazio-lan bat izateaz gain, kapitalismoaren salaketa bat ere bada.

Hori dena aurkituko duzu datozen orriotan, testu akademiko baten zorroztasunarekin kontatua. Nick Estes berriemailea Standing Rockeko gertaeren lekuko izan zen, eta askapenaren aldeko The Red Nation mugimenduko militantea da.

Indiarrei buruzko mitologiari zehatz erantzuten zaio hemen. Nola kolonizatu zituzten? Zer toki izan zuten legeek proiektu kolonialean? Zer toki zuten armek? Zer ondorio izan ditu haien bizitzetan? Nola kokatu dira nazioarteko politikan? Bada hari posiblerik azken bi mendeetako erresistentzien artean? Nork parte hartzen du egungo indiarren erresistentzian? Zergatik? Zer toki du naturak honetan guztian? Zer ikuspegi dute indiarrek ekologiaz? Zer gertatu da AEBko fauna eta florarekin europarrek indiarrek kolonizatu bitartean? Nola kontaktzen diote indiarrek beren buruari azken bi mendeotako erresistentzia?

Eta, haienaz irakurtzen dugularik, gureaz ere jabetzen gara. AHTaz, urtegiez, errepide berriez, frackingaz, landa-eremuaren urbanizazio etengabeaz, etxebizitza hutsez. Lotura horiek landu ditu Garbiñe Elizegik bere hitzaurrean, zubi-lan horretan ibilia delako eta oso gertutik ezagutzen dituelako bai Ameriketako indigenak bai Euskal Herriko kapitalaren azpiegituren oldarraldiak.

Ez da oso ohikoa gurean historia-liburu bat euskarara ekartzea. Hara hemen Danele Sarriugarteren eta Amaia Astobizaren lana, aurki Ipar Ordokietako intifadara eramango zaituztena. Baina, kasu: ohartzen ez bagara ere, Ameriketako indigenen aldarriz inguratuta gaudela konturatuko zara. Zure egongelan izango duzu, akaso, MICEren *Zilar printzak* jarrita; bada, lehenengo abestia Maria Luisa Bascuñanen *Jeronimo* poema-liburutik ekarri zuen Miren Narbaizak.

Adi seinaleari!

Iruñea
2020ko urria

HITZAURREA

SUSTRAIAK DITUEN ERRESISTENTZIATIK ASKATASUNERANTZ

Zazpi komunitatek osatzen dute Oceti Sakowin. Herri bat, hizkuntza bat eta munduaren ikuskera bat partekatzen duen herria, Pte Oyate (Bufaloaren herria). Gizon zuria Ipar Amerikara iritsi zenetik, herri hau desegin eta desagerraraztea helburu izan duten arren, bizirik dirau. Liburu hau belaunaldiz belaunaldi bizitako bidegabekeria, eragindako mina eta duintasun miresgarriarekin aurrera eramandako erresistentziaren kontakizuna da.

Liburu honetan Nick Estesek dio profeziek ez dutela etorkizuna aurreikusten, eta ez direla historiatik at dauden gertakizun mistikoak. Bizi dugun garaiaren diagnosis eta askatasunerantz bideratuko diguten ikuspenak omen dira. Zazpigarren belaunaldiaren profeziak dio, europarrekin lehenengo kontaktua izan ondorengo zazpigarren belaunaldia izango dela jatorrizko herrien kultura, hizkuntza eta bizimodua berreskuratuko duena. Belaunaldi hori hemen dago eta profetia betetzera heldu dela ematen du. Zazpiak bat, herri bat eta mundu bat sendatzeko eta askatzeko.

Baina ongi dakigu ezingo dugula etorkizunik eraiki gure iragana ahaztuta baldin badaukagu. Herri kolonizatu eta zapaldu guztietan ezinbestekoa da Estesek bere herriaren erresistentzia eta biziraupenaren historiarekin burutu duen ariketa bera egitea. Orainaren protagonistak ez baikara gaur egun bizirik gaudenak bakarrik. Gure arbasoek, gure inguruak, gure hizkuntzak, gure lurrrak, izaki bizidun guztiek eta datozen belaunaldiek ere osatzen dute gure historia. Historia, bizitzaren zikloa kontatzeko tresna izanda, ez baita lineala izaten ahal, borobila izan behar du.

Herri bakoitzak bere kontakizuna egin behar duen arren, liburu hau irakurtzerakoan euskaldunek, neurri handi batean, gure azalean eta gorputzetan bizitutakoaren kontakizuna dela sentitzea saihestezina da. Kolonizazioa ez baitzen munduaren hegoaldean bakarrik eman, eta ez baita iraganeko gauza. Neurri eta forma anitzetan eman da eta ematen ari da. Lurraren aurkako erasoak, emakumeon aurkako egiturazko indarkeria, jatorrizko hizkuntzen desagertzea... eguneroko ogia da jatorrizko herrientzat. Pte Oyatek senidetza, elkartasuna eta internazionalismoa aldarrikatzen ditu, herrien arteko elkarlana ezinbestekoa baita kapitalismo heteropatriarkalaren forma duen kolonizazioarekin bukatzeko. Azken finean, jatorrizko herriak eta bertan dauden gorputzak, animaliak, lurra eta historia dira kapitalismoari gaur egun ere traba gehien egiten diotenak. Horregatik izan da hain garrantzitsua sistemarentzat herri hauek desagerrarazi edo ikusezin bihurtzea, baita herri hauen historia ahaztea edota ukatu behar izatea ere.

Bide honetan azpimarratzekoa da jatorrizko herrien historiaren kontakizun kolonialean emakumeak herri horien biziraupenean eta erresistentzian izandako garrantzia ezkutatu nahia. Honek berresten du, kontrakoa sinestarazi nahi diguten arren, emakumeak herrien biziraupenean eta askapen prozesuetan ezinbesteko zutabeak izan direla, direla eta izango direla. Beraz, erresistentzia eta irtenbidea bide beretik etorriko direlakoan pentsatu beharko genuke. Erresistentzia gauzatu eta etorkizun deskoloniala amesteko gorputzak gara eta hortaz jabetuz ekin beharko genuke. Gure historia etorkizuna da balio du guzi horretaz ohartzeko. Izan zirelako gara, garelakoz izango dira.

Garbiñe Elizegi Narbarte
Baztan, 2020ko urria

ITZULTZAILEEN OHARRA

Itzulpenari dagokionez, ohar gutxi batzuk egin nahi ditugu, horrek testua ulertzen lagunduko duelakoan.

Lehenik eta behin, argitu behar dugu jatorrizko testuko «American» guztiak «Ameriketako Estatu Batuetako» edo «AEBko» egin ditugula, salbu eta berariaz Amerika osoari dagozkion gutxiak. Kasu horietan, «amerikar»/«Ameriketako» erabili dugu.

Bestalde, eta indiar izenei dagokionez, lehen-lehenik orain arteko erabilerari begiratu diogu; batez ere, Mari Sandoz idazle eta indiar historialariaren Zaldi Zoro liburuari (Ateramiñe, 2020), Aitor Fresnedo Gerrikabeitiak itzulia. Argitalpen horretan, itzulpenari buruzko atalean, testuan azaltzen diren indiarren izenez osatutako zerrenda bat dago, ingelesezko jatorrizko izenak eta euskarazko baliokideak jasotzen dituena. Bada, esku artean duzun liburu honetan aipatutako izenak zerrenda horretan agertzen diren kasu guztietan, halaxe erabili ditugu. Gainerakoetan, Euskarazko Wikipediara eta han-hemengo iturri bakanetara jo dugu. Alabaina, kontuan izan behar da indiar izen batzuk abizen bihurtu direla denborarekin; kasu horietan, jatorrizko testuan bezala utzi ditugu (adibidez, Kim TallBear eta LaDonna BraveBull).

Onomastikarekin jarraituta, erakundeen eta herri-mugimenduen izenak euskarara ekarri ditugu, eta testuan euskaraz bakarrik eman. Liburuaren azken orrietan, jatorrizko izenak eta haien euskal baliokideak aurkituko dituzu. Bi salbuespen egin ditugu: Black Lives Matter eta Red Power mugimenduak. Izan ere, bi horiek jatorrizko izendapenarekin erabili ditugu, euskarazko jardunean ere hala erabiltzen direlakoan.


Azkenik, liburuan behin eta berriro aipatzen diren bi kontzeptu ekarri nahi ditugu lerrootara, gertukoak izanda ere ondo bereizi beharrekoak: *asimilation* («asimilazio» eman dugu euskaraz, hala baita inguruko erdaretan ere, eta hala baitago onartuta euskararako) eta *termination* (kasu honetan, «kitatu», «kitatze», «kitapen» gisa itzuli dugu). Biek dute zerikusia indiarrek AEBko gainerako herritarrekin parekatzearekin, baina parekatze hori alderdi desberdinei dagokie kontzeptu batean eta bestean. Asimilazioa da, nolabait, indigenek beren bizitza tradizionalak alde batera uztea eta AEBko gainerako herritarren ohiturak eta balioak berenganatzea (AEBko gobernuaren ikuspegitik, indiarrek «zibilizatzea»).


Kitatzeak, berriz, indigenen eskubideekin eta haiei aplikatu beharreko legeekin du zerikusia. 1940ko hamarkadatik 1960ko hamarkadaren erdialdera arte, AEBko gobernuak bertan behera utzi nahi izan zituen indiar herriekin zituen akordioak eta haiekiko zituen erantzukizunak. Hau da, AEBko indiarrek eta gainerako herritarrek parekatu nahi izan zituzten, ez bakarrik tradizioei eta bizi-ohiturei zegokienez, baita legearen –eta zergen– aurrean ere, indiarrei gainerako herritarren eskubide eta pribilegio guztiak emanda eta, aldi berean, ordura arte izandako aparteko eskubideak eta zerbitzu bereziak kenduta.

Praktikan, horrek esan nahi zuen aurrerantzean AEBko gobernuak ez zituela herri subiranotzat hartuko indiar herriak, ez zuela onartuko indiar erreserben gaineko fideikomisorik eta indiarrek ez zirela egongo salbuetsita lege estatal eta federalak betetzetik. Azken finean, helburua zen legeen eta politiken bidez indiar tribuen izaera ezereztea eta indiar erreserbek AEBko gobernuari eragindako gastu gehigarria ezabatzea.

Horra arte, bada, gure azalpenak. Edozertara, kontuan izan testuan aurrera egin ahala ere itzultzaileon azalpen batzuk aurkituko dituzula oin-oharretan.

Danele Sarriugarte Mochales eta Amaia Astobiza Uriarte
Usurbilgo Kabiene eta Zornotza, 2020ko urria





IPAR DAKOTA

1800 errepidea

Olinbidetaren bide batzarria

Bismarck

Dakota Acorra olinbidetaren ibilbidea

1865 errepidea

INDIARRIEN LUR HISTORIKOAK

Cannonball Ranch

Eropidea ibilia Rive gortorlekuan

Barrakada

Coati Sakowin kanpamentua

Sacred Stone kanpamentua

Front Line kanpamentua

Cannonball

STANDING ROCK ERRESERBA

1865 errepidea

Fort Sully



SARRERA PROFETA

Eskerrak Emateko Eguna: horra hor kolonoen nazioak bere buruari kontatzen dion sorrera-istorio arketipikoa. Istorio horren arabera, natiboek eta kolonoek, indioilarra eta batata erreak jancez, «bakea» erdietsi zuten Massachusetts estatuko Plymouth hirian, non, 1620an, kolonia bat ezarri baitzuten Mayflower itsasontzian iritsi ziren erromesek. 1637an, ostera, pekuota herriko 700 bat lagunak sarraski zentzugabea burutzeko, zera esan zuen Massachusetts Badiako Koloniako gobernari William Bradford-ek: Eskerrak Emateko Eguna ospatu beharra zela «garaipen odoltsuaren omenez, eta Jainkoari eskerrak emanez borrokan gailentzeagatik». Bakea, lapurtutako lurretan, genozidioz blai dago.

2016. urtea zen, Eskerrak Emateko Eguna, hain zuzen. Gau hotz-hotz bat igaro berri genuen Wyoming estatuko gasolindegiri batean, I-80 errepedearen bazterrean; gurekin batera zeuden dozena erdi bat auto, akanpatzeko materialez beteak, eta Uraren Babesleak mugimenduko aktibistak. Eguzkia altxatu aurretik esnatu ginen denok, gaueko izotzaldiaren ostean estatu arteko errepedea berriz irekiko zuten esperantzan. Han bildutakoen artean, baginen natiboak eta natiboak ez zirenak, guztiak ere AEBko ipar-mendebaldetik eta mendebaldeko kostatik etorriak, nekeari aurre eginez eta soinean genituela Carhartt markako jaka kaki-beltz bereizgarriak. Arropen gainean, partxeak: «URA BIZITZA DA». Uraren Babesle batek, erdi-txantxetan bezala, zera esan zien kamioilariarentzako komunean zeudenei: «Trump-en feudoa da hau: ospa egin behar dugu!». Kanpoan, gizon zuriak beha geneuzkan beren jeep handietatik. Petrolioz, gasolinaz eta ikatzez beteriko estatua da Wyoming, eta bertako agintariek po-

lizia bidali zuten Indiar Gerra garaikideari kontra egitera; gure erresistentziari kontra egitera. Autoetan sartu ginen, eta Standing Rock-era zihoan bidean abiatu.

Laugarren eta azken aldia nuen Oceti Sakowin kanpalekuan. 2016ko apiriletik 2017ko otsailera bitarte hainbat kanpaleku ezarri ziren Cannonball eta Missouri ibaien elkargunean, Standing Rock erreserba indiarren iparraldean, eta Oceti Sakowin zen denetan handiena. Hasiara batean, hau zen kanpalekuen helburua: Energy Transfer Partners enpresak ez zezala eraiki Dakota Access oliobidea, 3,8 mila milioi dolarreko kostua zuena. Oliobide hori 1.712 milia luze izango zen, eta honako eremu hauek zeharkatuko zituen: lehenik, alderik alde igaroko zen Laramie Gotorlekuko 1868ko Itunak babestutako eremuan barrena; gero, Mni Sose-ren (Missouri ibaia) azpitik pasa, eta gorantz egingo zuen Standing Rock aldera, arriskuan jarriz erreserbako ur-hornikuntza.

Baina auzia ez zen soilik Standing Rockeko urari buruzkoa. Missouri ibaian gora eginez, oliobideak garraioan eraman behar zuen Fort Berthold erreserba indiarren fracking bidez gero eta ugariago erauzten zen petrolioa. Iowa eta Illinois estatuen mugaldean, Mississippi ibaiaren azpitik igaro behar zuen: Iowan bertan, oliobidearen aurkako koalizio bat osatu zuten herri indigenek eta nekazari zein aktibista ekologista zuriek. Oliobideak, gainera, lau estatu gurutzatu behar zituen: Ipar Dakota, Hego Dakota, Iowa eta Illinois. Hala eta guztiz ere, Standing Rocken eta hari lotutako nazio indigenetan –baita Fort Bertholden ere– gauzatu zen borroka sutsuena.

2016ko abuztuaren 19an, larrialdi-egoera ezarri zuen Ipar Dakotako gobernari Jack Dalrymple-k, ziurtatu nahian arazorik gabe egingo zirela oliobidea eraikitzeko azken lanak, eta orduantxe eratu zen mugimendua. Dalrymplek Guardia Nazionala hedatu zuen eta eskumen bereziak hartu zituen bere gain, Larrialdiak Kudeatzeko Laguntza Hitzarmenean babes hartuta; normalean, hondamendi naturalak gertatzen direnean erabiltzen dira hitzarmen horretan bildutako eskumenak, adibidez, uholdeak, suteak edo urakanak gertatzen direnean. Halaber, akordio horren abaroan, segurtasun-indar estatalek, udal mailakoek eta federalek modua dute baliabideak eta langileak trukatzeko, «istilu komunitarioak, altxamenduak eta etsaien era-

soak» izendaturiko egoeretan. 2015eko apirilean, Maryland-eko gobernari Larry Hogan-ek hitzarmen horri dagozkion botereak erabili zituen zertarako-eta hainbat herritar beltzek abiatutako protestak zanpatzeko –protestaren arrazoia: Baltimore hiriko poliziak Freddie Gray izeneko gizon beltz bat hil zuela-. Oraingoan, berriz, nazio indigena bat jo zuten mehatxutzat.

Kanpalekuen helburu bakarra ez zen oliobidea geraraztea. Inbasioaren ondorioz banatu eta sakabanatu zituztenez geroztik, baziren ehun urte edo zazpi belaunaldi, gutxienez, azkenekoz elkartu zirenetik dakota, nakota eta lakota hiztunen zazpi nazioak. Behiala, Ocetin Sakowin delakoak –kolonizatzaileen hitzetan, «Siux Nazio Handia»– bere baitan biltzen zuen Superior lakuko mendebaldeko ertzetik Bighorn mendietaraino zabaltzen den eremua. Neuk ipuinetan bakarrik entzunak nituen Oceti Sakowin jendeen bateratzeari buruzkoak: bilkura horietan, sua pizten zen, eta bufalo-adar baten tankeran antolatzen ziren zazpi tipi edo egoitzak –nazio bakoitzeko, bana-. Historian, egokiera berezietan elkartzen ziren zazpi nazioak: ospakizun-garaietan, urteroko eguzki-dantzak egiteko, tribuen arteko azokak egiteko eta bufaloak ehizatzeke. Azkenengo bilkura, ordea, gerra-garaian antolatu zen, inbasioari aurre egiteko. XXI. mendean, kanpalekua «Indiar Hiri» bat zen; halaxe deitzen genion autoan gindoazen hiru lagunek –Carolina, immigrazio-gaietako abokatu indigena; Dina, idazle indigena, eta ni neu-. Izan ere, kanpalekua, bere gailurrean, Ipar Dakotako hamargarren hiria bihurtu zen, jende-kopuruari dagokionez: 10.000 lagunetik gora zeuden han; 15.000, beharbada.

Gu iritsi ginenean, kanpalekua geldialdian zegoen. Poliziak inguratuta zeukan guztiz: alanbre-hesia ehunka miliatan, errepideak moztuta, eta aire bidezko zainketa hogeita lau orduz; egoera hark okupazio militarra zirudien. Aktibisten artean liskarra pizteko ahaleginean, TigerSwan segurtasun-enpresa pribatuak –DAPLeke arduradunek kontratatu zuten enpresa hori, Ipar Dakotako poliziari lagun ziezaion– infiltratuak bidali zituen kanpalekuetara, eta txosten faltsuak argitaratu zituzten sare sozialetan eta tokiko hedabideetan, esanez Uraren Babesleak jihadisten parekoak zirela. Intercept¹ agerkarian, esate bate-

1 Alleen Brown, Will Parrish eta Alice Speri, «Leaked Documents Reveal Counterterrorism

rako, adierazi zuten ezen oliobidearen aurkako mugimendua «ideologiak hauspotutako altxamendu bat zela, osagai erlijioso handiekin». Ondorio latzak ekarri zituen horrek, eta istorio faltsu asko egia balira bezala zabaldu ziren, aktibisten arteko zatiketei zornea zerien bitartean. Gainera, polizia bortizkeriaz zanpatu zituen protestak –besteak beste, urriaren 27an sarekada zital bat egin zuten 1851ko Hitzarmena kanpalekuan–, eta, horren eraginez, aldi baterako eten ziren arrisku handiko ekintza zuzenak, adibidez, hondeatzaileen aurrean jendea jartzeko ekintzak.

Hortaz, Eskerrak Emateko Egunaren biharamunean –Ostiral Beltza–, merkataritza-gunera joan ginen. Ipar Dakotako Bismarck hirian, gainezka zegoen Kirkwood gunea; erosle zuriak ziren nagusi, jaieguneko beherapenetan dirua xahutzeko gertu. Gure plana zen Ostiral Beltzeko erosketak zapuztea, egun hartako beste ekintza batzuekin bat eginez, #NoDAPL mugimenduaren mezuak bizirik iraun zezan albistegietan, eta sua ez zedin itzali jendearen buru eta bihotzean. Kanpalekuan, topo eginga nuen haurtzaroko lagun batekin, Michael izenekoa, eta haren bikotekide Emmarekin; haien autoan etorri ginen merkataritza-gunera. Trafikoa erabat moztuta zegoen 1806 autobidean, zeina biderik azkarrena baita erreserbaren mugaldekoko bi hirietara iristeko –Mandan eta Bismarck–. Kontrol militar mordo bat zela medio, zeharo itota zegoen Prairie Knights Casinoaren jarduna –kasino hori da erreserbako enplegu-emaile nagusietako bat, eta Standing Rocken diru-iturria–, horrenbestez, erreserbako biztanleek oztopoak zituzten erreserbatik kanpo lan egiteko edo behar zituztenak erosteko. Egoera hark bahitura ekonomiko bat zirudien, eta, baldintzak bestelakoak balira, nazio burujabe baten aurkako erasotzat hartuko zen; gure kasuan, berrogeita bost minutu luzatu zen bidai.

Merkataritza-zentroa jendez josita zegoen. Bismarckeko polizia, zuriak denak, atea zaintzen ari ziren, AR-15 erriflee-kin. Behin gunera sartuta, otoitz-zirkulu bat osatu nahi genuen jatetxeen eremuan, eta ez gintzatela harrapatu; horretarako, gainerako erosleekin «nahasi» beharra genuen. Gauza zaila da, zurien itsaso batean, natiboak ez nabarmentzea.

Tactics used at Standing Rock to 'Defeat Pipeline Insurgencies'» *Intercept*, 2017ko maiatzak 27, theintercept.com.

Agerian geratu ginen. Emakume zuri batek deiadar egin zuen: «Suaren usaina dute!». Erosleak tokian geratu ziren, guri so. Emakumeak, orduan, komunera bidean zihoan andre-talde bat seinalatu zuen hatzarekin —erreta zuten aurpegiko azala, hai-zearen eta eguzkiaren eraginez, eta garbitu gabeko jaka eta gonak zeramatzaten soinean—. Emakumeengana joan ziren bi polizia, AR-15 errifleak sorbalda gainean; bati besotik heldu, eta bihurritu egin zioten. Andreak azal beltzarana zuen, eta trentza txukun batean lotuta zeukan gerrirainoko ile beltza. Poliziak alfonbra finaren kontra bota zuen, ahuspez, eta uste nuen berehala adituko nuela emakumearen besoa krak egiten, dislokatuta edo hautsita.

—Komunera joan nahi nuen!

—Ixo!

Laster asko, lurrean eserita zeuden lau andreak, esku-muturrak bizkarrean lotuta, eta poliziek eroan zituzten. Suaren usainak salatu zituen; kanpalekuko alderdi nagusietako batek —sua baita zeremonia, plangintza, sukalde-lan, jatordu, loaldi, kantu, ipuin eta epeltasunaren lekua—. Azken batean, «Oceti» hitzak, «Oceti Sakowin» izenean agertzen denak, zera esan nahi du: «kontseilu-sua». Beste garai batean, «indiarren kiratsa» izatea leporatuko zieten, sua ezinbestekoa baita Lakota herriaren zeremonietan; orain, aldiz, ke-usainak beste zerbait esan nahi zuen, alegia, #NoDAPL kanpalekuetatik etorri zirela.

—Zein da arazoa?— galdetu zuen gizon zuri batek, poliziak zeuden aldera hurbilduta. Hanka-mugimendu azkar bat, eta buruz behera jarri zuten hura ere: belaubatza garondoan eta beste bat bizkarrezurrean.

—Ez egin kontra!— garrasi egin zuen poliziak. Ez zuten lurretik altxatu, herrestan eraman zuten.

—Suaren usaina zuen— esan zuen, axolagabe, gizona lurrera botea zuen poliziak.

Azkenean ere osatu genuen otoitz-zirkulua; baina poliziek plakatu gintuzten, kolpeka eta ostikoka. Gizon bati makuluak kendu zizkioten, eta aldaroka egin zuen lehenik oin batean bermatuz eta gero bestean, poliziak eraisten zuen bitartean. Gizon zuri batzuek, Uraren Babesleak oratu, eta poliziengana bidali zituzten.

—Segi erreserbara! Ordokietako beltz zikinak!— garrasi egin zigun batek aurpegira.

Haur zuriek, guri begira, garrasi egiten zuten berebat, baina bazirudien beldur handiagoa zietela poliziei Uraren Babesleei baino. Emakume bat harrapatuta geratu zen poliziaren eta guk osatutako lerroaren artean –atzeraka ari ginen–; poliziek, iletik tira egin, eta zorura bota zuten. Negarrez emakumea, tartean sartu zen haren bikotekidea, eta hainbat belaunkada eman zizkioten aurpegian. Beste emakume bat korrika hasi zen irteerara bidean gindoazela, eta polizia batek bota zuen espaloian.

Jende-pilatik gutako bat harrapatzen zuten bakoitzean, izutu egiten ginen, CS gasaren edo piperbeltz-sprayaren jasa kimikoaren zain, harrezkero ondotxo ezagutzen baikenuen: usain horrek, kearen usainarekin batera, eta erasoaldi baka-rran, pertsonaren usaimena kamustu dezake hainbat egunez, baita hainbat astez ere. Baina merkataritza-gunean erosle eta familia zuriak zeudenez –nahigabeko albo-ondorioa–, poliziek ez ziguten tiro egin, ezta sprayrik bota ere. Horren ordeez, eskuak eta hankak erabili zituzten. Hogeita hamahiru lagun atxilotu zituzten. Michael, Emma eta hiruok ihes egitea lortu genuen, eta autoan elkartu ginen.

Nigana itzuli zen Michael, eskuak dardarka zituela: «Orain badakit zer den ehizatua izatea».

Kanpalekuan, suaren usainak bestelako mundu bat eka-rrri zigun gogora: mundu zaharrago bat, mundu indigena bat, beti galtzeko zorian; toki bat zeina erabat ezaguna baitzen nati-boentzat, eta guztiz arrotza kolonoentzat. Ilunabarrean, Uraren Babesleek istorioak kontatzen zituzten, mundu hobeagoen ikus-pegi profetikoak: mundu hori ez zegokion iraganari bakarrik, mundu hori sortzen ari zen momentu hartan bertan, ke more-grisak alderik alde bete ahala tipien, kanpin-denden, autoen eta jeepen arteko espazioa.

Kanpalekura hurbilduak ziren Ipar Amerika osoko pertso-nak, indigenak izan zein ez. Abuztuan, kanpalekuan igaro nuen lehen egunean, konpost-zuloak egin nituen ojibwe herriko senide batekin, Josh izenekoa –sukaldaria zen Bismarcken–, eta sukalde-txabola bat eraiki, kanpalekuko sukalde nagusian, beste bi lagunekin batera: Brandon, dineh herriko senidea, eta Emad, sa-re-administratzaile palestinarra, Hego Dakotako Yankton hirikoa –Emad bera errefuxiatua da, Israelek bere jaioterria kolonizatu baitzuen, AEBren laguntzaz–. Samia burkide palestinarren ara-

bera, kanpalekuan dugun betekizun sakrosaindua «ordokietako intifada» bat da, okupatzaile beraren kontra altxatzen baikara hemen eta han. Sukalde-txabolak, egiazko elkartasunarekin eta zuhaitz eroriekin eraiki genuen horrek, eutsi egin zion Ipar Ordokiko negu latzari, eta bertan prestatutakoei esker elikatu ziren milaka lagun.

Michael ezagutzen nuen, gazte zuri bat, nire herri berekoa: Chamberlain (Hego Dakota), Missouri ibaiaren ertzean dagoena. Haurra nintzela, guraso bakarrarekin bizi ginen, eta diru-iturri bakarra genuen; trenbidearen okerreko aldean geneukan etxea, literalki. Michaelen gurasoek, bizibidea ateratze aldera, india-errentzako barnetegi katolikoan egiten zuten lan, eskola hartan non kolpeka kendu baitzizkieten nire aitari eta haren anaia-arrebei lakota kultura eta hizkuntza. Skateak, punk rockak eta ezkerreko politikak elkartu gintuen, eta beste gazte zuri eta natibo batzuk ere hurbildu zitzaizkigun; geuretzat hartzen genuen gure jaioterriko kontserbadurismo oro-hartzaile eta sarritan bortitzari kontra egiten zion oro.

Politikariak eta komunikabideak saiatu ziren kanpalekuak zatitzen, esanez Uraren Babesleak «hippieak» zirela, eta, haientzat, mugimendua ez zela dibertimendu bat baino, «Burning Man» jaialdiaren erakoa. Baziren, bai, halako pertsonak, eta natibo batzuek soka ematen zieten. Baina gisa horretako deskribapenek hango elkartasun egiazkoa lausotzen dute. Adibidez, gure kanpaleku nazionalan, Kul Wicasa izenekoa, jende guztia onartzen genuen. Gure kanpalekuko buru Lewis Grassrope, zeina nire laguna eta lehengusua (*tahansi*) baita, Oceti Sakowin Adarra sortzen ibili zen, eta denak gonbidatu zituen parte hartzera: bai pertsona indigenak bai indigenak ez direnak. (Grassroperen eta bion familiek aspalditik egin dituzte aliantza politikoak. 1930eko hamarkadan, nire lagunaren birraitona Daniel Grassrope, zeina buruzagi tradizional bat baitzen, eta nire birraitona Ruben Estes, zeina itzultzailea baitzen, elkarrekin joan ziren Washington DC-ra, Kongresuari eskatzeko lege hau onar zezan: Indiarren Berrantolaketari buruzko Legea, IRA, 1934koa).² Lewisek bazekien aliantzak garrantzitsuak direla.

2 Altwin Grassrope, *Tatanka Mazaskazi: Golden Buffalo*; Lower Brule Sioux Tribe, Lower Brule 2000, 7. or.

Bi urte lehenago, Lewisek eta biok gau hotzak pasa genituen gaizki isolatutako tipitan, geure nazioaren aurkako protesta batean. Kontseilu tribal guztien artean, gureak bakarrik babesen zuen TransCanada enpresa, Keystone XL oliobidea eraiki nahi zuena. Gure protesta-kanpaldiak apenas jaso zuen inoren babesik, ez gure jendearena ezta kanpokoena ere. Hara ez zen etorri telebista-kamerarik ez aktore famaturik, eta ez zen egin streaming jarraipenik sare sozialetan. Orain, ordea, mundua etorri zen #NoDAPL kanpalekura. Maria, emakume zuri bat, tokiko hedabide bateko kazetaria eta Chamberlaineko laguna, sukaldari gisa heldu zen kanpalekura, eta milaka laguni eman zion jaten. Abe, berriz, Coloradoko militar ohi zuri bat, kanpalekuko segurtasunaz arduratzen zen. Chicagon, elkartasun-batzordeak antolatutako zituzten #BlackLivesMatter mugimenduko Kofik eta nuu-chah-nulth nazioko Renae iraultzaile sozialistak. Eta baziren askoz aliatu gehiago.

Elite politikoez eta komunikabide-enpresa handiek sarritan zabaldu dute honako irudi hau: zuri pobreak eta natibo pobreak arerio betierekoak direla, ez dutela ezer partekatzen eta lehian aritzen direla bata bestearen kontra, landa-eremu pobretuetako baliabide eskasak lortu nahian. Halere, natiboen lurrak, urak eta itunek batu gintuzten. Ez zen perfektua, baina Oceti Sakowin kanpalekuak jende ugari bildu zuen hainbat hilabetez. Aliantza horiek luze iraungo dute, horien aurkako istorio izugarriak zabaldu arren.

Chamberlainen zuriak dira nagusi, eta hiriak mugakide ditu Lower Brule eta Crow Creek erreserba indiarrek. Kiowa gotorlekua izan zen hiriaren lehen gunea. Ibaiaren beste aldean zegoen, eta merkataritza-eremu nabarmena zen. Haren hastapenak 2015eko film ezagun batean erakusten dira *-The Revenant-*, xehetasun historiko handiz, nahiz eta estereotipo maiztu bat baliatzen den: salbatzaile zuria «indiarrarena egiten». Filmean agertzen denez, XIX. mendean, larruaren merkataritzak modu antolatuan arpillatu zituen ibaiaren ekosistema eta baita nazio osoak ere; gainera, berekin ekarri zuen heriotzaren mundu apokaliptikoa: bortxaketak, genozidioa, ezkutuko ehiza, lurraldeetara baimenik gabe sartzea, lapurretak eta baztanga. Azkenengo eszenan, filmeko protagonista Hugh Glass, zeina egiaz existitu baitzen, Kiowa gotorlekura hurbildu da eta han

ikusi ditu emakume eta ume natiboak, herriko atarian eskean, eta merkatari zuri mozkorrak haiek erosten eta hirigunera eramaten. Ibai inguruetakako merkataritza-eremuak aurreneko «giza kanpalekuen» tankerakoak ziren: handiak, normalean aldi baterako eraikiak, erauzketa-lanetan ziharduten gizonentzat eginak –larrua, petrolioia, gasa–; toki horietan, asko handitzen zen etxe barruko indarkeria eta sexu-indarkeria, eta orobat hazten ziren emakume eta neskato natiboen erailketak eta desagerketak. Faith Arrano Pikartak, Bihotz Ausartaren Elkarteak kide den ihanktonwan emakume adinekoak, zera azpimarratu du: «historiak erakusten digunez, krisi-garaietan hazi egiten da indarkeria»,³ eta argi dago lurraren aurkako bortizkeriaren hazkuntza zuzenean lotzen dela emakume indigenen gorputzen kontra egindako erasoekin.

Eskualde hau –gure aberria– He Sapa izeneko eremuaren parte da: Muino Beltzak, edo den guztiaren bihotza. He Sapa dugu lakota kosmosaren bihotz taupakaria, non sortu baikinena lur gorritik, non hartu baikenuen arnasa lehen aldiz, non egin baikinena gizaki, eta Oyate Luta bihurtu: «Jende Gorri» edo «Nazio Gorri». Azkenengo izotz-arogan, glaziar erraldoiek moldatu zuten lurraldea. Izotza urtu ostean, han agertu ziren, sigi-sagan, mui-noak eta bailarak, bihurtuz beteak, eta handik barrena ibiltzen ziren bufaloak, behiala lautada osoa belzten zutenak, sasoikako joan-etorrian, ur bila. Bufaloek izarrei jarraitzen zieten, eta jendeak, berriz, bufaloei. Gure senideak ohoratzeko, bi izen hauek eman genizkion gure jendeari: «Pte Oyate» (Bufalo Nazioa) eta «Wicahpi Oyate» (Izar Nazioa). Migrazio-aldi eta -olatu horietan bide guztiek eramaten gintuzten toki berera: Mni Sose, zeinak «ur bizia» esan nahi baitu, erreferentzia eginez inoiz bizi-bizia izandako eta sarritan lokatzez beterik zegoen ibaiari. Lakotayapi hizkuntzako izen ugari, hala nola «Mni Sose»k, ez dituzte soilik forma estatiko eta bizigabeak adierazten; aitzitik, ekintza ere adierazten dute. Ingurune honetan, urak bizia du, eta ekiteko gaitasuna ere bai; likido gisa ibiltzen da ibaian gora eta behe-ra; haren gasak hodeiak osatzen ditu, eta, izozten denean, lurra bera mugitzen du, bizirik baitago eta bizia ematen baitu. He Sapa

3 Gyasi Ross, «Native Grandmothers Defend Mother Earth: Faith Spotted Eagle Kicks SERIOUS Knowledge About Keystone XL», *Indian Country Today*, 2017ko apirilak 4, indiancountrymedianetwork.com.

da munduaren bihotza, eta Mni Sose, berriz, haren aorta. Hori da lakotek eta indigenek mundu fisikoarekin duten harremana. Hainbat mendez, «superstizio primitiboak» zirela uste izan da, eta mendebaldeko zientzialari eta akademikoek orain dela gutxi «deskubritu» dute «baliozko» jakinduria dela. Hala eta guztiz ere, jakintzak ez du inoiz, bere horretan, inperialismoa deuseztatu.

AEBko armadak ondotoxo ulertu zuen indigenek funtsezko lotura bat zutela tokiarekin eta gizakiaz besteko izakiekin; horregatik, 1860ko hamarkadan hasi eta hogeiei urte pasa aurretik, bizirik geratzen ziren bufalo guztiak akabatu zituzten, hau da, 10-15 milioi bufalo. Mende bat beranduago, armadako beste adar batek –AEBko Armadako Ingeniarien Kidegoak– bost presa eraiki zituen Missouri ibaiaren ibilgu nagusian: era horretan, ur haiek jada ez zuten bizitzarik ematen, kendu baizik. Inoiz bizibizi ibilitako ibaia itota zegoen orain, buxatuta. Halaber, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, AEBk «indiar negozio»arekikoak kitatu nahi zituen, hau da, itun bidez herri indigenei bermatutako ardura federalak deuseztatu, indigenak erreserbatetik kanpo bizitzera eraman eta geratzen ziren lurraldeak eta baliabideak saldu industria pribatuari eta kolonizatzaile zuriei. Xede horrekin bat egiten zuen Pick-Sloan izeneko planak; proiektu horren arabera, presa bat eraikiko zen, arroa bera bezain zabala, hainbat helbururekin: gerraostean enplegua sortzea, hidroelektrizitatea eratzea, uholdeak kontrolatzea eta ureztatzeko zerbitzuak eskaintzea nekazal komunitate zuriei eta urruneko hiriei. Arroko lur emankorrak urez betetzean, jendeak alde egin behar izan zuen erreserbatik. Libre geratu ziren lurraldeetan, berriz, ez zegoen bizitzerik, eta, askorentzat, tokiz aldatzea zen aukera bakarra. Missouri River erreserbako biztanleen %30ek alde egin zuen; egur komertzialaren %90 suntsitu zen; urez estali zituzten milaka akretako baratzak, jendea elikatzeke balio zutenak, eta ibaiaren arroko fauna eta flora indigenaren %75 desagertu zen.

Oglala herriko bisionario eta profeta batek, Nicholas Altze Beltzak, zeina katolikoa baitzen, esan zuen uholde bibliko baten gisakoa zela kristau zurien inbasioa. Edonola ere, Genesiko uholdeak atzera egin zuen 150 egunen buruan, baina Altze Beltzak aipatutako eurite apokaliptikoak ez du etenik. Tai gabe aritu da herri indigenak eta haien senide ez-gizatiarrak lurraren azaletik ezabatzen, eta, ondorioz, lurrarekiko zituzten harremanak

mozten. 1931n, Altze Beltzak bere bisioetako bat kontatu zion John Neihardt poetari: gizon zuriak etorri ziren, uholde-uren horma amaiezin baten moduan, eta «uharte txiki» edo erreserba bat osatu zuten, «non aske baikinengue nazioa salbatzen saiatzeko, baina ezin genuen». Jendeak, zeinak lur-eremu lehor batetik bestera ihes egin behar baitzuten etengabe, «gure lurra uzten zuten, eta uholdeak irentsi egiten zituen eskapoan zihozten lau-hankakoak». Lau-hankakoak ziren hartzak, altzeak, oreinak, bufaloak, otsoak eta abarrak; horietako batzuk gutziz desagertu dira Oceti Sakowin jendeen lurretatik. Gobernuko Barne Sailari dagokio lurralde murriztu horiek kudeatzea, faunaren eta indiarren lurraldeak, zeinak bizirik atera baitira martxan den holokausto batetik. «Garai zaharretako gure erlijioa, garaiko indiarrek zeukatena, atzean geratu zen, haiek ihes egin zutenean eta urak eskualdea bete zuenean», gaitzetsi zuen Altze Beltzak. «Orain, aurrera begiratzen dudanean, gerrako presoak garelako ikusten dut». ⁴ «Gutasun» horren baitan biltzen zituen lau-hankakoak ere.

Azken 200 urteetan, AEBko armada gudan jardun da Oceti Sakowin jendeen eta haien senideen aurka, hala nola Pte Oyate (bufaloen nazioa) eta Mni Sose (Missouri ibaia). Standing Rocken gertatu dena zera da: inoiz amaitzen ez den Indiar Gerraren errepikapen berriena. Hasieran, DAPL oliobideak goitik zeharkatu behar zuten Missouri ibaia, alegia, Bismarck hiriaren ingurutik; hiri horretako biztanleen %90 zuria da. Armadak, ordea, plana aldatu zuen, oliobidea ibaiaren behealdetik joan zedin, esanez bide laburragoa izango zela, ura gutxiagotan zeharkatu behar izango zela eta oliobidea ez zela hain gertu egongo jendea bizi den eremuetatik. Hortaz, orain, beste etxebizitza eremu batetik hurbil pasatzen da, non biztanleen %84 natiboa baita: aldaketa hori armadak iradoki zuen, ez Dakota Accessek. Armadaren ahaleginaren fruitua izan da, orobat, oliobidea eraiki nahi duten enpresek ingurumen-justiziarik buruzko ikerketak eskatzea, zeinen arabera oliobideak «ez dakarren neurritz kanpoko arriskurik arraza-gutxiengoentzat». ⁵

4 Nicholas Black Elk, *The Sixth Grandfather: Black Elk's Teachings Given to John G. Neihardt*, editorea: Raymond J. DeMallie; University of Nebraska Press, 1985 Lincoln, 289. or.

5 Ikus Ardan Raghian, «Newly Released Documents Show Dakota Access Pipeline

Armada izan zen, hain justu ere, Bigarren Mundu Gerraren ondoren Missouri ibaia ito zuen indar nagusietako bat. 1946an, Kongresuaren baimenik gabe, armadak aldatu egin zuen Garrison presaren proiektua, ez zedin uraren azpian geratu Ipar Dakotako Williston hiria, non biztanle gehienak zuriak baitira. Nolanahi ere, ez zuten zirkinik egin Fort Berthold erreserba indiarra uretik babesteko. 212 oineko presa hark urez bete zituen erreserbaren lurretako 152.360 akre: 325 familiak bizitokia aldatu behar izan zuten (nazioko kideen %80), eta deuseztatu egin ziren haien nekazal lurren %94.⁶ 1955ean, armadak Lower Brule eta Crow Creek erreserben lurretan kokatu zuen Big Bend izeneko presa, bi erreserba horietako kontseilu tribalarekin hitz egin gabe. Eraiki aurretik, sei kokagune erabili zituzten aukera moduan, eta horietako lauk ez zuten urez beteko Lower Brule erreserbako herrigunea. Azkenean, baina, erreserban egitea erabaki zuten, eta ez bakarrik hidraulikarengatik, ezpada modu hartan presak ez zuelako hartuko Pierre hiria, Hego Dakotako hiriburua, non gehiengo zuria baita, ezta haren ondoko beste herri bat ere, Fort Pierre.⁷ Big Bend presaren ondorioz, bi erreserbetako komunitateek alde egin behar izan zuten bigarren aldiz, eta familietako batzuek garaiera handiagoko eremuetara joan behar izan zuten. Lehen uholdeak Crow Creek Agentzia eraman zuen (hau da, Crow Creek eta Lower Brule tribuen egoitza). Lehenaldi hartan, Lower Bruleko biztanleen laurdena aldatu zen bizitokiz; bigarren uholdean, berriz, erdia.

Joyce eta Andrew Estes, nire aiton-amonak, Lower Bruleko kideak ziren biak, Kul Wicasa herrikoak, eta, 1950 eta 1960ko hamarkadetan, kontra egin zioten Pick-Sloan presen eraikuntzari. Presen urak ia osorik hartu zuen nire birramona Cornelia Swallaren lursaila. Nire birraitona Bigarren Mundu Gerran borrokatu zen, eta, nire aitak dioenez, kode-hiztunaren lanak egiten zituen lakotarekin; gudaren ondoren etxera itzuli zenean, hara non ikusi zuen bere jaioterria eta nazioa mehatxatzen ari zela nor-eta berak gerran defendatu zuen gobernu bera. Jomugan zituzten

Is Discriminatory Against Indigenous Peoples», *Truthout*, 2018ko urtarrilak 22, truthout.org.

6 Michael L. Lawson, *Dammed Indians Revisited: The Continuing History of the Pick-Sloan Plan and the Missouri River Sioux* (Pierre, HD: South Dakota Historical Society Press, 2009), 52-53 or.

7 *Ibid.*, 163. or.

gure lurrak eta gure biziak; ez, ordea, baliabide preziatuen jabe ginelako, edo gugandik lan-indarra erauzi nahi zutelako. Egia esan, kontrakoa zen: xahutu zitezkeelako, urez bete eta deuseztatu zitezkeelako, horregatik iruditzen zitzaizkien gure lurrak eta biziak baliagarriak, eta horregatik zituzten jomugan. Aitona Andrewri, oso azal iluna baitzuen, «Marroia» deitzen zioten; gizon hark, Lower Brule Sioux tribuari geratzen zitzaizkion lurrak hartu, eta bere amari eman zizkion, gure nazioak modua izan zezan Lower Bruleren herrigunea berreraikitzeke. 1937an, nire birraitona Ruben Estesek –Corneliaren senarra eta tribuko lehen mahaiburua–, kontra egin zion Hego Dakotako estatuari, Lower Bruleren baimenik gabe Missouri ibaian presak eraikitzen saiatu zelako. Zaharrek «Mihia» deitzen zioten Rubeni, zeren, behiak hil eta gero, adinekoei eta gose zirenei ematen zien haragi guztia, eta mihiak bakarrik gordetzen zituen beretzat. Nire arbasoak indigenen aldeko nazionalista sutsuak izan ziren, historialari, idazle eta intelektualak, garai batean zeinean indiarren patua oso baitzen murrizta: alkohola, ergelkeria edo heriotza; ez zuten beste aukerarik. Nire arbasoak Uraren Babesleak ziren, itunen defendatzaileak, eta lurreko jende xehea: eginahalak egin zituzten Mni Sose zaintzeko eta haren alde egiteko.

Nire aitona Frank Estesek, zeinari Franklin Delano Roosevelt presidente izandakoaren eta «Indiarren Akordio Berria»ren omenez jarri baitzioten izen hori, Lower Bruleri buruzko lehen liburua argitaratu zuen 1963an: *Make Way for the Brules*.⁸ Liburu hartan aztertu zuen indigenen mugimendua, bietan, bai erreserben garaiaren aurretik bai haren ondoren. Liburu horren bidez erantzun nahi zion jendea tokiz aldatu behar izanari Fort Randall eta Big Bend presen ondorioz, eta erronka jo zion, halaber, natiboen konfinamenduaren aldeko narrazioari, zeinaren arabera natiboek «etxean» geratu behar bailukete, gerrako presoan eremuetan –orain «erreserba» deitzen zirenak–, inork ez ikusteko eta inor haiekin ez gogoratzeko moduan. 1971n, berriz, nire aitona George Estesek eta Richard Loder-ek *Kul-Wicasa-Oyate* liburua argitaratu zuten, Lower Brule Sioux Tribuari buruzko historia sakonago bat, azalduz ezen, XIX. mendean, gure komunitateak eta

8 Frank C. Estes, *Make Way for the Brules* (Lower Brule, HD: Lower Brule Sioux Tribe, 1963).

familiak berriro osatu zirela, AEBko armadak beren jaioterritik, ibaiaren ertzeko erresebatik, ateratzera behartu zituenean, eta XX. mendean beste bi bider derrigortu zituztela tokiz aldatzera, Pick-Sloan presen eraginez.

Nire aitona Andrewk, zortzigarren mailara arte eskolatu zutenak, pasarte bat idatzi zuen Kul-Wicasa-Oyate liburuaren hitzaurrean: pasarte hori epigrafe egokia izango zen nire liburu honentzat, non lantzen baita gure lurra, uraren eta jendearen alde gure nazioak egin duen borrokaren historia. Hala dio:

Nire herriaren historia galdu egin da, edo suntsitu egin dute, gizon zuria heldu zenetik. Nire herria, hainbat eratan, galdu egin da, eta suntsitu egin dute, gizon zuria heldu zenetik... Liburu honetan ez da biltzen nire jendearen historia osoa, ezta gure ondareak eman duen onena ere. Gure tradizio, itxaropen eta sustrai batzuk ez ditugu paperean jarriko, munduak ikusteko moduan. Aitzitik, orriotan bildu dugu, hein handi batean, munduari erakutsi nahi dioguna. Irakur ditzatela orriok nire anaiek, eta irakur itzazu zeuk ere, gizon zuria. Herri harro baten historia da: bere lurra eta bere buruan sinesten duen herri baten historia. Nire herria zibilizatua zen gizon zuria heldu aurretik, eta zibilizatuak izango gara eta hemen segituko dugu gizon zuriak alde egin ostean ere, lurra gaizki erabiliz bere burua pozoitu duelako eta irentsi egin dutelako bere diruzalekeriak eta bere gaitzek.⁹

2016ko irailean, natiboen komunitateak eta beste talde batzuek, hala nola #BalckLivesMatter mugimenduak, DAPLen aurkako protesta bat antolatu zuten Chicagon: nire familiaren historia kontatu nien, armadaren egoitzaren aurrean, han bildutako milaka pertsoneri. Natiboen komunitate bizi-bizi bat dago hirian, gobernuak milaka natibo birkokatu zituelako potawatomi nazioaren lurraldean: nazio indigena hori bere jaioterritik aterarazi zuten, gaur egun «Chicago» deitzen den tokitik, eta genozidioa ezarri. Nire arbasoek ez zuten inoiz irudikatuko ezen, egun batean, milaka edo milioika lagun bilduko zirela gure ibaia defendatzeko, gure senide Mni Sose babesteko. Duela mende erdi, ez zen protesta masiborik antolatu oraindik ere gure ibaiak suntsitzen dituzten presen aurka; hamar urtetik gora pasa ditut

9 Hemen aipatua: George C. Estes eta Richard R. Loder, *Kul-Wicasa-Oyate* (Lower Brule, HD: Lower Brule Sioux Tribe, 1971), sarrerako testua.

historia horri buruz idazten eta hitz egiten, eta kanpoko munduak ez dit ia jaramonik egin.

Oinez gindoazen, euri arin baten azpian.

—Esadazu zer den profezia bat! —aldarrikatzen genuen.

—Hauxe da profezia bat!

Eta profezia bat zen, izan. Profezia hark Zuzeca Sapa zuen aipagai, Suge Beltza, lurraldeetan barna hedatzen dena eta arriskuan jartzen duena ura, eta, ondorioz, bizitza oro. Heriotza eta txikizioa jaurtiko dute sugearen buruek. DAPL, eta baimenik gabe indigenen lurraldetan sartzen diren oliobide guztiak, horiek dira Zuzeca Sapa. Suge Beltzaren profeziak hondamena iragartzen duen arren, orobat iragartzen du erresistentzia eta altxamendu indigena, hainbat belaunaldiz edo beharbada sekula ezagutu ez den tankerakoa. Unci Maka edo Lur Amandrea babestu nahi badute, bat egin beharko dute indigenek eta indigena ez direnek, eta atzera eginarazi lurra birrintzen ari diren indarrei: kapitalismoari eta kolonialismoari. Nolanahi ere, profetek eta profeziek ez dute etorkizuna aurreikusten, eta ez dira gertakari mistiko eta ahistorikoak. Bizi garen garaien diagnosiak dira, besterik ez, eta erakusten digute zer egin behar dugun askapena erdiesteko. Lehen, adineko indigenen gidaritzari jarraitzen zioten gazteek. Sasoi profetiko hauetan, aldiz, zaharrak doaz buruzagi gazteei segika: #NoDAPL mugimenduaren lider gazteak dira, besteak beste, Zaysha Grinnel, Bobby Jean Hiru Hanka, Jasilyn Charger eta Joseph Begi Zuri; haiek zabaldu zuten, beste batzuekin batera, Suge Beltzaren mezua munduan barrena. Horretarako, milaka milia zeharkatu zituzten, erreleboak eginez, 2016ko apiriletik uztaileira bitarte.

Oceti Sakowin herrirentzat, profeziak, hala nola Suge Beltzari dagokiona, teoria iraultzaileak dira, eta aukera ematen digute pentsatzeko ea zer-nolako harremana dugun lurrarekin, beste gizakiekin, gizakiaz bestekoekin, historiarekin eta denborarekin. Nolako harremana dugu iraganarekin? Kolonizatzaileen kontakizunetan, denboraren ikuspegi lineal bat gailentzen da: era horretan, kolonizatzaileek beren burua urruntzen dute indigenen eta lurraren aurka egin zituzten krimen izugarrietatik. Xede horrekin ospatzen dituzte, esate baterako, Eskerrak Emateko Egunaren gisako erokeriak. Ostera, indigenek denborari buruz dituzten ikusmoldeetan, iraganak eta arbasoek goitik behera

egituratzen dute orainaldia. Iragana eta orainaldia ez dira gauza bereziak, hortaz, bestelako etorkizun bat irudikatzerakoan, iraganari buruzko ulermenak berebiziko eragina du. Gure historia da etorkizuna. Batzuek duela gutxi ezagutu dituzte hainbat kontzeptu, esaterako Mni Wiconi delakoa (ura bizitza da), baina kontzeptuaren jabe den nazioarentzat, Mni Wiconi lehenagotik dator, eta bizirik dirau, AEBren gisako inperio zuri supremazisten erasoen gaitetik.

Protestan ari direnak ez daude, huts-hutsean, oliobide baten aurka, eta horregatik deitzen dira Uraren Babesleak, gauza handiago baten alde ari direlako: bizitzaren jarraipenaren alde, kapitalismoak suntsitu duen planeta batean. Horrek ondo islatzen du lakota eta dakota herrien filosofia bat, Mitakuye Oyasin delakoa, «nire senide guztiak» edo «denok gara senideak» adierazten duena. Uraren Babesleek diziplina handiarekin gidatu dute mugimendua, lakotek Wocekiye deitzen duten printzipio bati helduz, zeinak «senideak omentzea» esan nahi baitu. Kanpoko munduarentzat, Canupa izeneko pipa sakratua erretzeak eta gizakiei eta gizakiaz besteko bizitzari tabakoa, zeremonia eta kantuak eskaintzeak «otoitz egitearen» antza du. Albert Kapelu Zuriaren arabera –lakota hizkuntzalaria eta ikertzailea izan zena–, misiolari kristauek nahita aukeratu zuten «otoitz egitea» terminoa Wocekiye kontzeptua itzultzeko, nahiz eta itzulpena ez den zuzena: «gorenako botere baten aurrean burua makurtu eta belaunikatzea» deskribatzen du otoitz egiteak, eta Wocekiyeren «jatorrizko esanahia bestelakoa da: senide bat aintzat hartzea edo hari agur egitea». Lakota hizkuntzan ez zegoen «otoitz egitearen» baliokide zehatzik; orain, berriz, kristauen eragina tarteko, hitzak ñabardura hori ere biltzen du.¹⁰

Oceti Sakowin jendeentzat, Mnni Sose –Missouri ibaia– senide ez-gizatiar bat da, bizirik dagoena, eta Mni Oyate-ren (Uraren Nazioa) parte da. Ezer ez da haren jabe, horregatik, ezin da saldu edo besterendu, jabetza-puska bat balitz bezala. (Nola salduko duzu zure senidea?). Bestalde, norberaren senideak babestea da senidetza gauzatzeko eta senide ona izateko ekintzetako bat (Wotakuye esaten zaiona): senidea babestu behar

10 Albert Kapelu Zuri senior, *Life's Journey – Zuya: Oral Teachings from Rosebud*, editorea: John Cunningham (Salt Lake City, UT: University of Utah Press, 2012), 44. or.

duzu hura kutsa dezaketen oliobidearen isurietatik, edo, bestela esanda, heriotzatik. Horrek, izan ere, heriotza ekarriko bailieke Oceti Sakowin jendeei eta gizakiaz besteko haren senide guztiei. Beraz, protestetan Mni Wiconi aldarrikatzen denean –«bizitza ura da»–, orobat aldarrikatzen da ura bizirik dagoela. Hunkpapa historialari Josephine Waggoner-ek iradoki duenez, mni hitzak («ura»), honako bi hitz hauek uztartzen ditu: mi («ni») eta ni («izakia»). Horrek adierazten du urak baduela bizia.¹¹

Mni Wiconi delako kontzeptua, eta indigenek gizakiekin eta gizakiez bestelakoekin harremanak egiteko dituzten moduak oro har, kapitalismoaren kontrakoak dira: kapitalismoan, izan ere, produktu eta lan-indar bihurtzen dira gizakiak zein gizaki ez direnak; saldu eta erosi egiten dira. Indigenen harreman-moduak, halaber, kapitalismoaren bikiaren kontrakoak dira, hau da, kolonialismoaren kontrakoak: sistema horrek herri indigenak deuseztatu nahi ditu, bai eta haien senide ez-gizakiak ere. Aipagai ditudan harreman-moduek ez dute zerikusirik ez-nati-boen artean herri indigenei eta haien kulturari buruz zabaldu den ikuspegi erromantikoarekin; hainbat diziplinak sustatu dute ikusmolde hori, besteak beste, antropologiak, zeinak inoiz izan ez zen iragan batean harrapatu baikat, eta, horrela, gure etorkizuna aurrera eramateko aukera lapurtu baitigu. Azken bi mendeetan, etorri dira antropologo, historialari, arkeologo, zale eta hilobi-lapurren saldoak, eta lapurtu eta arpilatu dituzte indigenen gorputzak, jakintzak eta historiak, hala nola lapurtu eta arpilatu zituzten beste batzuek indigenen lurra eta baliabideak. Gaizki interpretatu dituzte indigenen historiak, distortsionatu egin dituzte: interpretazio horiek boterez husten dituzte izan badiren nazio indigenak, eta arrotzak eta garrantzirik gabeak suertatzen zaizkie.

Mamu Dantzak beste edozein adibidek baino hobeto islatzen du zer diren teoria iraultzaile indigenak eta nola distortsionatu dituzten kanpokoek berariaz. Historia-liburu ezagunetan, Mamu Dantza labur-labur agertzen da: 1890an desagertu zela aipatzen dute, Wounded Knee-ko sarraskian, eta hori da dena. Mamu Dantza, kontzeptuaren zentzu iraultzailean,

11 Josephine Waggoner, *Witness: A Hú nkpapha Historian's Strong-Heart Song of the Lakotas*; editorea: Emily Levine (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 2013), 57. or.

bizitzari zegokion, ezen ez heriotzari; dantza horren bidez, etorkizun indigena anticolonial bat irudikatzen eta antzezten zen, kolonoen inbasioak ekarritako herio-mundutik libre zegoena. Wovoka izeneko paiute profeta eta sendalariak sortu zuen. Haren bisioan, Espiritu Handiaren Seme Gorriak lurra eraldatuko du. Mesiaren etorrera gorriak garbitu egingo du mundu koloniala, eta berriro ekarriko ditu gizon zuriak suntsitutako arbaso guztiak: animaliak, landareak, gizakiak eta gizakiaz bestekoak; trukean, suntsitzaileak sunsituko ditu. Wovokak ez zuen etorkizuna aurreikusi. Aitzitik, sakon bai sakon ulertu zuen nolako garaian bizi zen, eta haren profeziak, beraz, erreserbako bizitzak sortutako sufrikarioei erantzuten zion. Etorkizun indigenaren etorrerari buruzko haren mezua sutzarra bezala hedatu zen Kanada mendebaldeko kostaldetik AEBko hego mendebaldera, Mexiko iparraldera eta Ordokietara. Mamu Dantzak bateratu egin zituen herri indigenak, mugimendu iraultzaile baten abaroen, helburu handi bat lortu nahian: atzean utzi nahi zuten, zeharo, errealitate koloniala. Haren ikuspegiak indartsuak ziren, eta berdin diraute gaur egun ere. Indigenen dantzak debekatuak zirenez, ekintza kriminaltzat jotzen ziren. Lakota eta dakota Mamu Dantzariek erreserben sistema blokeatu nahi zuten; horretarako, uko egin zioten haurrak barnetegietara bidaltzeari eta agente indiarren aginduak betetzeari. Nolanahi ere, sistema kolonialik ez izatea ez zen nahikoa izan egiazko askatasuna ekartzeko; kontrara, mundu indigena berri bat sortzeko eta, harekin, amesgaiztozko orainaldia ordezkatzeko ekintzetan adierazten zen egiazko askatasuna.

Mamu Dantzaren edertasunak eta indarrak hauspotuta, Nicholas Altze Beltza oglala profetak antzeko gauza bat ikusi zuen bere bisioan: esan zuen jendeak bat egin behar zuela bizitzaren zuhaitza elikatu eta hari osasuna itzultzeko, berriro ere lora zedin. Altze Beltzak, dantza ikusita, *Wanikiyaren* etorrera ikusi zuen: hala esaten zaio mesias gorriari lakota hizkuntzan, eta, literalki, «biziarazi» esan nahi du. 1932an, John Neihardt poetak argitara eman zuen Altze Beltzaren bisioaren interpretazio literario bat *Black Elk Speaks* izeneko liburuan; Vine Deloria Jr. ikertzailearen arabera, liburu hori da «tribu guztien biblia ipar

amerikarra».¹² 1890ean, Zalditeriako Zazpigarren Erregimenak 300dik gora lakota Mamu Dantzari akabatu zituen Wounded Kneen, eta, horren ostean, uste izan zen Mamu Dantza eta Altze Beltzaren bisioa hilik edo hiltzorian zeudela, natiboak bezalaxe. Neihardtek ere ikusmolde hori indartu zuen, *Black Elk Speaks* liburutik gehien aipatzen den esaldia asmatuz: «Hemen hil zen herri baten ametsa». Wounded Kneeko sarraskiari so eginez, eta elur odoltsuaren gainean ikusiz bere senideen gorpuak, hori esan omen zuen Altze Beltzak, betiere asmamenezko bertsio hartan. «Nazioaren uztaiak hautsirik dago, sakabanatuta».¹³ Baina Altze Beltzak ez zuen inoiz sinetsi halakorik, eta bazekien ezen askapenaren aldeko bisio kolektiboak ez zirela Wounded Kneen amaitu. «Loratzearen zuhaitza desagertu berri da» esan zuen, sarraskia gertatu eta berrogei urte beranduago, «baina sustraiak bizirik daude oraindik, eta hemen gaude gu, zuhaitz hori berriz lorarazteko».¹⁴

Sustraien metaforak zuzen islatzen du nola iraun duten askatasun-asmoeak –nola iraun duen bizitzaren zuhaitzak–. Klandestinitatera behartu zituzten zeremoniak, dantzak, hizkuntzak, gudari-taldeak, talde politikoak eta jakintza espirituala bera; Zibilizazio Araudi zigortzaileek legez kanpo utzi zituzten denak, eta ez ziren berriro «legalizatu» harik eta, 1978an, Amerikar Indiarren Erljio Askatasunaren Legea onartu zen arte. Altze Beltza katoliko bihurtu zen, beste jende asko bezala, bere burua eta bere familia babesteko, baina beti sinetsi zuen bere bisioetan. Harentzat, askapena ez zen salbuespenezko gertakizun bat, ekintza bakar bat, ezta une bat ere. Historia-liburu gehienek ukatu egiten dute Wounded Kneeko sarraskia; ikuspegi lagunkoia bat agertzen dutenek, berriz, esaten dute Mamu Dantza joera «kaltegabe» bat zela, eta desagertu egin zela, nola desagertu diren hura egiten zuten indiarrek. Baina, baldin eta dantza bazen mehatxu *bakarra*, zergatik hedatu zuen Estatu Batuetako armadak bere soldaduen erdia, dantza hura egiten ari ziren pertsonak zanpatzeko, alegia, goseak jota zeuden eta ez zaldirik ez armarik ez zuten pertsona horiek zanpatzeko?

12 Vine Deloria, Jr., «Sarrera» in John G. Neihardt, *Black Elk Speaks* (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 1979), xv. or.

13 Neihardt, *Black Elk Speaks*, 207. or.

14 Black Elk, *The Sixth Grandfather*, 43. or.

Erresistentzia indigenak bide luze bat ibili du, denboran aurrera eta atzera proiektatzen dena. Historialari tradizionalak iragana interpretatzen dute, besterik ez; historialari indigena erradikalek eta jakintzaren zaindari indigenek, ordea, orainaldi koloniala aldatu nahi dute, eta etorkizun dekolonial bat irudikatu, leku eta historia indigenekin loturak ezarriz. Hori egiteko, zanpatu diren praktikek arrakala bat sortu behar dute historian.

Karl Marxek, iraultzen izaera azaltzeko, satorraren figura erabili zuen: satorrak aztarrika egiten du historian barrena, tunel konplexuak sortuz eta berriro azaleratzeko prestatuz. Unerik dramatikoena da, hain zuzen ere, satorrak azalera hausten duenekoa: horixe da iraultza. Baina iraultza une bat da, une bat baino ez, historiaren mugimendu zabalean. Azaleratu ostean, iraultzaren aurkako indarrek aise garai dezakete satorra, baldin eta hark ez baditu behar bezala prestatu lurrazpiko espazioak, babeseta eta segurtasuna eskain diezaioten. Atzera lurrazpira bultzatzen badute ere, satorrak lanean dihardu. Kantuetan eta zeremonietan, lakota jendeak gorespena erakusten dio satorrari, lan eskerga egiten duelako oinazpiko sustrai sendagarriak biltzen. AEBko inbasio militarri aurre egiteko kanpainan, Zaldi Zorok, bere burua babesteko, lur freskoa biltzen zuen sator-zuloetan. Bazekien lur hartan sendagarriak zeudela, eta horregatik garbitzen zuen gorputza harekin. Kanpotik ikusten ez den lanmota hori, etengabe aritzea tunelak egiten, konspirazioan, planeatzen, biltzen eta oroitzen, askatasuna helburu, horixe da iraultza-lanaren alderdirik garrantzitsua –bestelako mundu bat eraiki daitekeela sinesten duen fede kolektiboa–. Errealitatea alda daitekeela dioen konfiantza kolektiboa horrela handitzen da, eguneroko bizitzaren bidez, eta horrek ematen die bidea gertakari itzelei.

Oceti Sakowin kanpalekuan, bi elementu uztartuz adierazten zen ausardia: batetik, ekintza zuzenak egiten ziren; bestetik, Standing Rock Sioux tribuaren gidaritzapean, lege-estrategiak baliatzen ziren DAPL auzitegietan garaitzeko. Ekintza zuzenek komunikabideen arreta erakartzen zuten eta, hala, #NoDAPL eta Mni Wiconiren mezuak hedatzen zituzten, presioa eginez auzitegi eta instituzio federalen gainean, Standing Rocken subiranotasunaren mesedetan. Era berean, ekintza zuzenek ondorio psikologiko neurtezinak zekartzaten: haien bidez, boteregabeak

ahalduntzen ziren, jende xeheak adorea biltzen zuen bere bizitzaren kontrolari heltzeko eta gainetik kentzeko konfiantza falta eta hainbat mendetako okupazio bortitzak berekin dakarren izulaborria. Kanpalekuko eguneroko jardunean ere osatzen zen ausardia.

Kanpalekuek orobat betetzen zuten beste funtzio guztiz garrantzitsu bat: jendea zaintzeko, elikatzeko eta suspertzeko baliu zuten, eta haiei emateko laguntasuna, ausardia, berotasuna, kantauak, ipuinak eta maitasuna. Dakota herriaren eta, ondorioz, Oceti Sakowin jendeen azken helburua «simple antzekoa da: senidetza arauak bete behar dira, senide on bat izan behar da», idatzi zuen Ella Deloria dakota ikertzaileak.¹⁵ Horixe da satorraren lurrazpiko lana, epe luzeko borroka ororen zutarría, nahiz eta, sarritan, lerroburu gutxiago eskaintzen zaizkion gisa horretako lanari, protesta masibo eta lehen lerroko ekintza ikusgarriei baino. Baina biak dira garrantzitsuak eta premiazkoak, hein berean. Kim Hartz Handi dakota ikertzaileak dioen eran, askotan generoaren arabera banatzen da zaintza-lana, eta emakumeei dagokiela uste izaten da. Baina aipatu behar da emakumeek eta bi-espíritu eta LGTBQ komunitateetako kideek gidatu dituztela gaur egungo mugimendu sozial asko, eta bereziki #NoDAPL, Idle No More eta #BlackLivesMatter mugimenduak.¹⁶

Nire lagun eta senide Marcella Gilbert-ek, zeina Ura-
ren Babeslea eta lakota baita, nabarmendu du ezen emakume indigenek gidaritzarolak bete dituztela hainbat belaunaldiz. Buruzagiak izan dira Marcellaren ama –Madonna Trumoi Belatza– eta izebak –Phyllis Young eta Mabel Anne Arrano Ehiztaria–, eta Red Power mugimenduan jardun ziren 1960ko eta 1970eko hamarkadetan. Guztiak izan ziren Amerikako Estatu Batuetako Indiarren Mugimenduko (AIM) kide garrantzitsuak; 1974an, gainera, Indiar Itunen Nazioarteko Kontseilua eratzen lagundu zuten Standing Rocken, eta urte berean osatu zuten Nazio Gorri Orotako Emakumeak taldea –beranduago aipatuko ditut mugimendu horiek denak–. Buruzagi gisa jardun dira, halaber,

15 Ella Deloria, *Speaking of Indians* (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 1998), 25. or.

16 Kim Hartz Handi, «Badass (Indigenous) Women Caretake Relations: #NoDAPL, #IdleNoMore, #BlackLivesMatter» *Hot Spots, Cultural Anthropology*, 2016ko abenduak 22, culanth.org.

Oceti Sakowin kanpalekuan: hurrengo belaunaldiak tradizioari jarraitzen ziola ziurtatu zuten. Phyllis Young, Standing Rockeko adinekoa bera, kontseilu-kide izana zen, eta itzal handia du. Maddonnak eta Mabel Annek buruzagi-zereginak bete zituzten nork bere kanpalekuan, gazteak gidatuz eta haiei gauzak irakatsiz. Marcellarentzat, hezkuntzan datza askatasuna. «We Will Remember» biziraupen-eskolako kumea da Marcella; 1974an sortu zuten eskola hori, Hego Dakotako Rapid City-n, eta sortzaileen artean zen Marcellaren ama, Madonna. Eskola horietan, natiboen kulturari eta historiari buruzkoak irakasten ziren, baita hitzarmenetan bildutako eskubideei zegozkienak ere. Garaian, biziraupen-eskola ugari sortu ziren aurre egite aldera ikasle natiboek eskola publikoetan jasaten zuten diskriminazio izugarriari, eta elizak zein gobernuak kudeatutako barnetegietan zabaltzen zen doktrina kristau eta patriotiko amerikarrari. Marcellaren iritzian, #NoDAPL kanpalekuek segida ematen zioten tradizio horri: kanpalekuetan, izan ere, milaka natibo gaztek ikasi zuten, hezkuntza erradikal eta autonomo baten bidez, zer den indigenen auto-determinazioa eta autonomia politikoa, zer denaske bizitzea eta izatea.¹⁷ Bestela esanda, #NoDAPL mugimenduan eta horren moduko uneetan bir-sortzen eta hazten da mugimendu indigena.

Gure historia da etorkizuna liburuak zera du aztergai: Mni Wiconi lelotzat hartuta, Missouri ibaia babesteko helburua duen mugimendua. Nola sortu zen, eta nola osatzen du kolonialismoak, AEBren historiako osagai klabeetako batek, gure oraina? Erresistentzia indigenaren historia luzearen parte dira #NoDAPL eta Mni Wiconi, indigenek kontra egin baitiote Mni Sose edo Missouri ibaian baimenik gabe sartzan saiatu diren kolonizatzaile, presa eta oliobideei. Indigenon naziotasunaren eta autoritate politikoaren historiarekin loturik daude, errotik gainera, hiru hauek: Oceti Sakowin, Mni Soserekin dugun harremana eta askapenaren alde historian egin dugun borroka. Liburu honek ez ditu objektuak, norbanakoak eta ideiak aipatuko; harremanei buruzko historia bat da: Oceti Sakowin, Mni Sose eta AEBren indar okupatzailearen artean dauden harremanei buruzkoa. Lotura horiei erreparatuz, ohartuko gara indigenen historia ez dela AEBren historiaren azpi-eremu estu bat, edo, nahi bada, kapi-

17 Marcella Gilbert, «A Lesson in Natural Law»; aurki argitaratuko da.

talismoaren edo inperialismoaren historiaren azpi-eremu bat. Kontrakoa da: herri indigenak munduko historia modernoaren subjektu zentralak dira.

Hau ez da iraganaren azterketa hutsa. Indigenen tradizio gisa izendatu ditudan horiek –adibidez #NoDAPL eta Mni Wiconi-helmen handiko ondorioak dituzte, normalean «indigenatzat» hartzen diren mundutik harago doazenak. Uste izaten da tradizioak praktika estatikoak direla, aldagaitzak. Maiz, ikuspegi horrek iradokitzen du indigenen kultura edo tradizioa ez dela aldatzen denboran, indigenak iraganean harrapatuta daudela eta, hortaz, ez dutela etorkizunik. Baina kolonialismoa, denborak aurrera egin ahala, aldatzen den bezala, berdin aldatzen da haren kontrako erresistentzia. Iraganeko borroketatik ikasiz eta esperientzia horiek gure esperientzian txertatuz, belaunaldi bakoitzak jarraitzen du erresistentzia-tradizio dinamiko eta biziak eraikitzen. Gisa horretako esperientzia kolektiboak osatu egiten dira denborarekin eta lurralde eta nazio indigena zehatzetan sustraitzen dira.

Oceti Sakowin jendeentzat, lotuta daude Mni Wiconi adierazpena –«bizitza ura da»– eta Wotakuye –«senide on bat izatea»–. Izan ere, erresistentzia eginez kolonizatzaileei, oliobideei eta presei, senide on baten moduan jarduten zara urarekin, lurrarekin, animaliekin, eta baita gizakien munduarekin ere. Kontrakarrean, hortxe daude Energy Transfer Partners enpresaren ekintzak (haiek finantzatzen dute DAPL), edo, maila orokorragoan, kapitalismoaren ekinbidea, lurretik eta bizitza-modu guztietatik etekinak erauzi nahi dituen, oroz gain. Hori esanez ez dut iradoki nahi gizarte indigenek ezagutzen dutenik klima-aldaketaren konponbide definitiboa (gainera, nazio indigena askok modu aktiboan erauzi dituzte baliabideak, eta ekonomia kapitalistetan parte hartu dute, beren autodeterminazioa indartzeko). Baina, #NoDAPL mugimenduak, bere unerik onenean, erakutsi digu ezen bestelako etorkizun bat eratzen dela pertsona natibo arruntek kontrola hartzen dutenean beren patuaren eta lurra- ren gainean, beren erresistentzia-tradizioei helduz. Indigenen erresistentzia-tradizioen artean, honelakoak interesatzen zaizkit: kontzientzia erradikal bat dutenak, bai kapitalismoaren eta bai kolonialismoaren kontrakoa, sakonean gordetzen dutenak

historiaren eta tokiaren zentzua, eta askatasuna dutenak azken helburu.

Liburu honetan, Oceti Sakowin jendeen historiaren eta erresistentziaren zazpi atal aztertuko ditut. Historia hau ez da, inondik ere, beren historia osoa, baina kasu zehatz horien bidez gure orainaren osaketari erreparatu nahi diot, eta orobat eraiki bide-orri historiko bat, askapen kolektiboaren alde.

Lehen atalean, Standing Rocken egin den #NoDAPL mugimenduaren historia kontatuko dut, eta mugimendu horren sustraiei erreparatuko diet, alegia, harea bituminosoen erazketaren eta Keystone XL oliobidearen aurkako borrokei; horien bidez defenditu dira lakota eta dakota lurrak, duela hainbat mende AEBko inperialismoaren aurka abiatu zen erresistentzia-tradizioarekin bat eginez. Bigarren atalaren hasieran, hain zuzen, historia horren hasierara joko dut, eta biak deskribatuko ditut: Oceti Sakowin jendeen sorrera eta XIX. mendean jende horiek Estatu Batuetako nazio harrapakariarekin izandako lehen enkontruak.

Luze gabe, enkontru horiek gerra bihurtu ziren: XIX. mendeko Indiar Gerrak –hirugarren atalean aztertuko ditut–. Ipar Ordokietan gertatu ziren, eta Oceti Sakowin jendeek aurka egin zioten AEBren inbasio militarari eta altxamendua apaltzeko taktikei. XX. mendea iritsi orduko, herri indigena gehienak konfinatuta zeuden erreserba gero eta txikiagoetan. Nolanahi ere, mende horren erdialdean, Oceti Sakowin jendeek buru egin zioten, berriro ere, AEBeko armadari –Armadako Ingeniarien Kidegoari–: orduko hartan, AEBko politikek ibaien eskala handiko garapena baliatu zuten indigenak desjabetzeko egitasmoa aurrera eramateko; bien bitartean, legegileek eginahalak egin zituzten itunetan bildutako ardurez libratzeko.

Laugarren atalean, plan horien nondik norakoak azalduko ditut, XX. mende erdiko Pick-Sloan Planaren historia adibidez hartuz. Plan horren bidez, Armadako Ingeniarien Kidegoak eta Erreklamazio Bulegoak baimena lortu zuten Missouri ibaia-
ren ibilgu nagusian presak egiteko. Presa horiek berariaz eraiki zituzten natiboen lurretan, haien bizitzak eta bizilekuak suntsituz: 611.642 akre kondenatu zituzten, nahitaezko desjabetze bidez, eta horietako 309.584 erreserbako arroko lurrak ziren, oso garrantzitsuak. Gainera, lurrak urez gainezkatzearen ondorioz,

milaka natibo familia birkokatu ziren, itunak argiki urratuz eta alde zaureratik oniritzi eskatu gabe. Esperientzia horien oroitzapenek bizi zirauten #NoDAPL kanpalekuan.

Bosgarren atalean AIMren historia laburbiltzen da: hirietan zentratutako mugimendua izan zen hura. Orobat azaltzen da nola okupatu zuen mugimendua horrek, 1973an, Wounded Knee, Pine Ridge erreserba indiarrean, hamarraldi luze batez Red Power mugimendua antolatzen ibili ostean. Ekintza haren ondorioz, milaka lagun bildu ziren Standing Rocken hurrengo urtean, 1974an, eta han eratu zen Indiar Itunen Nazioarteko Kontseilua, erakunde bat zeinak, handik urte batzuetara, indigenen aitortza lortzeko nazioarteko ahaleginak gidatuko baitzuten, ondorio sakon eta globalak ekarri.

Seigarren atalean, XX. mendean sortutako internazionalismo indigenaren historiari begiratuko diogu, eta, bereziki, Oceti Sakowin jendeek berrogei hamarkadaz Nazio Batuen Erakundearen gidatu duten kanpainari; horretan oinarrituta sinatu zuen NBEk, 2007an, Herri Indigenen Eskubideen Aldeko Aldarrikapena. Red Power mugimendua globalak, azkenean ere, Standing Rockeko #NoDAPL mugimendua hauspotu zuen. Zazpigarren atalean, loturak horiek azpimarratuko dira: iraganeko eta orainaldiko borroketan arteko harremanak, eta nola lotzen diren mundu osoan kolonialismoaren eta kapitalismoaren aurka lehen eta orain gauzatzen diren nazioarteko borroketekin.



Bi-espíritu pertsonak, polizia-lerrora doan martxaren buruan. 2016ko urria.
Argazkia: Nick Estes.

BAT

SETIOA

Guri, Ama Lurraren bihotza zaintzen dugunoi, ardura berezi bat dagokigu: suntsipenaren-indarrei atzera eginaraztea... Zer uste zenuten, Sortzaileak alferrikako pertsonak sortuko zituela halako arrisku itzelak dakartzan garai batean?

*Arvol Zaldi Beha buruzagia,
Bufalo Pipa Sakratuaren zaindaria¹⁸*

«Gerra deklaratuko diogu Keystone XL oliobideari» iragarri zuen oglala siux tribuaren presidente Bryan Brewer-ek, kamera eta mikrofono mordo baten aurrean.¹⁹ 2014ko martxoaren amaiera zen: Hego Dakotako Rosebud erreserba indiarrean zeremonia bat egiten ari ziren, kanpaleku espiritual bati hasiera emateko. Jendetzak zalaparta handia sortu zuen: akisak egin zituzten, lakota gerra-oihuak, eta lililiak ere bai, baietz adierazten duten tremolo altuak. Ezein oliobidek, ez Keystone XL (KXL) oliobideak ez beste edozeinek, ez du Oceti Sakowin jendeen lurraldea zeharkatuko erresistentziarik gabe. Gerra baten historia da hau. Baina gudariak ez dituzte armak bakarrik erabiltzen gudan jarduteko.

18 Arvol Zaldi Beha buruzagia, «Important Message from Keeper of Sacred White Buffalo Calf Pipe», Indian Country Today Media Network, 2017ko irailak 7, newsmaven.io/indiancountrytoday.

19 Hemen aipatua: «Declaring War on KXL: Indigenous Peoples Mobilize», *Mass Dissent*, 2014ko uda, nlgmasslawyers.org. Kontrakorik aipatu ezean, atal hau idazteko oinarri gisa baliatu ditut neure esperientzia –deskribatzen ditudan gertakarietan parte hartu bainuen, horiek behatuz eta oharrak hartuz– eta gertakarietan jardun ziren pertsona garrantzitsuekin egindako elkarrizketak.

Brewerren atzean, tribu nazionalen dozena bat bandera zebiltzan kulunkan, indigenen artean gero eta batasun handiagoa zegoela erakutsiz. Brewerren hitzaldiak hasiera eman zion erresistentzia-mugimendu historiko bati, zeinak, 2016an, bat egingo baitzuen Standing Rocken Dakota Access oliobidearen aurka abiatuko zen borrokari. Mugimendu hori ez zuten bulego itxi batean antolatu *think tank* aberatsetako kideek edo ingurumenaren aldeko GKE handiek. Aitzitik, mugimendua hango lurretik eta paisaia apaletik abiatua zen, hango jendea bezalaxe; jende askok hegazkinetatik baino ikusten ez duen lurretik. Hala-ber, mugimenduaren sorburuan daude lurrari eta urari lotutako borroken historia sakon bat eta klima-aldaketak alderik alde suntsitu duen planeta batean etorkizun bizigarri bat eraikitzeko borroka.

Martxoan bertan, zertxobait lehenago, Rosebud Sioux tribuak, Cyril «Txuri» Scott presidentearen agindutara, tupustean eten zuen nekazari zuri batekin zuen errenta-kontratua; nekazari hark erreserbaren barruko lursail bat lantzen zuen, hain zuzen ere KXL oliobidearen alboan zegoena. Oliobideak sigi-saga egiten zuen aurrera, kontu handiz igaroz tribuen jabetzako eta jabetza pribatuko lursailen xake-taula konplexu batean zehar; antolamendu hori Dawes Jeneralaren Banaketa Legearen ondorioa da, 1887koa, zeinaren bidez erreserbako lurra zatitu baitziren, eta kolono zuriei saldu. Aurreko urteko arto-txortzen horiak zut ikusten ziren elurretan, eta Wica Angli elkarteko langileek –gizonen osasunaren aldeko egitasmoa–, Rosebudeko herritarrek eta haien aldeko herritar natiboek lursail haiek aldarrikatu eta tipiak eraiki zituzten bertan: oliobidearen bidean berean. Kanpalekua-ri Oyate Wahacanka Woecun deitu zioten, alegia, «herriaren ezkutua». Belar-fardo handi eta biribilak hartu zituzten beste nekazari zuri bati alokatutako eremutik, eta haiekin inguratu zuten kanpalekua, haize zakarrari kontra egin nahian. Esaten da ezen, beharbada, belar-harresi haiek orobat gerarazi zituztela nekazari zuriek iluntasunaren babesean destatutako balak.

Lursail pribatuak ziren, baina ez zuen axola. Azken batean, itunpeko lurra ziren: lakotek eta dakotek bizia eman zuten haiek defendatzeko, eta, belaunaldiz belaunaldi, bizi osoa eskaini zioten haiek zaintzeari. Egitasmo hura eten ezean, egunero-egunero 800.000 upel bete harea bituminoso garraiatuko zituzten 1.2000

miliatan barna –Hardisty-tik (Alberta), Steele City-ra (Nebraska)-; bidean, 357 erreka eta ibai zeharkatuko zituzten –guztiak Missouri ibaiaren adarrak– eta orobat zeharkatuko zuten Ogallala akuiferoa, Ipar Amerikako akuifero handiena. Denek zuten uraren premia, izan edateko zein nekazaritza-lanetarako, jabetza pribatu sakratuari gailendu zitzaion Mni Wiconi leloa. «Ez da indiarren kontua, ez da zurien kontua», adierazi zuen Rosebud Sioux kontseiluko ordezkari Wayne Frederick-ek, «guztion kontua da».²⁰

Nebraskako lur-jabe zuriak ere han izan ziren, kanpalekuaren irekieran, «OLILOBIDEAREN AURKAKO GUDARIAK» zioten seinaleei eusten zion jendetzaren ertz batean. Cowboy-Indian Alliance kanpainarekin bat egin zuten; Bold Nebraska eta Dakota Rural Action taldeetako nekazari zuri progresista batzuk ziren kanpaina haren buruak. Nolanahi ere, lur-jabe batzuk libertarioak ziren, eta gehiago axola zitzaien jabetza pribatuaren santutasuna eta «gobernu handiaren» zitalkeria, indiarren itunak eta klima-aldaketa baino. Komunikabideek jende-mota horri erreparatu zioten, KXLren aurkako erresistentziako beste edozein alderdiri baino gehiago; hala eta guztiz ere, oliobideak kaltetzen zituen nekazari zurien artean –Montanako, Hego Dakotako eta Nebraskako nekazariak–, libertarioak gutxiengoa ziren.²¹ Ordokietan, nazio indigenekiko elkartasuna ez da erraz eskuratzen, eta, sarritan, lurrekin eta diruarekin izaten du zerikusia. Ordurako, TransCanada enpresak, KXL eraikitzen ari zenak, zera adierazi zuen: oliobideak hartuko zituen lurretako jabe hego dakotarren %92k –guztira, 302 ziren–²² lurra saltzea erabaki zuela, bere borondatez. Egoera antzekoa zen hala Nebraskan nola Montanan. Kontra zeudenek, baina, salaketak jarri zituzten desjabetze-prozesuak gerarazteko, hau da, ez zitezten lursail pribatuak hartu eta «erabilera publikorako» erabili, zeinaren definizioan sartzen baitira jabe pribatuen oliobideak. Edonola ere, nazio indigenekin konparatuta, norbanako bakan

20 Wayne Frederick, Ed Schultz-ek egindako elkarrizketan, The Ed Show, MSNBC, 2014ko apirilak 3.

21 Ikus Zoltán Grossman, *Unlikely Alliances: Native Nations and White Communities Join to Defend Rural Lands* (Seattle: University of Washington Press, 2017), 177-187. or.

22 TransCanada, *Keystone XL Pipeline Project, South Dakota Public Utilities Commission Quarterly Report*, 2011ko ekainak 30, 4. or.

batzuk ziren haiek, nazio indigenak ia osorik baitzeuden KXLren aurka.

KXLren zango batek Siux Nazio Handiaren erreserbaren mugak zeharkatzen zituen, bai eta Laramie Gotorlekuko 1868ko Itunak babestutako lurak ere; itun horrek debekatu egiten du kolono zuriak lur horietan ezartzea, indigenen baimenik ez badute. Edward Valandra lakota historialariak nabarmendu duenez, egoera hartan bazen ironiarik, zeren, pribatutzat jotako lur oro «bi bider lapurtua» izango zen: lehenik, zuriak lapurtu zizkieten lur haiek natiboei, eta, ondoren, Kanadako gasolina-konpainia batek.²³ Kolonoak eta jabetza pribatua izan dira, betidanik, inbasioaren lehen bidegileak, eta indigenei zegozkien lurretan ez da sekula errespetatu jabetza pribatuaren santutasuna. Nolanahi ere, lehen kolonoen kontrakarrean, natiboen nazioek –Rosebud, Pine Ridge, Yankton, Cheyenne River eta Standing Rock erreserbetakoak– ez zieten bizkarra eman beren balizko aliatuei. Azken batean, horixe esan nahi du «lakota» hitzak (baita «nakota» eta «dakota» hitzek ere): aliatua. Arerio beraren kontra ari diren edo interes berak dituzten aliatuei bizkarra ematea, zergatik-eta ezberdintasunak dituzulako haiekin, lakota kulturaren funtsaren kontrakoa da.

Mende luzetan izan den bezala, gatazka hau lurrari buruzkoa da: nork lapurtu zuen, nor den haren jabea eta nork aldarrikatu duen haren jabetza. Goi Ordokietan, lurak zerikusia du arrazarekin, klasearekin eta kolonialismoarekin. KXL oliobidea egin ahal izateko, lehenik, ezinbestekoa izan zen indigenen genozidioa eta kanporaketa, horren bidez urratu baitzitzaien bi-dea lurraren jabetza pribatuari. Lege federalek –Dawes Legeak eta 1862ko Homestead Legeak, adibidez– kolono zurien eskura jarri zituzten natiboen lurren 270 milioi akre, natiboen nazio osoak ordezkari zituzten, eta, azkenerako, gutxi batzuen eskutan kontzentratu ziren lursail guztiak. AEBko Nekazaritza Sailak 2002an egin zuen txosten baten arabera, kolono zuriena da AEBko nekazaritza-lur pribatuen %96ren jabetza, eta haiei dagokie era guztietako lur pribatuen %98.²⁴ Erakunde berak 2012an egindako txosten baten arabera, lakota eta dakota erreserbetan, natiboak

23 Edward C. Valandra, «Stolen Native Land», *Themedes*, 2014ko ekaina.

24 Jess Gilbert, Spencer D. Wood, eta Gwen Sharp, «Who Owns the Land? Agricultural Land Ownership by Race/Ethnicity», *Rural America* 17:4, 2002, 55-62 .or.

ez diren pertsonak jasotzen dute nekazaritzako diru-sarreraren %84,5, eta haiek kontrolatzen dute nekazal lurren ia %60 eta erreserbako etxaldearen %65.²⁵ Jabe horien artean dago Ted Turner, komunikabide erraldoi baten jabe izugarri aberatsa, gizon zuri bat, zeinak 2 milioi akre lurretik gora baitu mundu osoan eta 200.000 akretik gora, zehazki, Hego Dakotan, Oceti Sakowin jendeen itunpeko lurretan.²⁶ Cedric Robinson ikertzaile erradikalak arraza-kapitalismoa deitu zion sistema horri, zeinetan gizon zuri batek ondasun eta lur gehiago baititu indigenen nazio osoek baino.²⁷ Europako sistema feudal arrazistaren abaroan jaio zen kapitalismoa. Sistema horrek aginte modura erabili zuen «arraza», beste batzuk mendean hartzeko, hiltzeko eta esklabo gisa baliatzeko, betiere etekinak ateratzeko helburuarekin. Arraza-kapitalismoa mundu osora zabaldu zen inperialismoaren bidez; Ipar Amerikan, hain zuzen, kolonialismoaren bidez ezarri zen. Ondorioz, kolonizazioa eta arrazakeria jasaten duten pobreei egokitzen zaizkie kapitalismoaren eta klima-aldaketaren kalte handienak, eta horregatik daude erresistentziaren lehen lerroan. Arraza-kapitalismoaren ondarearengatik eta martxan dirauen kolonialismoarengatik elkartu ziren Oceti Sakowin jendeak, 2014an, KXLri kontra egiteko, eta bi arrazoi horiengatik elkartu ziren berriro ere DAPLi aurka egiteko.

KXLren aurkako erresistentzia abiatu zenean, baziren sei urte AEBko higiezin merkatuak hondoa jo zuenetik eta, Barack Obamak, AEBko lehen presidente beltzak, zuri nagusigoaren aldeko inperio baten kapa jaso zuenetik oinordetzan. Mundu mailan, tenperaturak goraka segitzen zuen, eta Obamak karbono-igorpenak murrizteko konpromisoa hartu zuen bere gain; nolana ere, «energia-premiak asetzeko bide guztiak» erabili asmo zituenez, gasolinaren industria besarkatu zuen, ustia zitezkeen merkatu eta lur berriak irekitzen zituen bezainbatean. 2008tik 2016ra bitartean, AEBren barruan izugarri hazi zen petrolio ekoizpena -%88, zehazki-, bi loraldiren ondorioz: eskis-

25 Ikus Village Earth, «Food Insecurity and Agriculture Income for Native vs. Non-Native Producers», villageearth.org; US Department of Agriculture, *2012 Census of Agriculture: American Indian Reservations* 2014, vol. 2, pt. 5, agcensus.usda.gov.

26 Ted Turner Enterprises, «Ted Turner Ranches FAQ», Ted Turner-en webgune ofiziala, tedturner.com.

27 Ikus Cedric Robinson, *Black Marxism: The Making of the Black Radical Tradition* (Chapel Hill, NK: University of North Carolina, 2000).

to-petrolioaren loraldia AEBn eta harea bituminosoaren loraldia Kanadan. Hazkuntza horrekin batera, oliobide eta erauzketa-gune berriak sortu ziren. AEBeko 9,3 milioi familiari hipoteka betearazten zieten bitartean –familia horietako asko pobreak ziren, beltzak eta latinoak–, beste behin ere sakrifikatu ziren indigenen bizitzak, lurak, ura eta airea, zertarako-eta kolonoen ekonomia kinkatik ateratzeko.

Krisi ekonomikoari erantzunez, iraultzaren loreak hazi ziren mundu osoko plazetan, eta, une labur batez behintzat, bes-telako mundu baten ikuspegia erakutsi ziguten. 2010ean, adibidez, Udaberri Arabiarreko gazteek diktadoreak erorarazi zituzten, bai-na laster etorri ziren tragedia eta traizioa. 2011n, Occupy Wall Street mugimenduko *millenial* desengainatuek eztabaida-mahaira ekarri zuten, berriro ere, antikapitalismoa, erronka joz %1en aginteari, elite aberatsaren gailentasunari. Egoera horren aurrean, polizia borra-kolpeka, negar-gasak jaurtiz eta kartzelaldiekin erantzun zion herritarren %99ri. Kaos horren errautsetatik berpiztu zen mugimendu indigena masibo bat, hainbat belaunaldi lehenago erein ziren hazietatik abiatuta. Plazetako mugimenduak hirietan sortu ziren; indigenen altxamenduak, aldiz, nonahi mobilizatu zuen jendea: hirietan zein landa-eremuan; indigenak eta haien aliatuak zeuden leku guztietan.

2012tik 2013ra bitarteko neguan, indigenen matxinada piztear zen Turtle Island-en²⁸. Danbor bat taupaka, ahots bat kantuan. Gaur egun Kanada den lurraldean, Idle No More elkar-teko emakume indigenek biribil-dantzen mugimendu masibo bat gidatu zuten –dantza eta kanta tradizionalak dira, ospatzeko zein sendatzeko balio dutenak– merkataritza-gunetan, eta petro-lia zeramaten trenbideak blokatu zituzten. Protesta egin zuten Stephen Harper lehen ministro kontserbadorearen aurka, indigenen eskubideak urratu zituelako, indigenen lurak pribatizatu, eta ingurumenaren babesa murriztu zuelako, erregai fosilaren erauzketa indartze aldera. Idle No More mugimenduaren sortzailetako batek, Cree nazioko Sylvia McAdamek, azpimarratu zuen premiagatik elkartu zirela borroka indigenak eta inguru-menaren aldeko borrokak, izan ere, sistema nagusiaren aurka

28 Literalki, «dortoken uhartea» esan nahi du. AEBko herri indigena batzuek hala deitzen diote Lurrari edo Ipar Amerikari. Sorrera-kontakizun indigena batean du oinarria izen horrek.(Itzultzaileen oharra).

egin ezean, sistema hark jarraituko baitzuen «gizateriari eusteko beharrezkoak diren gauzak –gure lurrak eta urak– deuseztatzen, hurrengo belaunaldien kaltetan».²⁹ Ez ziren orainagatik borrokatzen; etorkizunagatik borrokatzen ziren. Aliantza gero eta handiagoek oihartzuna bildu zuten Kanada eta AEBko mugez gaindi. 2013ko otsailean, klimaren aldeko mugimendu estatubatuarrean inoiz izan den ekintzarik handienetako bat gertatu zen Washington DCn: 40.000 lagunetik gora bildu ziren Etxe Zuriaren kanpoaldean, Keystone XL oliobidearen aurka protesta egiteko; ekintza hartan bildu ziren mugimendu indigenak eta indigenak ez zirenak, harea bituminoso guztiz toxiko eta ezegonkorren erauzketa eta garraioa gerarazteko prest.

Uda hartan, Métis eta Cree nazioetako emakume eta adinekoek bi eguneko martxa bat gidatu zuten, ehunka lagunekin, Albertako harea bituminosoetan barna, urtean behin egiten den Sendatze Ibilaldi batean. Ibilaldiaren sortzaileetako batek, Métis nazioko Jesse Cardinalek, zera adierazi zuen: «parte-hartzaileek [ikusi zituzten] hondakinez beteriko putzuak eta 'berreskuratutako lur-eremu' desertu-itxurakoak, inoiz baso boreala izandakoak, eta gaur egun landarerik hazten ez zutenak».³⁰ Paisaia latz eta erraldoia da, Floridako estatua baino handiagoa. 6 eta 8 itunek babestutako lurretan, harea bituminosoak erauzi dituzte hainbat enpresek –besteak beste, Suncor Energy, ConocoPhillips, ExxonMobil eta Shell Canada–, eta pozoitu egin dituzte ura, lurra, airea, landareak, animaliak eta pertsonak. Toxinekin kutsatu dira ahateak eta altzeak –hainbat komunitate indigenetako elikaduraren oinarri direnak–, eta bortizki murriztu dira basa-baiak eta landareak. Cardinalen esanetan, urrearen sukarrak garaiak honetan, «'kanpotar' asko etorri dira hona, desesperazio ekonomikoak bultzatuta».³¹

Lurrari bezala, indarkeria eta bortxa ezarri diete indigenen gorputzei, zehazki emakumeei, neskei, trans pertsoneri eta bi-espiritu pertsoneri. Baliabideen erauzketak areagotu egiten du

29 Sylvia McAdam (Saysewahum), «Armed with Nothing More than a Song and a Drum: Idle No More», in *The Winter We Danced: Voices from the Past, the Future, and the Idle No More Movement* (Manitoba: ARP, 2014), 67. or.

30 Jesse Cardinal, «The Tar Sands Healing Walk», in *A Line in the Tar Sands: Struggles for Environmental Justice*, editorea: Toban Black et al. (Toronto: Between the Lines eta PM Press, 2014), 131. or.

31 Ibid, 129. or.

heteropatriarkatu hiltzailea; horregatik, inoiz baino premiazkoagoa bihurtu da esku-hartze indigena feministen oinarrian dagoen erresistentzia. Gainera, gizonezko mordo bat etorri da eskualdeko «gizon kanpalekuetara», non bizi baitira petroliolangile migranteak.³² Fort McMurray hirian (Alberta), zeinean harea bituminoso ugari baitago, emakume-kopurua halako bi gizon bizi dira. 1970az geroztik bada mugimendu bat Kanadan barna desagerrarazi eta hil dituzten milaka emakumeen bizitza ohoratzen duena; hala eta guztiz ere, Sâkihitowin Awâsis métis eta bi-espíritu aktibistak azpimarratu du «lotuta [daudela] harea bituminosoen industria eta desagerrarazitako eta eraildako bi-espíritu, emakume eta neska indigenen kopuruaren hazkuntza».³³ Emakume indigenek gidatu zuten harea bituminosoen aurkako mugimendua, eta ez da kasualitatea.

Beste era batera esanda, estatu kolonoek, hala nola Kanadak eta Estatu Batuek, jarraitzen dute lurrian koloniak ezartzen, eta, xede horretarako, emakume eta bi-espíritu indigenak bortxatzen eta akabatzen. 1970etik aurrera, datuak bildu dituzte hainbat komunitatek eta aktibistak: Kanadan, indigenen komunitateko milaka emakume, neska, trans eta bi-espíritu erail eta desagerrarazi dituzte, eta era guztietako indarkeria ezarri diete. Mugimenduak, #MMIWG traola erabiliz (zeinak gogoan hartzen baititu desagerrarazi eta eraildako emakume eta neska indigenak), protestak antolatzen ditu urtero Kanada osoan, otsailaren 14an: desagerrarazi dituzten pertsonen bizitzak ohoratzen dituzte, eta erantzunak eskatzen. Eskaera horri partez heldu zaio, Desagerrarazitako eta Eraildako Emakume Indigenei Buruzko Ikerketa Nazionalaren bidez. Hala eta guztiz ere, Kanadako heriotzaren kultura bere hegoaldeko auzo-estatuarena bezalakoxea da. Estatu Batuetan, Desagerrarazitako eta Eraildako Emakume eta Neska Natiboen Gaineko Kontzientziaren Egun Nazional gisa izendatu dute maiatzaren 5a. 2016an egindako txosten baten arabera, nazio osoan 5.712 emakume indigena jotzen ziren desagertutat, baina adituen eta aktibisten iritziz, askoz gehiago dira.³⁴

32 *Ibid.*, 131. or.

33 Sâkihitowin Awâsis, «Pipelines and Resistance Across Turtle Island», in *A Line in the Tar Sands*, 255. or.

34 Mary Annette Pember, «On National Day of Awareness for Missing and Murdered

Kanadaren oparotasuna ez da soilik eskuratu Lehen Nazioei kalte eginez. Kanadan kokatuta daude munduko meataritza-konpainien erdia baino gehiagoren egoitzak, eta enpresa horiek jabetzak dituzte ehundik gora herrialdetan. Kanadako erauzketa-industriek jomugan dituzte mundu osoko herri indigena eta kolonizatuak, eta enpresa horietako batzuei leporatu zaie giza eskubideak –bereziki, herri indigenen eskubideak– urratzea. Adibidez, 2007aren hasieran, Hudbay Minerals enpresa kanadarra, Fenixeko nikel meatzetan inbertsioak egin dituen, Guatemalako maia komunitateetan gertatutako erailketa, jipoi, sute eta taldekako bortxaketekin lotu zuten³⁵.

AEBn ere azaleratu da erauzketa-industrien eta herri indigenen aurkako indarkeriaren arteko lotura. 2007an, eskistopetrolioaren loraldi bat abiatu zen Bakken arrokaaren inguruan, eta horren ondorioz hasi ziren, ondoren, Dakota Access oliobidea eraikitzen: hala, Ipar Dakota bihurtu zen petrolio gehien ekoizten zuen AEBko bigarren estatua; Texas da lehena. Erauzketa- eta eraikuntza-lan horren puska handiena Fort Berthold erreserban gertatu zen –Mandan, Hidatsa eta Arikara (MHA) nazioaren etxean–, eskualde horretako petrolio-gordailu sakon-sakon batzuen gainean baitago. 2011n, tribuko mahaiburu Tex Hall-ek «subiranotasuna upelen bidez» lortzeko mantrari heldu zion, adieraziz petrolio-aberastasunaren bitartez indar daitezkeela indigenen burujabetza eta autonomia ekonomikoa. Hallek espero zuen ezen, petrolioaren diru-sarrerei esker, bere nazioak izugarri pobrea izateari utziko ziola eta arindu egingo zirela 1950eko hamarkadan gobernu federalak erreserbaren bihotzean eraiki zuen presak –Garrison presa– ekarrirako suntsiketa iraunkorra; presa haren ondorioz, erreserbako biztanleek halabeharrez utzi behar izan zuten Missouri ibaiaren haran emankorra eta ordoki irekietara aldatu, zeintzuk ez baitziren hain produktiboak. Laster asko, MHA bihurtu zen, nazio indiarren artean, aberatsenetako bat; oparotasunarekin batera etorri ziren ustelkeria politikoa eta indarkeria-tasa handiak, bereziki emakumeen eta neskatuen aurka.³⁶

Native Women, Here's What We Don't Know», *Rewire*, 2018ko maiatzak 4, rewire.news.

35 Ashifa Kassam, «Guatemalan Women Take On Canada's Mining Giants Over 'Horrific Human Rights Abuses,'» *The Guardian*, 2017ko abenduak 13, theguardian.com.

36 Ikus Matthew Frank, «Over a Barrel: The Boom and Bust, the Promise and Peril, of the

«Lau urteko neskato bat aurkitu genuen, biluzik eta negarrez; korrika zetorren gizon kanpalekura doan errepideetako batetik behera. Sexu-erasoa egin zioten», oroitu du Grace Bere Zaldi Ugari. Bere Zaldi Ugari polizia tribal gisa jardun zen Fort Bertholden 2013. urtean, eta gisa horretako gertakari mordo bat ikusi zuen: bortxaketak, abusuak eta sexu-trafikoari lotutako kasu lazgarriak. Haren bisita gehienak gizon kanpalekuekin edo bertako langileak jarduten ziren petrolio- eta gas-industriarekin loturik zeuden.³⁷ Herriak azaleratzen ziren gauetik goizera: milaka lagun etxe mugikorretan eta Larrialdiak Kudeatzeko Bulego Federalaren (FEMA) trailerrekin; hotelak, berriz, gainezka zeuden. Herrietako biztanleria bikoiztu eta laukoiztu zen, zama are handiagoa jarriz azpiegitura sozial apurrei, tartean, erreserbako larrialdi-zerbitzuei. Biztanle berrien gehiengoa gizonak ziren, eta hala bildu zen, erreserba hartan, Ipar Amerikako gizonen kontzentrazio handienetako bat –kartzelak alde batera utzita–. Hazi egin ziren larrialdi-zerbitzuetara egindako deiak eta eraso bortitzak; auzipetzeak, aldiz, ez. Petrolio-langile ez-natiboek beren alde baliatzen zuten jurisdikzio federal, estatal eta tribalen mosaiko konplexu bat, eta, egoera horretan, arau tribalen indarrialdiak ia ez zion eragiten natiboak ez zirenei; ondorioz, egileek ihes egin zioten justizia tribalar.³⁸

1953an, armadak eragindako urpetzearen ostean, bere horretan iraun zuten zenbat zelai eta ibai-haran ederrek, baina, Bakkeneko loraldiaz geroztik, fracking-plataforma metalezkoek eta eraikuntza-ekipamendu astunek bete dituzte. Gauez, espaziotik ikus daitezke petrolioaren distirak, konstelaziotan elkartuta, metanoa errez. «Heriotza eragiten ari zaizkigu mila ebakiren bidez», esan zuen Kandi Mossett-ek, Ingurumen Sare Indigenako kide eta MHA nazioko kideak.³⁹ Azaldu zuen ezen, ingurumen toxikoaren ondorioz, minbizia, asma eta arnasketako gaixotasunak hazi egin direla haurren eta adinekoen artean.

Bakken», *Mountain West News*, 2016ko martxoak 14, mountainwestnews.org.

37 Damon Buckley, «Firsthand Account of Man Camp in North Dakota from Local Tribal Cop», *Lakota Country Today*, 2014ko maiatzak 5, lakota.countrysites.com.

38 Emily Arasim eta Osprey Orielle Lake, «Women on the Front Lines Fighting Fracking in the Bakken Oil Shale Formations», *EcoWatch*, 2016ko martxoak 12, ecowatch.com.

39 Kandi Mossett, Amy Goodman-ek egindako elkarrizketan, «We are Sacrifice Zones: Native Leader Says Toxic North Dakota Fracking Fuels Violence Against Women», *Democracy Now!*, 2015eko abenduak 11, democracynow.org.

Mossettek berak minbizia gainditu du. Baina paisaia toxiko hori beste batekin lotuta dago. «Houstoneko auzo aberatsenetan ez zenuke inoiz halakorik ikusiko», dio Yudith Nieto-k. Houstonen bizi da Nieto, Manchester auzoan, non biztanle gehienak latinx baitira; auzo horretan, plastiko errearen eta dieselaren usaina da nagusi, Houstoneko Ontzien Kanaleko petrolio-findegien ondorioz.⁴⁰ Findegi horietan prozesatzen dute Kanadako harea bituminosoetatik eta Bakkeneko eskistotik erauzitako petrolioia.

Oposizio itzelaren despit, 2012an, Obamak azkartu egin zuen KXLren hegoaldeko zangoaren eraikuntza, Cushington-etik (Oklahoma) abiatu eta Golkoko Kostara doana. «Presidente naitzen artean», adierazi zuen, harro, «jarraituko dugu petrolioaren garapena eta azpiegiturak sustatzen, eta amerikarren osasuna eta segurtasuna babesteko moduan egingo dugu, gainera».⁴¹ Baina ez zituzten babestu, esaterako, Nietoren eta Mossetten komunitateak, eta, gero, Dakota Access oliobidea eraikitzean, ez zituzten babestu Standing Rock eta Missouri ibaitik ur freskoa jasotzen duten milioika lagunak ere.

Obamaren adierazpenei erantzunez, martxan jarri zen Harea Bituminosoak Blokatu taldea, harea bituminosoen aurka egiten duena; koalizio horrek islatzen du harea bituminosoen arazoak era askotako komunitateei eragiten diela: lur-jabe kontserbadoreei, anarkista eta ezkertiar berdeei, latinx eta mexikar-amerikarren komunitateei eta AEBko zein Kanadako antolakunde indigenei. Laurogei egunez, ekintza bat antolatu zuten KXLren hegoaldeko bidean, oliobidearen eraikuntza eragotziz: tokiko agintariek eta segurtasun-enpresa pribatuek bortizki zanpatu zuten oposizioa, kolpeka eta taserrak eta pipermin-spraya erabiliz. Etortzeko zegoenaren prelude bat izan zen,⁴² eta, halaber, Naomi Klein aktibista eta idazle kanadarraren hitzetan, «Blockadia» delakoaren parte izan zen: haren arabera, «gatazka-gune...» nazioz gaindiko eta ibiltariak sortu dira, erresistentzia-mugimenduak, aurka egiten diotenak

40 Hemen aipatua: Cherri Foytlin, Yudith Nieto, Kerry Lemon eta Will Wooten, «Gulf Coast Resistance and the Southern Leg of the Keystone XL Pipeline», in *A Line in the Tar Sands*, 184. or.

41 «Transcript of President Obama's remarks in Cushing, Okla., March 22, 2012», *Oklahoman*, 2012ko martxoak 22, newsok.com.

42 Ikus Scott Parkin, «When We Fight, We Fuck Shit Up: Keystone XL and Delegitimizing Fossil Fuels», *CounterPunch*, 2015eko azaroak 9, counterpunch.org.

petrolio gordinaren garapenari, –edozein motakoa izanda ere: «meatzaritzza, frackinga, edo harea-bituminosoak garraiatzeko oliobideak»–; garapen horrek, klima-aldaketa eragiteaz gainera, mehatxu egiten diolako komunitateen bizigarritasunari.⁴³

Baina komunitate batzuk, bereziki Oceti Sakowin jendee-
nak, ez ziren besteekin elkartu. Aliantza historikoak osatu ziren
natiboen eta ez-natiboen artean, baina, hala eta guztiz ere, nazio
txiki bat aparte geratu zen: neure nazioa. TransCanada enpre-
sak eginahalak egin zituen, tentu handiz, erreserbako lurretatik
ez pasatzeko eta, hala, indigenen erresistentzia ez piztarazteko,
salbu eta toki zehatz eta giltzarri batean: Lower Brule erreserban,
zeinak ez baitzuen komunikabideen arretarik erakarri, nahiz eta
rol guztiz garrantzitsua izan.

TransCanadak hirurogeita hamaika miliako transmisio-
lerro elektriko bat eraiki behar zuen, horren bidez konektatzeko
Big Bend presan sortutako hidroelektrizitatea eta Witten hi-
rian (Hego Dakota) dauden hamazazpi oliobide-punpetako bat.
Tentsio altuko kable horrek Lower Brule erreserbako hamasei
akre zeharkatzen zituenez, premiazkoa zen tribuaren baime-
na jasotzea. Xehetasun hark berebiziko garrantzia izan arren,
erraza zen oharkabean pasatzea, TransCanadak ekoizten dituen
eskuliburu teknikoetan galdurik –milaka orrialde dituzte–. Hala-
ber, erraza zen oharkabean pasatzea Lower Brule Sioux tribuko
mahaiburuaren izena, Michael B. Jandreau, zeina «Tribuetako
Kontaktuen» zerrendan agertzen baitzen. Jandreau izan zen,
AEBko historian, tribuko mahaiburu gisa luzeen jardun zen per-
tsona: hiru hamarkadatik gora egon zen postuan; 2015ean hil
zen, artean mahaiburu zela. Azkenengo agintaldian, bere osa-
sunak okerrera egin ahala, orobat murriztu zen jendeak haren
administrazioarekiko zuen fedea.

TransCanada konpainiarekin negoziatzen ari ote zen gal-
detuta, Lower Brule tribuaren kontseiluak ezetz adierazi zuen
hainbat hilabetez, baina, 2014ko martxorako, susmoak baieztatu
ziren: elkarlanean ari ziren konpainia eta kontseilua. 2013ko aza-
roaren 12an, Lower Brule Sioux tribuaren kontseiluaren ebazpen
bat filtratu zen, non kontseiluak aditzera ematen baitzuen Trans-

43 Naomi Klein, *This Changes Everything: Capitalism vs. the Climate* (New York: Simon & Schuster, 2014), 294-295. or.

Canadarekin lan egiteko eta etekinak eskuratzeko planak egiten ari zirela, eta asmoa zutela, orobat, Obama presidenteari eta Joe Biden presidenteordeari jakinarazteko Kanadako petrolio-enpresa babesten zutela.⁴⁴ Lower Bruleren ekintzek zuzenean urratzen zuten Ama Lurraren Akordioaren muina, nahiz eta tribuko buruzagiek akordio hori sinatu zuten 2011ko irailean, Rosebud hirian egindako goi-bilera historiko batean. Sinatzaileen artean zeuden Albertako Lehen Nazioak, gobernu indigenak, itun-kontseiluak, giza eskubideen aldeko GKOak eta hainbat indiar erreserba, hain zuzen, Cheyenne River, Crow Creek, Fort Peck, Pine Ridge, Rosebud, Standing Rock eta Santee. Akordioa sinatzearekin batera, Lower Brule Sioux tribuak aldarrikatu zuen ezen Albertako harea bituminosoaren erauzketa, garraioa eta fintzea deuseztatu nahi zituela, eta, xede horrekin, Obama presidenteari eskatu zion KXL gauzatzeko beharrezkoa zen baimen presidentziala ez emateko.⁴⁵ Orain, Lower Brulek pikete-lerroa gurutzatu zuen, eta traizio egin zion ez bakarrik Oceti Sakowin senideei, ezpada mundu osoan klima-aldaketaren eta erauzketa-industriaren ondorioz suntsitzen ari diren komunitate erresistenteei.

«Traidoreen» etiketak sumindurik, nazio txikiak ekitea erabaki zuen. Lower Bruleko erreserban bizi den Kul Wicasa nazioak, hain zuzen, ezohiko deialdi bat egin eta biltzeko eskatu zien tribuaren buruzagiei, beste erreserba batzuetako antolakundeek eta Lower Brule tribuaren kontseiluko kide guztiei. Owe Aku (Bring Back the Way) elkarteko kideek, elkartasun-erakutsi bat eginenez, bilera kudeatu zuten, Debra Luma Zuri ingurumenaren aldeko aktibista ezaguna buru zutela.⁴⁶ Bestalde, Lower Bruleko hainbat biztanlek, besteak beste, Loretta eta Lewis Grassrope anaia-arreba bikiek, Kevin Wright-ek eta Marlo Langedeau-k

44 Lower Brule Sioux Tribua, «Resolution Authorizing Chairman Jandreau to Sign Letter to President Obama and Secretary John Kerry Stating the Lower Brule Sioux Tribe's Prospective Benefits and Working Relationship with TransCanada Development of a Community Investment Program Between the Lower Brule Sioux Tribe and TransCanada», ebazpen zbk. 14-007, 2013ko azaroak 12.

45 «Mother Earth Accord», *Indigenous Environmental Network*, ienearth.org.

46 2011n, Luma Zuri eta beste ehunka lagun atxilotu zituzten, Etxe Zuriaren aurrean KXLren kontra protestan ari zirela. 2012ko martxoan, berak eta Owe Aku-ko beste kide batek «orga astun» batzuk gerarazi zituzten, KXL eraikitzeo materialak baitzeramatzen Pine Ridge erreserban barrena. Hainbat urtez, Owe Akuk ekintza zuenerako entrenamendu-saioak bideratu zituen, «Mokasinak Zoruan» izenekoak, zeinek berebiziko rola bete baitzuten 2016an, KXLren eta Dakota Access oliobideen aurkako borrokan.

batzar bat antolatu eta beren nazioko kide guztiei eskatu zieten TransCanadarekiko harremana eten zezaten, Ama Lurraren Akordioari euts ziezaioten eta bat egin zezaten KXLren aurkako erresistentzia gero eta zabalagoarekin. Ehunka herritar hurbildu ziren, tartean Pine Ridge eta Rosebud erreserbetako presidenteak. Nolanahi ere, Lower Bruleko kontseiluak boikota egin zion bilkurari.

Standing Rock, Cheyenne River eta Rosebud erreserbetako kideek ostikoka bota zituzten TransCanadako ordezkariak, eta Langdeauk zera esan zuen, begiak malkotan: «Garai batean, harro sentitzen nintzen hemengo nintzelako». Orain, berriz, Lower Bruleko buruzagiek ez zuten herritarren aurrean agertu nahi: «Lotsagarria da jendeak esatea zu 'traidore' bat zarela, nahiz eta ez dakizun zer gertatzen ari den ere».

Hautetsiek ez zuten txintik esaten, bilkuraren antolatzailleek zuzenean ekin zuten. Lewis Grassrope eta Kevin Wright, adibidez, transmisio-lerroa kokatzekoa zen lursaila okupatzen saiatu ziren, baina kanpalekua ezartzeko astirik gabe, hantxe etorri zen Indiar Arazoetarako Bulegoko polizia (tribuaren ikuskaritzarik gabe diharduen polizia-agentzia federala) eta kolpetik gerarazi zituen. Etsitzeko asmorik batere gabe, Grassroperen amaren etxera jo zuten, Medicine Butte-tik hainbat milia iparraldera eginez, betiere erreserbako lurren barruan. «Wiconi Un Tipi» izendatu zuten kanpalekua; gutxi gorabehera, zera esan nahi du: «komunitatean bizi garenean bizi garen modua». Izenak iradokitzen duen eran, kontua ez zen, besterik gabe, oliobidea geraraztea, baizik eta duintasuna itzultzea nazio txiki hari, «Siux ahaztuak» esaten zitzaien haiei.⁴⁷

Grassroperen ustez –garai batean, polizia tribala izan zen–, jende indigena xeheak sortu zuen mugimendua, *ikce wicasa* eta *ikce winyan* deritzonak (hau da, gizon-emakume arruntek, lur-reko jende umilak): haiek aldatu zuten historia, ezen ez «gizon handiek» eta kontseilu tribalek. Jende umila mugitzen denean, orobat mugitzen da lurra. «Ez daukagu ahotsik. Ez daukagu estatistik. Ez daukagu eragiteko ahalmenik. Baina hemen ikusten den moduan», esan zuen Grassropek 2016ko azaroan, esku-kei-

47 Ikus Ernst Schusky, *The Forgotten Sioux: An Ethnohistory of the Lower Brule Reservation* (Chicago, IL: NelsonHall, 1975).

nu batekin bilduz Cannonball eta Missouri ibaiak elkartzen diren tokian ezarritako zazpi tipiak, Oceti Sakowin kanpalekuaren bateratzea gauzatzen zutenak, «mugimenduaren burua gara. 'Mni wiconi' diogu. 'Ituna' diogu».

Wright, lanbidez suhiltzailea, beste belaunaldi bateko Uraren Babeslea izan zen, eta aspalditik egiten dio disidentzia bere gobernuari. 1999an, Wrightek eta Lakota Ikasleen Aliantza-ko kideek, urtebetez okupatu zuten LaFramboise irla, Missouri ibaiaren erdian dagoen natur erreserba bat, zeina beretzat jotzen baitute Oceti Sakowin jendeek. Garai beretsuan, Lower Bruleko kontseiluak «Mitigazio Legea» izeneko legedia federala babesten zuela-eta, Wrightek kontra egin zion erabaki hari: lege haren bidez, Hego Dakotako legegileek proposatu zuten Missouriren ur ertzeko 200.000 akrearen gaineko jurisdikzioa Armadako Ingeniarrien Kidegoari kendu eta Hego Dakota estatuari transferitzea. Missouri ibaiko nazio indigena guztiak azaldu ziren legearen aurka, Cheyenne River eta Lower Brule izan ezik.⁴⁸

2014an Lower Bruleko oposizioa osatu zutenek ondo go-goan zuten estatuko politikarien eta kontseilu tribalaren fede txarra. Wright eta Grassroperen iritziz, gobernantzari zegokion gatazka nagusiaren muina. Erreserben sistemak eta kontseilu tribalak hautatu beharrak zeharo desegin du gobernantza tradizionala. Horren ordez, hauteskunde-sistema bat ezarri da, non irabazle eta galtzaile absolutuak baitaude, eta, horren eraginez, senideak elkarrekin etsaitu dira eta zatiketa politiko latzek erabat hautsi dute familiako senideen unitatea, *tiospaye* deritzona –senideen sare hedatu bat da, erabakiak hartzeko eta zaintza banatzeko guztiz premiazkoa-. Antolakuntza-modu berriak, ostera, zatiketa eta etsaitasuna hauspotu ditu baliabide urriak kudeatzeko garaian, enpresen eta estatuen interesak elikatuz; neokolonialismo-molde bat da.

Zatiketa horien sorburuan, lur-harrapakaritzaren kolonialaren historia zikin bat dago. 1889an, Hego eta Ipar Dakotako estatuaren aurrekari gisa eta zurien koloniak bultzatzeko, Kongresuak ontzat jo zuen «Siux Akordioa» deituriko lege bat, zeinaren bidez bost erreserba bereizitan zatitu baitzuten Great

48 Ikus Michael L. Lawson, *Dammed Indians Revisited: The Continuing Legacy of the Pick-Sloan Plan and the Missouri River Sioux* (Pierre, HD: South Dakota State Historical Society, 2009), 232-233. or.

Sioux erreserba: Cheyenne River, Standing Rock, Pine Ridge, Rosebud eta Lower Brule. Tradizionalisten eta itun-kontseiluen ustez, hura ez zen akordio bat: Laramie Gotorlekuko 1868ko Itunak xedatutakoaren arabera, gizon natibo helduen hiru laurdenek onartu behar zituzten halako erabakiak, baina 1889ko zatiketaren kasuan, ez zen hala izan. Haien esanetan, erreserba modernoak sortu izanak –Indiarren Berrantolaketari buruzko Legearen abaroan sortu ziren, 1934an–, eta gero haiek gobernu bereizi bihurtu izanak, hautsi egin zuen batasun nazionala, eta ahuldu, berriz, usadiozko gobernu eta itunen legea. Gatazka nagusi horrek ekarri zuen honako egoera hau: 1973an, AIM mugimenduko kideek, oglala adinekoek hala eskatuta, Wounded Knee hartu zuten, Pine Ridgeko gobernuaren aurka protesta egiteko, disidentzia kriminalizatzen ari baitziren, Dick Wilson mahaiburu autoritarioa buru zutela. Labur esateko, AIM eta haren aldekoak administrazio kolonialaren aurka zeuden. AIM mugimenduak gobernantza tradizionala bultzatzen zuen arren, ez zuten inoiz lortu Oceti Sakowin jendeak bateratzerik, ez behintzat 2016an Standing Rocken egin zen neurri berean. Hala ere, aurreko belaunaldian AIMen militatu zutenek urratu zuten mugimendu historikoaren bidea. Nazio indigenek Standing Rock eta Oceti Sakowin babestera jo zuten; bi urte lehenago, ordea, Lower Brulen nahasmendua nagusitu zen, jende xehearen kontseiluek *statu quoa* eraisteko deia egitearekin batera.

«Lower Bruleko krisi konstituzionala», 2014an hasi eta 2016ra arte iraun zuena, ez zen izan botere-hartze armatu bat, 1973an Wounded Kneen gertatu zena bezalakoa. Hala eta guztiz ere, ordena zaharraren zaleek duda-izpirik gabe esan zuten «gobernu tribala eraisteko saiakera» bat izan zela.⁴⁹ 2014ko udazkenean, mugimendu sozial erreforma-zale bat osatu zen Mni Wiconi leloaren pean, eta KXLren aurkako hiru hautagai aukeratu zituzten sei pertsonak osatzen duten kontseilurako: Sonny Zeigle eta Desiree LaRoche kontseilu-kide gisa, eta Kevin Wright mahaiburu-ordezko gisa. Mahaiburuaren postuan, Michael Jandreau ozta-ozta gailendu zitzaion Lewis Grassroperi. Kontseiluko kide berriek berehala heldu zioten erreforma eta gardentasuna

49 Ikus «Timeline of Events», Lower Brule Sioux Tribuaren webgune ofiziala, lowerbrulesiouxtribe.com.

sustatzeko lanari, baina parez pare aurkitu zuten oposizio zorrotz bat.

Azaroan, kontseiluaren batzar batean, giroa berotu zen, eta Wrightek eskatu zuenean Jandreaux postua utz zezala, besteak beste, ustelkeria eta arau-hauste finantzarioak leporatuta, ia-ia ukabilka hasi ziren bi aldeetako kideak. Abenduan, oposizioako kontseilu-kideak, Jandreaux eta haren kideak saihestu nahian, kontseilu osoa berritzen saiatu ziren. Jira eta buelta horien ondorioz, auzibideak eta kontra-auzibideak abiatu ziren, eta eguneroko ekintzak eten. 2015eko apirilean, Jandreaux hil, eta Grassrope izendatu zuten haren oinordeko gisa, baina kontseiluko beste kideek haren izendapenaren kontra egin zuten, ez zuen inoiz postua osoki hartu. Maiatzean, martxan zen kaos politikoari erantzunez, Kul Wicasa nazioaren *tiospaye* tradizio-naletako buruzagien sinadurak bildu zituen Kul Wicasa Ospiye antolakundeak, aldarrikatuz «autogobernua» egiteko eskubidea zutela eta herritarrak zirela «Lower Brule Sioux tribuaren existentziaren sorburu bakarra»⁵⁰, ezen ez Indiarren Berrantolaketa buruzko Legearen arabera osatutako kontseilua. Mugimendu horrek areago nabarmendu zuen martxan zen botere-borroka biziatuaren larritasuna, eta orobat azpimarratu zuen bazela desira sakon-sakon bat, gobernu arduradun bat osatzeko, lakota balioak oinarritzat hartuz –besteak beste, senidetza–.

Jandreaux hil ostean, Wrightek eskatu zuen, mugimendu sozialak babestuta, TransCanada enpresa atera zedila 1868ko Itunak babestutako lurretatik. «Gure ikuspegitik, [TransCanada enpresakoak] ‘gizon gaiztoak’ dira, Estatu Batuekin ditugun itunetan zehazten den zentzuan», adierazi zuen Wrightek. Ituneko artikulua bat aipatu zuen, zeinaren bidez natiboen gobernuak baimena baitu «zurien artean dauden gizon gaiztoak» kanporatzeko, «indiarren pertsonaren edo jabetzaren gainean edozein eratako gaitzik eragiten» badute. Ekintza ausarta izan zen: artean epaitegietan ebatzi gabe zegoen ea itunpeko lurretatik kanpora zitekeen enpresa bat –AEBko legearen arabera, enpresak pertsonen mailakoak dira–. Baina Wrightentzat eta bere jarraitzaileentzat, KXLek zekarren mehatxua hain zen handia, ezen

50 Kul Wicasa Ospiye, «Declaration,' 2015eko maiatzak 11, hemen eskuragarri: <docs.wixstatic.com/ugd/5ecd07_d78df4fe77584b9bab995a40d9d9716f.pdf>.

merezi baitzuen arriskua hartzea. «Lur hau da gure ondasun guztia», azaldu zuen Wrightek, «eta hurrengo belaunaldientzat gorde behar dugu». ⁵¹ Edonola ere, ekintzak ez zuen aurrera egin: kontseilua ez zen ados jarri; egia esan, ez ziren bildu.

Lower Bruleko oposizioa, mugimendu sozialaren babesa bazuen ere, ez zen gai izan, boterean izan zen bi urte eskasean, erreserbako baldintzak errotik hobetzeko ezta Indiarren Berrantolaketari buruzko Legean ezartzen zen kontseiluaren egitura nabarmen aldatzeko. Baina beren aldarrikapenak oihartzun sakona izan zuen. 2015eko abenduan, Obamak ez zuen baimenik eman KXLren ipar zangoa egiteko –presidentearen oniritzia ezinbestekoa zen–; horren ostean, Lower Bruleko kontseilu berriak bestelako bide bati ekin zion. Hasteko, ebazpen bat onartu zuen, babesa emanez Dakota Access oliobidearen aurka Standing Rocken egiten ari ziren borrokari. Ondoren, 2016ko abenduan, aurrea hartu zioten Donald Trumpen agintaldiari, espero baitzen gobernu horrek ontzat emango zuela, berriz ere, KXLren ipar zangoaren eraikuntza, eta beste ebazpen bat onartu zuten, kontra eginez KXL higiaraziko zuen Big Bend-Witten transmisio-lerroari; ebazpen horretan aldarrikatu zuten oliobideen garapenaren aurka zeudela eta kontra egingo ziotela harekin lotutako azpiegituren eraikuntzari, edozein izanda ere ⁵². Garaipen handiak izan ziren biak ala biak, eta ez ziren gertatuko ez balitz KXLren aurkako mugimendu sozial zalapartatsurik piztu; mugimendu bat zeinak DAPLren aurkako borroka elikatu baitzuen.

2016ko azaroan, Oceti Sakowin kanpalekuan, bere tipian eserita zegoen Lewis Grassrope. Denera zazpi tipi ziren, eta bufalo adar bat itxuratzen zuten, erdian su handi bat zutela. Kanpalekuak zirkulu-erdi bat osatzen zuen, Mni Soseri eta Wiyohiyapata-ri («eguzkia altxatzen den lekua») begiratzeko moduan. Kanpalekuaren adarra, Missouri eta Cannonball ibaien elkargunean kokatua, futbol-zelai baten erdia edo izango zen, eta inguruan zituen nazio indigenen kanpalekuak –hala nola Ihanktonwan, Oglala eta Kul Wicasa kanpalekuak– zein erakundeen kanpalekuak –besteak beste Herri Indigenen Boterearen

51 Hemen aipatua: «Lower Brule Sioux Tribe Rejects Keystone XL, Calls for Immediate Removal of TransCanada from Treaty Lands», Prentsa Argitalpena, *Lakota Voice*, 2015eko apirilak 29.

52 Ikus «DAPL», Lower Brule Sioux Tribuaren webgune ofiziala.

Proiektua eta Gerlari Gorria-. Piztuta zeuden zazpi nazioen zazpi kontseilu-suak –Mdewakantonwan, Sissintonwan, Wahpetonwan, Wahpekute, Ihanktonwan, Ihanktonwanna eta Tintonwan–, eta nazioak bat egin zuen. Amets bat zen, egia bihurtuta. Zeruertzean, muino baten gailurrean, polizien itzal ilunak ikusten ziren, istiluen aurkako jantzia eta kaskoak soinean; denborapasan zebiltzan, foko handien azpian, alanbre-hesien atzean. Apenas aditzen ziren kanpalekua etenik gabe zelatatzen zuen dronearen jira-birak; haurren jolasek eta suaren inguruan bildutakoen barre ozenek estaltzen zituzten. Neska-mutilak kantuan eta dantzan ari ziren, biribilean, eta lasterketak egiten zituzten ibaiertzaren luzean. Gizon-emakumeak tripakiak garbitzen eta mozten ari ziren, *menudo* zopa mexikarra egiteko. Wiconi Un Tipi deitzen zen Lower Bruleren kanpaleku nazionala: abuztuan, Standing Rockek deialdia egin eta gero, hura izan zen Oceti Sakowinen ezarri zen lehen kanpalekuetako bat.

«Jende mordo batek ez zuen sinesten, ez zuten federik», esan zuen Grassropek, berak eta bere nazioak hainbat urtez aurre egin behar izandako zailtasunetan pentsatuz. Tipitik kanpora begiratu zuen, haren inguruan zebilen bizitzari, amasari, otoitzari eta kantuei. «XXL gertatu zenean, sinesmena itzuli zen. DAPL gertatu zenean, sinesmena itzuli zen».

Udazken hasierako goiz batean, 2014ko irailaren 30ean, iritsi ziren Dakota Access oliobidearen mezulariak Fort Yatesera, Standing Rock tribuaren egoitza nagusira. Bilera berezi bat antolatu zuten hiru alderdiren artean: Standing Rock Sioux tribuaren kontseilua, DAPL eta Energy Transfer Partners (ETP, proiektua diruz hornitzen duen Texaseko enpresa).

Hori baino lehen, 2014an berean, oliobidearen bidea aldatu zuen Armadako Ingeniariei Kidegoak: hasiera batean, hodia ibaiaren goialdetik zihoan, Ipar Dakotako hiriburu Bismarcketik igaroz, non gehienak zuriak baitira; berbideraketaren ondorioz, baina, Ipar Dakotako eskualde pobreena zeharkatuko zuen: Siux Eskualdea, Standing Rock erreserba. Armadako Ingeniariei Kidegoak, ingurumenari buruzko analisi bat egin, eta ondorioztatu zuen Bismarckeko bideak «ondorio larriko eremu» bat zeharkatzen zuela: horrek esan nahi zuen, isuri bat gertatuz gero, efektu

kaltegarriak izango zituela.⁵³ Ez zuten behin ere aipatu Standing Rock: handik milia batera isuri bat gertatzeak ez lioke ondoriorik ekarriko armadari. Gainera, bide berriari esker, denbora aurreztu, eraikuntza-kostuak txikiagotu, eta ez zuten buruko minik izango estatuko hiriburuko kolono zurien edateko ura kutsatzeagatik.

Fort Yatesen irailean izandako bileraren grabaketa batean –tribuak argitaratu zuen–, David Archambault II. mahaiburuak, zera dio, xuxurla batean, mikrofonotik urruti: «Nola deitzen da konpainia?». Ondoren, zera galdetzen du: «Dakota Access oliobidea, hemen al daude?».⁵⁴ Erantzunik ez. DAPL berandu zetorren. Ez zen harrizkeoa. Kontinentean barna erresistentzia-mugimenduak abiatuak ziren harea bituminosoen eta KXLren aurka, beraz DAPLe azken uneko eranskin bat zirudien: berandu zetorren, inork atzeman gabe. Ordurako, oliobidea baimentzeko prozesua baino urtebete lehenago, oso jende gutxi zuen DAPL-en berririk. Baina, etorri bazetorrela ikusi zutenek bazekiten arriskutsua zela.

Azkenean iritsi ziren DAPLeko ordezkariak; Standing Rocken iritzia adierazi zuen Archambaultek: «Oliobidearen aurka gaude». 2012ko ebazpen bat aipatu zuen: horren arabera, debeatuta dago petrolio-oliobideak eraikitzea Laramie Gotorlekuko 1851ko eta 1868ko Itunek babestutako mugen barruan. Historian, estatuetako gobernuek eta gobernu federalek ezikusia egin dieten arren, Standing Rockek itunetan bildutako jatorrizko mugak aitortu eta errespetatu ditu. DAPLeko ordezkariak –Tammy Ibach, Chuck Frey eta Joe Malucci–, beren txostenean, aipatu zuten oliobidea erreserbaren mugatik milia bat iparrera pasatzen zela, baina ez zuten ezer esan itunpeko lurrez. Bestalde, ez zioten Standing Rocki galdetu, hasteko eta behin, ea oliobidea nahi zuen. DAPLe «kontsulta» bat egin nahi zuen, baina ez zitzaion axola baimena jasotzen zuen edo ez.

«Ez da galdera bat, plana jada eginda baitago», gaztigatu zien Randy White kontseilu-kideak DAPLeko ordezkariari. «Eta, nire ustez, hori oso gaizki dago».

53 Ikus Amy Dalrymple, «Pipeline Route Plan First Called for Crossing North of Bismarck», *Bismarck Tribune*, 2016ko abuztuak 18, bismarcktribune.com.

54 Besterik adierazi ezean, jarraian aipatutako aipuak eta esaldiak hemengo audio honetatik hartu dira: «Sept 30th DAPL Meeting with SRST»; 2014ko irailean grabatua, YouTubeko bideoa, 1:08:17, Standing Rock Sioux Tribuak kargatua, 2016ko abenduak 6, youtube.com.

Bat etorri zen Wasté Win Young, Standing Rockeko Kontserbazio Historiko Tribaleko langilea. Konpainiaren lehen txostenak irakurri ostean, bereziki kezkarria iruditu zitzaion armadak asmoa zuela proiektua ahalik eta azkarren egiteko. (DAPLen bidea planifikatzeko orduan, armadak zeresan handia izan zuen; hala ere, haren ordezkariak ez ziren agertu irailaren 30eko bilerara). KXL proiektuak, nazioarteko muga bat zeharkatzen zuenez, premiazkoak zituen estatu sailaren berrikuspena eta presidentearen oniritzia; baina DAPL proiektu nazional bat zen. Ondorioz, Armadako Ingeniarien Kidegoak, oliobidea ebaluatzeko, 12 Baimen Nazionala delakoa hartu zuen kontuan: bere horretan erreparatu zion eraikuntza-guneari, aintzat hartu gabe proiektuak nolako ondorio negatiboak izango zituen, osoki, herrien, ekosistemen edo klimaren gainean.

Youngek azpimarratu zuen eran, 12 Baimenak eskainitako lasterbideak baliatuz, DAPL proiektuak iskin egin zion Ur Garbiaren Legeak eta Ingurumen Politika Nazionalaren Legeak xedatzen dituzten ingurumen-azterketei. Era berean, proiektuak ez zuen piztu KXLek eragin zuen gisako arreta publikorik, eta proiektuak kaltetutako komunitateek zailtasun nabarmenak izan zituzten mobilizatzeko eta beren buruak babestu eta defenditzeko.

Gainera, DAPLek eremu arkeologiko asko zeharkatzen zituen -380 inguru-, adibidez, ehorzketa-guneak, eta horietako 60, gutxienez, Cannonball eta Missouri ibaiak elkartzen diren lekuan zeuden. Ehorzlekuak ez dira erreserbako lurtzat hartzen, hala ere, Kontserbazio Historiko Nazionalaren Legeko 106. Sekzioak xedatzen duenez, «antzinako lur» gisa hartzen dira, esanahi kulturalerako tokiak biltzen dituztelako. Gorabeherarik sortzen bada, edozein izanda ere, Armadako Ingeniarien Kidegoak Standing Rockera jo behar du, ezeri ekin aurretik. Youngen arabera, Armadako Ingeniarien Kidegoak ez du halakorik egin iraganean. Oliobideak ibaia zeharkatzen zuen tokiak esanahi historiko eta kultural handia du. DAPLek Missouri ibaia zeharkatzen duen lekuan -Many Horses Heads Bottom [Hainbat Zaldi Buruz Behera]-, dakotek eskapo egin zioten Sibley eta Sully jeneralen «mendeku-zutabeei», 1863an. 1862an, Dakoten Altxamendua gertatu ondoren, Estatu Batuek zigortu egin zituzten gerra horretatik bizirik atera zirenak: Whitestone Muinoko sarraskian, tiroka hil

zituzten bufalo-ehizan zebiltzan 400 lagunetik gora, Lakota eta Dakota herrietakoak. Kolonoek ia ahaztua dute sarraski hura, baina Sand Creek eta Wounded Knee bezain izugarria izan zen. Soldaduak ibaian gora eta behera ibili ziren harraparitzan, bizirik zeudenak akabatuz edo preso hartuz. Hainbat amak, iluntasunaren babespean, beren haurtxoen sudurrak estali zituzten, haien marruak entzun ez zitezen, eta igerian joan ziren, ihesi, ibaiaren beste aldeko segurtasunera.

«Bart zalantzan ibili nintzen kontu honekin», esan zuen Youngek bilkuran. «Guretzat garrantzitsua eta sakratua den gauza baten berri eman nahi al diogu oliobidearen konpainiari?». Bilera hartako batzuk genozidiotik bizirik ateratakoen oinordekoak ziren, eta aurrez aurre izango zituzten bi urte beranduago kaos- eta bortizkeria-olatu berri bat ekarriko zuten pertsonak.

Ura, hori zen Avis Arrano Txiki kontseilu-kidearen kezka. Hala zioen: «Petrolio-hodi guztiek izaten dituzte isuriak; kutsatu egingo dituzte guk erabiltzen dugun ura eta etorkizuneko belau-naldiek erabiliko dutena». Haren beldurrek bazuten oinarririk: 2010 eta 2016 bitartean, Sunoco Logistics enpresak, DAPL kudeatzen zuenak, 200 isuritik gora izan zituen bere hodiedan,⁵⁵ are, jardueraren lehen seihilekoan, DAPLe bost isuri izan zituen.⁵⁶ Arrano Txiki, halaber, ura kontrolatzeko batzordeko kidea zen Standing Rocken; batzorde horrek, bezperan DAPLen bidea aztertuta, ebazpen bat onartu zuen, oliobideari kontra egiten ziona, argudiatuz arriskuan jartzen zuela erreserbako edateko uraren iturria, Missouri ibaia. Ekintza horrek bat egiten zuen Standing Rockeko konstituzioarekin, zeina ura gogoan hartuta idatzi baitzen. Konstituzioko 1. artikulua bere egiten du «Erreserbako edozein eremutan dabilzan lehentasunezko bide, kanal, ur-korronte eta erreka ororen»⁵⁷ gaineko jurisdikzioa. Hortaz, Standing Rockeko edateko urari mehatxu eginez gero, mehatxu egiten zitzaien, halaber, erreserbaren burujabetzari.

«Ura da gure jendearentzat daukagun azken ondasuna, ondasun bakarra, eta ura bizitza da: Mni Wiconi», azpimarra-

55 Liz Hampton, «Sunoco, Behind Protested Dakota Pipeline, Tops US Crude Spill Charts», *Reuters*, 2016ko irailak 23, reuters.com.

56 Alleen Brown, «Five Spills, Six Months in Operation: Dakota Access Track Record Highlights Unavoidable Reality-Pipelines Leak», *Intercept*, 2018ko urtarrilak 8, theintercept.com.

57 Standing Rock Sioux Tribuaren Konstituzioa, hemen eskuragarri: indianaffairs.nd.gov.

tu zuen Phyllis Youngek DAPLeke ordezkarien aurrean. Young, Wasté Win Youngen ama, kontseilu-kidea zen, eta AIM mugimenduan ibili zen luzaroan. Adineko politikariak esan zuen bere jaioterria «sakrifizio-eremu nazionala» zela. Urruneko hirietako –Minneapolis eta Chicago, adibidez– zentral elektrikoetan hidroelektrizitatea sortzeko xedez, Armadako Ingeiniariaren Kidegoak urpetu egin zuen bere etxea, negu gogor batean. Hona Youngen hitzak: «Badakit zer den etxegabea izatea. Badakit zer den goseak egotea oparotasunaren lur ederrotan, non bizi izan baitzen munduko ibai-ibilgu aberatsena».

Azkenean, Armadako Ingeiniariaren Kidegoak izan zuen azken hitza DAPLen bidea zehazteko, eta presengatik izan zen hori –5. atalean deskribatuko ditut presa horiek–. 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, Armadako Ingeiniariaren Kidegoak aldarrikatu zuen berea zela, eta ez beste inorena, ibaiaren eta horren ertzaren gaineko jurisdikzioa, eta, hala, lurak urpetu zituzten: indigenen jurisdikzioa xurgatu zuten, jendea bere etxetik bota, jende horren elikadura-iturria –ibaia– suntsitu eta, bidenabar, erreserbaren azalera murriztu zuten. Armadako Ingeiniariaren Kidegoa, ekintza horiek egin aurretik, ez zen inoiz ahalegindu Missouri ibaiko nazio indigenen baimena lortzen, eta Kongresuak ere ez zion baimenik eman indigenek ibaiaren gainean zuten jurisdikzioa deuseztatzeko.⁵⁸ Oraingoan beste hainbeste gertatu zen: Armadako Ingeiniariaren Kidegoak indigenen oniritziarik gabe bideratu zuen Dakota Access oliobidea indigenen etxeetan barna.

«Ez gara jende ergela. Ez gara jende ezjakina», kargu hartu zien Youngek DAPLeke bozeramaileei. «Ez gutxietsi Standing Rockeko jendea. Badakigu zer ari den gertatzen, badakigu zer den gurea, eta badakigu nola gorde hori gure seme-alaba eta bilobentzat».

Bere haragitan bizitako historia bat zen; belaunaldi belaunaldi pasatako borroka bat, bere seme-alabek oinordean jasotakoa. 1974an, Phyllis Youngek eta Standing Rockeko kontseiluko ordezkariak, tartean zela David Archambault Sr. (David Archambault II.aren aita), estreinako aldiz antolatu zuten Indiar

58 Ikus Jeffrey Ostler eta Nick Estes, «The Supreme Law of the Land: Standing Rock and the Dakota Access Pipeline», *Indian Country Today*, 2017ko urtarrilak 16, indiancountrymedianetwork.com.

Itunen Nazioarteko Kontseilua, Standing Rocken (xehetasunak, 6. atalean). Standing Rockek AIMri agindu zion Nazio Batuen Erakundera jotzeko eta eskura zegoen lege-baliabide oro erabiltzeko, indarrean sar zedin 1868ko Ituna. Bilkura historiko hartan, mundu osoko laurogeita hemeretzi nazio indigenatako 5.000 lagun bildu ziren; bilera hartan abiatutako mugimenduak, gerora, indigenen eskubideen mugarri bat ekarriko zuen: Herri Indigenen Eskubideen Aldarrikapena, NBek 2007an onartu zuena. Standing Rockeko gobernuak harreman onak zituen –beste gobernu tribal batzuek ez bezala– itun-kontseiluekin, herri mugimenduekin eta baita aktibistekin ere, adibidez, AIMrekin. Bateko eta beste eragileen artean etsaitasunak pizten zirenean, hala nola gertatu zen Lower Brulen 2014an, Standing Rock gai izaten zen bi alderdien artean zubi-lanak egiteko, eta, horregatik, ez zen beste gobernu tribalak bezalakoa. Horrek berebiziko garrantzia izan zuen #NoDAPL mugimenduaren sorreran, kontseilu tribalak eta mugimendu sozial indigenak uztartuz eratu baitzen.

Youngek zera esan zien DAPLeko ordezkariiei: «Zuentzat, erraza da hona etortzea eta esatea, 'Hau [oliobide bat] egin nahi dugu. Zuen lagunak izan nahi dugu'». Haren ustez, iraingarria zen oliobideari Dakota Access deitzea, eta estatuari berari Ipar Dakota deitzea, hots, iruzur egin nahi zioten jendearen izenez, eta, gainera, haiei buruz piperrik jakin gabe. «Ipar Dakota?», galdetu zuen. «Miye ma Dakota! Ni naiz dakota! Dakota hitzak 'laguna' eta 'aliatua' esan nahi du». Indigenen lurretan baimenik gabe sartu nahi zuteneko gero, oliobidea eraiki nahi zuen konpainia eta estatua ez ziren «lagunen» edo «aliatuen» eran portatu. Kontrakoa baizik.

«Hau dakota lurraldea da. Hau itunpeko lurraldea da. Hau da sartuko ez zinetela agindu zenuten nire lurraldea», segitu zuen, gogora ekarri nahian itunak ez direla «indiarren arazo» bat; denek kontua dira. Kolonoen gobernuak eta indigenen nazioek sinatu zituzten itunok, beraz neurri berean dira ez-natiboen ardura. Itunak baino are zaharragoa den agiri batek, AEBko Konstituzioak, «herrialdeko lege goren» gisa jotzen ditu itunak.

Youngek ohartarazi zuen ezen, DAPLe ez baldin bazituen errespetatzen Standing Rocken burujabetza eta Oceti Sakowin jendeen antzinako lurraldea, itun bidez babestua zegoena, orduan, zera gertatuko zela: «Gure gerlari onenak jarriko ditugu

lehen lerroan. Gu gara abangoardia. Gu gara Hunkpapa Lakota, hau da, 'bufaloaren adarra'. Horixe gara gu. Gure nazioaren babesleak: Oceti Sakowin nazioak, Zazpi Kontseiluen Suak. *Jakizue nor garen*». Azken mezu bat eman zuen: «Badakigu zer den gure aitona-amonak aipatzen zuten mihi bikoitza. Badakigu zer den inor ahoaren bi aldetatik mintzatzea, irribarrea alde bakarrean duela. Ezagutzen ditugu munduaren trikimailuak [kolonizatzaileen mundua]. Gure gazteek menderatu dituzte. Nik menderatu dut zuen hizkuntza. Elokuentziaz mintzatu naiteke ingelesez. Amonak irakatsi zidan. Baina orobat ezagutzen dut zuen psike genetikoa. Eta, era berean, nire herriari egin zaizkion kalteen memoria kolektiboaren jabe naiz. Eta ez dut inoiz onartuko oliobide bat nire etxean barna pasa dadin. Mitakuyé Oyasin!».

Badirudi DAPLeK ahaztu egin dituela egun hartako lezioak. «Nahiago nuke, benetan, Standing Rock Siouxek lehenago parte hartu izan balu negoziazioan», adierazi zuen Kelcy Warrenek, Texaseko petrolio-gizon milioidun eta ETP-ko zuzendari exekutiboak, 2016ko azaroan, *Wall Street Journal* egunkarian. «Ibilbidea alda genezakeen. Egin zitekeen, baina beranduegi da»⁵⁹. Warrenek, nonbait, ez zuen uste 2014ko bilera «negotiazioaren» parte zenik, eta, bestalde, ez zuen onartu Standing Rocken ezezko biribila. Nolanahi ere, 2016an epaile federal bati bidalitako adierazpen batean, Joey Mahmoud DAPLeko presidente-ordeak berretsi zuen bere konpainiak argi eta garbi jaso zuela Standing Rocken mezua. Onartu zuen ezen konpainiari esan ziotela «proiektua gerarazteko» eta Oceti Sakowin jendeen lurraldea saihesteko. Mahmoudentzat, ordea, «ezinezkoa [zen] eskakizun horretara moldatzea».⁶⁰ Natiboen baliabide kulturalak arduratzen ziren zenbait langilek esanahi kultural handiko guneak identifikatu zituzten petrolio-hodiaren ibilbidean, hala nola ehorzlekuak eta toki sakratuak, eta Mahmoudek eta haren mendeko langileek agertutako mespretxu agerikoaren harira, 2016ko martxoan, ohartarazpen bat helarazi zuen Armadako Ingeniariei Kidegoko arkeologo batek, mezu elektronikoko bidez: «Beharrezkoa da Joeyri [Mahmoud] zera esatea: beste iruzkin

59 Hemen aipatua: Kris Maher, «Dakota Pipeline's Builder Says Obstacles Will Disappear Under Donald Trump», *The Wall Street Journal*, 2016ko azaroak 16, wsj.com.

60 Hemen aipatua: *Standing Rock Sioux Tribe v. US Army Corps of Engineers*, 16-cv-1534, D.E. 22-1 (2016), earthjustice.org.

ARRAZISTA bat egiten badu, pikutara joango da proiektu osoa». ⁶¹ Ez zen «kulturen arteko talka» bat, edo ezberdintzat jotzen zituztenekiko «sentikortasun kulturalik» ez agertzea; kolonialismoa zen, bere gailurrean: jokoan zeuden herri baten bizibidea bermatzen zuen lurra eta ura.

Halaber, #NoDAPL mugimenduan, jokoan zegoen lurraren esanahia. Oceti Sakowin jendeentzat, herriaren historia da lurra: lurrak gordetzen ditu, sehaska batek bezala, arbasoen hezurak. Tasunka Witko Zaldi Zorok esan zuen moduan: «Nire hildakoak lurperatuta dauden lurra, hori da nire lurraldea». Edonola ere, beste batzuen iritziz, lurra goldearekin bezatu eta menderatu behar da, edo zulatu bestela, etekinak eskuratzeko. Herri natiboek garapen kapitalista oztopatzen dutenez, haien gorputzak kendu behar dira –bai zoruaren azpitik bai zoruaren gainetik–, eta lurrarekin duten harreman zilegia ezabatu.

Hori jakinik, Standing Rockek, legearen bideari heldu zion oliobidea gerarazteko, eta, 2016eko uztailaren 27an, salaketa bat jarri zuen epaitegi federalean, Armadako Ingeniariaren Kidegoaren aurka, erakunde horrek bezperan onartu baitzuen DAPLen bidea Missouri ibaitik eta esanahi kulturalerako tokietatik pasa zedila. 2016ko abuztuaren bukaeran, oliobidearen eraikuntza 1806 autopistarrantz hurbildu ahala, Standing Rock desesperatzen hasi zen. Lege-mekanismoek ez zekarten emaitzarik; neurri gogorra-goak hartu behar ziren. Zetorrenari igarrita, DAPLek auzibide bat abiatu zuen abuztuaren 15ean, epaitegiak errekerimenduak ezar zitzan zenbait pertsonaren aurka –tartean, Archambault mahai-buruaren aurka–, oliobidearen eraikuntza eragozten ari zirelako (auzibidea bertan behera geratu zen irailaren 19an). Lau egun beranduago, Jack Dalrymple gobernariak, Yale unibertsitatean ikasitako leinu baten ondorengoa bera, larrialdi-egoera ezarri zuen eta laguntza eskatu zion gobernu federalari, DAPLi eta «diren erakunde gutxiei». ⁶²

«Beharbada hemen bakarrik betearazten dituzte estatuko eta eskualdeko gobernuak enpresen interesak armen bidez;

61 Ikus Ardalan Raghian, «Newly Released Documents Show Dakota Access Pipeline Is Discriminatory Against Indigenous Peoples», *Truthout*, 2018ko urtarrilak 22, truthout.org.

62 Associated Press, «North Dakota Officials Borrow \$4M, Slam Feds on Protest Cost», *Argus Leader*, 2016ko azaroak 1, argusleader.com.

hemen, Ipar Dakotan, toki batean non hautetsiak jan-edanean aritzen baitira petrolioaren handikiekin, toki batean non Trumpen kanpainako aholkularia izan baitzen estatuko gobernari Jack Dalrymple» adierazi zuen Archambaultek, poliziak atxilotu baino batzuk lehenago, *New York Times*eko iritziorrialdean. «Azken asteotan, estatuak nire erreserba militarizatu du: errepideak blokatu dituzte, matrikulak kontrolatu, hegazkinak behetik hegaka jarri eta indiarrek susmagarritzat hartu dituzte, soilik indiarrek izateagatik».⁶³

Standing Rock, Tatanka Iyota Zezen Eseria handiaren nazioa, aurre egiten ari zitzaion botere handi guztiei: eskualdekoei, estatukoei, herrialdekoei eta enpresei. Bertako jendea –Ipar Amerikako pobreenetakoa– aurre egiten ari zitzaion munduko boteretsuenek hautatutako polizia eta segurtasun pribatuko legio gero eta zabalago bati, arma xumeekin egin ere: salbia, amuletoak, *canupak* eta arbasoen espiritua eskuan hartuta.

Abuztuaren 26an, ostiralarekin, Dave Archambault II mahaiburuak eguna libre hartzeko esan zien langile tribalei. DAPLe autobidea zeharkatu behar zuen lekura joan eta bat egin zuen oititz-ekintza batekin; eraikuntza-gune baten blokeoan parte hartu zuen bi egunez, eta poliziak atxilo hartu zuen, haien lerroa gurutzatzen saiatu zelako beste hemezortzi pertsonarekin batera. Tribuaren baliabideen kudeaketa-adituek, besteak beste, Tim Mentz Sr.-ek, Standing Rockeko herritar adineko batek, hogeita zazpi ehorzleku topatu zituen autobidearen mendebaldean; lur-eremu pribatuan zeuden, petrolio-hodiaren ibilbidean berean. Deskubrimendu horiek sekulako garrantzia historikoa zuten, bestelako egoera batean, historialari eta ikertzaile tribalek zer aztertua izango zuten. Mentzen arabera, besteak beste, «Ipar Dakotan aspaldian egin den aurkikuntza arkeologiko garrantzitsuenetako bat»⁶⁴ egin zuten –harkaitzezko egitura bat, Iyokaptan Tanka («Ur-zozo handia») izeneko dakota konstelazioaren erara antolatua–. Irailaren 2an, ostiralarekin, aurkikuntzaren berri eman zion epaitegi federal bati, eta eremua berehala babesteko eskatu. Mentzen eta beste hainbat ustez, biharamunean gertatu zena ez zen kasualitatea izan.

63 Dave Archambault II, «Taking a Stand at Standing Rock», *New York Times*, 2016ko abuztuak 24, nytimes.com.

64 Hemen aipatua: *Standing Rock Sioux Tribe v. US Army Corps of Engineers*.

2016ko irailaren 3an, goizeko lehen orduetan, odola isuri zen lur sakratuen gaineko borrokan. Caterpillar markako hondeatzaileak azkar mugitzen ziren lautadan barrena. Gunea inguratuta zeukaten borroka-txakurren armada txiki batek eta haren zaintzaileek, DAPLen manupeko segurtasun-enpresa pribatuek eta, zeruan, helikoptero ozen batek; borrokarako prest zeuden denak. Iraileko lehen astelehenaren aurreko asteburua zen, hau da, Lanaren Egunaren aurreko asteburua: jaiegun horren bidez omentzen dira zortzi orduko laneguna lortzeko xedez piketeak eta protestak antolatu (eta jipoiak eta tiroak jaso) zituzten langile pobreak. 2016ko jai-asteburu hartan, ordea, petrolio-hodiko langile sindikalizatuak ari ziren beharrean, indigenen piketearen aurrean. Egun hartan protestara agertu ziren indigenak ere *lanean* ari ziren, beren lurrak eta urak babesten: Lurraren Defendatzaileak eta Uraren Babesleak ziren.⁶⁵ Piketeak hausten dituzten langileei «eskirol» esaten zaie, langileen arteko elkartasuna suntsitzen dutelako. Petrolio-hodiko langileak lanera joan zirenean, ikusi zuten Uraren Babesleek martxa bat antolatu zutela eta 1806 autopistan behera zetozela. Martxaren hasieran (ekintza gehienengoa hasieran bezala), *canupa* pipa sakratua erre zuten protesta-egileek, lurretik atera zitzaizketen arbasoei indarra eta babesa emateko. Goiz hartan, ikusirik makinaria astuna lurra ateratzen ari zela, Uraren Babesleek bazekiten gizakien gorpuak ateratzen ari zirela –beren arbasoen gorpuak–. Natiboek harresi bat osatu zuten azkar asko. Uraren Babesleek, berriz, hesiak bota eta bulldozarren aurrean jarri ziren. Gizon zuri batek, kamioi batetik salto eginez, CS gasa jaurti zien emakume eta haurrez osatutako lerro bati; gas horrek erre egiten ditu azala, begiak eta eztarriak, eta itsutasuna eragin dezake. Entrenatzaileek –zeinek animaliak prestatzen baitituzte, gizakiak harrapa ditzaten– txakurrei agindu eman zieten piketeari eraso egiteko. Odola tantaka zerion txakurren ahutzetatik.

«Une horretan, dena aldatu zen» gogoan du LaDonna BraveBull Allard izeneko adineko emakumeak. Goiz hartan, *Democracy Now!* komunikabideko Amy Goodman kazetariak el-

65 Harsha Waliarekin izandako elkarrizketa bati zor diot hausnarketa hori. Ikus Harsha Wallia, «A Truly Green Economy Requires Alliance between Labour and Indigenous People», *System Change Not Climate Change*, 2015eko ekainak 3, systemchangenotclimatechange.org.

karrizketa bat egin zion BraveBull Allardi, eta orduantxe jo zuen telefonoak. «Bulldozerrak iritsi dira!». Lasterka abiatu ziren egoera filmatzera. BraveBull Allardek birramonaren istorioa zuen aipagai, Nape Hota Winyan izeneko emakume bat, zeina bizirik atera baitzen Whitestone Muinoan 1863ko irailaren 3an gertatu zen sarraskitik. Egun berean, 155 urte beranduago, arbasoen hilobiak desakralizatu zituzten Caterpillar markako hondeatzailerek. Whitestone Muinoan, emakumeek txakurren bizkarrera lotu zituzten beren haurrak, soldaduei ihes egingo ziotelako esperantzan. Baina, soldaduek, zauritu guztiak akabatu ostean, txakurrei tiro egiteko agindu zieten. Bi gertaeren artean denbora-tarte luzea igaro arren, beldurgarriki antzekoak ziren.

«Gure oinatzak kendu zituzten zorutik», esan zuen BraveBull Allardek, lurraren txikizioaz ari. «Eta nork du ba hori egiteko eskubidea?». DAPLen aurretik, LaDonna BraveBull Allardek historialari tribal gisa hartzen zuen bere burua, ez aktibista gisa. Baina, DAPLe aditzera eman zuenean petrolio-hodiak bi ibaien arteko elkargunea gurutzatuko zuela –Mni Sose (Missouri ibaia) eta Inyan Wakanagapi Wakpa (Cannonball ibaia)– eta beraz arriskuan jarriko zituela bai lurra eta bai ura, emakumearen jarrera aldatu egin zen. Behiala, sakonera txikiko ur haiek modua ematen zuten jendea pasatzeko eta merkataritzan aritzeko. Mandan, Arikara eta Dakota nazioek herrixka zabalak osatu zituzten ibai-inguru oparoa besarkatuz; halaber, eremu hartan ugari izaten zen Cheyenne eta Pawnee nazioetako jendea. Asko joaten ziren hara baraualdiak egitera edo zeremoniak ospatzera, eta esanahi espiritual handiko lekua zenez, paisaia hura neutralizat hartzen zen, eta, errespetuagatik, elkarren aurka borrokan ari ziren fakzioek armak utzi eta elkarrengandik gertu ipintzen zituzten kanpalekuak, elkar ikusteko moduan, inongo liskarrik izan gabe. Lewisek eta Clarke «Cannonball» [kanoi-bala] izendatu zuten eremu hura, gaizki izendatu ere –haien ustez, harreari esferikoak gerra-tresnen antzekoak ziren–, baina dakota herriarentzat, bizitzaz beteriko inguru bat zen. «Inyan Wakangapi Wakpa» deitzen zioten (Harri sakratuak sortzen dituen ibaia). BraveBull Allarden aitona, Tatanka Ohitika (Zezen Ausart) izeneko gizonak, eguzki-dantzak antolatzen zituen eremu hartan; hala, harremanak izaten zituen paisaiarekin: botikak eta otoi-tzak eskaintzen zizkion, eta jatekoaren uzta biltzen zuen.

Eremu hartan taxutu zuen urak lurra, eta harri sakratuak eratu. Eta eremu hartan bertan erabili zituzten estatu-instituzioek ura eta lurra herri baten historia moldatu eta suntsitzeko. Armadako Ingeniarien Kidegoak Cannonball ibaiaren ahoa dragatu eta gero, ur biziek ez zuten gehiago harri sakraturik sortu. 1950eko hamarkadan, Armadako Ingeniarien Kidegoak Oahe presa eraiki zuen, eta urez bete zituen eguzki-dantzaren eremuak eta lur emankor eta goldagarriena. Ura eta lurra suntsitzen direnean, berdin suntsitzen da etorkizun bizigarriak izateko aukera.

«Gure herria ur horretan dago», oroitu zuen BraveBull Allardek; izan ere, haurra zela, bere lurra urpetu zuten. «Ibai honetan datza nire bizi osoaren historia». Historia hori omentzeko asmoz, 2016ko apirillean otoitz-kanpaleku bat sortu zutenean, Cannonball inguruaren izena ipini zioten: «Inyan Wakanagapi Oti». Honela sortu zen kanpaleku hura: KXLri aurka egiteko batzar batean bildu ziren, Long Soldier izeneko barrutian, BraveBull Allard bera, Joye Braun, Jasilyn Charger, Cheyenne River erreserbako Joseph Begi Zuri eta Standing Rockeko Wiyaka Eagleman. Orduan, #NoDAPL kanpaleku bat abiatzea erabaki zuten. Batzarren ostean, Braunengana hurbildu zen BraveBull Allard, eta bere lurra eskaini zuen.

Apirilaren 1ean, bilera bat izan zuten Armadako Ingeniarien Kidegoarekin, eta DAPLen kontra mintzatu ziren. Oceti Sakowin jendeak eta Lakota, Dakota eta Nakota nazioak ere han ziren babesa ematen, zaldiz, motoz edo autoz etorririk. Gazte indigenek lasterketa bat antolatu zuten. Adinekoek beren pipak eta otoitzak eskaini zituzten, eta tipiak ezarri: «Harri Sakratua» deitu zioten.

BraveBull Allardek gogoan du, egun batean, lanetik itzuli, eta zera ikusi zuela: «Orein-haragia erretzen ari ziren barbakoan. Emakumeek, berriz, haragia moztu eta lehortzen zuten. Haurrak lasterka zebiltzan, garrasika. Jende mordo bat zegoen suaren inguruan eserita, elkarri istorioak kontatzen eta elkarri azaltzen nolakoa zen bizitza ibaiertzean. Eta hona gakoa: ez ziren ingelesez ari, inor ere ez. Dakota hizkuntzan ari ziren guztiak. Begiratu nien eta pentsatu nuen: 'Horrela bizi behar genuke. Honek zentzua du niretzat'. Egunero-egunero, kanpalekura hurbildu, eta opari hura ikusten nuen. Ikusten nuen gure kultura eta gure bizimoldea errealitate bihurturik. Inork ezin dit hori kendu».

2014an DAPLein izandako lehen bileratik 2016an Haurri Sakratua kanpalekua abiatu bitartean, Standing Rockek kontzientziazio-kanpainak antolatu zituen, Mni Wiconi eta #NoDAPL mugimenduen inguruan. Dave Archambault II mahai-burua etenik gabe ibili zen, barrutiz barruti, eta erreserbako biztanleei jakinarazi zien DAPL etorriko zela. Gazteek uraren aldeko kanpaina bat abiatu zuten, «Errespetatu gure ura» izeneko: komunikabideei mezua helarazi zioten eta erakutsi zuten mugimendu hartan gazteak zirela gidariak. 2016ko apirilean, eraikuntza-lanak hasi zirenean, luze gabe zerbait egiteko beharra areagotu zen. Obamak ez zuen baimenik eman KXL egiteko; gauza bera egingo al zuen DAPLein? Batere axola al zitzaizkion natiboen burujabetza eta bizitzak?

Archambaultek, behiala, halako lotura bat sentitu zuen Obama presidentearekin, eta miretsi ere miresten zuen. Archambaulten arreba, Jodi Archambault Gillette, presidentearen aholkulari berezi gisa jardun zen, natibo amerikarrei loturiko gaietan, 2009tik 2015era bitartean. 2014ko ekainaren 13an, Obamak sar-hitz batzuk eskaini zituen Banderaren Eguneko *powwow* ospakizun tradizionalan, Cannon Ballen urtero egiten den festan; lagun zituen Archambault eta haren familia. Obamaren bisitaldia historikoa izan zen. AEBko presidenteen artean, zortzi presidenten bakarrik joan dira, beren agintaldiko uneren batean, indiarren erreserbetara; azkena Bill Clinton izan zen.

Hitzaldian, Obamak gazte natiboei erreparatu zien bereziki, eta Zezen Eseriaren esaldi bat ekarri zuen gogora, sarritan aipatzen dena: «Elkar ditzagun gure gogoak eta ikus dezagun zer eratako bizitza eraiki dezakegun gure haurrentzat». Zera esan zien Obamak oihuka ari ziren mila lakota eta dakotari: «Elkar ditzagun gure gogoak, justiziak aurrera egin dezan, zeren, amerikar orok bezala, zuek ere merezi baituzue zuen komunitatean seguru sentitzea eta legearen pean berdintasunez tratatu zaitzatela».

Obamak bisita egin eta gutxira, Archambaultek adierazpen bat igorri zuen eta nazio osoko gazteei ziurtatu zien «presidentea eta lehen dama adi dagozkiela benetan».⁶⁶ Baina hala ote zen?

66 Standing Rock Sioux Tribe, «Archambault on Presidential Visit: A Day Focused on Native Youth», *Indian Country Today*, 2014ko ekainak 24, indiancountrymedianetwork.com.

2016ko uztailearen hasieran, hogeita hemezortzi gazte indigenak 2.000 miliako lasterketa nekagarri bat egin zuten, erreleboka, beren jaioterri Ipar Dakotan hasi eta Washington DC hiriburu estatubatuarerraino; hara iritsita, eskakizun bat helarazi zioten, eskura, Etxe Zuriari eta Armadako Ingeniarien Kidegoari: 160.000tik gora sinatzailek adierazten zuten DAPL eraikitzearen aurka zeudela. Tariq Bronotter hamasei urteko gazteak, zeinak lasterketan parte hartu baitzuen eta Errespetatu Gure Ura mugimenduko antolatzaileetako bat baita, hala idatzi zion Obamari: «Standing Rockera etorri eta gero, esan zenuen zure haurrak bezalakoak ginela gu ere bai. Presidente jauna eta Lehen Dama, ziur gaude esandako guztia zinez esan zenuela eta badakigu ez gaituzuela ahaztu».⁶⁷ Obamak ez zien erantzun publikorik eman DAPL gerarazteko eskatu zioten gazteei.

Ez behintzat azaroaren 2ra arte: egun hartan –DAPL eraikitzen hasi eta hainbat hilabetera, ehunka atxiloketa gertatu ostean–, azaroaren 2an hitz egin zuen lehen aldiz Obamak publikoki oliobideari buruz, eta esan zuen natiboen lur sakratuak errespetatu nahi zituela, bide berri bat adosteko prest zegoela (ordurako, ibaitik milia erdi eskasera zegoen oliobidea) eta Armadako Ingeniarien Kidegoaren aholkuei erreparatuko ziela. Momentuz, bere horretan utziko zuen egoera, «ea nola garatzen zen hurrengo asteetan».⁶⁸ Jarrera haren ondorioz, biak haserretu ziren: batetik, politikariak, Jack Dalrymple esaterako, desio zuelako gobernuak esku hartzea eta protestak zanpatzea, eta, bestetik, indigenak ere haserretu ziren, polizien indarkeria izugarria jasaten ari zirelako. Obamak bere adierazpenak egin baino bost egun lehenago, zuzeneko irudiak zabaldu ziren, non ikusten baitzen polizia militarizatuak, Ipar Dakotako estatua- ren aginduz, bortizki hustu zuela 1851ko Itunaren kanpalekua, 1806 autobidean DAPL eraikitzen ari ziren langileak blokatzen zituen. Istiluen aurkako jantziak soinean, poliziak sarekada bat egin zuen kanpalekuan, tipiei banaka-banaka eraso eginez eta kanpin-dendak zulatuz. Herrestan atera zituzten erdi-biluzik zeuden adinekoak zeremoniei dagozkien izerdi-txaboletatik, ta-

67 Tariq Brownotter, «Letter to Obama», Respect Our Water webgune ofiziala, 2016ko uztaileak 23, respectourwater.com.

68 Ikus «Standing Rock Chair: Obama Could Stop the Dakota Pipeline Today and Preserve Indigenous Sacred Sites», *Democracy Now!*, 2016ko azaroak 3, democracynow.org.

ser batekin eman zioten gizon bati aurpegian, CS gasarekin eta gas negar-eragilearekin blaitu zuten jendea eta LRAD soinu-kanoi gorgarriak baliatu zituzten helduen eta gazteen aurka. 142 lagun atxilotu zituzten eta zenbaki bat ipini zieten besurrean errotulagailu permanentez; ondoren, autobusetara igoarazi eta txakurtegitan igaroarazi zieten gaua. Zauriak egiteaz gainera, iraina areagotze aldera, poliziak hainbat objektu pertsonal konfiskatu zituen–batetik, zeremonietarako balio duten tresnak, hala nola pipak eta arrano-lumak, eta bestetik, gauza arruntak, hala nola jakak eta kanpin-dendak–, eta txizatan bustita itzuli zituzten.

Obamari galdetu ziotenean ea zer iruditzen zitzaion egoera hartan ikusitako indarkeria eta deshumanizazioa, Nobel saridunak errieta egin zien «bi aldeei», hots, hala lurra defenditzen ari ziren protesta-egile indigena armarik gabeei nola Uraren Babesleak erritualki jipoitu zituzten polizien armadaxo osoki militarizatuari; presidenteak, gainera, zibismoaren bertuteak gorai patu zituen: «Protesta-egileek baketsu izan behar dute eta autoritateek, berriz, neurritasunez ekin».⁶⁹

1851ko Itunaren kanpalekuko sarekada baino hiru egun lehenago, Archambaultek gutun bat bidali zion Lorreta Lynch AEBko fiskal nagusiarri, eskatuz berehala abiatzeko ikerketa bat eskubide zibilen inguruan, poliziaren bortizkeria gero eta handiagoaren harira. Dalrymple gobernariak, larrialdi-egoera ezarri eta segituan, laguntza eta langile gehiago eskatu zituen Larrialdiak Kudeatzeko Laguntza Hitzarmenaren abaroan. Estatuaren historian ez zen izan poliziaren eta armadaren halako mobilizaziorik 1890. urteaz geroztik; urte hartan, hain zuzen, armadako soldaduen ia erdia bidali zuten Standing Rockeko mamu-dantzari zaldirik gabeko eta gosetuak zanpatzera. Segurtasun-indarretako hirurogeita hamasei erakundek erantzun zioten Dalrympleren deiari eta martxan jarri ziren Guardia Nazionalarekin eta DAPLe kontratatuak segurtasun-enpresa pribatuekin batera –TigerSwan, adibidez–. Standing Rockera iritsi ziren agentziek hornikuntza handia jasotzen dute Defentsa Sailaren 1033 programari esker, zeinak armadaren ekipamendu soberakinak helarazten baitizkie herrialde osoko segurtasun-

69 *Ibid.*

indarrei. Esate baterako, Hego Dakotako Autopisten Patruilak, zeinak zaldi gaineko poliziak bidali baitzituen Uraren Babesleei aurre egitera, 2 milioi dolar balio zuen ekipamendu militarra jaso zuen 2006tik 2015era bitarte, besteak beste, dozenaka eraso-errifle eta bost ibilgailu blindatu. Lake eskualdeko Sheriffaren Bulegoak, berriz, zeina Indianako ipar-mendebaldean kokatzen baita eta lau polizia bidali baitzituen Standing Rockera, 1,5 milioi balio duen ekipamendu militarra jaso zuen, tartean ehun eraso-errifle eta bi kamioi blindatu. (Arma militarrek erabiltzeko ezgaitasunaren erakusgarri, sheriffaren bulegoko polizia batek, protesta-egileen aurkako ekintzan, bere oinari tiro egin zion eraso-errifle batekin). Halaber, Defentsa Sailak eskualdeko sheriffaren bulegoari emandako soberakin militarrek ziren hamabost tonako MRAP ibilgailu tanke-itxurakoak, poliziek beren ekintza nagusi ia guztietan erabili zituztenak.⁷⁰ Ekipamendu eta giza baliabide mordo bat jaso zuten, poliziek uste zuten «segurtasun-endarren nolabaiteko laborategi» bat zela hura. Tom Butler-ek, Montanako Autopisten Patruilako koronel batek, esan zuen ezen hainbat segurtasun-endarrek batera emandako erantzun hura «argigarria eta hezigarria» izan zela, eta komeni zela mendebaldeko estatuetako poliziak –Montanakoa, adibidez– Standing Rockera joatea, Ipar Dakotako poliziak zituen «arazo beretsuak» zituztelako. Butlerren arabera, «antzeko arazoak» hauek ziren: landa-eremuan bizi ziren nazio indigenek protesta egiten zutela erauzketa-industrien aurka.⁷¹ Bestela esanda, mendebaldeko estatuek asko zuten ikasteko Ipar Dakotatik, «indiar arazo» hobeto kontrolatu nahi bazuten.

Indar-erakustaldi beldurgarriak gorabehera, poliziaren ohiko armek eragin zuten kalte eta indarkeria handiena –arma kimikoek, hala nola gas negar-eragileak eta piperbeltz gasak–. Kristen Simmons paiute antropologoak nabarmendu duen eran, jendetza kontrolatzeko, gisa horretako armak erabiltzen dira nagusiki, ezen ez borroka militarreko tresnak, horregatik, arma kimikoek kalte handiagoa egin zieten Uraren Babesleei. Genevako Protokoloak debekatua du gerra-garaian arma kimikoak

70 Seth Kreshner, «Police Are Still Getting Surplus Army Gear—And They're Using it to Crack Down on Standing Rock», *In These Times*, 2016ko azaroak 2, inthesetimes.com.

71 Curtis Walman, «Police Across the Country Looked at Standing Rock as a Sort of Law Enforcement Laboratory», *MuckRock*, 2017ko urtarrilak 11, muckrock.com.

erabilitzea, baina, paradoxikoki, herrialde barruko poliziak erabil ditzake. Adibidez, azaroaren 20an, poliziak ura eta pipermin-gasa nahasi zituen, eta nahasketa horrekin eraso zion Uraren Babesleei, tanke baten gainean ur-kanoi bat kokatuz; horrez gainera, gas negar-eragilearen potoak jaurti zizkien, proiektilak balira bezala. Temperaturak zero azpitik jaitsi ziren. Era berean, poliziak pilotak –gomazkoak zein haziz beteak– eta granada zorabiatzaileak jaurti zituen gazteen, zaharren eta armarik gabeen aurka. 200etik gora zauritu izan ziren: navajo emakume batek begia galdu zuen, betirako elbarri geratuz; emakume zuri bati, berriz, jendetza kontrolatzeko gai leherkari bat jaurti zion poliziak, eta besoa galdua zuen ia. Gehienek, ordea, hipotermia eta esposizio kimikoa jasan zituzten. Kanpalekuko sendagileek bizitza ugari salbatu zituzten gauetan: hipotermiak jotakoei manta elektrikoak jartzen zizkieten eta begietan, sudurrean eta ahoan erredura kimikoak zituztenei, aldiz, ukendu antiazido bat jarri zieten, ito ez zitezen.⁷²

Democracy Now! saioan egindako elkarrizketa batean, Archambaultek azaldu zuen poliziak Uraren Babesleak umiliatu zituela: atxilotzeaz batera, biluzarazi eta miatu egin zituzten (Archambaulti gauza bera egin zioten abuztuaren amaieran).⁷³ Laguna Pueblo tribuko kazetari Jenni Monet-en arabera, biluzarazi eta miatzeko praktikak ohikoak ziren eta batez ere natiboekin eta koloreko jendearen kasuan erabiltzen ziren; atxilotu zuriei, berriz, ez zieten halakorik egiten. Era berean, Monetek jakinarazi zuen zenbait pertsona transgenero natibo bereizi egin zituztela gainerako atxilotuetatik, eta bakartu egin zituztela, «arau» gisa.⁷⁴ Gainera, poliziaren jomugan zeuden protestaren berri ematen ari ziren kazetariak ere: 2016ko irailean Amy Goodman atxilotu zuten; 2017ko urtarrilean, Monet bera eta *Unicorn Riot* media-tal-deko hainbat kazetari.

Lynch fiskalari bidalitako eskutitzean, Archambaultek esan zuen Uraren Babesleen aurka erabilitako kontrol-taktikek «gogora zekartzatela, duela 50 urte, eskubide zibilen aldeko mu-

72 Kristen Simmons, «Settler Atmospherics», *Dispatches, Cultural Anthropology*, 2017ko azaroak 20, culanth.org.

73 «Why Is North Dakota Strip-Searching Dakota Access Pipeline Protesters Charged with Misdemeanors?» *Democracy Now!*, 2016ko urriak 18, democracynow.org.

74 Jenni Monet, «I was Strip-Searched, but my White Cellmates were not», *Indian Country Today*, 2017ko maiatzak 3, indiancountrymedianetwork.com.

gimenduaren garaian, protesta-egileen aurka erabiltzen ziren taktikak». 2018an, Netflix plataforman egindako elkarrizketa batean, Obamak aipatu zuen beretzat inspirazio-iturri izan zirela beltzen eskubide zibilen aldeko aktibisten eta askatasun-martxetan parte hartu zutenen kuraia: pertsona haiek aurre egin zieten txakurren erasoei, ur-turrustei eta poliziaren indarkeriari eta «dena arriskatu zuten, demokraziak aurrera egin zezan».⁷⁵ Obamaren agintaldian, ordea, DAPLen manupeko segurtasun-enpresa pribatuek eraso-txakurrak bota zizkieten Uraren Babesle armarik gabeei, bulldozerrek ehorzlekuak birrin zituzten eragotzi nahi zutenei; Morton eskualdeko sheriffaren agenteek ur-turrustaka busti zituzten Uraren Babesleak, eguraldi hotz-hotzean, eta ehunka lagun zauritu zituzten horrela; azkenik, poliziek eta segurtasun pribatuko guardiek egurra eman zieten ehunka protesta-egile armarik gaberi. Gisa horretako bortizkeria gauzatu zuten oliobide bat lur indigenetan barrena ezartzeko. Obamaren agintaldia ahitzear zela, 2016ko abenduaren 4an, Armadako Ingeniarien Kidegoak Missouri ibaia gurutzatzeko baimena ukatu zion DAPLi. Baina keinu txikiegia zen, beranduegi iritsi zen, eta Trump presidenteak azkarregi balio gabetu zuen: presidente-kargua hartu eta bi astera. (Trumpek, are gehiago, KXL ere onartu zuen, eta martxan jarri zuen ia hilik zegoen oliobidearen proiektua).

Nahiz eta Obamak, ordura arte, bizkarra eman zien gazte indigenei eta entzungor egin zion poliziak haien kontra erabilitako indarkeriari, gazteek ausardia itzela erakutsi zuten herrialdean barna mila miliako errelebo-lasterketa bat eginez, eta, horrela, kontzientziadun jendearen bihotzak eta gogoak irabazi zituzten, edozein ideologiakoak izanik ere. Lasterketa historikoaren ostean, Harri Sakratua kanpalekuan bildutako jende-kopurua hazi zen. Abuztuaren amaieran, 90etik gora nazio indigenetako ordezkariak bildu ziren han, baita mundu osoko aliatuak ere; azaroan, berriz, ia 400 ziren jada. Oceti Sakowin kanpalekua, hain zuzen ere, horretarako sortu zen: munduko txoko guztietatik zetorren jende gero eta ugariagoa hartzeko.

75 «It's a Whole New Ball Game Now», *My Next Guest Needs No Introduction*, 1. denb., 1. kap., Netflix, 2018ko urtarrilak 12.

Komunikabideak saldoka iritsi ziren; sarritan, Uraren Babesleen eta poliziaren arteko talka bortitzen berri ematen zuten. Istiluak ohikoak izan arren, halako albisteez oker islatzen zuten bai kanpalekuetako eguneroko martxa bai Uraren Babesleen ekintzen funtsa. Abuztutik urrira bitartean, manifestaldiak eta mitinak antolatu ziren ia egunero, inongo ustekaberik gabe. Hasieran, Oceti Sakowin kanpalekutik abiatzen ziren eta iparralderantz jotzen zuten hainbat milia igaroz, oliobideak 1806 autopista zeharkatzen zuen tokiraino. Bufalo Pipa Sakratuaren zaindaria, Arvol Zaldi Beha buruzagia, hasierako manifestaldi haien buruan joan zen sarritan, piparen zeremoniarekin hasten baitziren. Gerora, manifestaldi gehiago antolatu ziren eraikuntza-guneak oztopatu edo arreta desbideratzeko, ausartenez modua izan zezaten makineria astunera kateatzeko.

«Gizonak gerturatu zaizkit, gizon gazteak, eta esan didate prest zeudela beren bizia emateko», adierazi zuen Archambaultek abuztuaren bukaeran, jende mordo baten aurrean. Hasieratik, mahaiburuak beldurra izan zuen, inor hilko ote zen (zorionez, ez zen halakorik gertatu), eta biziaren aldeko mezu zabaldu zuen: «Baina nik esan nien: ez! Ez dugu hori nahi! Nahi dugu zuek bizitzea eta aurrera ateratzea eta aita eta aitona onak izatea!».

Hain justu ere, Mni Wiconi leloak eta #NoDAPL mugimenduaren muinak, kanpalekuko eguneroko martxan gauzatzen zenak, erakusten zuen nolakoa izan zitekeen natiboen bizimodua, laburki bada ere.

«Uste dut nazio baten birjaiotza dela», esan zuen Faith Arrano Pikartek. «Uste dut hemengo gazte hauek amestu zutela, noizbait, halako kanpaleku batean egongo zirela, zeren adinekoei entzun baitiete ibaiertzeko bizimoldeari buruzko kontuak kontatzen. Zaldiaren Nazioaren suei buruzkoak aditu dituzte, eta orain horixe bizitzen ari dira. Ametsa bizitzen».⁷⁶

Aski zen kanpalekuan barrera ibiltzea ametsaren lekuko izateko. Banderen lerroak erdi-erditik zeharkatzen zuen: erre-pidearen bi aldetara ezarrita zeuden, milia erdiz, 300etik gora nazio indigenen banderak. Iritsi berriak iparraldeko atetik sartzen ziren, segurtasun-arduradunei izena eman, eta berehala

76 «Protestor: 'It will be a Battle'», Faith Arrano Pikarta, CNN kateak egindako elkarrizketan, 2016ko azaroak 1, cnn.com.

topatuko zuten «gune nagusia» edo «indiar hiria»: kanpalekua, bere gailurrean, Ipar Dakotako estatuko hamargarren hiria izan zen tamainan. Ezin zen alkoholik ez drogarik hartu, zeharo debekatuta zegoen. Komunikabideek komunikabideen dendara jo behar zuten. Ezin zitzaion argazkirik egin haurrei, ez beste inori, aurrez baimena jaso gabe. Beste horrenbeste gertatzen zen otoitzaldi eta zeremoniekin. Kanpalekuko sukalde nagusiaren atzean Facebook Muinoa zegoen, kanpaleku osoan konexio txukun samarra lor zitekeen leku bakarra: jendea hara joaten zen maite zituenekin hitz egitera. (Batzuek, txantxetan, «Brooklyn txikia» deitzen zioten, Brooklyneko zinemagile zuri mordo bat biltzen zelako han).

Kanpaleku nagusia hiri baten modukoa zen. Ez zegoen txorrotako urik baina Cannon Balleko zentro komunitarioak bertako dutxak erabiltzeko baimena eman zuen. Ez zegoen argindarrik baina Prairie Knights kasino tribalean, errepidetik gora bi milia eginda, wi-fi-konexioa zegoen. Eta ez zegoen komun ohikorik, baina Standing Rockek komun eramangarriak ekarri zituen. Azpiegitura fisikorik ez zegoen kasuetan, erresistentzia indigenaren eta zaintza-harremanen azpiegitura nagusitu zen –indigenen balioen arabera komunitatean bizitzeko eta izateko egitura–, eta, horri esker, jendea seguru eta epel egon zen gehienetan.

Emaitzaren bat bazenekarren, kontseilu-su nagusira jo behar zenuen. Standing Rockeko adinekoen zaintzapean, kontseilu-sua pizturik egoten zen hogeita lau orduz. Gizon natibo gazteek –suaren eusleek– txandak egiten zituzten, denbora guttian egur puskak emateko suari: betebeharrak xumea zen, baina garrantzitsua ere bai. *Eyapaha* bat (herriko pregoilari edo zeremonia-maisua) arduratzen zen jakinarazpenak egiteaz, mikrofono bidez: bisitarien ordezkartzen etorrera, jatorduen ordutegia, haurrentzako ekintzak, galdutako objektuak edo hizlariak. Egunsentian eta ilunabarrean, Standing Rockeko eta Oceti Sakowin nazioetako adinekoek sehaska-kantuak abesten zituzten haurrak lokartzeko, eta kuraia-hitzak eskaintzen zizkieten Uraren Babesleei. Bozgorailuen ondoan su handiak zeuden, eta haien gainean, lapiko industrialak, zopa eta arto egoskariz beteak beti. Sukalde nagusian hiru jatordu bero ematen ziren egunero. (Kanpalekuaren puntu gorenean, hamahiru sukalde-denda eta

dozena erdi osasun-denda izan ziren). Adinekoek eta haurrek jaten zuten lehenik, jatorduetako otoitzaren ostean. Gonbidatuak zeudenean (eta mundu zabaleko jendea sarritan etortzen zen kanpalekura bisitan), besteek baino lehen jaten zuten. Emaizten kanpin-dendan baziren lotarako zakuak, mantak, kanpin-dendak, galtzerdiak, eskularruak, kapelak, botak eta abarrak, ugari gainera. Maiz, autoa goraino beterik zekartela iristen ziren nati-boen familiak; beste askok, ordea, soinean zeramaten besteirik ez zekarten: kamiseta eta praka motzak. Mundu guztiari ematen zitzaion zer jantzi eta zer jan. Denek zuten txoko bat. Kanpalekuko harreran, gorputzak behar ziren, besteak beste, sukaldean aritzeko, konpost-zuloak egiteko, egurra mozteko, haurrak zaintzeko eta Walmart supermerkatuta autoz joateko. Askok alde batera utzi zuten beren enplegua eta lanaldi osoan aritu ziren beste batzuentzat janaria prestatzen eta haiek seguru eta epel egon zitezen ziurtatzen. Azken batean, senideei eta urrunetik etorritako bidaiariei jaten eman eta ongietorria egin ezean, lakota izateari uzten zaio. Eskuzabaltasuna (*wowacantognake*) funtsezko balioa da lakotentzat. Eskuzabaltasun indigena horrek –sarri bai sarri ahultasun gisa ustiatu denak– eutsi zion kanpalekuari.

Giro hartan, non adin guztietako kideak baitzeuden, gazteek rol garrantzitsu bat zuten, eta bazegoen eskola bat. Indigenen jakituriaren zaintzaile pila bat bildu ziren kanpalekuan; aurrekaririk gabeko egoera bat zen. Standing Rockeko Alayna Arrano Ezkutuk, lakota hizkuntzan aditua denak, kudeatu zuen dena. Kanpalekuz kanpaleku joan zen, galdezka, ea posible zen jendeak bere jakituria konpartitzea haurrekin. Arrano Ezkutu: «Hortik abiatuta, esan zidaten eskola bat behar genuela, haurrak egoteko toki bat».⁷⁷ Horrenbestez, Mní Wichóni Nakzcižin Owáyawa eratu zuten, Uraren Defendatzaileen Eskola –ikasleek berek aukeratu zuten izena–. Itunak, hizkuntza, kultura eta lurrraren eta uraren defentsa jorratu zituzten. Kantu eta dantza indigenez, matematikaz, historiaz eta zientziaz osaturiko curriculumaren xedea ez zen gazteak doktrinatzeari hartara kolonoen gizarteko hiritar zintzoak izan zitezen. Sandy Grande hezitzaile indigenak nabarmentzen duen eran, Uraren Defendatzaileen Es-

77 Gyasi Ross, «Voices from The Front Lines in Standing Rock V.2: Alayna Eagle Shield and Educating a New Generation of Revolutionaries», *Indian Country Today Media Network*, 2016ko urriak 7, indiancountrymedianetwork.com.

kolak askapenerako hezkuntza anticoloniala eskaintzen zuen: nola bizi, nola izan aske eta nola izan harreman onak besteekin, lurrarekin eta urarekin.⁷⁸

Inork hala nahi bazuen eta horretarako prest baldin bazezgoen, ekintza zuzen ez-bortitzak gauzatzeko entrenamenduak egiten ziren egunero. Mark Tilsen oglala poeta eta Pine Ridge erreserbako irakasleak gidatzen zituen gehienak. Umore zorrotz eta magnetikoaren jabea izanik, jolasteko parada eskaintzen zuen erresistentzia ez-bortitzerako entrenamendu serioen baitan. Dallas Goldtooth umoregile eta Ingurumenaren Aldeko Sare Indigenako kideak alaiki esan zuen Tilsen zela kanpalekuko «animalia espiritualala», denek ezagutzen baitzuten eta asko joaten baitziren harengana aholku-eske. Tilsenek, ia egunero, Oceti Sakowin kanpalekuko printzipioak ozen irakurri eta azaltzen zizkien iritsi berriei; normalean, bakan batzuk edo hainbat dozena izaten ziren. Arauak den-denei ezartzen zitzaizkien, eta arbeletan edo eskuz egindako seinaleetan agertzen ziren:

Babesleak gara.
Bakezaleak eta otoitz-zaleak gara.
«Ismoek» ez dute lekurik hemen.
Hemen, denak gaude elkarrekin.
Ez gara bortitzak. Harro gaude hemen egoteaz, maskararik ez.
Errespetua erakutsi bertakoei.
Ez daukagu armarik ez arma gisa erabil daitekeenik.
Jabetzak suntsitzeak ez gaitu gure xedera hurbilduko.
Kanpalekuko kideek orientazio-saio bat egin behar dute.
Ekintzaren batean parte hartu nahi duenak derrigor egin behar ditu ekintza zuzeneko entrenamenduak.
Printzipio hauek betetzearen erantzukizuna dagokigula zainduko dugu.
Hau zeremonia bat da, jardun zaitez hori gogoan hartuz.

Kanpalekuko kideak, iristean, lege-gunera bideratzen ziztuzten; han, telefono-zenbaki bat idazten zieten besaurrean, errotulagailu permanentearekin, atxilotzen bazituzten hara dei zezaten. Abokatuen Elkarte Nazionaleko kideek eta beste abokatu boluntario batzuek lege-laguntza eskaintzen zieten, dohainik, atxilotuei, eta haiekin harremanetan egoten ziren.

78 Sandy Grande, «The Future of US Education is Standing Rock», *Truthout*, 2017ko uztaillak 4, truth-out.org.

Otoitza-ekintzak, eskuarki, «Kikta po! Kikta po! Esnatu! Esnatu!» oihuarekin abiatzen ziren: eguzkia altxatzeaz batera, ahots ozen bat entzuten zen bozgorailuetatik. Ekintzaren bat egitekoak ziren egunetan, *eyapaha* bat kanpalekuan barna joaten zen bizikletan, zaldian edo kamioneta baten atzealdean jarrita, eta jendea iratzartzen zuen. «Ez zarete hona etorri lo egitera. Ez gaude oporretan. Oliobide bat geraraztera etorri gara hona!».

Urriaren erdialdean, bi-espirtuek gidatu zuten otoitza eta manifestaldia. Poliziak auto-ilara atzitu zuen, eta ibilgailuak har-txintzarrezko bidetik joatea eragotzi. Oinez baino ez, hala esan zuten. Martxa eraikuntza-eremura iritsi zenerako, poliziak hesi bat osatua zuen: han ziren ehunka polizia, istiluen aurkako jantziekin eta frankotiratzaile-errifleekin, dozena bat jeep eta tanke itxurako ibilgailu blindatu handi bat. Bi-espirtuek tabakoa eta ura eskaini zizkioten lurrari, eta polizien hesirantz abiatu ziren. Poliziek errefusatu egin zituzten, megafonoz adierazi zioten jende hari guztiari sakabanatu beharra zuela. Nora, baina? Surrealista zen, baina ohikoa bilakatu zen laster asko. Hirietako protestetan, beti daude lekukoak, eraikinak eta komunikabide ugari; #NoDAPLekeo ekintza gehienak, ordea, landa-eremuko bideetan egin ziren, eta han ez zegoen CNNrik, soilik hedabide independenteak, hala nola *Democracy Now!*, *Unicorn Riot* eta *Indian Country Today*. Batzuetan, ezerezaren erdian egon arren, protesta-egileak baino polizia gehiago izaten zen! Jabetza pribatuak zirenez, Uraren Babesleak ezin ziren errepideko erreteneraino joan, ezta larreetara ere. Gainera, eguerdiko beroan, ez zegoen komunik ez iturririk inon. Egun hartan, zortzi miliako martxa akigarri bat egin zuten, eta adineko bat zorabiatu egin zen nekearen nekez.

Uraren Babesleek beren ekintza amaitu eta atzera egin ahala, maskaradun poliziengana hurbildu zen Crow Creek erre-serbako mahaiburu tribala, Brandon Sazue, eta hala esan zien: «Hemen egiten ari zaretena gaizki dago. Gu egiten ari garena, berriz, ondo dago, zeren gu ez baikara inoren lurrean baimenik gabe sartzen ari garenak. Zuek bai, diru mordo baten truke. Baina otoitz egingu dugu zuen alde eta zuen haurren alde».

Bere jendeari emandako gizona da Sazue. 2009an, Barne Zergen Zerbitzuak, zergen bilketaz eta zerga-legeak betearazteaz arduratzen denak, Crow Creekeko 7.100 akre hartu nahi izan zi-

tuen, Buffalo eskualdean, AEBko eremu pobreean, soldatari lotutako zergen ordain gisa, ustez. 2009 eta 2010 urteen bitartean Hego Dakotan izan zen negu latzean, Sazuek lur-eremu hartan ezarri zuen kanpin-denda, salmentaren aurka protesta egiteko. Abuztuan, DAPLen kontrako protestekin bat egin zuen, eta tribuaren baliabideak eskaini zizkion Crow Creek Riders izeneko zaldun gazteen talde bati. Urriaren 27an, polizia 1851ko Itunaren kanpalekuan sarekada bat egin, eta Sazue atxilotu zuten.

Komunikabideek lehen planoan jarri zituzten kanpalekuko buruzagien irudiak, kapeluak soinean zituztela; gizonak izaten ziren askotan, baina ohikoa zen bi-espirtuak eta emakumeak buru izatea kanpalekuko bizitzako alderdi guztietan: kontseilu nagusiko kideak ziren (adinekoek eta buruzagi tradizionalak osatzen dute kontseilua), baita ekintza zuzenen gidari ere. Candi Ugari Dakar osasungintzako aditua, oglala nazioko pertsona trans eta queerra, izan zen bi-espirtuen buruzagia Oceti Sakowin kanpalekuan. Haren ustez, «aterki erako kontzeptu bat da bi-espirtu, LGBTQAI+ gisa identifikatzen diren pertsona indigenak biltzen dituen». Kolonizazioak berekin ekarri zuen genero-binarismo bat, zeinak deuseztatu egin baitzituen indigenen historiako genero-formazio ugariak eta sexualitate aldakorak; indigenen moldeak askoz dinamiko eta zabalagoak ziren gizarte kristauak ekarri zuen familia nuklear heterosexualaren eredu bano. Kolonizazioaren aurretik, bi-espirtuek bazuten garrantzia sozial eta kulturala gizarte indigenen baitan: izendatze-zeremoniak gauzatzen zituzten, edo gizonen, emakumeen eta genero ez-binarioko pertsonen betekizunak eta ardurak hartzen zituzten beretzat». Bi-espirtuek betekizun zentrala izan zuten kanpalekuko bizitzan, heteropatriarkatua salatzeaz harago. «Bi-espirtuak daude segurtasun-taldean, eskolan, medikuen bulegoan eta sukaldean, eta ni neu Kontseiluko kidea naiz», azaldu du Ugari Dakarrekin. Bestela esanda, bi-espirtuen ordezkariak presente zeuden kanpalekuko eguneroko bizitzako alderdi guztietan.⁷⁹

Polizien eraso bortitzen ondorioz, itzalean geratu da mundu indigena anticolonialaren bisioa, non elkarrekin bizi baitziren

79 Molly Larkeyn, «Meet the Leader of the Two-Spirit Camp at Standing Rock», *GoMag*, 2017ko urtarrilak 13, gomag.com.

indigenak eta indigenak ez zirenak. Garaipen politiko inportanteak gertatu ziren, baina laburrak izan ziren, beranduegi iritsi eta ez ziren aski izan DAPL gerarazteko. 2016ko azaroaren 25ean, Armadako Ingeniariaren Kidegoak Oceti Sakowin kanpalekua husteko agindu bat igorri zuen; epemuga: abenduak 5. Epea amaitu bezperan, abenduaren 4an, Armadako Ingeniariaren Kidegoak jakinarazi zuen ez ziotela DAPLi eskumenik emango Missouri ibaia zeharka zezan, ingurumen-ebaluazio xeheago bat egin arte behintzat. Behin-behineko garaipen harekin batera, 4.000tik gora armadako veterano iritsi ziren kanpalekura: haizete bortitz bati ausardiaz aurre eginez, barrikadaraino joan ziren; han, polizia gupidarik gabe ari zen Uraren Babesleen aurka, arma kimikoak eta ur izoztua jaurtiz. Beteranoek barkamena eskatzeko zeremonia bat antolatu zuten: barkamena eskatu zieten adineko indigenei –Arvol Zaldi Beha, Faith Arrano Pikarta, Phyllis Young, Paula Horne, Jon Eagle Sr. eta Leonard Bele Txakur– AEBko armadak indigenen aurka egindako izugarrikeriengatik, zeinek ez baitzuten etenik, poliziak eta armadak jarraitzen baitzuten armarik gabeko protesta-egileei indarkeriaz erantzuten. Hilabete luzez jasandako bortizkeriaren aitortza zen. Baina ez zuen askorik iraun.

Zigorak kolektiboak ziren, baina zatiketak eragin zituzten. Poliziak, hilabete luzez, 1806 autopista blokatu zuen, Standing Rock bereiziz Ipar Dakotako estatutik eta tentsioa sortuz kanpalekuen eta bertako komunitatearen artean. Archambault mahaiburuak, abenduan, etxera joateko eskatu zien Uraren Babesleei, modu horretan apur bat arinduko zelakoan poliziaren kontrolen zama eta erreserbara etengabe iristen ziren kanpotarren fluxua. 2017ko urtarrilean, Trumpek presidente-kargua hartu eta ingurumen-azterketaren prozesua bizkortu zuen; ondorioz, DAPLi baimena eman zioten Missouri ibaiaren azpitik zuloak egiteko. Kanpalekuak ia erabat hustuta zeuden; orduan, Chase Burdin Begi izeneko Standing Rockeko aktibistak talde bat osatu zuen, «Azken Hauraren kanpalekua» izenarekin: Trumpen erabakiari erantzunez, itunpeko lurra erreklamatu zituzten. Poliziak berehala hustu zuen kanpalekua, lur-eremu pribatua zegoena, eta hirurogeita hamasei lagun atxilotu zituzten, tartean Burdin Begi. Otsailean, Cannon Balleko barrutiak eta Standing Rockeko kontseiluak hainbat ebazpen onartu zituzten, Harri Sakratu eta Oceti Sakowin kanpalekuetan geratzen ziren

apurrak ebakutzeko. Ekintza polemikoa izan zen: fakzioak elkarren aurka jarri ziren, hain justu ere, hil ala biziko une batean, non batasuna inoiz baino premiazkoagoa baitzen.

2017ko otsailaren 22an, Oceti Sakowin kanpalekuan geratzen ziren pertsonak indarrez atera zituzten Armadako Ingeniariaren Kidegoak, Morton eskualdeko poliziek eta Ipar Dakotako Autopistako Patruilak. Egun berean, Indiar Arazoetarako Bulegoak sarekada bat egin zuen eta Harri Sakratua kanpalekuan zeudenak bota zituen: hura izan zen erreserbako lurretan gertatu zen ekintza polizial bakarra eta hauspoa eman zion herri mugimenduen eta Standing Rocken arteko banaketa gero eta handiagoari. Zatiketek goia jo zuten martxoaren 10ean, Washington DCn, Nazio Natiboak Altxa izeneko manifestaldian: Uraren Babesleek txistuka erantzun zioten Archambaulten hitzaldiari, eta mitinetik alde egin zuenean, aurre egin zioten. Manifestaldian 5.000 lagun bildu ziren, Emakumeen Martxaren orpotik. Jende gutxi batu bazen ere, Standing Rocken aldeko babes bateratua erakutsi zen, nahiz eta batzuek ez zeuden ados buruzagitza politikoarekin. Era berean, ordena politiko ezarriak, bai demokratek bai errepublikarrek, gero eta desengainu handiagoa pizten zuten, mugimendua saldu baitzuten, lehenik Obamaren agintaldian eta, gero, Trumpen pean.

«Konponbide bakarra dago», esan zuen Lewis Grassropek, kanpalekuen hustuketaz eta Washington DCko martxaz ari zela. «Utziguzue garenak izaten. Utziguzue bizitzen. Utziguzue aske izaten».

Azken Uraren Babeslea esku-burdinekin lur-eremutik atera bitarteko denboran, mugimendu horretako 832 lagun atxilotu zituzten guztira. Haietako lauk hainbat urtetako kartzela-zigorrak jasotzeko arriskua dute. Red Fawn Fallis izeneko aktibistari, esate baterako, leporatzen zioten ezen, 1851ko Itunaren kanpalekuan izandako sarekadan –2016ko urriaren 27an izan zen, zehazki–, suzko arma batekin tiro egin zuela (gerora, atzera bota zuten akusazioa). Pistola, izan ere, Heath Harmon delako batena zen, FBIko informatzailea bera, zeina kanpalekuan sartu baitzen eta harremana izan baitzuen Fallisekin. Borroka politiko orotan bezalaxe, estatuak preso politikoen belaunaldi berri bat sortu zuen, etor zitezkeen mugimendu berriak adoregabetzeko. Fallisen familiak aktiboki parte hartu zuen AIM mugimenduan eta FBIk zelatatu zi-

tuen. Bere garaian, Leonard Peltier izeneko dakota preso politikoak islatu zuen Red Power mugimenduaren zanaketa; biziarteko bi kartzela-zigor betetzera kondenatu zuten Peltier, eta kartzelan dago egun. #NoDAPL mugimenduaren indarraldian, Obamak bizkarra eman zion herri indigenei, beste behin ere. Ikusirik indultu ugari eman zituela (adibidez, Oscar López Rivera preso politiko puertorricarra askatu zuten), eta aintzat hartuta poliziak indarkeria izugarria zerabilela Uraren Babesleen kontra eta horrek presioa handiagotzen zuela, indigena askok pentsatu zuten Obamak indultua emango ziola Peltierri ere. Baina Obamak errefusatu egin zuen presoaren eskakizuna. Gainera, #NoDAPLen ostean, hazi egin da preso politiko natiboen kopurua, Leonard Peltierren gisakoen kopurua: Redfawn Fallisi 57 hilabeteko espetxe-zigorra ezarri diote; Michael «Luma Txiki» Giron-i, berriz, 36 hilabetekoa; azkenik, Michael «Kriskitin-suge» Markus-i eta Dion Ortiz-i hainbat urtetako kartzela-zigorra eskatzen diete.⁸⁰

Akatsak akats, Oceti Sakowin jendeen bateratzeak berpiztu egin zuen mugimendu indigena berri bat, zeinak mundua erai-ki edo berreraiki nahi baitu indigenen balioen arabera, ezen ez jabetza pribatuaren eta heteropatriarkatuaren arabera. Herri indigenak buru-belarri jardun ziren zaintza-harremanak erdigunean jartzen; poliziak, berriz, bere ohiko rolari heldu zion, indarkeria-zen zaintzaile, eta segurtasun-indarrak ahalegindu ziren kolpetik itzaltzen erresistentziaren suak, haien garrak gehiegi berotu edo hedatu aurretik. Nolanahi ere, profeziak aipatutako Zazpigarren Belaunaldiaren sua piztuta dago, eta Oceti Sakowineko sua zeremonia gisara itzali bazen ere, islatuz erresistentzia-modu bat amaitu zela (eta beste bat hasi), haren ikatz epelek segitu dute Uraren Babesleen jatorrizko komunitateak hauspotzen.

Lakotentzat, suak aukera ematen du iraganarekin harremana egiteko, suaren inguruan kontaktzen baitziren istorioak eta haren inguruan ospatzen baitziren zeremoniak. Orain, indigenen erresistentzia-tradizio luzean txertatu da #NoDAPL. Baina, mugimendua ulertu nahi badugu, atzerago begiratu behar dugu, iraganera; historiari erreparatu behar diogu: lurraren, uraren eta bertako jendeen –Oceti Sakowin– historiari.

80 Informazio gehiago eskuratzeko, jo hona: Uraren Babesleen Lege Taldea, waterprotectorlegal.org.



1880an, Battiste Good-ek (Kapelu Marroi) neguko kontaketa bat egin zuen, eta, lehen piktografian, zera kontatzen da: nola iritsi zen Pte Ska Win, Bufalo Kume Zuri Emakumea. Oceti Sakowin jendeen figura historiko garrantzitsuena da Pte Ska Win deritzona, berak egin baitzuen lehen hitzarmena gizakiekin eta gizakiaz besteko munduekin. 2371 eskuizkribua: 12 Kutxa: F6, Artxibo Nazional Antropologikoak, Smithsonian Institutzioa, Artxibo Nazional Antropologikoak, Smithsonian Museoa Babesteko Zentroa; Suitland, Maryland.

BI

SORRERA

Estatu Batuen historiari eta hemen milaka urtez bizi izan den jendearekin herrialde horrek izan duen harremanari dagokion bezainbatean, kontuak ez ditu bi alderdi. Historia horretan ez daude bi bertsio. Ez dauka zu eskubiderik jendea tokiz aldarazteko, beren baliabideak lapurtzeko eta beren bizitzak osteko... Amerikak egin duena kriminala da. Eta horretan dihardute gaur egun ere.

*Elizabeth Cook-Lynn*⁸¹

Herri indigenek AEBko aginpideari erresistentzia erakutsi, errefusatu eta hari kontra egin badiote, bada funtsezko arrazoi bat horretarako: lurra. AEBren historia lurraldeari eta espazioaren eraldaketari dagokio osorik; funtsean, lurraldean hedatzea, herri indigenak deuseztatzea eta kolono zuriak ezartzea izan da herrialdearen joera nagusia. 1784an, hamahiru kolonia ziren, eta hasierako muga horietatik abiatuta, AEB azkar zabaldu zen mendebalderantz, Atlantikoko itsasertzetik Pazifikoko kostara: mende bat baino gutxiagoko epean, indigenen lurraldeen 2 bilioi akre anexionatu zituen, gutxi gorabehera. Gehiena, Mississippin ibaiaren mendebaldean.

Hor dago, besteak beste, Missouri ibaiko arroa: zirkulazio-sistema erraldoi bat da, hamaika erreka, ibai, erreka eta adarrek osatua; sistema horretako arteria nagusian husten dira denak, Mni Sose delakoan (Missouri ibaia). Oceti Sakowin jendeen kosmologian, Mni Sosereren abiapuntua da zerutik erori eta ubide horietako batera doan ur-tanta oro. Ibaia 2.466 milia luze

81 Elizabeth Cook-Lynn, «'There Are No Two Sides to This Story': An Interview with Elizabeth Cook-Lynn», Nick Estes-ek egindako elkarrizketa, *Wicazo Sa Review* 31:1, 2016, 40. or.

da, eta haren drainatze-arroak, berriz, 529.000 milia karratu har-
tzen ditu, alegia, AEBko kontinentearen seiren baten adinako
lur-masa. Mni Sosek zeharo baldintzatzen ditu Oceti Sakowin
jendeak eta haiekin batera lurralde berean bizi izan diren edo
haren kontra borrokatu diren beste nazio indigenak, bai behin-
tzat ur bizi-emaila horiekin izan dituzten harreman politiko,
kultural eta sozialek baldintzatzen dituen bezain beste.

Mundu horretan, ura bizitza da, eta bizitza da, orobat,
bufaloen nazioa, *pte oyate* deritzona. Behiala, bufalo-saldo za-
balek migrazioak egiten zituzten, sasoika, ibaiaren behaldien
eta emariaren arabera, eta animalien atzetik joaten ziren Ipar
Ordokietako ehiztari-nazioak ere. Mundu haren erdian zegoen
He Sapa delakoa, Muino Beltzak, *den guztiaren bihotza*. Lurraren
bihotza da He Sapa; Mni Sose, berriz, haren aorta. Lurralde ho-
rretatik jaio zen Oceti Sakowin nazio gisa, herri gisa, eta bertan
eskuratu zuen gizatasuna.

Asko idatzi da Missouri ibaiaren historiaz. Halere, lan
gutxik erreparatu diote, berariaz, ibaiak proiektu kolonialean
izandako betekizunari. Ibaiaren ingurua lurralde hilgarri, arris-
kutsu eta bizitzeko desegokitzat jo izan da: ikuspegi hori agerian
geratzen da hainbat libururen izenburuetan –*Unruly River* (Ibai
hezigailta), *River of Promise*, *River of Peril* (Promesen ibaia, arris-
kuaren ibaia) eta *The Dark Missouri* (Missouri iluna)– eta orobat
islatzen da kolonoek ibaiari emandako ezizenean: «Old Misery»
deitzen zioten (Miseria zaharra), maiz egiten zuelako gainezka,
jabetzak hondatuz.⁸² Lehen kolonoek sarritan esaten zuten Mis-
souriko arroa lurralde irrazionala eta bortitza zela, indigenen
arteko gudu amaiezinez bete; kolonoen iritziz, lurraldea bezain
irrazionalak eta bortitzak ziren herri indigenak. «Lurralde zora-
garria da hau» idatzi zuen Alexander Henry izeneko merkataria
britainiarra, 1800an, Ipar Ordokiei buruz ari zela, «eta ez balego
etengabeko gudarik, bertako jendea izan zitekeen Lur gaineko
herririk zoriontsuena».⁸³

82 Robert Kelley Schneiders, *Unruly River: Two Centuries of Change Along the Missouri* (Lawrence, KS: University of Kansas Press, 1999); John E. Thorson, *River of Promise, River of Peril: The Politics of Managing the Missouri* (Lawrence, KS: University of Kansas Press, 1994); Henry C. Hart, *The Dark Missouri* (Madison, WI: University of Wisconsin Press, 1957).

83 Hemen aipatua: John C. Ewers, «Intertribal Warfare as the Precursor of Indian-White Warfare on the Northern Great Plains», *Western Historical Quarterly* 6:4, 1975, 397. or

Europako eta AEBko esploratzaile, merkatari eta kolonoek «siux» deitu zieten inguru hartako nazio ugariari, eta mitologia oso bat osatu zuten haiei buruz, adieraziz haiek zirela, Ipar Amerikako herri indigenen artean, gorroto eta beldur handiena pizten zutenak, baita bortitzenak ere. Gudarien gizarte noble gisa hartu izan dituztenez, mugaldeko hiper-maskulinitate biolentoaren sinbolo bihurtu dira, eta gaur egun kultura indigenaz indarrean den irudi estandarraren oinarria dira: tipitan bizi ziren zaldunak, buruan kapelu lumadunak jantzita, eta alderrai ibiltzen zirenak lurraldean barna, senidetzat zituzten animalia basatiak bezalaxe. Gisa horretako irudikapena islatzen zuen Ipar Dakotako Unibertsitatearen maskota arrazistak, «Siux Borrokalaria» izenekoak (2012an kendu zuten): gizonezko gudari natibo baten burua zen, gorputzik gabea. (Estatu horretako tribuen artean, Standing Rockeko siuxak izan ziren maskota horren aurka agertu ziren bakarrak).⁸⁴ Era berean, «siux gudariaren» mitoa erakusten da 1990eko *Dances with Wolves* filmean, zeinak hainbat sari eskuratu baitzituen. Halako estereotipoak ez dira masa kulturaren bakarrik agertzen. AEBko historialari gailen batzuek, hala nola Richard Whitek, honako irudi hau eman dute siuxei buruz: arpilatzaile-saldo bat zirela, hedatu zaleak; beren bizilagun indigenak kanporatu zituztela indarrez, eta –ironikoki– ez zirela inoiz pasa Missouri ibaitik mendebaldera, harik eta, 1776an, Independentzia Adierazpena sinatu zen arte.⁸⁵ Egiaz, siuxak etorri-berri inperialista moduan sailkatzeko ahalegin horien bitartez –etiketa hori egokiagoa da AEBrentzat–, adierazi nahi zen siuxak herri nomada, sustraigabe, alderrai eta gaiztoa zirela; horrela, irensteko errazagoa zen haiek kanporatu, genozidio bidez hil eta kolonizatu izana.⁸⁶ Indigenek tentu handiz gorde dituzten istorioek –hala nola dakota eta lakoten neguko kontaketeak– eta ahozko kontakizunak bestelako irudi bat erakusten dute. Neguko kontaketen bidez, urte edo negu bakoitza marka-

84 Ikus Nick Estes, «Why a Team Name is More than a (Racist) Word», *High Country News*, 2017ko abenduak 22, hcn.org.

85 Richard White, «The Winning of the West: The Expansion of the Western Sioux in the Eighteenth and Nineteenth Centuries», *Journal of American History* 65:3, 1978, 319-343. or. Ikus, halaber, Gary Clayton Anderson, «Early Dakota Migration and Intertribal War: A Revision», *Western Historical Quarterly* 11: 1, 1980, 17-36. or.

86 Ikus Heidi Kiiwetinepinesik Stark, «Criminal Empire: The Making of the Savage Land», *Theory and Event* 19:4, 2016.

tzen zen: horretarako, gertakari esanguratsu baten piktografia egiten zen larruan (edo, batzuetan, paperean), eta harekin batera gertakariaren berri ematen zen ahoz; kontaketa horiek familien, banakoen eta nazio osoen historiak gordetzen dituzte zorrozta-sun handiz.⁸⁷ Nolanahi ere, AEBko historialariek modu okerrean interpretatu dituzte neguko kontaketak, eta nahita egin dute hori, beren ikuspegi batzuk berresteko, adibidez, lakotek 1776 inguruan zeharkatu zutela Missouri ibaia eta, ondorioz, garai beretsuan «deskubritu» zituztela Muino Beltzak.⁸⁸

Dakota, Nakota eta Lakota nazioek inoiz ez zuten beren burua «siux» izendatu; termino hori, aitzitik, *nadouessioux* hitzetik dator: Ojibwe nazioak «suge txiki» deitzen zien bere mendebaldeko etsaiei, eta frantsesek hitz hori hartu eta beren ahoskerara moldatu zuten. Dakota, nakota eta lakotek, simpleki, oyate deitzen zioten beren buruari: «nazioa» edo «herria» esan nahi duena; batzuetan, berriz, «oyate luta» izena erabiltzen zuten (nazio gorria). Bestalde, konfederazio politiko bat zirela adierazteko, «Oceti Sakowin Oyate» izena erabiltzen zuten (Zazpi Kontseilu-Suen Nazioa). Ereku geografiko zabal-zabal batean bizi ziren. Dakota-hiztunen nazio zaharrenak mendebaldeko Laku Handietako baso, izotz-laku eta ibaietan bizi ziren batez ere. Lau nazio dira: Mdewakantonwan (ur ertzean bizi den nazio sakratua), Sissintonwan (ur ertzean bizi den botiken nazioa); Wahpentonwan (basoan bizi den nazioa) eta Wahpekute (hostoen artean tiro egiten duen nazioa).⁸⁹ Nakota-hiztunen nazioak Missouri ibaiaren ekialdeko ertzetan abiatzen den erdialdeko lurraldearen zaintzaileak dira. Bi nazio dira, eta kanpaleku-adarrean duten tokiaren araberrako izenak dituzte: Ihanktonwan (amaieran kanpatzen den nazioa) eta Ihanktowanna (amaieran kanpatzen den nazio txikia). Lakota-hiztunen nazioak dira

87 Uste izaten da lakoten neguko kontaketak XIX. mendeko berrikuntza bat direla, eta dakotak ere talde sozial berri samar bat. Battiste Good neguko kontaketak, ordea, argi uzten du lakotak bazirela, jada, hamargarren mendean, eta auzitan jartzen du dakota herria bere aberrian bizi ote zen hori baino askoz lehenago. Ikus Candace S. Greene eta Russell Thornton, editoreak, *The Year the Stars Fell: Lakota Winter Counts at the Smithsonian* (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 2007), 292-297. or.

88 Ikus, adibidez, Elizabeth R. P. Henning, «Western Dakota Winter Counts: An Analysis of the Effects of Westward Migration and Culture Change», *Plains Anthropologist* 27:95, 1982, 57-65. or.

89 Gwen Westerman eta Bruce White, *Mni Sota Makoce: The Land of the Dakota* (St. Paul, MN: Minnesota Historical Society Press, 2012), 22. or.

gazteenak eta zabalenak: Missouri ibaiaren mendebaldean, Ipar Ordokien eremu zabala hartzen dute, eta Tintonwan dute izena (ordokietako nazioa). Tintonwan delakoen barruan, zazpi multzo bereizten dira: Oglala (beretarrak sakabanatzen dituen nazioa), Sicangu (izter errener nazioa, edo, Brulé), Hunkpapa (biribilaren buruko nazioa), Mniconjou (ur ertzean ereiten duen nazioa), Itazipco (gezirik gabeko nazioa, edo Sans Arc), Sihasapa (oinbeltzen nazioa) eta Oohenupa (bi teontzien nazioa).⁹⁰

Gizarte gehienetan gertatzen den bezala, era askotakoak dira Oceti Sakowin jendeen sorrera-istorioak: nazio horretako kideek eta oraindik ere bizi eta babesten dituzten lurraldeek adinako aniztasuna dute. Adibide bakan batzuk aipatzearren, beren sorrera-istorioen arabera, nazio hori lurretik azaleratu zen *-wase* izenekotik (lokatz gorria)-; He Sapatik; *Bde Wakan* deritzonetik (Laku Espiritua edo Mille Lacs); *Wicahpi Oyate* deritzonaren ondorengoa da (Izarren Nazioa); *Pte Oyate* deritzonarena (Bufaloen Nazioa) eta Atlantikoko kostatik eta Erdialdeko Amerikatik migratu zutenena. Sorrera-istorio horien artean, batzuk ez dira besteak baino egiazkoagoak. Hala ere, ezaugarri komun bat dute: denek ematen diote garrantzia, modu kolektiboan, geografia zehatz batean gertatzen den esperientzia historikoari, eta unibertso moral bat eraikitzen dute elkarrekiko harremanen eta lurrarekiko harremanen moduz. Kolonoen kontakizunetan, Oceti Sakowin jendeak, onenean, «berandu iritsi» ziren Missouri ibaiaren mendebaldera; txarrean, berriz, hedatu egin ziren, arrazoi ekonomikoek bultzatuta, AEBren etsaiak bezala, ibaiko merkataritzaren kontrola hartzeko asmoz, eta, horretarako, bortizkeriaz kanporatu zituzten beste nazio indigena batzuk; Oceti Sakowin jendeen sorrera-istorioek, ostera, kontraesanean ipintzen dute kolonoen bertsioa.

Luther Hartza Zut lakota autorearen arabera, idatzizko legerik ez zegoen arren, Oceti Sakowin jendeen gizarteetan «kontzientzia tribal handia» nagusitzen zen norbanakoen mailan. Giza instituzioek ez zuten indarra ez bortizkeria erabiltzen

90 Horiek denak «nazioak» direla adierazi dut, zeren, nahiz eta dibisio guztiek nazio bakar baten antolakunde politikoa osatzen zuten, haietako bakoitzak nazio bereizi gisa ikusten zuen bere burua. Oceti Sakowin jendeen banaketa politikoari buruz eta izen bakoitzaren jatorriari buruzko gehiago jakiteko, ikus Josephine Waggoner, *Witness: A Húnkpapha Historian's Strong-Heart Song of the Lakotas*, editorea Emily Levine (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 2013), 39-52. or.

jarrera jakin batzuk ezartzeko. Elkartasunean eta elkarrekiko se-
nidetzan oinarritzen zen jarrera soziala; Hartza Zutek *woucage*
deitzen dio horri, «gauzak egiteko gure modua». Taldeko elkarta-
suna urratzen zenean, goreneko zigorra erbestea zen, eta horrek
«identitatea galtzea edo hiltzea zekarren». Norbanakoaren lehen
erantzukizuna, baita erantzukizun garrantzitsuena ere, kolekti-
boaren biziraupena ziurtatzea zen. Erabaki guztiak –izan ehizari,
bidaiari edo guduari buruzkoak– komunitatearen mailan har-
tzen ziren, kontseilu ireki batean: kontseiluak aginpide politiko
deszentralizatuak ziren, eta, sarritan, haien lidergoa txandaka
egiten zen, eta iritzia emateko eskubide bera ematen zitzaion
emakumeen eta gizonen gizarte bereiziei; batzuetan, ohorezko
tokia ematen zitzaion *wintke* gizarteari, zeinek ez baitzuen bat
egiten genero-rol bitarrekin. Oceti Sakowin jendeen batzarrak
–*Oyate Okizu* izenekoak– garrantzi handiko egoeretan soilik anto-
latzen ziren, adibidez, eguzki-dantzen kasuan; XIX. mendearen
amaieran, aldiz, halako biltzarrak antolatu ziren itunak nego-
ziazteko eta AEBren inbasioari aurka egiteko. Beren ohitura eta
arauen kontrakarrean, lakotek, gizon zuriaren legea deskribatze-
ko, *woope wasicu* terminoa sortu zuten: «legearen ekipamendu
krudela» deskribatzen zuen termino horrek, hau da, soldadu eta
polizia armatuak, pistolak, kanoiak, balak, kateak eta presonde-
giak. Luther Hartza Zuten arabera, gisa horretako legeak «ez zuen
ordena ezartzen, ezpada indarra eta desordena».⁹¹ Nazioaren
barruan harreman onak izatearen atzetik, norbanakoaren bi-
garren betebeharra zen lurralde komunala babestea. Ekialdean,
dakoten lurraldea zedarritzen zuten arroz-soro basatiek eta sa-
soian sasoikoen baratzeak –artoa, babarrunak eta kuiatxoak–.
Mendebaldean, berriz, lakoten lurraldea urrunera zabaltzen zen,
Powder ibaiaren inguru emankorrera bidaiatzen zuten bufa-
lo-taldeak bezain urrun. Dakota, lakota eta nakotentzat, beren
lurraldea zen landareekin edo animaliekin harremanak izaten
zituzten leku oro; maiz samar, beste nazio indigena batzuen ere-
muei gainjartzen zitzaizkien, eta horrek liskarrak pizten zituen
zenbaitetan.

91 Luther Hartza Zut, *Land of the Spotted Eagle* (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 1978), 124–6.

Esate baterako, lakotak ez ziren, inondik ere, Muino Beltzekiko loturak zituen nazio indigena bakarra. Herriak aliantza bidez uztartzen zirenean (izan senidetza-harremanen bitartez, izan biziraupen hutsagatik), besteen istorioen ezaugarriak txertatzen zituzten beren ikuspegian. Berrogeita hamarretik gora nazio indigenak zituzten Muino Beltzekiko harreman eta lotura beretsuak eta, sarritan, elkarri gainjartzen zitzaizkionak; besteak beste Arikara, Osage, Shoshone, Assiniboine, Gros Ventre, Pawnee, Mandan, Hidatsa, Kiowa, Ponca, Crow, Omaha, Winnebago, Cheyenne, Arapaho eta Blacfeet nazioek.⁹²

Nazio Batuen Erakundea osatzen duten herrialdeek bezala, Oceti Sakowin jendeen autoritate politikoak ez zuen eragozten hura gerran hastea beste nazio indigena batzuekin. Luther Hartza Zutek, 1931ko lakota guduez ari dela, horrenbeste onartzen du. Historialariak aipatzen duenez, AEBk kriminalizatu egin zuen indigenek gudua egiteko eta lurraldea defendatzeko adinako autoritate politikoa aldarrikatu izana. «Lurra geuretzat gordetzen genuen», dio, «beste tribu guztiak gugandik urrun mantenduz». Zuriak hasi zirenean Oceti Sakowin jendeen botere politikoaren beldur izaten, «siux deitu ziguten»;⁹³ hala dio Hartza Zutek. Kolonoen hizkeran, «kriminal» hitzaren baliokidea bihurtu zen «siux» terminoa, eta inbasioa eta gerra amaigabea zuritzeko baliatu zuten. Alabaina, akademiko eta intelektual indigenek azken bi mendeetan salatu dutenaren haritik, Oceti Sakowin jendeek ezaugarri asko zituzten, eta gerra, diplomazia eta burujabetza horietako batzuk besterik ez ziren. Hala eta guztiz ere, XIX. mendean Missouri ibaian eta Ipar Ordokietan bizi ziren indigenez kolonoek idatzitako kontakizunetan, «siuxen» gerra, diplomazia eta subiranotasuna dira nagusi. Horren zergatia, ordea, ez da nazio indigenak berez direla militaristak, baizik eta, AEBren ezagutza, batez ere, armadaren bidez egin dutela –lakotek «Milahanskan» esaten zioten AEBri (laban luzeen nazioa)–.

Missouri ibaian, indigenen eta AEBren arteko lehen el-karreraginak militarrik izan ziren. 1803an, Thomas Jefferson

92 Craig Howe, Lydia Whirlwind Soldier eta Lanniko L. Lee, editoreak, *He Sapa Woihanble: Black Hills Dream* (St. Paul, MN: Living Justice Press, 2011); N. Scott Momaday, *The Way to Rainy Mountain* (Albuquerque, NM: University of New Mexico Press, 1976); Jeffrey Ostler, *The Lakotas and the Black Hills* (New York: Viking, 2010), 3-27. or.

93 Luther Hartza Zut, *My Indian Boyhood* (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 2005), 2.

presidenteak Louisiana estatua erosi zion Frantziako Errepublikari: guztira, 827 milia akre anexionatu zituen. Louisianako Lurraldeak osorik hartzen zuen Missouri ibaiko arroa, eta garaiko AEB jaioberriaren lurraldea halako bi zen, gutxienez. Luze gabe, Jeffersonek hara bidali zituen Meriwether Lewis eta William Clark, espedizio militar bat gidatzera Missouri ibaian gora, armekin, banderekin eta «opariekin» hornituta, lur «berria» eta bertako jendearen jabetza aldarrika zezaten. Beren xedea zen eremua eta bertako nazioak AEBren subiranotasunaren mendekoak zirela aldarrikatzea, eta herri indigenek merkataritza-harremanak abia zitzatela AEBrekin. Nazio indigena guztien artean, bakar bat aipatu zuen Jeffersonek izenez: «siuxak». «Nazio horrekin», manatu zion Jeffersonek Lewis, «bereziki lagunkoi jardun nahi dugu, botere izugarria dutelako eta jakin dugulako irrikatan daudela gurekin harreman guztiz adeitsuak izateko».⁹⁴

Deskubrimenduen Kidegoak (AEBeko armadako unitate bat), ibaian gora joan ahala, Oceti Sakowin jendeen dibisio ugari topatu zituen. Missouri ibaian barna nabigatzen ari zirela, Big Bend deritzon lekua pasa ondoren (gaur egun, Crow Creek eta Lower Brule erreserbak daude hor), sicangu talde batek, hau da, lakoten azpi-sail politiko batek, harrapatu zuen espedizioa; 1804ko irailaren amaiera zen.⁹⁵ Lakotek, ohi zuten gisara, kidegoa agurtu zuten ipar mendebaldean altxatzen zen ke-luma batekin, zeinak adierazten baitzuen espedizioa aurkitua zutela. Lakotek batzartzeko eta ordainketa-motaren bat egiteko eskatu zieten espedizioko kideei, beren lurraldean barna igarotzearen truke, baina Lewisek eta Clarkek errefusatu egin zuten lakotek eskumena zutenik nor igaroko zen, eta zer preziotan, erabakitzeko; entzungor egin zioten, argiro, Jeffersonen «lagunkoi jarduteko» aginduari.

Zortzi egunez ahalegindu ziren ibaian barna segitzen bidesaririk ordaindu gabe, baina ez zuten lortu; orduan, Lewisek eta Clarkek indarkeriara jo zuten. Espedizioan boluntario aritutako John Ordway-ren arabera, Clarkek zera jakinarazi zion lakoten

94 «Jefferson's Instructions to Lewis», *Journals of the Lewis and Clark Expedition*, vol. 7, 293.

95 Espedizioak «Teton-ak» deitu zion lakota-talde horri. Seguru asko, tintonwan (teton) nazioaren dibisio bat topatu zuten: sicangu delakoak (Brule-ak). Gaur egun, bitan banatzen dira sicangu nazioak: Lower Brule Sioux tribua and Rosebud Sioux tribua.

buruzagi Bufalo Beltzi: Thomas Jeffersonek bidali zituela, eta «denak suntsitu» ahal zituela⁹⁶. Baina Lewis eta Clark inguratuta eta estututa zeuden, argi eta garbi, beraz alferrekoak ziren haien mehatxuak. Bufalo Botika izeneko buruzagia jardun zen sican-guen eta Deskubrimenduen Kidegoaren arteko negoziazioetan bitartekari-lanak egiten, eta ez zion utzi espedizioari aurrera egiten; horregatik, Lewisek eta Clarkek bahitu egin zuten (baliteke beste buruzagi batzuk ere bahitu izana), eta hala ziurtatu zuten iparraldera igaroko zirela. (Bufalo Botika gerora askatu zuten, espedizioa lakoten lurretik atera zenean). Ohikoa zen indigenak bahitzea; Jeffersonek, hain zuzen, hori egiteko gomendatu izan zion Lewisi: «eragin handiko buruzagiak» edo haien umeak hartzeak «nolabaiteko segurtasuna emango dio zure taldeari».⁹⁷ Clarkek, gerora, topaketa haren inguruan hausnartuz, esan zuen lakotak zirela «arraza basatiko gaizkile doilorrenak, eta Missouriko piratak izango dira betiko». Eta honela jarraitu zuen: «Jende hori ez baldin badugu ordenara makurrarazten, hertsapen-neurrien bitartez, prest nago esateko Estatu Batuetako hiritarrek partez bakarrik baliatuko dituztelako Missourik erakusten dituen abantailak». Eta, azkenik: «[Siuxek] mespretxuz hartzen dituzte Missouriko merkatariaik; harrapatzen dituztenean, aldiro arpilazten dituzte».⁹⁸

Historialariek kritikotasunik gabe onartu dute Lewisek eta Clarkek lehen topaketa hartaz kontaktu zutena, hitzez hitz onartu ere: espedizioa aboratu omen zuen erreka-piraten talde batek, Robison Crusoe-ren fantasiatzko nobeletatik hartua zirudienak. Kontakizun horren agerraldi berrienak izan dira Stephen Ambrose historialari estatubatuarrek 1997an idatzitako liburu arrakastatsua, *Undaunted Courage*, eta Ken Burns dokumental-egileak AEBko telebista publikorako (PBS) 2001ean egindako *Lewis and Clark* filma.⁹⁹ Baina, bertsio horietan, lakotek ez dute

96 Hemen aipatua John Ordway, «September 25, 1804», *Journals of the Lewis and Clark Expedition*, (Lincoln, NE: University of Nebraska), hemen eskuragarri: <lewisandclarkjournals.unl.edu>.

97 «Jefferson's Instructions to Lewis», 250. or. Espedizioak bahitutakoei buruzko azalpenak, hemen: ikus Craig Howe, «Lewis and Clark among the Tetons: Smoking Out What Really Happened», *Wicazo Sa Review* 19(1) (2004): 47-72. or.

98 Hemen aipatua: Meriwether Lewis eta William Clark, *The Travels of Capts. Lewis and Clarke* (London: Longman, 1806), 171-172. or.

99 Ikus Kim TallBear, «Stephen Ambrose's Undaunted Courage: A White Nationalist Account of the Lewis and Clark Expedition», in *This Stretch of the River: Lakota, Dakota,*

zeresan handirik topaketaren inguruan. Nonbait, Lewis eta Clark etorri eta joan ziren, eta lakotek lehen bezala bizitzen jarraitu zuten. Ohiko elkartrukea zen hura: zurientzat, indigenak kutsu exotiko bat baino ez ziren, lurraldean barna banderekin eta pistolekin bidaiatu bitartean aurkitzen zutena. Clarken esanetan, ibaiaren behealdeko Ihankowan herriak ere, «baketsuagoa» izan arren, ibaia zeharkatzen zuten merkatarien «garapena eteten zuen», bidesariak ezarriz eta merkataritza-prezioetara egokitu beharrean, horiek exigituz.¹⁰⁰ Dena den, AEBrentzat garrantzia handia izan zuen lehen elkartruke hark, eta sakonki taxutu zuen nazio indigena harekiko sentitzen zutena: «Missouriko pirata» kriminaltzat hartzen zituzten. Craig Howe oglala historialariak azaldu duen eran, truke hark «hauspoa eman zion iruzurraren ekaitz-hodeiei, zeinek, zentzu batean, bi mendez ilundu baitituzte» AEBren eta lakoten arteko harremanak.¹⁰¹

Jeffrey Ostler historialariaren iritziz, oster, AEBk indiarren auzian izan zuen, genozidioaren oinarriak hainbat hamarkada lehenago ezarri ziren, 1787an, Ipar Mendebaldeko Ordenantzaren bidez.¹⁰² Ordenantza horrek bidea ireki zuen koloniak ezartzeko Ohio ibaiaren iparraldean eta Laku Handien eskualdean: hainbat lurralde sortu ziren, gerora Ohio, Indiana, Illinois, Michigan eta Wisconsin izeneko estatuak bihurtu direnak. Gainera, 3. artikulua zehazten zuen ezen («indiarrei» zegokionean) «ez zirela haien jabetzak, eskubideak eta askatasuna inbaditu eta eragotzi behar inoiz, salbu eta Kongresuak baimendutako gerra justu eta legezkoetan». Ostlerrek nabarmentzen duenez, horrek «ez zuen genozidiorako deia egiten zuzenean», baina genozidio-gerra legeztatzen zuen, baldin eta ezin baziren lur-lagapenak lortu bitarteko «baketsuak» erabiliz eta herri indigenak ez bazeuden prest AEBren aginpideari men egiteko».¹⁰³

and Nakota Responses to the Lewis and Clark Expedition and Bicentennial, editoreak Craig Howe eta Kim Tallbear (Sioux Falls, SD: Pine Hill Press, 2006), 45-57. or.

100 Lewis and Clark, *Travels*, 171. or.

101 *Ibid.*, 55. or.

102 Jeffrey Ostler, «'Just and Lawful War' as Genocidal War in the (United States) Northwest Ordinance and Northwest Territory, 1787-1832», *Journal of Genocide Research* 18:1, 2016, 3.

103 Azpimarra nik gehitu dut. *Ibid.*, 1. or.

1823an, AEBko Auzitegi Gorenak *Johnson v. M'Intosh* epaia kaleratu zuen: epai horretan, Auzitegiko presidente John Marshall-ek xeheki azaldu zuen zein ziren Estatu Batuen esku-bideak indigenen lurrei zegokionean; legedia horren oinarrian ere hainbat mendetako doktrina zegoen. Epaia ren arabera, herri indigenek lurra «okupatzeko» eskubidea zuten, ez besterik, eta horrek zera esan nahi zuen: indigenen lurrak har zitzaketela lurrok «deskubritzen zituztenek»; horri, «Deskubrimenduaren Doktrina» zeritzon. Nozio horrek hamabosgarren mendean Aita Santuak emandako bulda batean zuen sorburua: «Kristau deskubrimenduaren doktrina» esaten zitzaion, eta kristau nazioak eta kristauak ez zirenak bereizten zituen. Azken horiek herri «salbai» moduan hartzen ziren, europar zibilizazioaren oparieren zain zeudenak, eta Steven Newcomb lenape akademikoaren esanetan, AEBren ulerkeran, doktrina horrek ezartzen zuen herri indigenak «politikoki inexistenteak [zirela], partez edo osoki».¹⁰⁴ Ondorioz, indigenek lurraren gainean zuten eskubidea ezin zen deuseztatu, ez baitzen existitzen. *Johnson* epaiaren harira, Tonya Gonnella Frichner-ek, nazioarteko legelari eta onondaga herritar-rrak, zera dio: «Estatu Batuek, sortu berritan, premiazkoa zuten identitate politiko amerikar indiar jakin bat eta indiarren lurrari buruzko kontzeptu jakin bat sortzea, bidea ireki ziezaien hedapen koloniala gauzatzeko mendebalderantz».¹⁰⁵ Mito fundatzaile hori, noizbait ere, «Ageriko Patua» izenez eman zen ezagutzera.

1807an, espedizioaren ostean, Jeffersonek Louisianako lurraldeko brigadier nagusi eta indiar arazoetarako agente izendatu zuen Clark, eta gizona lanpostu horretan jardun zen Gerra Departamentuan, harik eta 1838an hil zen arte. Espedizioa eta Mississippi ibaiaren mendebaldeko lurraldeen anexioa mendebalderantzko bultzada azkar baten parte ziren, eta Louisianaren erosketa mugarriz izan zen. Batetik, baliabideak eskaintzen zituen hegoaldeko plantazioetako kapitalistek merkatu berrietara zabal zezaten beren «kotoi-erreinua», horregatixe zen berebizikoa nazio indigenei merkataritza-harremanak inposatzea. Hedape-

104 Steven Newcomb, *Pagans in the Promised Land: Decoding the Doctrine of Christian Discovery* (Golden, CO: Fulcrum, 2008), 104. or.

105 Tonya Gonnella Frichner, *Preliminary Study on the Impact on Indigenous Peoples of the International Legal Construct Known as the Doctrine of Discovery*, Nazio Batuen Kontseilu Ekonomiko eta Soziala, Auzi Indigenei Buruzko Foro Iraunkorra, New York, Apirilak 19-30, 2010, E/C.19/2010/13, 11.

nik gabe, plantazio-sistema huts egitera kondenatuta zegoen.¹⁰⁶ Jeffersonek «Askatasunaren Inperio» bat irudikatzen zuen Missisippiren mendebaldeko lurretan; nekazarien inperio hori egiteko, premiazkoa zen beltzen esklabotza hedatzea eta indigenen lurrak jabetza pribatu bihurtzea. Hala, aldi berean gertatu ziren plantazio-sistemaren hedapena eta indigenen desjabetzea eta leku-aldatzea.

Jeffersonen ikuspegian, Louisianako lurraldeak partez konpontzen zuen «indiar arazoa», arazoa izanik, hain zuzen, Estatu Batuek desio zituzten lurretan «indiar tribuak» bizi zirela oraindik. «Bost tribu zibilizatuak» esan izan zaienak ziren presidentearen jomuga nagusia –Cherokee, Choctaw, Chickasaw, Muscogee eta Seminole–; bere helburua zen ekialdeko nazio horiek haustea eta, azkenerako, desegitea. Nazio horiek esklabojabe bihurtuak ziren, eta etxalde eta plantazioak zituzten, beren auzokide zuriek bezala; hortaz, beren jabetza-moduak lurralde hartan geratzeko eskubide-aldarrikapenaren itxura zuen. Horregatik, haiek atera beharra zegoen. Eta mendebaldeko lur berriek aukera eskaintzen zuten ekialdeko indigenak tokiz aldatzeko. Adibidez, Louisianako Lurraldearen Legeak, 1804koak, zera baieztatzen zuen 15. atalean: «Estatu Batuetako presidentek, honen bidez, baimena du lurralde-trukaketak hitzartzeko Missisippiaren ekialdean lur-jabegoak dituzten, eta, beraz, bertan bizi diren indiar tribuekin, eta haiei eskaintzeko Estatu Batuen jabegoko lurrak, Missisippiren mendebaldean daudenak, baldin eta aipatu tribuak dauden lekutik atera eta bestean ezartzen badira». Jeffersonek ekialdeko nazio indigenak metatu nahi zituen gero eta gehiago murrizten ziren lur-eremuetan. Nazio horien ehizakiak, lurrak eta baliabideak urrituz, behartu zitzaaketen «integratzera» ala «Missisippitik harago ateratzera».¹⁰⁷

Dakotak, nakotak eta lakotak merkataritzan jardunak ziren frantziarrekin eta britainiarrekin, Lewis eta Clarken espedizioa iritsi baino hainbat hamarkada lehenagotik. 1800eko hamarkadaren hasieran, larruaren merkataritzak Ipar Ordokietako bizitza inguratzen zuen (europarrek, bestalde, Biblia, pistola

106 Ikus Walter Johnson, *River of Dark Dreams: Slavery and Empire in the Cotton Kingdom* (Cambridge, MA: Harvard University Press, 2013).

107 Bernard W. Sheehan, *Seeds of Extinction: Jeffersonian Philanthropy and the American Indian* (New York: Norton, 1973), 245. or.

eta gaitzak ere ekarri zituzten), eta lakotei biziki interesatzen zitzaizten ibaiako merkataritzaren aginteari eustea; ez zuten inondik ere onartzen AEBk lurraren eta ibaiaren gaineko jabegoa aldarrikatzea.¹⁰⁸ Baina lakotek ez zuten sekula uste izan ibaiaren jabe zirenik; aitzitik, berek zegozkion ibaiari. Mende ugari pasa zituzten lurrarekiko eta urarekiko harremanean bizitzen, eta horrek indartu egiten zuen beren ikuspegia. 1804. urtea iritsi orduko, ibaiako merkataritzari ere bazegozkion, bai ekonomiaren aldetik bai politikan: ibaia beren bizigarritasunaren eta biziraupenaren iturri bihurtu zen, beste zentzu batean.

Hasierako kolonoek eta merkatariek, tranpak ipintzeko eta ehizan egiteko, indigenen lan-indarra eta babesa behar izan zuten oso sarri; trukean, gizarte indigenek merkataritzako ondasunak behar zituzten, hala nola oihala, pistolak, munizioa, labanak, burdinezko sukaldaritzak eta elikagaiak.¹⁰⁹ Garai kolonial goiztiarretatik hasi eta XIX. mendearen amaierara arte, larruaren merkataritza menderatu zuten elkarren lehiakideak ziren merkataritza-enpresek (eta elkarren lehiakideak ziren europar kolonizatzaileek), eta, tartean behin, merkataritza-gerrak hauspotzen zituzten indigenen artean. 1806tik 1835era bitartean, AEBk indiar arazoetarako zuen politikaren barruan, merkataritza-etxeen fabrika-sistema bat ezarri zen, merkatarizurien joera kriminala apaltzeko asmoz; neurri hark, ordea, ez zuen eragin handirik izan, delitu beretan jarduten zirelako AEBko gobernuak eta merkatarizurien berak ere: jabetzetan baimenik gabe sartzen eta lapurretan.¹¹⁰ Enpresa guztiak aritzen ziren kastore-larruarekin, hura Europako eta AEBko merkatuetan saltzeko; nolana ere, 1830. urterako, ez zen kastore-talderik gehiago.

Historialariek eta arkeologoen uste dute nagusiki herri indigenak izan zirela Ipar Ordokietan animalia iletuak desagertu izanaren erantzuleak; bestalde, zaldien kultura beretzat hartzeak areagotu egin zuen herri indigenek bufaloa ehizatzeko zuten gaitasuna.¹¹¹ Alabaina, haien gaitasunak ez ziren inoiz

108 Jeffrey Ostler, *The Plains Sioux and US Colonialism from Lewis and Clark to Wounded Knee* (Cambridge: Cambridge University Press, 2004), 21. or.

109 *Ibid.*, 28-29. or.

110 William R. Swagerty, «History of the United States Plains Until 1850», in *Handbook of North American Indians*, vol. 13, Plains, pt. 1, eds. Raymond J. Demallie eta William C. Sturtevant, 261-270. or.

111 Ikus Vine Deloria Jr., *Red Earth, White Lies: Native Americans and the Myth of Scientific*

izan harrapakari eta ehiztari zurien hiltzeko efikaziaren parekoak. Adibidez, XIX. mendean jaun eta jabe izan zen, tranpen eta harrapakaritzaren arloan, «Mendi Harritsuetako sistema» deritzona, oso efizientea, eta azkar asko gutxiagotu zituen animalia iletuak. Enpresetako langile-unitateak, leporaino armaturik, ohartuki sartzten ziren lakota eta arikara lurraldeetan, baimenik gabe, eta, aurrera egin ahala, beren posizioak eta merkataritza-bideak gotortzen zituzten.¹¹² Indigenen ohiturei jarraiki, inori ez zitzaion ehizatzea debekatzen, baldin eta biziraupenerako bazen. Etekin bila ehizatzen zuten zuriei, ordea, mugak jarri zitzaizkien; horrenbestez, hainbeste erromantizatu izan diren gizon mugalariak ez dira, egiaz, ehiztari ilegalak baizik. Kastore-taldeak gutxiagotu eta haien larruen eskaria jaitsi ahala, bufalo-larruek bizkor bete zuten haien tokia. Baina AEBko enpresak, indigenen gainetik pasata, merkataritzaren jabe egin zirenean, kastoreei gertatu zitzaien gauza bera gertatu zen: bufalo-saldoak desagerrarazi zituzten, 1870etik 1880era bitarteko epean. Desjabetze hori armadak bultzatutako deuseztapen-kanpainen eskutik joan zen, zeinak 1865ean hasi baitziren.¹¹³ Ehiztari zuriek, bufaloen larrua bakarrik hartu, eta ordokietan uzten zuten animalia hilotza, ustel zedin; gainera, estriknina pozoia jartzen zioten, koioteak, otsoak eta beste edozein sarraskijale hiltzeko, eta natiboak ere gosez uzteko eran.¹¹⁴ Kalkuluen arabera, zuriekiko kontaktuaren aurretik, Ipar Amerikan baziren 25 milioitik 30 milioira bitarte bufalo. Kolonoek mende bat behar izan zuten, gutxi gorabehera, ekialdeko taldeak deuseztatzeko; holokaustotik bizirik atera ziren bufaloak, beren giza senideak bezala, Mississippi ibaiaren mendebaldera joan ziren halabeharrez. Ordoki Handietan geratzen ziren bufaloak, berriz -10-15 milioi bitarte-, bi hamarralditan akabatu zituzten.¹¹⁵

Fact (Golden, CO: Fulcrum, 1997).

112 *Ibid.*, 276. or.

113 David D. Smits, «The Frontier Army and the Destruction of the Buffalo, 1865–1883», *Western Historical Quarterly* 25:3, 1994, 312-338. or.

114 Waggoner, *Witness*, 461-4622. or.

115 Bufalo taldeen gutxi gorabeherako kopuruei eta animalia horien suntsipenari buruz gehiago jakiteko, ikus Andrew C. Isenberg, *The Destruction of the Bison* (Cambridge, MA: Cambridge University Press, 2000); M. Scott Taylor, «Buffalo Hunt: International Trade and the Virtual Extinction of the North American Bison», *American Economic Review* 101:7, 2011, 3162–95.

Genozidio-ekintzak izan ziren horiek. Genozidioak, izan ere, ez dira soilik gerran egiten diren ekintzak, AEBko historialari gehienek kontrakoa uste badute ere. 1948an, NBEk biltzar bat egin zuen Genozidio Delituaren Prebentzioari eta Zigorra-ri buruz, eta bertan zehaztu zuen zera dela genozidio-saiakera bat: «talde nazional, etniko, erlijioso edo arraza-talde bat sunsitztea, partez edo osorik». Genozidio-saiakeren adibideen artean, nahiz eta ez diren bakarrak, honako ekintza hauek agertzen dira: erailketa, tortura edo biziraupen fisikorako beharrezkoak diren baliabideak nahita kentzea, hala nola ur garbia, jana (adibidez, bufaloa), arropak, aterpea edo zerbitzu medikoak. Definizio horren baitan biltzen dira, halaber, preseski emakumeak jomuga dituzten ekintzak, adibidez, norbere borondatearen kontra antzutztea, abortatzera behartzea, ezkontzeko debekua ezartzea eta gizon-emakumeak denbora luzean banatzea; neurri horiek denek mehatxu egiten diote etorkizuneko belaunaldiak sortzeko gaitasunari. (Beste taktika bat da haurrak indarrez lekualdatzea). Estatu Batuetako politikek genozidio-ekintza horiek denak ezarri dizkiete herri indigenei. Horietako batzuk iraganari dagozkio; beste batzuk, aldiz, indarrean daude oraindik. «Kolonoen sistema izatez da genozida, genozidioaren biltzarrean bildutakoa kontuan izanda», idatzi zuen Roxanne Dunbar-Ortiz historialariak.¹¹⁶ Genozidioaren biltzarrak ez du atzerako eraginik (1988tik aurrera aplikatu daiteke AEBn, herrialdeko senatuak urte horretan onartu zuen-eta); hala eta guztiz ere, leiar erabilgarria da indigenen historia aztertzeko.

Larru-merkataritzako gotorlekuetan, sexu-indarkeria itxuragabea zegoen. Merkatari zuriak, peoiak eta soldaduak sarritan joaten ziren hara, «olgeta» mozkortian aritzera: horrek berekin zekarren sexu-zerbitzuak jasotzea emakume indigenen gorputzetatik, haiek ados egon zein ez. Whiskia, itunpeko urterokoak eta merkataritzza-ondasunak jasotzeaz batera, batzuetan espero izaten zen gizon indigenek beren alaba, ahizpa eta emazteen gorputzen gaineko eskubidea emango zietela gizon zuriei (emakume indigenen gorputzak gizon indigenen jabetzakoak balira bezala), eta soldaduek, maiz, preso hartu-

116 Roxanne Dunbar-Ortiz, *An Indigenous Peoples' History of the United States* (Boston: Beacon, 2014), 9. or.

tako emakume indigenak bortxatzen zituzten. «Garaipena ospatzeko, zaldi gaineko poliziek ohitura zuten neska polite-
nak biltzeko, ofizialen artean pasa zitzaten; soldaduei, aldiz,
zaharrenak eta erakarmen gutxien zutenak uzten zizkieten»,
idatzi zuen Virginia Driving Hawk Sneve-k, sicangu akademi-
koak, bere ikerketa batean. Familiako ahozko kontakizunak
oinarritzat hartuz, Platte gotorlekuan lakota emakumeen aurka
gertatu ziren abusu aski ezagunen berri eman zuen (gotorleku
hori 1840tik 1846ra bitartean egon zen aktibo).¹¹⁷ Gaur egungo
aktibista indigenek adierazi dutenez, «gizon kanpaleku»etan,
hots, petrolio- eta gasolina-erazketan jarduten diren langileen
komunitate iragankorretan, zeinak gizonen bakarrik osatzen
baitira, emakume indigenak esplotatzen dituzte pertsonen
trafikoaren eta sexu-lanaren bidez.¹¹⁸ Zenbait zentzutan, mer-
kataritza-gotorlekuak izan ziren estreinako gizon kanpalekuak:
horiek izan ziren, lurretik ez ezik, emakume indigenen gor-
putzak konkistatuz aberastasuna lortzen duen kapitalaren
abangoardia. Gerora, merkataritza-gotorlekuak muga-herri
bihurtu ziren: gaur egun erreserba indigenak inguratzen dituz-
ten kokalekuak dira, non zuriak baitira nagusi.

Halaber, larriaren merkataritzak bortizki eraldatu zituen
genero-harremanak. Driving Hawk Snevek kontatzen duen
eran, lakota gizarteak ez zuen bat egiten monogamiaren balio
sexualekin, ez zeukan kristau puritanoek sexu-joerez edo ez-
kontzaz zuten ikuspegiaren parekorik eta, beren ikuspegian,
etxearen jabetza emakumeari zegokion.¹¹⁹ Merkataritza zuriekin
ezkondu ziren lakota emakumeak, berriz, patriarka baten ba-
besaren eta kontrolaren pean kokatu zituzten (praktika horri
«estaldura» deitzen zitzaion). Kontuan izanda beren gizartean
emakumeak zirela etxeko ondasun guztien jabeak, lakota andre
haientzat esperientzia izugarria eta arrotza suertatu zen beren
jabetzen, gorputzen eta umeen kontrola galtzea eta patriarka

117 Virginia Driving Hawk Sneve, *Completing the Circle* (Lincoln: University of Nebraska Press, 1998), 25. or.

118 Ikus «Women's Earth Alliance and Native Youth Sexual Health Network, Violence on the Land, Violence on Our Bodies: Building an Indigenous Response to Environmental Violence», webgune ofiziala: landbodydefense.org.

119 Virginia Driving Hawk Sneve, *Completing the Circle* (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 1998), 25; *Sioux Women: Traditionally Sacred* (Pierre, SD: South Dakota Historical Society Press, 2016), 23-26. or.

zuri batean mendean jartzea.¹²⁰ Beharbada horrek ez gintuzke harritu behar. Zurien gizartean, emakumeek eta haurrek ez zuten autoritate politikorik apenas: etxeko zerbitzarien antzekoak ziren. Diplomazia, merkataritza eta gerra –hau da, esparru publiko– gizonen pribilegioa zen, eta gizonena bakarrik. Hala izaten zen Missouri ibaiaren ertzeko gotorlekuetan, izan estatubatuarrenak zein europarrenak, non larruak salerosten baitziren; horien aurretik ibaian izandako sistema indigenak, berriz, bestelakoak ziren: sistema indigenetan, senideen arteko harremanak sendotzeko jarduten ziren merkataritzan, trukean eta ondasun materialak konpartitzen, ezen ez merkatu-ekonomia eta jabetza pribatua sustatzeko. Larru-merkataritzan, emakume indigenak beharrean aritzen ziren, bufalo-larruak prestatzen, baina ez ziren zuriei saltzen zizkieten larruen «jabeak», larruak ehizatzen eta saltzeko negozioa gizonen menderatzen baitzuten osorik. Eta merkatarizuriak, maiz, hainbat emakume indigenaren jabe egiten ziren, edo haiekin «ezkontzen», hartara sarbide handiagoa izateko emakumeen senideetara –eta haien merkataritza-merkatuetara–, edo emakume horiek gero beste batzuei saltzeko. Zentzu horretan, emakume indigenen subordinazioak etekinak ematen zizkion merkataritari, eta bere estatus soziala areagotzen zuen.¹²¹

Gizon horietako bat zen Touissant Charbonneau, merkataritari frantziar-kanadarra, zeina ezaguna baita Lewis eta Clarkekin bat egin zuelako 1804ko azaroan, espedizioa Mandan herriaren inguruan kanpatu zenean, Mandan gotorlekuan. Eskaintza bat egin zien bi esploratzaileei: bera eta bere «emaztea» –Sacagawea izeneko shoshone emakume bat–, mintzakide eta itzultzaile gisa jardun zitezkeen ibaian gora topatuko zituzten herri indigenekiko harremanean. Espedizioari emandako laguntzari dagokionean, Sacagawearen fama handiagoa da Charbonneaurena baino; hala ere, ezer gutxi dakigu hartaz, gizon zuriei eman zizkien zerbitzuetatik kanpo. Hidatsa naziokoek bahitu zuten, hamahiru urte zituenean, eta Charbonneauk bere bizitzan erosi

120 Gizon zuriekin ezkondu ziren Dakota eta ojibwe emakumeen esperientzia historikoen konparaketa baterako eta estalduraren instituzioari buruz gehiago jakiteko, ikus Catherine J. Denial, *Making Marriage: Husbands, Wives, and the American State in Dakota and Ojibwe Country* (St. Paul, MN: Minnesota Historical Society Press, 2013).

121 Driving Hawk Sneve, *Completing the Circle*, 25. or.

zituden emakume ugarietako bat izan zen.¹²² Umeak eman zizkion arren, Charbonneurentzat, Sacagawea ez zen esklabo bat baino askoz gehiago: jabetza bat; batzuetan harekin gogaituta egoten zen, eta beste batzuetan eraso fisikoak egiten zizkion.¹²³ Sacagawea ez zen gizonaren bortizkeria jasotzen zuen bakarra. 1795eko maiatzean, North West izeneko enpresarentzat lanean ari zela –enpresa horrek Montrealean zuen egoitza–, hornigaiak jasotzera bidali zuten Charbonneau, Manitou lakutik gertu ze goen merkataritza-postu batera. John Macdonell-ek, konpainia bereko bulegari batek, bere egunerokoan adierazi zuenez, oji-owe emakume adineko batek Charbonneau topatu zuen «bere alabaren gainean bortxaketa gauzatzeko». Haserre gorrian, emakumeak sastada bat eman zion Charbonneauri puntzoi batekin: «patu hori ondo merezia zuen gizonak, bere ankerkeriagatik».¹²⁴

Charbonneauk bezalaxe, merkataria, esploratzaile, soldadu eta kolono zuriak sinesten zuten eskubidea zutela indigenen lurraldetan baimenik eskatu gabe sartzeko eta horietan libreki ibiltzeko, eta orobat uste zuten sarbide mugagabea zutela emakume indigenen eta haien umeen gorputzetara. Sarah Deer izeneko muscogee juristak argudiatzen du bortxaketa «erabil daitekeela kolonialismoaren kontzeptu osoaren metafora gisa», izan ere, banakoek jasateaz aparte, oraindik indarrean den menderakuntza-egitura bat parte baita: menderakuntza-egitura horrek badu hasiera; ez, ordea, amaierarik.¹²⁵ Emakume indigenen kasuan, gizon indigenen kasuan baino gehiago, haiek menderatzearen helburua zen larru-merkataritzan etekinak ateratzea. Emakume natiboen aurkako bortizkeriak txikiagotu egiten zuen andreen ohiturazko aginpide politikoa, eta haien gorputzak erabiltzen ziren etekinak sortzeko. Goian aipatu moduan, emakume zurien gorputzak sexu-erreproduktzioarako erabiltzen zituzten; emakume indigenen gorputzek, berriz, areagotu egiten zuten merkatariek merkatu berrietara sartzeko zuten aukera, emakumeen senideen bidez, eta, ondorioz, haien hedadura, lur, kapital eta eragin politiko zein ekonomikoaren bidez. Horrenbestez,

122 Thwaites, *Journals of the Lewis and Clark Expedition*, vol. 2, 282-283. or.

123 *Ibid.*, 349. or.

124 Hemen aipatua F. A. Chardon, *Journal at Fort Clark, 1834–1839*, editorea Annie H. Abel (Pierre, SD: State of South Dakota, 1932), 271–278.

125 Sarah Deer, *The Beginning and End of Rape: Confronting Sexual Violence in Native America* (Minneapolis: University of Minnesota Press, 2015), xvii.

nahiz eta emakume indigenek haurrak ematen zizkieten gizon zuriei, zuriek kolonien etorkizuna ziurtatzeko erabiltzen zituzten batez ere. Dian Million-ek, Athabascako akademikoa bera, hala adierazi du: «Genero bortizkeriak markatzen du... nazio indigenen zanpaketa».¹²⁶ Animalien azalak bilduz eta salduz lurrraren jabe egin ziren bezala, merkatari eta ehiztari zuriak maila berean jabetu ziren emakume indigenen gorputzez. Bi praktikak eskutik esku joan ziren.

Alderdi hori, halere, emakume indigenen autoritate politikoaren aurka kolonoen gizarteak egindako erasoaren osagai bat baino ez zen. Emakumeak larruaren merkataritzatik kanpo zeuden, itunek debekatu egiten baitzuten emakumeak diploma-ziaren adar jakin horretan jardutea; hala, itunek baliabide bat eskaintzen zuten, kanpotik inposatua, gizon indigenen aginpide politikoa aitortzeko.¹²⁷ 1805etik 1873ra bitartean, Estatu Batuek hogeita hamabost itun eta hitzarmen sinatu zituzten Oceti Sakowin jendeen hainbat dibisio politikorekin, edo, itunetako hizkeran esaten zitzaaien bezala, «Indiarren Siux Nazioa»rekin. Emakume bakar bati ere ez zioten uzten «idazluma-ukitzen», «x marka» bat jartzen edo formalki baimena ematen lurrak lagatzeko, bake-hitzarmenak egiteko edo harreman politikoak izateko AEBrekin.¹²⁸ Oceti Sakowin jendeak erreserbatan bortizki konfinatu zituztenerako –1890eko hamarraldian izan zen hori–, emakume indigenak zeharo konfinatuta zeuden esparru domestikoan; gizon indigenak, aldiz, erreserbako politika ekonomikoko betekizun nagusietan ziharduten, besteak beste erreserbako polizia, buruzagi politiko eta merkatari gisa.¹²⁹ Batzuetan, genero-banaketak armadaren eta barnetegi-eskolen sistemaren bidez ezartzen ziren: armadak kontrolatzen zuen azken hori, erreserbak berak bezala, eta armadaren presentziak areagotu

126 Dian Million, *Therapeutic Nations: Healing in an Age of Indigenous Human Rights* (Tuscon, AZ: University of Arizona Press, 2013), 7. or.

127 Inperialismoaren praktika ohikoa zen emakume indigenak europar diplomaziatik, itungintzatik eta merkataritzatik kanpo uztea. Ikus Linda Tuhiwai Smith, *Decolonizing Methodologies: Research and Indigenous Peoples*, 2. ed. (London: Zed, 2012), 9. or.

128 Indigenen «onarpena»ri, «baimen»ari eta itungintzari buruzko azalpen eta interpretazio baterako, ikus Scott Richard Lyons, *X-Marks: Native Signatures of Assent* (Minneapolis: University of Minnesota Press, 2010).

129 Ikus Cathleen D. Cahill, *Federal Fathers and Mothers: A Social History of the United States Indian Service, 1869–1933* (Chapel Hill, NC: University of North Carolina Press, 2011).

egin zituen genero-zatiketak; haurrak beren familietatik banatu eta neskatokak eta mutikoak hezten zituzten, berei zegokien tokia bete zezaten «kristau gizarte zibilizatuan»: etxeko lanak neskontzat, eta soldatapeko lana, berriz, mutilentzat.¹³⁰ Azkenean, 1924an –herritar indigenek nolabaiteko «zibilizazio» maila erdietsi ostean–, AEBk hiritartasuna eman zien, eta nazio-estatura anexionatu zituen biak ala biak: indigenen lurak eta haien bizitzak. Emakume indigenen aginpide politikoa bezatu zuten ez etxearen barruan bakarrik, ezpada kolonoen nazio osoan.

Genero-harremanen aztoramenak nabarmen kalte-zituena Oceti Sakowin jendeen tradizio politikoak. Azken batean, emakume bat izan zen gizakien eta gizakiez bestekoen munduarekin hitzarmen bat –edo itun bat– formalizatu zuen lehendabizikoa. Pte Ska Win, Bufalo Kume Zuri Emakumea –Oceti Sakowin jendeen historiako figura historiko garrantzitsuenak– berak ezarri zituen, gizakien ohiturei eta zeremoniei zegozkien arauen oinarriak ez ezik, baita bestelako oinarri batzuk ere, adieraziz nola existituko ziren gizakiak, eta nola izango zituzten harreman egokiak Pte Oyaterekin eta ez gizakien munduarekin. Kapelu Marroi sicangu historialariak bere negu kontakizuneko lehen sarreran kontatzen duenez, Bufalo Kume Zuri Emakumea bufalo zuri bat zen, kanpalekuaren zirkuluko erdigunera iritsi zena hamargarren mendeko lehen hamarkadan. Emakumearen gainean daude Bufalo Pipa, juka-landare bat eta arto-zurtoin bat. Eskuinaldean, Kapelu Marroik ingelesez zerrendatzen ditu zenbait animalia nazio, hala nola altzeak, oreinak, antilopeak, bufaloak, kastoreak eta otsoak; horiek dira, hain zuzen, Bufalo Kume Zuri Emakumearen bitartez Oceti Sakowin jendeekin harreman formalak ezarri zituztenak. Errapeetatik arto-haziak erortzen zaizkio uretara, eta hala egiten da gizakien, landareen, animalien, lurraren eta uraren arteko lotura.¹³¹ Hortaz, inork ez zuen eskubiderik lurrarekiko, urarekiko, landareekiko eta animaliekiko harreman horien lagapenak egiteko, harreman horien

130 Ikus Sandy Grande, *Red Pedagogy: Native American Social and Political Thought* (Lanham, MD: Roman & Littlefield, 2004), 129-132. or.; Margaret D. Jacobs, *White Mother to a White Race: Settler Colonialism, Maternalism, and the Removal of Indigenous Children in the American West and Australia, 1880-1940* (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 2009).

131 Ikus Demallie eta Parks, «Tribal Traditions and Records», 1070-1071; Greene, «Battiste Good's Earlier Entries», in *The Years the Stars Fell*, 293-294. or.

oinarrian zegoelako Pte Ska Winekin egindako lehen hitzarmena, lehen ituna. (Arrazoi horren ondorioz, Arvol Zaldi Beha, Bufalo Piparen zaintzaileen hemeretzigarren belaunaldikoa, #NoDAPL protestetako otoitz-manifestaldietako buruan joan zen; jatorrizko aginduei eta Oceti Sakowin jendeen lehen konpromisoei ohore egiteko).

Indigenen lurretara sartzeko modua lortzeko, gizon zuriek, gizon indigenak baliatuz, lur komunaletako praktikak hautsi zituzten, eta emakume indigenen aginpide politikoa ahuldu. Ondorioz, emakume indigenak, oro har, ez dira agertzen hasierako kontakizun historikoetan.¹³² Alabaina, haien botereak trabak jartzen zizkion lur indigenak AEBra anexionatzeko egitasmoari.¹³³ Ez luke harritzekoa izan behar, #NoDAPL mugimenduan, emakume indigenak aritu izana gidari batez ere: izan gazte buruzagiak –hala nola Bobbi Jean Hiru Zango, Zaysha Grinnell, Tokata Burdin Begi eta Jasilyn Charger–, zein emakume ezagunak, hala nola LaDonna BraveBull Allard, Phyllis Young eta Faith Arrano Pikarta.

Zaysha Grinnellek, MHA nazioko hamabost urteko kideak –Sacagawearen ondorengoak dira–, 2016ko martxoan, bere tribuko kontseiluari eskatu zion DAPLen kontra agertzeko, eta lortu zuen. Grinnellek esan zuen elkarren antza dutela gaur egun bere nazioari petrolioaren gorakadarekin egokitu zaion egoerak eta bere arbasoek bi mende lehenago larruaren merkataritzarekin izan zutenak:

Petrolio-konpainia hauek, etortzen direnean, gizonak ekartzen dituzte... Gizonek, berriz, berekin ekartzen dituzte gizon kanpalekuak, eta horrekin batera iristen da indarkeria eta sexu-trafikoa. Kanpalekuek hurbil dauden emakume eta neska indigenei izugarri eragiten die honek, eta ez gaude prest hori onartzeko. Neska gehiago buruzagi bihurtzea oso garrantzitsua da, lekuko zuzenak garelako.¹³⁴

132 Emakume indigenak sarritu jardun ziren hainbat kontutan, zeinak gizonei esleitzen baitzaizkien tradizionalki europar gizarteetan; besteak beste, guduan jarduten ziren. Beatrice Medicine, «'Warrior Women': Sex Role Alternatives for Plains Indian Women», in *The Hidden Half: Studies of Plains Indian Women*, editoreak Patricia Albers eta Beatrice Medicine (Lanham, MD: University Press of America, 1983), 267-280. or.

133 Ikus Mishuana Goeman, *Marking My Words: Native Women Mapping Our Nations* (Minneapolis: University of Minnesota Press, 2013).

134 Jaskiran Dhillon, «'This Fight Has Become My Life and It's Not Over': An Interview with Zaysha Grinnell», *Hot Spots, Cultural Anthropology*, 2016ko abenduak 22, culanth.org.

Larruaren merkataritza, Missouri goialdean kapitalismoak egin zuen lehen sarrera izanik, existitzen ziren sare indigenetan barna zabaldu zen, eta berekin ekarri zuen apokalipsia, baztangaren forma hartuta. Lewis eta Clark heldu zirenerako, europar gaitzak hainbat aldiz jo zituen Missouri ibaiko herri indigenak; seguru asko, frantziar eta britainiar merkatariek ekarri zuten. Baporeen gorakadak asko handitu zuen baztangaren zabalpena. 1824an, kongresuak ibai eta portuetako nabigazioa arautzeko baimena eman zion Armadako Ingeniariei Kidegoari, hau da, armadako eraikuntza-adar bati. 1838rako, kongresuak Armadako Ingeniariei Kidegoari agindu zion trabak ateratzeko eta ibaiaren bidea zabaltzeko Saint Louis hiritik zetozen baporeei. Gobernu federala ur nabigagarrien gaineko aginpidez jabetu zen, Konstituzioko merkataritza-klausula oinarritzat hartuz: klausula horrek berak arautzen zuen, orobat, nazio indigenekiko merkataritza. Indiar Arazoetarako Bulegoari, betiere Gerra Departamentuaren ikuskaritza pean, zera egiteko eskatu zitzaion: merkataritza-postuak sortzea eta kudeatzea, diru-laguntza federalak tarteko, britainiarren, espainiarren eta frantziarren merkataritza ahultzeko eta AEBk nazio indigenen gainean zuten eragina hauspotzeko.¹³⁵ Baporeen trafikoa haziz geroztik, larruaren merkataritza areagotu zen; larruaren merkataritza hazteak, aldi berean, komertzioa handitu zuen, eta, horrenbestez, AEBk ibaiaren gainean zuen aginpidea ere bai. R. G. Robertsonek azpimarratu zuen eran, larruaren merkataritza «izan zen bide nagusia, baztanga barnealdeko indiarrengana iris zedin».¹³⁶ Bestela esanda, aldi berean gertatu ziren, batetik, baztangaren eta beste gaixotasun batzuen hedapena, eta, bestetik, inbasio kolonialaren areagotzea.

Baporeek ez zekartzaten bakarrik itunpeko urterokoak, munizioa, indiar arazoetarako agenteak, merkatariek eta soldaduak Missouri ibaiko gotorlekuetara eta merkataritza-postuetara; orobat zekarten gaixotasuna eta heriotza. Baporeen pasaerak izugarrikeria hutsa ekarri zien nazio indigenei. 1837ko

135 S. Lyman Taylor, *A History of Indian Policy*, (Washington, DC: United States Department of Interior, Bureau of Indian Affairs, 1973), 42-44. or.; Francis Paul Prucha, *American Indian Treaties: The History of a Political Anomaly* (Berkeley: University of California Press, 1994), 6-7. or.

136 R. G. Robertson, *Rotting Face: Smallpox and the American Indian* (Caldwell, ID: Caxton Press, 2001), xi.

udan, American Fur konpainiako bapore bat, *St. Peter's* izenekoa, Saint Louiseko ibaira bidaiatu zen, merkataritza-ondasunak eta urterokoak ekarriz; trukean, indigenek bildutako bufalo-larruak jaso behar zituen. Bapore horretan zetozen gizakiek, gainera, baztangaren birusa ekarri zuten, ohartuki.

Clark gotorlekura, non bizi baitziren Mandan herrikoak, Missouri ibaiaren ertzean, 1837ko ekainaren 19an iritsi zen birus hilgarria, *St. Peter's*-aren bidez. Apirilean bertan, marinelek gaitzaren sintomak nabaritu zituzten beren artean; hala eta guztiz ere, urterokoak lehorreratu eta bufalo jantziak jaso zituzten egun hartan. Baztanga ere lehorreratu zuten, kutsatutako marinelak «olgeta» mozkortian jardun baitziren mandan emakumeekin. Hogeita bost eguneko epean, infekzioaren lehen zantzuak erakutsi zituzten Mandan herrikoek. Adinekoak bakarrik salbatu ziren: aurreko agerraldietan kaltetu eta immunitatea garatua zuten. Haurrak eta helduak, aldiz, bihurrika ari ziren, sukar latzen eraginez. Zauri ustel eta izugarriek, zornez beteek, bizi osorako orbainak utzi zizkieten, baldin eta bizirik ateratzen baziren. Francis A. Chardon-ek, gotorlekuko larru-merkatarari batek, hildakoak zenbatzeari utzi zion: «hain azkar hiltzen dira ezen ezinezkoa baita». Gurasoek beren haurrak hiltzen zituzten, sufrimendua amai zedin; lagun, senide eta maitaleek elkar hiltzen zuten, eta beste batzuek, aldiz, bere buruaz beste egin zuten. Urrutitik narbaritzen zen usteltze bidean ziren gorpuen usaina.¹³⁷

Askok aipatu dute honako hipotesi hau: herri indigenak ez zirela gai infekzioa eta gaitzaren hedapena ulertzeko. Chardonon egunerokoa irakurrita, ordea, argi dago herri indigenek bazekitela, jakin, zein zen beren pairamenaren iturburua –larru-merkataritza eta merkataritza-gotorlekuak–, eta merezitako zigorra ematen saiatzen zirela hala merkatariei nola larru-merkataritzari berari. «Toki txarrean gaude», idatzi zuen Chardonek, «indiarrek une oro gu hiltzeko mehatxuaren pean gaude-eta». Indigenek bazekiten ezen, batzuetan, merkatariek eta esplora-tzaileek baztanga edo behi-baztanga ekartzen zutela kristalezko pototo txikitari gordeta, inokulatzeko. George Catlin-ek, Amerikako mendebaldean bidaiari ibilitako margolari zuri batek, Pawnee jendearen artean aditutako istorio bat azaldu zuen; kontakizun

137 Chardon, *Journal at Fort Clark*, 126. or.

horren arabera, merkataritza batek mehatxu egin zion indigenei, baztanga zabalduko zuela haien artean baldin ez bazioten men egiten: «Botila batean gordeta zeraman baztanga askatu eta denak suntsituko zituen».¹³⁸ «Siuxak pentsatzen ari ziren... gu udaberrian akabatzea», zioen Lewisek, bera eta Clark negua pasatzen ari ziren bitartean Mandan herriarekin, 1805 eta 1806 urteen bitartean, eta honela jarraitzen zuen: «baina eraso jotzea eragotzi dugu, *baztanga* zabaltzearen mehatxua egin diegulako, horrek dakartzan izugarrikeria guztiekin».¹³⁹

Ez dago biztanleria indigenen kopuruari buruzko datu zehatzik, baina ikerketa batzuek iradoki dutenez, zuriekin kontaktatu zuzena izan zuten nazio indigenek esposizio handiagoa izan zuten gaitzen aurrean. Nazio horiek, adibidez, Clark gotorlekuko Mandan nazioak, artekari gisa jardun ziren larruaren merkataritzan; sarritan, merkataritza-gotorlekuetatik hurbil kokatzen ziren, edo baimena ematen zuten merkataritza-postuak beren herrietan edo handik hurbil ipin zitezzen. Gaitzak azkar-azkar zabaltzen ziren ibaiaren inguruko komunitate intimorietan, ia ezinezkoa baitzen berrogeialdiak antolatzea edo gaitzari ihes egitea. Zenbait kalkuluren arabera, 1780tik 1877ra bitarte, ibai inguruetakoko nazio indigenek beren biztanleriaren %80 inguru galdu zuten; Mandan, Caddo, Wichita eta Pawnee nazioek, beren aldetik, populazioaren %90 galdu zuten. Ipar Ordokietako nazio bufalo-ehiztarien kasuan, berriz, 1780tik 1877ra bitarte, beren biztanleria %40 jaitsi zen; talde horien artean, Assiniboine, Atsina eta Komantxe nazioen murrizketa %80koa izan zen. Baztanga epidemiak behin eta berriro iritsi ziren ordokietara -1778an, 1781ean, 1801ean-; kontrara, Missouri ibaiaren luzean bizi zirenen artean, 1837ko oldarraldia izan zen denetan suntsigarriena: agerraldi hark ia erabat suntsitu zituen mandanak, eta Hidatsa eta Arikara herriekin bat egitera behartu zituen. (Nolanahi ere, Lakota eta Dakota nazioen gehiengoak eskapo egin zion agerraldi hari, aurrez inokulatuta zeudelako eta, epidemiaren berri izan ostean, ez zirelako merkataritza-postue-

138 George Catlin, *North American Indians*, vol. 2 (Edinburgh: John Grant, 1926), 2. or.

139 Hemen aipatua: Lewis eta Clark, *The Travels of Capts. Lewis & Clarke*, 27. or. Lewisek eta Clarkek baztanga-mota bat eraman zuten arren, zalantzarria da ea gaitzaren laginak bizirik jarraitzen ote zuen manda herrira iritsi zirenerako.

tara hurbildu).¹⁴⁰ 1849an, pawnee biztanleen laurden bat akabatu zuen kolerak, eta lakota asko ere bai. Eskualde hartan, 1871n izan zen azken baztanga-epidemia handia, eta milaka assiniboine eta blackfoot hil zituen.¹⁴¹

Ibaia etekinen iturburu bihurtzeko, ez zegoen kapital asko inbertitu beharrik indigenen bizitzetan, betiere merkataritza ondasunak eta urterokoak isurian zetozen bitartean. Alabaina, larruak erauzi behar ziren, etenik gabe. Gizarte indigenak baliatu zituzten animaliak harrapatzeko, ehizatzeko eta bezatzeko: hori izan zen ibaia aberastasun-iturri bilakatzeko lehen ahalegina. Baina Missouri ibaia ez zen «erdibideko» agertoki bat, non alderdi guztiak baitziren berdinak; ez zen hala izan britainiarrek eta frantziarrek merkataritza menderatzen zutenean ere. AEBko historian, arau ezaguna da «erdibidea» deritzon teoria hori, zeinak azaltzen baitu, zenbait kasutan, hala nola larruaren merkataritzan, indigenek eta zuriek puntu komunak topatu zituztela merkataritza-moldeetan, eta, horrela, talde batek ezin zuela bestearen gainean gehiegizko kontrolik edo eraginik izan.¹⁴² Nolanahi ere, halako asmamenaren eta ikuspegi ahistorikoen artean galdurik, egitate simple bat dago: funtsean, europarren eta AEBren hastapeneko kolonizazioa, eta haren molde guztiak, erauztaileak eta inperialak izan zirela. Lakotak eta dakotak, bai, modu aktiboan lehiatu ziren beste nazio indigena batzuen kontra, ibaiko merkataritzaren gaineko kontrola eskuratzeko, baina gatazka horiek ez ziren sekula izan gaixotasunek ekarritako holokaustoaren eta AEBko armada eta merkatariek berariaz ezarritako indarkeriaren parekoak.

Oceti Sakowin jendeek motibo onak zituzten merkatarizurien eta gotorleku estatubatuarren inposizioa mespretxatzeko. Larru-merkataritzaren gailurrean, Missouri ibaiaren ekialde eta mendebaldeko Oceti Sakowin jendeek defentsa-guduak abiatu zituzten inbasoreen aurka, haiei leporatzen baitzieten, eta arrazoiz gainera, bufaloak eta beste animalia senide batzuk

140 Clyde D. Dollar, «The High Plains Smallpox Epidemic of 1837–1838», *Western Historical Quarterly* 8:1, 1977, 23-24. or.; Ostler, *The Plains Sioux*, 31. or.

141 James Mooney, *The Aboriginal Population of American North of Mexico* (Washington, DC: Government Printing Office, 1928), 12-13. or.

142 «Erdibidea»-ren teoria oso zabaldua dago gaur egun; horren adibide baterako, ikus Richard White, *The Middle Ground: Indians, Empires, and Republics in the Great Lakes Region, 1650–1815* (New York: Cambridge University Press, 1991).

desagerrarazi izana. Beren arranguren artean, hauek ziren nagusi: merkataria zuriak ekarritako suntsipena, lurra zeharkatzen zuten emigranteak eta AEBko armadaren presentzia areagotzea. Zuriak inbasioaren iragarpen-seinaleak ziren denak. Haatik, justiziaren ordean, halako «bake» bat eskuratu zuten, gerraren iraunkortasunaren bidez.



Rochelle Bullhead, soinean duela «penny dress» deritzon soineko bat, poliziak 1851ko Itunaren Kanpalekuan egin zuen sarekadan, 2016ko urriaren 27an. Argazkia: Linsey Norton.

HIRU

GERRA

Mundu osoa dator.
Nazio bat badator,
Nazio bat badator.
Arranoak mezua ekarri dio Nazioari...
Lur osoan barna, badatoz.
Bufaloak badatoz,
Bufaloak badatoz.

—«Maka Sitomaniya Olowan»
Lakoten Mamu Dantzako kantua, 1890¹⁴³

AEBren historia kolonialismo-mota berezi baten historia da, zeinari ezarpenezko kolonialismoa baiteritzo: sistema horretan, botere inperial batek natiboen lurra hartzen du, jatorriz han bizi zen jendea indarrez ezabatu, eta biztanleria arrotz eta inbaditzaile baten kolonia berriak ezartzen ditu lurraldean. Beste kolonialismo-mota batzuetan, kolonizatzaileek urrundik gobernatzen dute, eta, batzuetan, alde egiten dute azkenean; ezarpenezko kolonialismoaren kasuan, ordea, saiatzeko dira nati-boak betirako eta osoki ordezkatzeko kolonoen biztanleria batekin. Prozesua ez da sekula burutzen, eta estatu kolonialak, denborarekin, aldatu egiten ditu lurralde berrietara sartzeko baliatzen dituen metodoak: hasieran, deuseztapenera jotzen du zuzenean, eta gero garatu egiten da, herri indigenak «arraza-gutxiengo» eta «mendeko nazio» bihurtuz beren lurraldeetan, eta, orobat, indigenen lurra sakrifikatuz, haietatik baliabideak erauzteko. Nahiz eta ezabatzeko estrategiak garatu eta bestelako estrategia itxu-

143 Hemen aipatua: James Mooney, *The Ghost-Dance Religion and Wounded Knee* (New York: Dover, 1973), 1072, egilearen ingelesezko itzulpenetik.

raz etikoagoak edo gizatiarragoak ekarri, «genozidioaren auzia», Patrick Wolfe antropologoak dioenez «sekula ez dago oso urruti ezarpenezko kolonialismoari buruzko elkarrizketetatik».¹⁴⁴

Indigenen ezabaketa da, bere norabide guztietan, kolonoen gizarte antolatzen duen *printzipioa*. Europar holokaustoa, adibidez, hasi eta bukatu egin zen, eta gizakiei bakarrik eragin zien; indigenen ezabaketak, aldiz, indarrean jarraitzen du oraindik ere, praktika gisa eta politika formal gisa, bere baitan hartuz ez-gizakiekiko harremanen suntsipen erabatekoa. XIX. mendeko Indiar Gerren jarraipena da gaur egun estatuak Uraren Babesleen aurka darabilen bortizkeria eta zainketa. Monton eskualdeko Sheriffaren Departamentuak gidatu zuen #NoDAPL kanpalekuen aurkako setioa, DAPLen eraikuntza babesteko xedearekin, eta ez da kasualitatea, izan ere, segurtasun-indar horrek oinordean jaso baitzuen George Armstrong Custer delakoaren ondarea, alegia, indiarren aurka borrokatu zen zazpigarren zalditeriako jeneral doilorrarena. Gaur egungo Mandan hiria, zuriek menderatzen dutena, Ipar Dakotan dago, muga egiten du Standing Rockeko erreserbarekin, eta bertan dago Morton eskualdearen egoitza; bada, hiri hori Abraham Lincoln gotorlekutik zazpi miliara dago, zeinera bidali baitzuten Custer, ziurtatu zezan Northern Pacific trenbideak Missouri ibaia gurutzatzen zuela, eta Oceti Sakowin jendeen lurrak alderik alde zeharkatu.

AEBk ibaiaren gainean zuten kontrola berretsi ostean, konkista-gerra odoltsuak izan ziren, XIX. mendearen ia erdia iraun zutenak. Herrialdearen asmoa zen ibaia kontrolatzea lehenik, eta horren arto osoa gero (bereziki, bufaloa ehizatzeke lur emankorrak, Powder ibaiaren lurretatik mendebaldera zeudenak). Gerra Zibilaren ondoren, Oceti Sakowin jendeek ibaiarekin zuten harremana gero eta gehiago zen hari ihes egitea, izan ere, inbasioen eraginez, ibaia jota baitzegoen: indarkeria, heriotza eta gaitza ziren han nagusi. Ibaiko merkataritzaren gorakadak nahi gabeko aldaketak ekarri zituen, esate baterako, AEBren presentzia handitu zen, gotorleku komertzial eta militarren eraikuntzarekin, eta eraso gero eta biziagoak jo zizkieten azkar txikiagotzen ari ziren bufalo-taldeei.

144 Patrick Wolfe, «Settler Colonialism and the Elimination of the Native», *Journal of Genocide Research* 8:4, 2006, 387. or.

Hasieran, indigenek bizitzeko adina ehizatzen, biltzen eta ereiten zuten; horregatik, modua izan zuten kolonoen inbasioari eraginkortasunez kontra egiteko. Alabaina, ekoizle indigenak beren lurretik bereizi zituzten, eta saiatu ziren haiek itunpeko urterokoen eta diruzko ekonomien mendeko egiten; hala, kolonoek gerra erabatekoa egin zioten indigenen bizitzari. Oceti Sakowin jendeak ez ziren izan AEBren gerra totalari aurre egin zioten lehendabizikoak. Haudenosaunee naziokoek, adibidez, «herri-suntsitzaille» esaten zieten AEBko komandante nagusi guztiei: titulu hori bera eman zioten, besteak beste, AEBko lehen presidentea izan zenari, George Washington, zigor-kanpaina odoltsu bat egiteko agindu baitzuen Iraultza Gerraren garaian; kanpaina horretan, berrogei haudenosaunee kokagune erre zituzten New Yorken. Halaber, haudenosaunee delakoen artosoroak erre zituzten, haiek lurrak aldarrikatu eta berreskuratu nahi izatea eragozteko eta gosetea inposatzeko. Jabetza gauzatzeko, odola eta lurra nahastu zituzten: gerora, lur indigenen jabetza-tituluak eman zizkieten haudenosaunee kokaguneen segadez arduratu ziren tropei.¹⁴⁵

Zentzu oso errealean, AEBren eraketa zera izan zen: herri indigenen aurkako gerra-deklarazio bat. Nolanahi ere, gerra formalki deklaratu gero, horrek adieraziko luke herri indigenek bazutela estatus bat nazio «zibilizatu» edo «kristau»en artean. Kontrara, hala egiten ez bazen, «gerra basati» bat izango zen, eta bertan behera geratuko ziren «gerra zibilizatu»ari dagozkion arauak. Andrew Birtle historialariak, zeinak AEBko armadaren historia aztertu baitu, adierazi du ezen, West Point-eko akademia militarrean, zuzenbideari buruzko eskoletan bakarrik lantzen dituztela AEBko Indiar Gerrak, eta garai hori jorratzen

145 Zera dio Waziyatawin izeneko dakota historialariak: «buruzagi kolonialak arduratzen ziren, sarritan, hedapen koloniala zabaltzeko neurriak ezartzeaz. Kolonoen bitanleria zibilak, bestalde, etekin handiak atera zitzakeen halako politikak ezartzen laguntzen bazuen. Adibidez, lurrak erretzearen taktika amerikar kolonizazioaren hastapenetik erabili izan zen; horren ondorioz, neurri horren biktimek, seneca herrikoek, Herri-Suntsitzaille izendatu zuten George Washington, AEBren aita fundatzaile agunenetako bat. John Sullivan general nagusiaren armadak, Washingtonen egindak betez, haudenosaunee herriaren baratzeak eta arto- eta babarrun-soroak birrindu zituen. Gerora, Washingtonen tropek eta haien familiek saria jaso zuten beren zerbitzuaren ordainetan: lur indigenen jabetza eman zieten». «Malice Enough in their Hearts and Courage Enough in Ours: Reflections on US Indigenous and Palestinian Experiences under Occupation», *Settler Colonial Studies* 2:1, 2012, 176. or.

dutela «gerrillak eta gerra zibilizatueta aktiboki etsaitasunez jardun diren biztanleria zibilak tratatzen diren modu berean». Horren ondorioa, berriz, hau zen: «soldaduek neurririk latzenak erabili ahal zituztela haiek menderatzeko».¹⁴⁶

Bestela esanda, Indiar Gerretan garatutako taktika eta estrategiak, gerora, atzerriko matxinadei aurka egiteko erabili zituen AEBk. Hala argudiatzen du Jodi Byrd chickasaw akademi-koak: «Estatu Batuek inperioa zabaltzen dute, ez mugen bidez, ezpada indiartasun paradigmatico bat ekoitziz».¹⁴⁷ AEBko armada Gerra Zibilaren ostean profesionalizatu baitzen, lezio horiek modu informalean transmititu ziren, eta ia inoiz ez ziren izan idatzizko doktrina bat. Bestalde, Laleh Khalili antropologoak dioen eran, lezio horiek, «idatzizkoak ez baziren ere, premiazko eskuliburu bihurtu ziren itsasoaz beste aldeko gudu asimetrikoak egiteko Filipinetan, Kariben eta Latinoamerikan».¹⁴⁸ Besteak beste, zelatari natiboak erabiltzen zituzten, erreserbak ezarri-bertako gudariak eta herritar zibilak zaintzeko eta kontrolatzeko-, eta eraso egiten zieten herriei, tokiko ekonomia ahultzeko.

Dena den, nazioarteko zuzenbidean eta AEBko zuzenbidean, herri indigenak ez dira osoki burujabetzat hartzen; horregatik, indigenek erresistentzia egiten badute kolonialismoaren aurka –auto defentsa izanik ere–, delitutzat jotzen da, beste hainbat tokitan gertatu den bezala Amerikan eta Asian barrena, eta, berriki, Palestinan.¹⁴⁹ Liburutegiak betetzeko adina liburu idatzi dituzte sofetako historialariek, kolonialismoaren zaleek eta soka guztietako akademikoek –gehiegi dira hemen aipatzeko–, Ipar Ordokietako gudu indigenak gaitzat hartuta. Nolanahi den ere, ikertzaile gutxik hartu dute premisa gisa ezen nazio indigenek bidezko gerrak egin zitzaizkela AEBko inperioaren aurka. Historialari askok eztabaidatu dute galdera honen inguruan: ea Oceti Sakowin jendeek eskubidea zuten beren burua defendatzeko, indar armatuaren bidez; baina galdera hori ez

146 Andrew J. Birtle, *US Army Counterinsurgency Operations Doctrine, 1860–1941* (Washington, DC: Center for Military History, 2009), 27. or.

147 Byrd, *Transit of Empire*, xxxv.

148 Laleh Khalili, *Time in the Shadows: Confrontation in Counterinsurgencies* (Palo Alto, CA: Stanford University Press, 2013), 18. or.

149 Burujabetzari buruzko definizio hori –«kolonoekiko topaketan» gauzaten dena– hemendik hartu dut: Antony Anghie, *Imperialism, Sovereignty and the Making of International Law* (New York: Cambridge University Press, 2007).

dugu egingo hemen. Hau da egia hutsa: nazio indigenek, nazio orok bezala, eskubidea dutela beren burua defendatzeko, eta herri batek bere burua defendatzeko hautatzen duen modua ezin da argi eta garbi sailkatu «ondo» eta «gaizki» kategorietan. Biziraupena lortzea, edozein baliabide erabilita, erresistentzia-ekintza bat da.

Gerraren eta auto defentsaren bitartez lortu zuten Oceti Sakowin jendeek AEBrekin egin zituzten akordio historikoenak adostea: 1851ko eta 1868ko bake-itunak. 1849an, kongresuak sailez aldatu zuen Indiar Arazoetarako Bulegoa: Gerra Departamentutik Barne Sailera pasa zuen, hau da, burokrazia-bulego federal sortu berri batera, zeina basa bizitza eta lur publikoak kudeatzeaz eta baliabide naturalak zaintzeaz arduratzen baitzen. Indiarrei lotutako auziak sail horretan kudeatu dira harrezkeroztik. Aldaketa hark norabide berri bat markatu zuen indiar politikan: «bakea» azpimarratzen zen, eta esplizituki hauspotzen zen «zibilizatzeko misioa». Jadanik «Bake eta laguntasun» itunetan, «Amerikako Estatu Batuen babespean, eta ez beste ezein nazio, botere edo subiranoren pean»¹⁵⁰ kokatu zituzten Oceti Sakowin jendeen dibisioak (1805ean, 1815ean eta 1825ean sinatu ziren), baina, itun horietan, Oceti Sakowin jendeek ez zuten sekula lurralde-eremu handirik laga, ez eta aginpide politikoa nabarmen galdu ere.

Oceti Sakowin jendeek botere militar eta politiko handia zuten, beraz, litekeena da nazio indigena horiek, AEBrekin itunak egitean, ez zutela uste izango gorenagoko botere burujabe baten mendean jartzen zirenik. Ikuspegi hori, ordea, aldatuz joan zen, larru-merkataritzak eta gaitzek kaltea eragin baitzieten, hainbat hamarraldiz segidan, Ipar Ordokietako ekologiarri eta nazio indigenei. Bake-politiken garaia iritsi zenerako, milaka lakota Missouri ibaitik mendebalderantz erretiratu ziren, Powder ibaiaren inguruko lurretara, ibaiko merkataritzak ekarritako apokalipsiaren garapenari iskin egiteko. Ekialdean, merkatariek iruzur egin zieten dakotei, lurrak eta itunpeko urterokoak kenduz, goseak akabatzen utziz eta altxamendu indigena bat

150 XIX. mendearen hasierako itun askotan halako hizkera erabiltzen da. Ikus Vine Deloria Jr. eta Raymond Demallie, *Documents of American Indian Diplomacy: Treaties, Agreements and Conventions, 1775–1979*, vol. 1 (Norman, OK: University of Oklahoma Press, 1999).

hauspotzeko baldintzak sortuz. Zenbait tokitan, garai batean ugariak izandako bufalo nazioak, Missouri ibaiko bailara belzten zutenak, desagertzeko zorian ziren; gainerako leketan, berriz, deuseztatuta zeuden jada. Zuriek mendebalde inbaditzeaz batera, gaitz infekziosoak etorri ziren –kolera, elgorri eta baztanga agerraldiak–, Pawnee, Crow, Cheyenne, Lakota eta Arapaho nazioen ehiza-eremuetan barna zabaldu, eta Oregoneko lurretaraino heldu ziren.

1847an, Brigham Young-ek hamar mila inguru mormoi gidatu zituen, exodoan, Utah-ko lur indigenetan ezar zitezen; bien bitartean, urrea aurkitu zutenez –lehenik Kalifornian, 1849an, eta gero Montanan, 1853an–, handitu egin zen mendebaldera bidean zihoan zurien oldea. 1846an, sicangu eta oglala herritarren talde batek ordaina eskatu zuen, lur haietan barrena egiten ziren bidaia gero eta ugariagoek sortutako kalteen trukean: ehi-za gutxiagotu zen, egurra –jada urria zen– eskatu, eta gaitzak zabaldu ziren.¹⁵¹ Ostera, okupazio militar bortitzagoa jaso zuten. AEBko armada ez zen gai kolono zurien olatuak eta indigenen haserre gero eta gorriagoa kontrolatzeko. Bakearen politika ezarri zen urtean, AEBk, arazoari heltzeko xedez, gotorleku bat ipini zuen Goiko Platte eta Laramie ibaien elkargunean. Hala, Laramie gotorlekutik ahalegindu ziren «bakea» eraikitzen, hain zuzen ere okupazio militarra handiagotuz Powder ibaiaren inguruetan. Gotorlekua puntu estrategiko batean zegoen, bideak puntu horretan zeharkatzen baitzuen azken bufalo talde handien lurraldea; hala, AEBren presentzia eta aginpide gero eta handiagoaren gotorlekua zen.

Postu militarrek eraikitzeko ideia Thomas Fitzpatrick-i zor zaio; indiar arazoetarako agente gisa jardun zen Goiko Platten, eta bakea militarizazioaren bidez lortzearen bultzatzaile sutsua izan zen.¹⁵² Bakea lortzeko ikuspegiaren baitan, Fitzpatrickek AEBren interesak sustatu nahi zituen, indigenen arteko bake-itun zabal bat ziurtatuz, eta, hala, indigenen lurraldea behin betiko

151 Raymond J. Demallie, «The Great Treaty Council at Horse Creek», in *Nation to Nation: Treaties Between the United States and American Indian Nations*, editorea Suzan Shown Harjo (Washington, DC: National Museum of the American Indian, 2014), 91-94. or.

152 Laramie gotorlekuak Powder ibaiaren inguruan eta ordokietako gerretan izan zuen eraginaren analisi bikain baterako, ikus Dunbar-Ortiz, *An Indigenous Peoples' History* (Boston, MA: Beacon, 2014), 186-191. or.

finkatuz, bidaiariak segurtasunez pasa zitezkeela bermatuz eta lur-lagapenak ziurtatuz. Ordokietako nazioek kontseilu masibo bat antolatu zuten, 1851ko irailean: hiru astez, Arikara, Mandan, Hidatsa, Crow, Gros Ventre, Blackfeet, Assiniboine, Shoshone, Arapaho, Cheyenne, Lakota eta Dakota nazioetako hamar mila lagun AEBko komisarioekin bildu ziren Horse Creek-en, Laramie gotorlekutik hogeita hamasei miliara, ibaitik behera eginez. Laramie Gotorlekuko Lehen Ituna, 1851koa, alderdi guztiek sinatu zuten: itun hark eskubidea ematen zion AEBri errepideak eta trenbideak eraikitzeko, eta, bestalde, berrogeita hamar urtez, 50.000 dolar ordaindu behar zizkieten indigenei, lur bidezko emigrazioek ekarritako kalteen trukean.¹⁵³ AEBk «bake» politika horrekin zuen konpromisoaren erakusgarri, senatuak itunpeko urterokoen epea murriztu zuen hamar urtera, beste bost urtez luzatzeko aukerarekin. Zuzenketa hori Ordokietako nazioei bidali zieten, onar zezaten, eta ondoren senatura berriro, baina ez zen sekula berretsi. Hala eta guztiz ere, AEBk, hurrengo hamabost urteetan, 50.000 dolar ordaindu zuen urteroko zerga gisa.¹⁵⁴ Dena den, bakearen espirituak ez zuen askorik iraun, eta itunak akats sakonak zituen.

Oceti Sakowin jendeen bost buruzagi gizonek sinatu zuten ituna; ziur aski, uste izango zuten, hala eginez gero, emigranteen harrapakaritza amaituko zela eta AEBk bete egingo zituela agindutakoak. Hala ere, Oceti Sakowin jendeen ordezkariak protesta egin zuten, AEBko gobernuak eskatu zuelako «buruzagi nagusi» bat hautatzeko, eta hark ordezkari zitzala nazio guztiak itunei buruzko negoziazioetan; nazio indigenek, ordea, bestelako egitura politiko bat zuten, deszentralizatua, eta, haren bidez, dibisio bakoitzak aukera zitzakeen bere ordezkariak. Hala, estatubatuarren konfigurazioa irain bat zen dibisio politiko bakoitzak aurrez izandako autonomiarentzat. Oceti Sakowin jendeen kontseiluek Mato Wayuhi hautatu zuten (Hartz Konkistatzaile), sicangu herrikoa, baita ausaz egin ere, Laramie Gotorlekuko 1851ko Itunean ordezkari gisa jardun zedin; alabaina, hark uko egin zion izendapenari, gazteegia zela iritzita –berrogeita hamar urte zituen;

153 Francis Paul Prucha, *American Indian Treaties: The History of a Political Anomaly* (Berkeley, CA: University of California Press, 1994), 237-240. or.

154 Demaille, «The Great Treaty Council», 111. or.

oraindik ez zen adinekoa-, eta ez zeukalako eskarmenturik.¹⁵⁵ Kolonoek aspalditik erabiltzen zuten taktika hori, hau da «itunburuzagi» batzuk hautatu eta haiek indigenen nazio osoen ordezkari moduan aritzekoa; modu horretan, presioa egin eta buruzagitza kontzentratzen zuten, eta fakzio politikoen arteko zatiketak sor zitzaizkieten. Buruzagi indigena gehienek nahiago zuten diplomazia, ezen ez erresistentzia armatua; baina, batzuetan, bi estrategiak baliatzen ziren batera. Buruzagi batzuek zera nahi zuten: Powder ibai inguruko lurraldea eman eta erreserbetara joan, bizitza berri bat hastera; buruzagi «arerioek», aldiz -hala esaten zieten indiar arazoetarako agenteek-, ez zuten itunik negoziatu nahi, eta erreserbarik eta mugarik gabeko lurretan bizitzen jarraitu nahi zuten. Bi dibisioak bat etorri ziren 1851ko itunarekin; dena den, mendebaldeko dibisioek eskatu zuten erreserbetako taldeek ez zezatela urterokorik jaso eta, halaber, alde egin zezatela merkataritza-gotorlekuen eragin gaiztotik, han banatzen baitziren urterokoak.¹⁵⁶

1853an, Fitzpatrickek kritikotasunez epaitu zuen 1851ko Itunaren emaitza, etortzeaz zen gerrari emandako behin behineko konponbide bat zela esanez. «Edo pizgarri bat ematen diegu, harrapaketa irabaziak baino handiagoa dena, edo, bestela, indarren bat izan beharko dugu eskura, haiei eusteko eta beren harrapakaritzak ikuskatzeko gai dena. Bi sistemen arteko erdibideren bat, edozein, ezarri gero, porrotaren miseria guztiak baizik ez ditu ekarriko», argudiatu zuen.¹⁵⁷ Oceti Sakowin jendeentzat, bietako bat ere ez zen atsegina. Urterokoek otzantasuna eta lurren lagapena zekarten; armadaren presentzia handituz gero, aldiz, indarkeria egongo zen. Oceti Sakowin jendeentzat, itunen negoziazioak, gero eta gehiago, zero baturako jolasen antza zuen, non bide guztiak baitzeramaten toki berera: independentzia txikiagoa eta harreman gehiago AEBrekin.

Ituna sinatu eta hiru urtera, abuztuan, zekor bat, mormoi emigrante baten jabetzakoa, goseak jotako sicangu batzuen

155 Ostler, *The Plains Sioux The Plains Sioux and US Colonialism from Lewis and Clark to Wounded Knee* (Cambridge: Cambridge University Press, 2004), 378. or.

156 Josephine Waggoner, *Witness: A Hú nkpapha Historian's Strong-Heart Song of the Lakotas*, editorea Emily Levine (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 2013), 332-333. or.

157 *Annual Report of the Commissioner of Indian Affairs*, 33. Kong., 1. saioa, 1853-1854, 122. or.

kanpalekura iritsi zen noraezean. Haiek, sinetsirik zekorra abandonatuta zegoela, hil egin zuten, zatitu, eta ia berehala jan zuten. Jabeak ordainsari bat eskatu zuen; orduan, John L. Grattan delakoak –West Pointeko akademian ikasitako gazte bat zen, eta gertakaritik hurbil zegoen, Laramie gotorlekuan– erantzun egin zion gizonaren eskakizunari. Nahiz eta indigenek aske ehizatze-ko baimena ematen zieten beren lurraldeetan barna zihoazen emigranteei, AEBko legediaren pean, jabetzaren aurkako delitutzat hartzen zen etxabere bat –hala nola zekor bat– hiltzea edo lapurtzea. Jabetza pribatuak santutasun handiagoa zuen indigenen itunek edo bizitzek baino. Grattan kanpalekura jaitsi zen, eta Hartz Konkistatzaileari galdegin zion errudunak entregatze-ko. Hartz Konkistatzailek, 1851ko Ituneko «buruzagia» zenez, bakeari eusteko konpromisoa zeukan; horregatik, ordainsaria eskaini zion mormoiari, eta konponbide baketsu bat lortzeko eskatu zuen. Grattanen gizonak, erantzun gisa, tiro egin zion Hartz Konkistatzaileari. Sicangu naziokoak Grattan eta haren soldaduengana amildu ziren: Grattan bera eta beste hogeita zortzi soldadu hil zituzten. Handik sei egunera, Hartz Konkistatzaile hil zen, eta harekin batera desagertu zen 1851ko bake-itunaren espiritua. Sicangu herrikoek, mendekuan zalu, posta-bagoi bat lapurtu zuten Laramie gotorlekutik gertu: diru-kopuru handi bat eskuratu zuten, eta hiru gizon zuri hil.¹⁵⁸

Tentsioak goian jarraitu zuen. Itunari zegozkion urterokoak garaiz iristen baziren ere, merkatarari zuriak ehizan ibiltzen ziren, Missouri ibaiko merkataritza-postuetara urterokoak biltzera zihoazen lakotak eta dakotak harrapatzeko. 1853tik 1854ra bitarteko neguan, Sihasapa eta Hunkpapa nazioek, urterokoei uko egin, eta gerra egiten hasi ziren merkatarari zurien kontra. Merkatariek (eta baita historialari garaikideek ere), «opari» gisa izendatu dituzte urterokoak, baina izendapen okerra da. Urterokoak ez ziren opariak, itunari kontratuz zegozkion betebeharrak baizik. Ustez, urterokoen helburua zen bakea bermatzea, baina, sarritan, ez ziren ematen, merkataritzako «zorrak» kitatzeko aitzakiarekin, edo «arerioen» taldeak hertsatzeko erabiltzen ziren, merkatariairen nahari amore eman ziezaioten. Merkatarari zuriei

158 Doreen Chaky, *Terrible Justice: Sioux Chiefs and US Soldiers on the Upper Missouri, 1854–1868* (Norman, OK: University of Oklahoma Press, 2012), 32-33. or.

harrera ona egiten zitzaien, prezio altuko ondasunen hornidura itxuraz amaigabea zutelako –pistolak, oihalak...–; hori dela-eta, Oceti Sakowin nazioek *Wasicun* deitzen zieten, alegia, «botere misteriotsu baten jabe den jendea». Orain, argi zegoen botere horrek bazuela gaiztotik ere, eta bigarren izen bat eman zieten, lehenengoarekiko hitz-jolas bat osatuz: *Wasicu* esaten zieten, «gantzaren hartzailea». Kolonoa, inbasorea, kapitalista. Inori *wasicu* deitzea zen egin zitekeen irainik gogorrena. Esan nahi zuen pertsona berekoikeriaz jarduten zela, modu indibidualistan, ez zuela bere ekintzen ardurarik hartzen, seniderik ez balu bezala. Normalean, halako jarrerak zigortzen ziren pertsona urrunduz edo erbesteratuz. «*Wasicu*», beraz, AEBren sinonimo bihurtu zen: seniderik ez balu bezala portatzen zen nazioa.¹⁵⁹

Arazoi hori tarteko, Hartz Txikik, Hunkpapa nazioaren buruzagietako batek, kanpaina latz bat antolatu zuen Missouri ibaiaren goialdean zebiltzan merkatari zurien kontra. American Fur Company enpresako langile Edwin Thompson Denig-en arabera, 1853an, larru-enpresa ahalegindu zenean merkataritzagotorleku bat eraikitzen hunkpapa lurraldean, haien baimenik gabe, Hartz Txikiren *akicita* delakoek (soldaduak) «gurdiak apurtu zituzten, zaldiak akabatu, eta etxera bidali zituzten merkatariak, zartailukadaka». Hartz Txikik buruzagiaren maila lortu zuen, hain zuzen, American Fur konpainiako merkatari zuri mespretxagarri bat hil zuenean, merkatariaren etxean berean; Denigen ustez, ekintza horren bidez, gizonak «lurraldeko merkatari guztien suntsipena» bilatzen zuen. Denigen arabera, Hartz Txikiren agindupean ziharduten sihasapa eta hunkpapa guztiek halakoak egiten zituzten:

Topatzen duten gizon zuri orori ebakiak egiten dizkiote, eta arpilatu edo birrindu egiten dituzte Yellowstoneko lurraldeko gotorlekuetatik kanpoko jabetza guztiak. Labanen gerra deklaratu diote Estatu Batuetako Gobernuari eta herrialdeko zuri guztiei; mehatxu egin dute gotorleku guztiak erreko dituztela; ez dute bufalo-jantzirik egingo, ez bada berek erabiltzeko, eta beren bizimolde primitibora itzuli nahi dute.¹⁶⁰

159 «*Wasicu*» terminoa gehiago lotzen da delituak egitearekin, arraza deskribatzeko baino.

160 Edwin Thompson Denig, *Five Indian Tribes of the Upper Missouri: Sioux, Arikaras, Assiniboines, Crees, Crows*, editorea John C. Ewers (Norman, OK: University of Oklahoma Press, 1961), 26-27. or.

Missouri ibaiko lakota eta dakota batzuk larru-merkatari-tzaren eta etekin-gosearen aurka matxinatu ziren alkoholik ez hartuz, larru-merkataritzari eta ibaiko jardunari boikota eginez eta merkataritza-postuetan sabotaje aktiboak antolatuz, horixe baitzen beren saminaren iturburu nagusia. Ekintza horiek eginez eta biziraupeneko bufalo-ehizara itzuliz, nazio indigenek modua izan zuten kapitalismoaren inbasioari erresistentzia egiteko.

Urte berean, beranduago, Missouri ibaira joan zen indiar arazoetarako agente Alfred J. Vaughn, eta Oceti Sakowin jendeen hainbat dibisiorekin bildu zen, urterokoak banatzeko eta azken boladan merkatarien aurka izandako erasoen berri izateko. Sihasapa eta Hunkpapa nazioen kanpalekura iritsi zenean, haiek uko egin zioten, tinko gainera, Vaughnek ekarritako urterokoei. Bestalde, Hosto Gorriekin bildu zenean –hura zen Ihanktonwanna nazioaren buruzagia–, hark zulatu egin zituen indiar arazoetarako agenteak zekartzan hornidura-zorro guztiak, eta ordokian barna sakabanatu ziren edukiak. Ondoren, akicita delakoek, bolboraren upelean geratzen ziren edukiak errekarra bota, eta lehertu arte tiro egin zieten.¹⁶¹ Oceti Sakowin jendeen arteko dibisio militanteenak ez zetozen bat merkataritza-postuek eta urterokoez sinbolizatzen zutenarekin: baimenik gabeko okupazioa eta lurraren aurkako erasoak. Esan izan da Oceti Sakowin jendeak modu suntsigarrian eraldatu zirela larru-merkataritzaren ondorioz, horren zeharo mendekoak zirela, eta horregatik egin zutela porrot, halabeharrez; haatik, kontuan hartuta nolako maiztasunez gauzatu ziren erresistentzia-ekintzak, bazterrean utzi behar lirateke adierazpen horiek. Nolanahi ere, larru-merkataritzaren aurkako errefus ozenari eusteko, premiazkoa zen baliabide giltzarri bat eskura izatea: bufalo-taldeak. Senide onek bezala, hasieran, Pte Oyatek inbasioari aurre egiteko bideak eman zituen; dena dela, mendekotasun hori azkar asko bihurtu zen ahulgune, armadak bufalo nazioak ezerezteari ekin zionean. Lurrari eta bufaloei eraso joz gero, eraso egiten zitzaion, halaber, indigenen subsistentzia-praktikei eta inbasioari kontra egiteko gaitasunari.

Armadak eta merkatariak, Grattanen porrotaren eta Missouri ibaiko merkataritza-gerraren ostean, laster asko aldarrikatu

161 Chaky, *Terrible Justice*, 34-35. or.

zuten biktimak zirela.¹⁶² Erantzun gisa, Gerra Departamentuak 600 soldadu bidali zituen, William S. Harney jeneralaren agindutara, Platte ibaiaren goialdera. 1855ko irailaren Sean, eraso jo zieten Blue Water Creek-en kanpatuta zeuden 250 sicanguri. Buruzagiek –Tujih Maza (Burdin Oskol) eta Wakinyan Cikala (Tximista Txiki)– bakea galdegin zuten, Harneyri adieraziz beren kanpalekua baketsua zela eta emakumeak eta haurrak zirela han nagusi. Harneyk, ordea, bere gizona agindu zien kanpalekua txikitzeko, eta laurogeita sei lagun hil zituzten; erdia emakumeak eta haurrak ziren. Beste hirurogeita hamar emakume eta haur hartu zituzten preso, eta Laramie gotorlekuan gorde. Kontakizun baten arabera, soldaduek haur bat hartu zuten zauritako amaren magaletik, eta tiro-saioak egiteko erabili zuten.¹⁶³ Laramie gotorlekuan, ofizialek sicangu emakumeak bortxatu zituzten; andre haiek, Susan Bettelyoun Bordeaux-en testigantza araberak, «beren bahitzaileen jabetza bihurtu ziren». Bordeauxen leku-kotzari laguntzen dion gutunean, zera dio Josephine Waggoner hunkpapa historialariak: «Gerraren haur asko jaio ziren Harneyk Laramietik alde egin ostean».¹⁶⁴ Egun hartan, Harneyk lakota izen bat jaso zuen: «Emakume-hiltzaile».¹⁶⁵

Emakume-hiltzailek, berez, lakotak izutu nahi zituen, men egin ziezaioten, baina kontrakoa lortu zuen. Gizon gazte batek, zeinak, gerora, «Tasunko Witko» izena jasoko baitzuen (Zaldi Zoro), ehizaldi batetik iritsita, hara non topatu zituen bere senideen gorpuak mutilaturik, ordokian barreiatuta. Egun hartan, Zaldi Zorok zin egin zuen bizia emango zuela Emakume-hiltzailearen nazioaren kontrako borrokan. Zaldi Zororen osaba, Sinte Gleska (Buztan Marradun), ahaleginu zen masakrea gerarazten. Nahiz eta ez zuen armarik, eta soldaduek inguratzen bazuten ere, Buztan Marradunek, soldadu baten labanari heldu, eta Emakume-hiltzailearen hamar gizon hil zituen; bi tiro eginda zauritu zuten, baina ez zen hil.¹⁶⁶ Zaldi Zorok eta Buztan Marra-

162 Grattanen porrotari «Grattan masakrea» deitzen dio, oraindik ere, AEBko armadak.

163 Ostler, *The Plains Sioux*, 42. or.

164 Hemen aipatua: Susan Bordeaux Bettelyoun eta Josephine Waggoner, *With My Own Eyes: A Lakota Woman Tells Her People's History*, editorea Emily Levine (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 1998), 64, 155n12.

165 Joseph Marshall III, *The Journey of Crazy Horse: A Lakota History* (New York: Penguin, 2005), 68. or.

166 Ostler, *The Plains Sioux*, 42. or.; Marshall, *The Journey of Crazy Horse*, 68-69. or.

dunek ordezkatzten dituzte erresistentzia indigenaren bi tradizio: batak borroka armatuaren bideari jarraitu zion; besteak, berriz, diplomaziaren bideari. Bat etorri ez arren, elkarren senide onak izan ziren hurrengo urte latzetan, eta horrek erakusten du senidetza-lotura sendoek eusten ziotela nazioari, beren mundua kentzen ari zitzaizkien bitartean. Gudari eta buruzagi trebeak izan ziren hala Zaldi Zoro nola Buztan Marradun; edonola ere, beren bertuterik handiena zera izan zen: senide gizakiak eta ez-gizakiak babesteko erakutsi zuten konpromisoa. Egun hartako gertakariak betirako taxutu zuten biek ala biek auto defentsaren eta biziraupenaren alde izan zuten ekimena; horrek ez zuen beti ekarri pistola erabiltzea, baina, batzuetan, hala izan zen. Nolanahi ere, une hartan, bai Zaldi Zororentzat eta bai Buztan Marradunentzat, teoriak zioen aginpide tinko bati eutsi behar zitzaiola lurraldean; horretarako praktika, berriz, pistola zen. Senide gizakiak eta ez-gizakiak bizirik ateratzeko, bi gauzak ziren premiazkoak. Ezarpenezko kolonialismoaren agertoki amesgaiztokoan –borrokatu, ihes egin, edo egokitu–, hor eratu eta hilezkortu ziren heroi indigenak –batzuk ezagunak dira; askoz gehiago, berriz, ezezagunak–. Erresistentzia indigenako heroiek ez zuten, soilik, historia egin. Historiak egin zituen haiek.

Mendebaldeko lakotek kontra egin zieten AEBko bakepolitikaren zigor-kanpainari; ekialdean, berriz, dakotek gero eta inbasio handiagoa jasaten zuten kolonoen aldetik. Zuri koloniek ia osorik akabatu zituzten ehizakiak; urterokoak, berriz, urriak ziren, eta astiro iristen ziren, inoiz iristen baziren. Gosetea ezarri zen. Gauzak okerragotzeko, Minnesotako Lurraldea antolatatu zen 1849an, eta estatu bihurtzeko bideari ekin zion: horrek esan nahi zuen herri indigenak kanporatuko zituztela. 1857an, Inkipaduta izeneko buruzagi batek, Wahpekute naziokoa bera, mendeku-kanpaina bat abiatu zuen Spirit Lake-ko eta Springfield-eko kolonoen kontra, kolonoek nahita erail zutelako bere anaia eta indarrez erbesteratu zituztelako Wahpekute nazioko kideak beren sorlekutik, 1856. urtean. Orotara, Wahpekute naziokoek hogeita zortzi kolono hil eta zauritu banaka batzuk utzi zituzten. Inkipaduta buruzagiak orbainez beterik zuen gorputza, izan ere, haurra zelarik, 1837ko baztangaren zartadan kutsatu baitzen; ondoren, AEBko armadaren aurkako borroka nagusi ugaritako beterano bilakatu zen, eta Kanadan hil zen, erbestean,

1880ko hamarkadan. Koloniei eraso egin zienez, mugako muntroaren ospea eman zioten. Zuriak halako beldurra eta gorrotoa zioten, ezen ez baitzuten inoiz itzuli haren izena ingelesera, nahiz eta beste buruzagi garaikide batzuei, ezagunagoak eta atseginagoak, nori bere ingelesezko deitura eman.¹⁶⁷ Hala eta guztiz ere, gaur egun, Inkpadutaren ondarea luze-zabal miresten da, ez zutelako inoiz harrapatu ez hil, ez zuelako inoiz amore eman eta erreserban bizitzeari uko egin ziolako beti.

Bestalde, Wahpekute naziokoen erasoek, partez, bi ituni erantzuteko xedea zuten: Siuxen Trabesiaren itunari eta Mendotako itunari. Itun horiek 1851n sinatu zituzten dakoten baitako lau nazioek, eta, haien bitartez, dakota lurren jabetza-aldarrikapen guztiak lagatzen zituzten, hogeit mila herrensata estu baten trukean. Ezbairik gabe, dakota buruzagiak hertsatu egin zituzten halako kontzesio penagarriak egin zituzten. Buruzagiak sinatzerahartzeko, itunen komisarioek mehatxuak egiten zizkieten, adibidez, indar militarra baliatuko zutela edo ez zizkietela elikagaiak emango. Lehenik, merkatarizurien eskuan ipintzen ziren itunei zegozkien urterokoak; orduan, merkatariek, dakotek zorrazituztela esan, eta ustezko zor horiek kitatzeko baliatzen zituzten sosak. Itunak senatura bidali zituztenean, onartu zituzten, zuzenketak gehitu zitzaizkien, zeinen bidez dakotak esku hutsik geratu baitziren, lurraren gaineko legezko titulurik batere gabe; ondorioz, etxegabe eta sarkin bilakatu ziren beren jaioterrian bertan.¹⁶⁸

1862an, Taoyateduta izeneko dakota buruzagiak (Maite Du Bere Nazio Gorria), zeinari Kangi Cistinna ere esaten baitzioten (Bele Txiki), bere gudariekin batera ekin zion merkatarizuriak dakota lurretatik kanporatzeari; ordurako, dakota komunitate gehienak goseak akabatzen zeuden, ez zuten armarik ez zaldirik, eta erreserbatan bizi ziren. Gerra Zibila hasi zenean, urterokoak berandu iristen ziren, edo ez ziren iristen, eta, batzuetan, merkatariek nahita atxikitzen zituzten. Andrew Myrick merkatarizuri ospetsua arduratzen zen Lower Sioux Agentzian urterokoak eta

167 Paul N. Beck, *Columns of Vengeance: Soldiers, Sioux, and the Punitive Expeditions* (Norman, OK: University of Oklahoma, 2013), 11.13. or. Ikus, halaber, Paul N. Beck, *Inkpaduta: Dakota Leader* (Norman, OK: University of Oklahoma Press, 2008).

168 Waziyatawin, *What Does Justice Look Like?: The Struggle for Liberation in Dakota Homeland* (St. Paul: Living Justice Press, 2008), 32-37. or.

elikagai-anoak banatzeaz, eta argi bai argi esan zuen: «Niri dagokidan bezainbatean, goseak badaude, jan dezatela belarra edo gorotza». Dakotak, gosez hiltzearen arriskua parez pare zutela, Lower Bruleko Agentziara joan ziren, eta, kontakizun batzuen arabera, Myrick hil zuten, hura ihes egiten saiatu bitartean; kontakizun horiek diotenez, gizonaren gorpua topatu zutenean, ahoa belarrez betea zeukan.¹⁶⁹ Merkatarien eta agentziako ofizialen delituen eraginez, altxamendua piztu zen. Alabaina, AEBk dakota guztien aurka egindako lapurretek, hilketa masiboek eta zigorrek «legezko» izaten segitu zuten.

Dakotek borrokaldi hilgarriak egin zituzten, eta 800etik gora merkatari, kolono eta soldadu zuri akabatu. Irailaren amaierarako, dakota gehienak errendituak ziren, eta hala bukatu zen gerra labur hura, hogeita hamazazpi egun iraun zuena. Atzemandako dakotak ez zituzten gerrako preso gisa tratatu; aitzitik, epaitegi militar batera eraman zituzten, zeina Henry Sibley-k sortu baitzuen, Minnesotako lehen gobernaria eta estatuko miliziako koronela zenak. Hortaz, berriki dakoten aurka borrokatuak ziren armada-ofizialei esleitu zieten epaiketak ikuskatzeko lana. Azaroan, epaitegi militarrek 392 dakota epaitu zituen, «hilketa eta basakeria» egotzita: 323 kondenatu zituzten, eta, haien artean, heriotza-zigorra ezarri zieten 303ri. Halaber, 2.000 dakota baino gehiago espetxeratu zituzten Snelling gotorlekuan, kontzentrazio-eremu handi batean, eta asko hil ziren han. Ez zuen askorik axola gerran jardun ziren ala ez; dakota guztiak bihurtu ziren zigor kolektiboaren jomuga. Lincoln presidenteak, dakoten aurkako heriotza-zigor gehienak ordeztu bazituen ere, burdinazko ukabiler zanpatu zuen indigenen erresistentzia, ez bakarrik dakotena, ezpada beste batzuen ere. 1864an, hego mendebaldean, antzeko zigor kolektibo bat ezarri zioten navajo eta apatxeen erresistentziari; horren eraginez, Hwéeldi delakoa etorri zen, Ibilaldi Luzea: beren sorlekuetatik aterarazi, eta presondegira oinez joatera behartu zituzten indigenak; Bosque Redondo-ra (Mexiko Berria) zihoan ibilaldi hartan, 2.000tik gora navajo hil ziren.¹⁷⁰

169 Hemen aipatua: Duane Schultz, *Over the Land I Come: The Great Sioux Uprising of 1862* (New York: St. Martin's Press, 1992), 28. or.

170 Ikus Jennifer Nez Denetdale, *Reclaiming Diné History: The Legacies of Chief Manuelito and Juanita* (Tucson, AZ: University of Arizona Press, 2007).

1862ko abenduaren 26an, Emantzipazio Aldarrikapena sinatu baino astebete lehenago, Lincolnek agindu zuen, urte hartan dakoten eta AEBren artean izandako gerraren ordain gisa, hogeita hemezortzi dakota gizon urkatu zitzatela, Maka Ton izeneko lekuan (edo «Lur Urdin»; gaur egun, Minnesota estatuko Mankato hiria da). Hogeita hemezortzi dakota horien exekuzioa da, oraindik ere, AEBko historian inoiz izan den talde-exekuzio handiena. Minnesotako gobernari Alexander Ramsey, bere garaian, laguntzaile gisa jardun zen 1851eko itunari buruzkoak negoziatzen dakota naziokoekin; gero, ordea, estatuan geratzen ziren dakotak akabatzeko edo desterratzeko agindu zuen. Kolonoak xaxatu zituzten, baita saritu ere, mendekua har zezaten: indiar baten buru-azala entregatzen zuenari, gobernuak 25 dolarreko ordaina ematen zion; ondoren, 200 dolar ematen hasi ziren buru-azal bakoitzeko. Gerra Zibila amaitu zenean, konfederatuen armadako ofizial eta soldadu gutxi bidali zituzten espetxera, eta bat bakarrik urkatu zuten gerrako krimenak egitea egotzita. Amore eman ostean, konfederatu asko itzuli ziren beren administrazio-lanpostu publikoetara. Sibley jeneralak agindu zuen ezen dakotak delitugile gisa tratatu behar zirela, eta ez gerrako preso moduan.¹⁷¹ Esklabotzari eustearen aldeko gerrak milioi erdi heriotza eragin zituen, baina haren ondorena alderatzen badugu dakoten altxamenduen ondorenarekin, ez dute antzik batere; gutxitan azaltzen dira bi gertakarien kontakizunak elkarren alboan.

1863an, Minnesotako kolonoek Bele Txiki erail zuten, altxamenduan parte hartu zuela-eta, zigor gisa; 500 dolarreko ordainsaria jaso zuten haren buru moztuaren eta buru-azalaren truke. Minnesotako Historia Elkarteak gorde zituen Bele Txiki-ren burua, buru-azala eta gainerako gorpuzkiak, eta jendaurrean erakutsi zituen 1915. urtera arte: garaikur ilun horrek gogorarazten die kolonoei nola «irabazi» zuten lurra zehazki. 1971ra arte ez zizkioten Bele Txiki-ren gorpuzkiak itzuli bere sendiari. Milaka dakotak ihes egin zuten, Kanadara; beste 2.500 lagunek, berriz, eskapo egin zuten Dakotako Lurralderantz, Missouri ibaian bizi ziren senideengana. 1863an, Minnesotan, John Pope jeneralak «mendeku-zutabeak» antolatu zituen, ihes egindako dakotak

171 Ikus Carol Chomsky, «The United States–Dakota War Trials: A Study in Military Injustice», *Stanford Law Review* 43, 1990, 13-98. or.

harrapatu eta zigortzeko.¹⁷² Estatuak, lurrak ebatsi zituela eta gosea inposatu zuela aitortu ordez, dakotak behartu zituen beren biziarekin ordaintzera. Ordainsariak ematen ziren indigenen buru-azalen truke, eta indigenei kartzela-zigor krudelak ezartzen zitzaizkien; horrenbestez, errenditzeak heriotza zekarren normalean, eta ez zen aukera bat. Bizirik ateratzeko –erresistentzia egiteko–, ihes egin beharra zegoen.

Popek bi zutabe bidali zituen, Henry Sibley eta Alfred Sully brigada-jeneralen gidaritzan, dakotei eragotz ziezaieten Missouri ibaia gurutzatzea eta mendebaldeko beren senideekin elkartzea. Kanpaina hark hiru helburu zituen: eskapoan zihoa zen dakotak zanpatzea, Missouri ibaian barna baporeak ibili zitezkeela ziurtatzea eta Dakotako Lurraldearen ekialdeko koloniaren aurka oraindik ere indarrean zen erresistentzia indigena deuseztatzea. Alabaina, 1862an urre-sukar bat izan zen Montanan, eta meatzari eta kolono saldoak abiatu ziren Bozeman bidean zehar, zeina 1851ko Itunak babestutako lurretatik pasatzen baitzen lehenik, eta Missouri ibaian gorantz joaten baitzen gero, bapore bidez. Sibleyren zalditeriak hegoaldera egin zuen; ondoren, iparrerantz berriro, Missouriren ekialdeko ibaiertzetik, eta ez zuen oposizio handirik izan. Sullyk 2.000tik gora soldadu zituen bere agindutara, eta borrokaldi txikiak egin zituzten oro har, biktima bakan batzuekin, salbu eta kasu batean.

1863ko irailaren 3an, Sibleyren gizonak eraso jo zioten 4.000 dakota eta lakota baketsuri, zeinak udako kanpaldi bat egiten ari baitziren, bufalo-ehizan ibili ondoren Inyan Ska-n (Whitestone Muinoa). LaDonna Bravebull Allardek, Standing Rockeko historialari eta Harri Sakratu Kanpalekuaren sortzaileak, egun hartako gertakariak kontatu ditu, oinarritzat hartuz bere arbaso Mary Mokasin Handiren ahozko kontakizuna:

Ospakizunen eta zeremoniaren garaia zen; etortzekoa zen urtearen alde otowitz egiteko garaia, senideekin elkartzeko, ezkontzak antolatzeko eta neguko kanpalekuak planifikatzeko garaia. 1862an Minnesotan izandako altxamenduko errefuxiatu asko, gehienak emakumeak eta haurrak, familia gisa hartuak zituzten. Maryren aita, Oyate Tawa, urtebete eskas lehenago Minnesotako Mankato hirian urkatu zituzten 38 Dah’Kotah-etako bat zen; herrialdearen historian inoiz izan den talde-exekuzio

172 Beck, *Columns of Vengeance*, 45-49. or.

handiena... Nire birbirramona Mary Mokasin Handik kontatu zuenaren arabera, ehizaldi handiaren biharamunean gertatu zen eraso, aldartea goian zutela. Ilunabarra zen eta iluntzeko jatordua egiten ari ziren denak; orduan, Sullyren soldaduak agertu, eta Whitestone Muinoko kanpalekua inguratu zuten. Kaosa nagusitu zen, eta, horretan, jendeak zaldi eta txakurretara lotu zituen bere haurrak, eta ihesi bidali. Maryk 9 urte zituen. Korrika zihoala, tiro egin zioten aldakan, eta lurrera erori zen. Hantxe geratu zen, etzanda, hurrengo goizera arte; soldatu batek aurkitu zuen. Gurdin batean sartu zuten, eta Maryk bere senideak aditu zituen, negarrez eta marruka borroka-zelaian. Preso hartu zuten Crow Creekeko gerra-eremuan, eta hantxe egon zen, 1870ean askatu zuten arte.¹⁷³

Txakurrak kanpalekura itzuli ziren, haurtxoak artean gorputzera lotuta zituztela; han, soldaduek tiro egin zieten. Guztira, soldaduek 400etik gora lakota eta dakota akabatu zituzten; gehienak, emakume eta haurrak. Milioi erdi libra bufalo-okela lehor suntsitu zuten, eta 300etik gora aterpe birrindu. Hogeita hamabi gizon eta 124 emakume hartu zituzten preso; Pierre gotorlekura eraman zituzten, eta, jarraian, itsasontziz, Crow Creekeren, han atxikitzen baitzituzten AEB eta dakoten arteko gerratik bizirik atera ziren gainerakoak.¹⁷⁴

Masakre horrek eragin psikologiko sakona izan zuen Dakota eta Lakota nazioetan. Dakota lurra erretzeko kanpainak eta «mendeku-zutabeek» Oceti Sakowin jendeen aliantza politikoa kaltetzeko xedea zuten, eta, hain zuzen, baliteke taktika horrek bere helburua lortu izana kasu batzuetan. Bestalde, ekin-tza horien ondorioz, askok adorea bildu zuten, dena arriskuan jarri, eta inbasoreei atzera eginarazteko. Izan ere, erresistentzia armatuak izan zuen arrakasta neurtu nahi bada, ez da kontuan hartu behar ea AEB suntsitu al zuten, nazio etsai gisa; aitzitik, kontuan hartu behar da zer-nolako aliantza politiko erresilientek osatu zituzten.

Dakoten aurkako zigor-kanpainak gauzatu eta berehala, 1863ko azaroan, John M. Chivington koronelak eta bere soldaduek 200etik gora cheyenne baketsu masakratu zituzten Sand Creeken, Coloradoko Lurraldean, oroigarri gisa hartuz buru-azalak eta genital moztuak. Indarkeria gero eta latzagoak sumindurik,

173 Ladonna Bravebull Allard, «Why the Founder of Standing Rock Sioux Camp Can't Forget the Whitestone Massacre», *Yes! Magazine*, 2016ko irailak 3, yesmagazine.org.

174 Beck, *Columns of Vengeance*, 166-167. or.

aliantza politiko bat osatu zuten Cheyenne, Lakota eta Arapaho nazioek, eta dakota batzuek, Mahpiya Luta (Hodei Gorri) buruzagiaren pean. Aliantza historiko hartako kideek sinesten zuten ezen AEBk, Bozeman Bidea eraikiz, urratu egin zuela Laramie Gotorlekuko 1851ko Ituna; horregatik, zin egin zuten bufalo-ehizako lurraldetik kanporatuko zituztela.¹⁷⁵ 1866tik 1868ra bitarte, aliantzak arrakastaz garaitu zuen AEBko armada, eraso azkarrak eginez. 1866ko abenduan gertatu zen garai hartako ekintza famatuenetako bat: Zaldi Zorok, goraldian zegoen buruzagi militar batek, William J. Fetterman koronelaren agindutara zeuden ehun soldadu eraman zituen Kearney gotorlekutik tranpa batera, eta denak hil ziren, Fetterman barne. Gotorleku hura Bozeman bi-dean zegoen, hain zuzen, Montanako urre-meatzetara zihoazen meatzari zuriak babesteko asmoarekin.¹⁷⁶ Gerrilla garaitezin eta oso mugikor baten indarra aurrean zutela, AEBk bakea bilatzeari ekin zion, berriro ere, 1868an.

Urte hartako udan, kontseilu masibo bat antolatu zuten Mato Paha-n (Bear Butte), bake-itunaz mintzatzeko; Hodei Gorri hautatu zuten AEBrekiko negoziazioen buru izan zedin. 1857az geroztik, Oceti Sakowin nazio gehienak urtero biltzen ziren Mato Pahan, Muino Beltzen ipar-ekialdean, bake-itunez eta erresistentzia gero eta handiagoaz jarduteko. Zenbait historialari eta akademikok zalantzan jarri dute ea «siux nazioa» –edo Oceti Sakowin– inoiz existitu ote zen, edo Muino Beltzetan bilkurak egin ote zituzten AEBren inbasioaren aurretik. Gauza jakina da, edonola ere, zazpi dibisio politikoak urtero bateratzen zirela, udako kontseiluetan, eta denen ordezkaritza izan zela borrokaldi famatuenetan. Era berean, egia da Oceti Sakowin jendeak ez zirela era horretan bildu 1857tik; orduko hartan, beste nazio batzuekin elkartu ziren, hala nola Arapaho eta Cheyenne nazioekin: «*wasicuren aurka borroka egiteaz*» mintzatu ziren (bestela esanda, AEBren inperialismoaren aurka borroka egiteaz), eta, Edward Valandra sicangu historialariak adierazi duenez,¹⁷⁷ borroka ho-

175 Ostlerrek nabarmendu duenez, 1851ko Itunak, teknikoki, baimena ematen zuen errepideak eraiki zitezen lakota lurraldean barna. Nolanahi ere, uler daiteke Bozeman bidearen eraikuntzak «1851ko Itunaren espiritua» urratzen zuela, izan ere, Lakota, Cheyenne eta Arapaho nazioek uste baitzuten Itunak «Goiko Platteko errepidean barna bidaiatzea bakarrik baimentzen» zuela. Ostler, *The Plains Sioux*, 45. or.

176 Marshall, *The Journey of Crazy Horse*, 45–51.

177 Hemen aipatua: Craig Howe, Lydia Whirlwind Soldier eta Lanniko L. Lee, editore, *He*

nela egiteko asmoa zerabilten: Saint Louiseraino oinez joan, eta bidean topatzen zuten kolonia zuri oro suntsitu.

Horren aurretik, Oceti Sakowin jendeek bilkurak egiten zituztenean Mato Pahan, bake-giroa izaten zen; besteak beste eguzki-dantzak egiten zituzten halakoetan (*Wiwang Wacipi*). Nolanahi ere, Oceti Sakowin jendeen gerra-kontseiluek miaketa eta arreta gehiago eragin dute, bizitzaren ospakizun zeremonia-
lek baino.¹⁷⁸ Egia esan, dibisio politiko gehienek uko egin zioten, guztiz, erresistentzia armatuari, eta, bufaloak urritu ahala, poliki-poliki ohitu ziren agentzietatik hurbil bizitzera. Soldaduek eta herrikide indigenek, mespretxuz, «alfer talde» deitzen zioten halako jendeari, gotorlekuen inguruan egoten zirelako.¹⁷⁹ Beste batzuk, berriz, prest agertu ziren ituna hautsi eta lurrak saltzeko, nahiz eta ez zuten horretarako baimenik: haiei *Maka Utacipi* esaten zieten, «lur jaleak».¹⁸⁰ Oceti Sakowin jendeetako askok ez zuten onesten banako horien jarrera, baina senidetzat hartzen zituzten hala ere; dena den, errukia zieten, lurra «jaten» zutelako: lurra saldu eta horren truke urterokoak eta elikagai-anoak jasotzen zituztelako. Usadio politikoak ezartzen zuen familiek eta dibisio politiko handiagoek baimena zutela bat ez etortzeko edo uko egiteko bestek ezarritako ekintza-ildo bati. Desadostasuna handia bazen, banakoek eta nazio osoek baimena zuten alde egiteko. Erraz asko alde egin zezaketen, eta orobat zen erraza senideekin berriro elkartzea. Hertsapenak edo indarrak ez zuten inoiz balio izan besteak konbentzitzeko ekin zezaten edo gera zitezten.¹⁸¹ Baina, Oceti Sakowin osoa erreserbatan konfinatu zutenean, oreka hautsi zen, bat ez zetozen fakzioak ezin zirelako elkarrengandik urrundu. Beste kasu batzuetan, «agentziako buruzagiak» hautatu ziren, nazio indigena osoa ordezkari zezaten,

Sapa Woihanble: Black Hills Dream (St. Paul: Living Justice Press, 2011), 22-23. or.

178 Oceti Sakowin jendeak oraindik ere biltzen dira, urtero, eguzki-dantzak, *powwow* jaialdiak eta saskibaloi-partidak egiteko. Esate baterako, Lakota Nazioaren Gonbidapenezko saskibaloi-txapelketan, Oceti Sakowin jendeen hamarnaka milaka pertsona biltzen dira He Sapan, abenduan. Saskibaloi-txapelketak nolabaiteko ospakizunak izan arren, sarritan, kontseilu tribalek egokiera horietan egiten dituzten beren batzarrak.

179 Ikus Marshall, *The Journey of Crazy Horse*, 37. or.

180 Ikus Beatrice Medicine, «Oral History» in *The Great Sioux Nation Sitting in Judgement on America, An Oral History of the Sioux Nation and Its Struggle for Sovereignty*, editorea Roxanne Dunbar-Ortiz (Berkeley, CA: International Indian Treaty Council, 1977), 121-123. or.

181 Ikus Ella Deloria, *The Dakota Way of Life* (Rapid City, SD: Mariah Press, 2007), 8-15.

eta horrek txikitu egin zituen nazioaren barneko demokrazia-prozesuak. Desadostasunak desadostasun, Bozeman bidearen aurkako gerraren harira, AEB negoziazio-mahaian jesarri zen beste behin ere.

1865erako, 1851ko ituna iraungi zen, emaitza handirik gabe: ez zuen lortu agindutako bakea ekartzetik. Ipar Ordokietan beste kanpaina militar garesti bat egiteko aukera ez zegoen mahai gainean. AEBko armadaren gehiengoa herrialdearen hegoaldean zegoen, Gerra Zibilaren amaieraren osteko Berreraikuntza ikuskatzen. Askatutako beltzak hiritar bihurtzeko ahaleginari zegokionean, W. E. B. Du Bois-ek esan zuen Berreraikuntza «porrot itzela» zela: gizarte aske baten behin-behineko ikuspegia besterik ez zuen eskaintzen, izan ere, erabateko berdintasuna lortzeko, ezinbestekoa baitzen *status quo* zuri supremazistatik askotxo urruntzea.¹⁸² Gauza bera esan zitekeen AEB eta indigenen arteko itunez. Estatu kolonoarentzat, nonbait, gehitxo zen nazio indigenei bakean bizitzen uztea eta haien aginpide politikoa errespetatzea. Orduan, zergatik egin zituzten, hasteko eta behin, itunak indigenekin?

Itunak dira burujabeen arteko hitzarmen nagusiak eta nazioarteko harremanen oinarritzko tresnak. Azken batean, nazio beregain batek ez du nazioarteko harremanik izango bere barneko herriekin. Alabaina, nahiz eta, 1831n, Auzitegi Gorenak ebatzi zuen nazio indigenak «herrialdearen mendeko nazioak» zirela, AEBk nazioarteko harremanak abiatu zituen Oceti Sakowin jendeekin.¹⁸³ Hona hemen gobernuak indiar auziaren inguruan sortutako legeen paradoxa funtsezkoa: nazioarteko akordioak hartu, eta herrialde barneko lege federalaren eremuan saiatu zen haien baliozkotasuna zehazten, hots, kolonizatzaileen epaitegietan.

Patrick Wolfe-n arabera, «herrialdearen mendeko nazioak» deritzon terminoa ez zen legezko berrizendapen bat, ezpada ezarpeneko kolonialismoaren «manifestua».¹⁸⁴ Itunen xedea ez zen nazio indigenen berezko subiranotasun politikoa

182 W. E. B. Du Bois, *Black Reconstruction in America, 1860–1880* (New York: Free Press, 1998), 708. or.

183 Ikus Vine Deloria Jr. eta Clifford M. Lytle, *The Nations Within: The Past and Future of American Indian Sovereignty* (Austin: University of Texas Press, 1984), 16-27. or.

184 Patrick Wolfe, *Traces of History: Elementary Structures of Race* (New York: Verso, 2016), 160. or.

eta autodeterminaziorako aginpidea aitortzea, baizik eta lur-lagapenak erraztea eta, gerora, lurrez jabetzea. Osterantzean delitua izango liratekeen ekintzak zuritzen zituztenez –hau da, inbasioa zuritzen zutenez–, itunak, egiaz, tresna bat ziren, AEBko bere proiektua gara zezan lur guztietan, eta, bereziki, indarrez har ezin zitzakeen lurretan. Lur-lagapenak gauzatzeko, berriz, AEBko gobernuak kolonoen premia zuen, jabetza pribatua izan zezaten betirako. AEBko legedian, jabetza pribatua (edo «jabetza erabatekoa») hartzen da jabetza-forma goren gisa; indigenen okupazioa, ostera, aldi baterako gauza dela ulertzen da. Horrenbestez, indigenen jabetza eta erabilera kolektiboko lurak desegin zitezkeen, lur horiek jabetza pribatuan ezartzeko; ez, ordea, alderantziz. Jabetza pribatua eskusiboa denez, lur-jabetzako bi sistemak ezin ziren gainjarri. Herri indigenak beren bizilekutik ateraraztea eta erreserbatan konfinatzea arrazaren arabera segregazioa izan zen, eta herri indigenak izan ziren lehen «Ikara Gorria».

Politikoki gailentzen zela sinesten zuelako, horregatik saiatu zen AEB Oceti Sakowin jendeekin bakeak egiten. Borondate onaren adierazle moduan, estatuak Bozeman bideko zenbait gotorleku hustu zituen, eta Hodei Gorrik eta bere jarraitzaileek, segidan, eraikin abandonatuak erre zituzten. Ordea, Missouri ibaiko gotorlekuek bere horretan iraun zuten, eta ekintza-base berriak ezarri ziren han, Oceti Sakowin AEBren eraginera gertura zedin, eta Powder ibaiaren inguruko lurraldetik urrundu, huraxe baitzen, gero eta gehiago, askatasunaren ordezkari.¹⁸⁵ Laramie Gotorlekuko 1868ko Itunak 32 milioi akreko «erreserba iraunkor» bat ezarri zuen, zeinak osorik hartzen baitzuen gaur egun West River deitzen zaion eskualdea (Hego Dakotan dago). Agentziaren manupeko bizitzari uko egiten ziotenak baretzeko xedez, ehiza-eremu zabal-zabalak utzi ziren alboan, erreserba iraunkorraren ia neurri berekoak; guztira, lurraldeak 70 milioi akretik gora neurtzen zuen, gaur egun Nevadako estatuak duen tamainaren parekoa, gutxi gorabehera. Dena dela, Ituneko 11. artikulua zehazten zuenez, lakotek uko egiten zioten «hemen zehazten den erreserbatik kanpoko lurraldeak modu iraunkorrean okupatzeko eskubideari», nahiz eta eskubidea zuten

185 Jeffrey Ostler, *The Lakotas and the Black Hills* (New York: Viking, 2010), 62. or.

Powder ibaiaren inguruko lurraldetan ehizatzeke «betiere, bufaloak ugari badabiltza eremu horretan, ehiza justifikatzeko bezainbesteko kopuruan».¹⁸⁶ William Tecumseh Sherman jenerala, bake-komisioko kide bat, xedapen horren aurka agertu zen hasieran, beldur zelako ezen, dibisio militanteek erresistentziari eusten baldin bazioten bufalo-ehizaren bidez, ezinezkoa izango zela haiek gobernatzea. Bake-komisioko beste kideek, ordea, ziurtatu zioten ituneko klausula hura «behin-behinekoa» baino ez zela: bufaloak ahitu bezain laster, indigenek galdu egingo zituzten ehiza-lurraldeen milioika akreak.¹⁸⁷

1903an, Hodei Gorrik gogora ekarri zuen zer esan zioten lakotek, ehiza-lurren harira, itun-komisioko kideei: «Esan genien bufaloen lurraldea lakoten lurraldea zela. Esan genien bufaloek beren lurraldea izan behar zutela eta lakotek, berriz, beren bufaloa izan behar zutela».¹⁸⁸ Lakotek ez zuten uste AEBk aginpiderik zuenik haiei, besterik gabe, lurrak «itzultzeko», kontuan hartuta lur haiek lehenagotik eta eskubidez zegozkiela lakotei eta beren senide bufaloei. Hodei Gorrik argi adierazi zuen 1868ko Ituna ez zela soilik bi giza nazioen arteko akordio bat: neurri berean zegokien ez-gizakiei ere, tartean, bufalo-nazioei. Hodei Gorriren ikuspegia –hau da, bufalo-nazioaren lurraldean hasten eta amaitzen zela lakota lurraldea– ez zen irakurketa «mistiko bat»; aitzitik, lakota bizitzako egitate simple bat zen, eta, garai hartan, egitate hori biziraupen hutsari lotuta zegoen.

Adibidez, bufalo-nazioaren (Pte Oyate) ondorengoa zen Oceti Sakowin jendeen historiako figurarik garrantzitsuenak. Emakume bat zen, Pte Ska Win (Bufalo Kume Zuri Emakumea): hark egin zuen lehen ituna gizakien eta ez-gizakien munduaren artean. Senide on batek hastapeneko ikaskuntza hori ohortu behar du. Lakotentzat, AEBrekin edo beste nazio batzuekin egindako itunak ez zegozkion bakarrik giza harremanei, ezpada ez-gizakiei ere. Bestalde, halako akordioak ez ziren gizonen

186 1868ko Itunaren testua irakurtzeko, ikus Francis Paul Prucha, editore, *Documents of United States Indian Policy*, 3. edizioa, (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 2000), 109-113. or.

187 David D. Smits, «The Frontier Army and the Destruction of the Buffalo», *Western Historical Quarterly* 25:3, 1994, 322-323. or.

188 Hodei Gorri, «I Was Born a Lakota», in *Lakota Belief and Ritual*, editoreak Raymond J. Demallie eta Elaine A. Jahner (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 1991), 139. or.

eremuan bakarrik egiten, zurien gizarte-tradizioan bezala. Al-derdi garrantzitsuena hau da: pte hitzak «bufalo-eme» esan nahi du, eta Pte Oyateri, batzuetan, «bere [emearen] nazioa» esaten zitzaion.¹⁸⁹ Hodei Gorrik Pte Oyateri buruz hitz egin zuenean, la-koten egiazko buruzagiez hitz egiten zuen: emakumeez, ezen ez zezenez (gizonak) eta Bufalo Kume Zuri Emakumearekin egin-dako jatorrizko akordioaz. Oceti Sakowinen etorkizuna eta Pte Oyaterena elkarriz lotuta zeuden.

Armada, bere aldetik, seriotan hartzen hasi zen bufaloare-kiko lotura funtsezko hura, indigenen erresistentzia iraunkorra sustatzen zuelakoan. Hala, mugaldeko armadak ekin zion Oceti Sakowin jendeen senideak –Pte Oyate– ezereztatzeari, ia ezinez-koa gertatzen baitzitzaien Ordokietako nazio oso mugikorrek borrokaldi arruntetan garaitzea. 1865etik 1883ra, mugako ar-madak bufaloen hilketa masiboa onetsi zuen; modu horretan, indigenen elikadura-iturri nagusia eta senide hurkoa ezabatuz, haien erresistentzia-nahia puskatu asmo zuten. Are, 1872an, Errusiako duke Aleksei Aleksandrovitx bufalo-ehizaldi batean jardun zen, mugako armadarekin batera, Denver inguruan, George Armstrong Custer teniente jeneralaren eta Philip Sheridan jeneralaren agindutara. Bufalo-talde batengana zihoazela, ehiz-tariak eta soldaduak honela jarduten ziren: bufaloak akabatzeak berekin balekar bezala herri indigenen sarraskia; gidari batek, Chalkley M. Beeson delakoak, azaldu zuenez, bufaloei «azal-go-rrri» deitzen zieten.¹⁹⁰

Bufaloen deuseztapena izugarri eraginkorra izan zen. Bi hamarralditan, soldadu eta ehiztariek desagerrarazi egin zituz-ten geratzen ziren bufalo ia guztiak –10etik 15 milioira bitarte–; ehunka batzuk baizik ez ziren bizirik atera. «Indiar arazoa» orobat zen «bufaloen arazoa», eta bi-biei ezarri zitzaizkien deu-seztapen-prozesu beretsuak: bizitzan adinako lotura izan zuten heriotzean. Bata suntsitzeko, bestea suntsitu beharra zegoen. «Bufaloak ugari badabilta» zioen klausulak; horrenbestez, mi-lioika bufalo hiltzeko bermea eman zuen, eta horrek, aldi berean, milioika indiarren heriotza eta 1868ko Itunari zegozkien milioika

189 Joseph Marshall III, *The Day the World Ended at Little Bighorn: A Lakota History* (New York: Penguin, 2007), 38. or.

190 Chalkley M. Beeson, «A Royal Buffalo Hunt», *Transactions of the Kansas State Historical Society* 10, 1908, 577. or.

akreren harrapaketa ekarri zuen: indigenen aginpidearen aurka-ko zuzeneko erasoa.

Hona hemen 1868ko Itunaren beste alderdi gatazkatsu bat: itunak eskubidea ematen zuen trenbideak eraikitzeko Oceti Sako-win jendeen lurraldean barna. Ipar Pazifikoko Trenbidea eraikitzen hasi ziren Yellowstone bailaran barrena, Duluth (Minnesota) eta Puget Sound lotzeko; ordurako, Hodei Gorri, Buztan Marradun eta beren jarraitzaileek onartuak zituzten bake-itunaren terminoak. Gehienek zera ulertu zuten: ez bazioten eraso egiten trenbideei, diligentziei eta oinez bidaiatzen zuten emigranteei, bada, orduan, berei ere ez zieten erasorik egingo, erreserbaren mugen barruan geratzen baziren. Ehiza-eremuak zabalik zeuden; hortaz, uste izan zuten beti bezala bizi ahal izango zirela, aldaketa handirik gabe. Baina trenbideak mehatxu jo zion bake prekario horri eta harekin zetorren ehiza-eremu behin-behinekoari. Borrokaldia piztu zen berriro, eta erreserbetatik at jarraitu nahi zuten militanteen erabakimena sendotu zen. Tatanka Iyotake buruzagiak (Zezen Eseri), Hunkapapa herriko buruzagi politiko boteretsua bera, uko egin zien bake-baldintzei, eta, zehazki, trenbideei; hala, gerra egiten hasi zen trenbideen ikuskatzaileen kontra, haiek Yellowstoneko lurraldean barneratu ahala. Armadak, 1871n eta 1873an, espedizio bana bidali zuen –bakoitza milaka gizonek osatua–, trenbide-ingeniariak ondo iristen zirela ziurtatzeko. Baina Zezen Eserik eta bere zaleek gerarazi egin zuten Ipar Pazifikoko trenbidearen eraikuntza, Bismarcken, Missouri ibaiaren gainetik pasatzen zen tokian, eta 1873ko krisi ekonomikoak areago zaildu zuen Ipar Pazifikoko Trenbideak mendebalderantz jarraitzea. Alabaina, armadak, ordurako, posizio sendo samarra zuen ibaian behera, Rice gotorlekuan, Custer jeneralaren agindupean. Gerra Zibilean jardundako ofizial hori ez da hain ezaguna; historiak, batez ere, bere heriotza oroitu du: Lakota, Cheyenne eta Arapaho nazioen aliantzak hil zuen, 1876an, Greasy Grass-eko borrokan (Little Bighorneko borroka). «Erreserba Sioux Handia»ren iparraldeko muga kokatu ziren Custer eta bere gizonak, Hunkpapa eta Sihasapa nazioek ez zezaten erreserba utzi, trenbide-ikuskatzaileen aurka gerrarik abiatu, eta ez zitezen elkartu, mendebaldean, erreserbatik kanpo bizi ziren beren senideekin.¹⁹¹

191 Terry Mort, *Thieves' Road: The Black Hills Betrayal and Custer's Path to Little Bighorn*

Azkar asko, erreserbatik kanpo bizi zirenak bidelapur, arnegari, arerio eta gaizkiletzat hartu zituzten, eta ontzat jotzen zen haiek ehizatu, eta, berehala, tiro egitea, urkatzea edo espexteratzea. Erreserban bizi zirenak, aldiz, «baketsuak» eta «lagunkoiak» zirela uste zen, eta ez zitzaien trabarik egin behar. Bata zein beste, soldaduak eta kolonoak ez ziren gai bien artean bereizteko: zigor kolektiboari zegokionean, denak ziren errudun.

1865etik aurrera, kontinente arteko trenbideak agertu ziren ekialdetik mendebaldera. 1873ko izualdiarekin, AEBko kapitalista eta politikariak moneta-molde eta proiektu nazional berri baten bila zebiltzan, herrialdea atzeralditik ateratzeko. Urreak, trenbideen zabaltzeak eta mendebalderako hedapen etengabeak baretu zuten egoera; beste era batera esanda, lur indigenaz jabetzeak eta Indiar Gerren handiagotzeak. 1874an, urrea topatu zuten Muino Beltzetan, eta horrek bultzada galanta eman zion Ipar Ordokietako indiarren arazoa azkar amaitu nahia. Armadaren ikuspegitik, erreforma-egileak ez ziren gai izan, 1868ko Itunaren bidez, bakea ziurtatzeko. Bestalde, amaitzen ari ziren lehenago mendebaldean eta hegoaldean izandako kanpaina militarrek. Apatxe, Arapaho, Cheyenne, Komantxe, Kiowa eta Modoc nazioen aurkako konkista-gerrak, 1869tik 1873ra bitartean iraun zutenak, bukatuak ziren ia denak. Bien bitartean, hegoaldean, Errotikako Berreraikuntzak galdua zuen iparraldekoen babes, kontserbadurismoak gero eta indar handiagoa baitzuen; AEBk tropa federalak erretiratu ahala, askatutako beltzak bakar-bakarrik geratu ziren hegoaldeko elite zurien aurrean, zeinak bortizki ahalegintzen ari baitziren beren botere politiko eta ekonomikoa berreskuratzen. Atzeraldi ekonomikoaren esturan, ekialdeko industria-langileak borrokan hasi ziren. Richard Slotkin historialariak dioen bezala, hiru faktorek – hegoaldeko beltz legegabeei buruzko ikuspegiak, mendebaldean delituak egin eta egin ari ziren indigenenak eta ekialdean hazten ari zen langile-borrokak– aukera eskaini zuten Muino Beltzen menderakuntzari zurbide morala emateko eta ekintza hori nazioaren garapen ekonomikoa lehenesten zuen ekintza gisa aurkezteko.¹⁹² Mendebaldeko mugatik zetorren «mehatxu»ari

(New York: Prometheus, 2015), 67-68. or.

192 Richard Slotkin, *The Fatal Environment: The Myth of the Frontier in the Age of Industrialization, 1800-1890* (Norman, OK: University of Oklahoma Press, 1985), 358-

eusteko helburuarekin, AEBk indiarrez jabetzeko lege bat onartu zuen 1871n, eta ezereztu egin zuen nazio indigenekiko itungintza (nahiz eta itunak berak ez ziren inoiz deuseztatu). Bestalde, Muino Beltzak hartzeko kanpaina militar nazionalista eta mendebalderako hedapen etengabea, biak ala biak, presio-balbula behar-beharrezkoak ziren aztoramen sozialaren eta segurtasun-gabezia ekonomikoaren larridurak askatzeko. AEBko armadak agindu bat zabaldu zuen, lakota eta dakota guztiei jakinarazte aldera erreserbara itzuli behar zutela 1876ko urtarrilaren 31rako; osterantzean, ekintza militarrek egingo ziren haien kontra. Agindua neguan argitaratu zenez, bai AEBko armadak bai Oceti Sakowin jendeek, gehiengoan, ez zioten jaramonik egin agindu ez-praktiko hari.

1876ko udaberria heldu orduko, lakota gehienak erreserbatan bizi ziren, ez zuten zaldirik ez armarik, eta goseak akabatzen zeuden. Alabaina, hainbat taldek uko egin zioten erreserban bizitzeari; bestalde, hainbat urtez, armadak ez zuen harrapatu Lakota, Cheyenne eta Arapaho nazioen aliantza. Zaldi Zorok, zeina, ordurako, ez baitzen lider militar bat, talde txiki ugari eraman zituen Muino Beltzetara, eta meatzari zuri mordo bat hil zituzten. Nolanahi ere, bi ekintza uztartzearen ondorioz –erreserba-mugen inposizioa eta hornitzaile britainiar-kanadarrak eta estatubatuarrek emaria moztu izana–, munizioa urritu zen eta, hala, ia ezinezkoa bilakatu zen erresistentzia armatuari eustea.¹⁹³ Sheridan jeneralak eta George Crook brigada-jeneralak erabaki zuten urre-meatzariak kanporatzeari uztea, une horretan irudimenean bakarrik existitzen zen zerbait gauzatzeko itxaropenean: Muino Beltzak mendean hartzea, itunpeko lurak kolonizatzea eta Oceti Sakowin jendeen errendizio behin betikoa. Kolonoei eta meatzarietako itunpeko lurretan sartzen uzteak argiki urratzen zuen 1868ko Ituna: akordio horren arabera, zuriak ezin zuten erreserba iraunkorrean sartu, eta erreserbak bere baitan biltzen zituen Muino Beltzak, osorik. Ituna nazioarteko akordio bat izanik, baldin eta urratzen bazen, horren aurreko baldintzetara itzuli beharra zegoen. Horrenbestez, Oceti Sakowin jendeek, une horretan, bertan behera utzi ahal zituzten beren

370. or. Ikus, halaber, Ostler, *The Plains Sioux*, 59-60. or.
193 Marshall, *The Journey of Crazy Horse*, 201-202. or.

betebeharrak, adibidez, kolonoei pasatzen uztea, errepedeak edo trenbideak baimentzea eta lur jakin batzuk lagatzea. Hala eta guztiz ere, sarkin zurien delituak murriztu eta itunak ezarritako betebeharrak bete ordeztu, armada mobilizatu egin zen, 1868ko Ituneko «bakea» indarrean jartzeko, hain justu ere gerraren bidez, alegia, erreserban geratzeari uko egiten zioten cheyenne, lakota eta arapahoen aurka gerra eginez.

1876ko ekainaren 25ean, Custerrek eta Marcus Reno brigada-jeneralak 650 gizon gidatu zituzten milaka lakota, cheyenne eta arapaho biltzen ziren kanpalekuari eraso jotzera. Indigenen artean ziren Zezen Eseri, Pizi (edo Lotsagabe), Inkpaduta, Zaldi Zoro, Sudur Eder, Ezker Esku, Bi Ilargi, Egur Zango eta beste pila bat, zeinak luzaroan oroituko baitzituzten Cheyenne, Arapaho, Dakota eta Lakota herrien erresistentzia armatuaren heroi gisa. Lehen ekinaldia Custerrek gidatu zuen: kanpaleku handirantz jo zuten, ezusteko eraso bat egin nahian. Berehala geldiarazi zituzten, ordea, eta maldan gorantz atzera egitera behartu. Mitoak kontrakoa dioten arren, Custerrek eta bere gizonak ez zuten azken eraso ausartik egin; aitzitik, gudari indigenengandik –gizon zein emakume– ihesi zihoazela eraitsi zituzten. Hil ostean, jeneral izendatu zuten Custer, erakutsitako kuraiagatik.

Mantal Mugikor Emakumek, hunkpapa gudari-andre batek, zalditeriako gizonen aurka egin zuen borroka, eta, gerora, egun historiko hari buruzko azalpenak eman zituen. Garai hartan, emakume gaztea zen; *tinpsila* biltzen ari zela –ordokietako arbiak– iritsi ziren zalditeriakoak burrunbaka kanpalekura. Hasierako erasoan neba hil ziotela jakin zuenean, Mantal Mugikor Emakumek zera egin zuen: «han inguruko sasira joan nintzen, neure zaldi beltza hartzera. Aurpegia margotu nuen gorrimin kolorearekin, eta trentzatan lotu ile beltza. Doluan nengoen. Emakumea nintzen, baina ez nuen beldurrik».¹⁹⁴ Ordokietako nazioetan, ohikoa zen gudariak emakumeak izatea. Are, iparraldeko Cheyenne nazioen kontakizunek diotenez, Bufalo Kume Aztarna Emakumek bota omen zuen Custer bere zalditik, beste batek hura akabatu aurretik.¹⁹⁵ Gainera, emakume indigenek

194 Hemen aipatua: Richard G. Hardorff editore, «Moving Robe Woman Interview», *Lakota Recollections of the Custer Fight* (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 1997), 93. or.

195 Ikus Martin J. Kidston, «Northern Cheyenne Break a Vow of Silence», *Helena*

bazekiten, ondotxo jakin ere, zer ekarriko zuen porrotak: ez bazituzten hiltzen, bahitu eta beren gorputzak behartuko zituzten. Borroka egiten zuten, ez hala nahi zutelako, ezpada borrokatu beharra zutelako.

Custerren zazpigarren zalditeriari huts eginaraztea eta talde horretako 268 gizonak akabatzea sekulako garaipena izan zen. Hala eta guztiz ere, Mantal Mugikor Emakumeren esanetan, inork ez zuen «garaipen-dantzarik antzeztu gau hartan. Doluan zeuden, beren hildakoak gogoan».¹⁹⁶ Borrokaldian lau dozena gudari indigena hil ziren gutxi gorabehera. Greasy Grasseko borrokari buruzko kontakizun ezagunek eta mendealdeari buruzko historiek gehiegi apaintzen dute gerra haietako indarkeria muturrekoa eta berariazko sarraskia –gerora, «Siux Gerra Handiak» izena eman zaie borrokaldi horiei-. Inbasoreen aurkako garaipen bakoitzak ezin konta ahal zauritu eragiten zituen hurrengo borrokaldietan, eta erresistentzia armatua ondo neurtutako arrisku bat zen; inor ez zen hartan axolagabe aritzen. Nolanahi ere, Oceti Sakowin nazioak etengabeko doluan ari ziren, beren bizitzak, munduak eta ezin konta ahal senide-oraineko eta etorkizuneko arbasoak– lapurtu zizkietelako. Indigenen erresistentzia armatua beti bideratu da etorkizunera eta bizitzara; borroka izukaitz horri esker atera gara bizirik eta oroi gaitezke hartaz guztiaz.

Greasy Grassen ostean, armadak ordaina nahi zuen. Ordokietako aliantza ez zen gai erresistentzia luze eta iraunkorrari eusteko; horregatik, sakabanatu egin ziren: Zezen Eserik eta bere jarraitzaileek –Inkpaduta barne– Kanadara ihes egin zuten. 1877ko maiatzean, Zaldi Zoro eta bere zaleak errenditu egin ziren, Red Cloud agentzian, Nebraskako Robinson gotorlekutik hurbil; erreserbako agintariek han bertan espetxeratu zuten. Urte berean, irailean Sean, Robinson gotorlekura eraman zuten Zaldi Zoro: han, formalki atxilotu zuten, altxamendu bat antolatzeko kargua egotzita. Ihes egiten saiatu zenean, guardietako batek baionetarekin tiro egin zion: bizkarrean jo, eta hil egin zen. Hogeita hamazazpi urte zituen. 1881ean, Zezen Eseri errenditu egin zen azkenean, bere zaleekin batera, eta Yates gotorlekura

Independent Record, 2005eko ekainak 28, helenair.com.

196 Hardorff, «Moving Robe Woman Interview», 96. or.

eraman zuten, Missouri ibaiaren ertzera, gaur egun Standing Rock erreserba dagoen lekura. Borroka-eremua aldatu egin zen: kristau misiolariak, barnetegiak eta diziplina eta zigor militarrek bilakatu ziren zibilizazio zuriaren abangoardia berriak.

Cheyenne, lakota eta arapahoek Custer eta bere zaz-pigarren zalditeria sonatu bihurtu zituztenerako, ederki aurreratuta zeuden erreserben espetxe-mundua, diseinua eta garapena. 1876an, indiar arazoetarako komisario John Q. Smithek adierazi zuen AEBko politikak hiru xede nagusi zituela indiar auziari zegokionean: geratzen ziren herri indigenak erreserba gutxiagotan kontzentratzea, geratzen ziren lurak banatzea eta AEBko legeen eta epaitegien jurisdikzioa zabaltzea erreserbeta-¹⁹⁷ ra. Erreserba-kopurua murriztu ez arren, beste bi helburuak lortu zituzten; horretarako, egitura politiko eta sozialak desegin zituzten, eta jabetza komunaleko lurak zatikatu. Izan ere, lar-ru-merkataritzak merkatu kapitalista txertatu bazuen ere, Oceti Sakowin jendeak ez ziren inoiz zinez indibidualista bilakatu, eta bere horretan iraun zuten luraren jabetza komunalaren praktikak eta ohitura sozialek. Hura zen azken muga.

Lehenik, AEBko legearen baiespena etorri zen. Rosebud erreserban, liskar etengabeen zebiltzan Buztan Marradun eta Kangi Sunka (Bele Zakur); azkenean, Bele Zakurrek erail egin zuen Buztan Marradun, erreserbako buruzagia eta «agentzia-ko burua» zena. Bele Zakurrek barkamena eskatu zien Buztan Marradunen senideei, eta, ohiturak agintzen zuen eran, kalte-ordaina eman zien beren senide bat hiltzeagatik. Erreserba barruko oreka azkar eta eraginkortasunez berreskuratu zen. Ofizial federalek eta eskualdekoek, ostera, Bele Zakur atxilotzeko eta epaitzeko eskatu zuten. Ez zuten legezko aginpiderik halakorik egiteko, eta kasua, azkenean, Auzitegi Gorenera iritsi zen: auzitegiaren arabera, epaitegi federalek ez zuten jurisdikziorik erreserbako lurren gainean. Ondorioz, Kongresuak lege bat onartu zuen 1885ean, Delitu Handien Legea: horren bidez, gobernu federalak jurisdikzioa izan zezakeen Indiar Lurraldean jazotzen ziren zenbait delituren gainean, hala nola erailketa, ebasketa, bortxaketa, suteak nahita eragitea eta lapurreta. Kongresuak Bele Zakurren kasua baliatu zuen botere erabatekoa ezartzeko

197 Prucha, *Documents of United States Indian Policy*, 146. or.

nazio indigenen gainean eta delituen gaineko jurisdikzioa zuela baiesteko; modu horretan, are gehiago ahuldu eta zedarritu zituzten indigenen burujabetzaren parametroak.¹⁹⁸

Erreserba-sistema garaikidearen sorrerak eragin nabarmena izan zuen bietan, hala indigenen nola kolonoen gizartean. Gotorlekuak –militarrak zein merkataritzakoak–, hazi, eta hiri bihurtu ziren: kolonia zuriak batzuk eta erreserba-agentzien inguruko herriak besteak. Apartheidaren espazio-antolakuntza berri hartan, erreserba-eremu gero eta txikiagotan konfinatu zituzten natiboak; hala, kolonoei errazagoa suertatu zitzaizen «erabili gabeko» lurren gaineko jabetza hartzea. Lur guztien artean, Muino Beltzen eremua zen garestienetako bat, urrea lori baitzegoen han. Lurren gaineko eskubidea ziurtatzeko, Kongresuak Muino Beltzen Legea onartu zuen 1877an: horren bidez, Muino Beltzak ostu zizkieten Oceti Sakowin jendeei, eta kolono zuriei zabaldu. 1868ko Ituneko klausula batek zehazten zuenez, etorkizunean lur-lagapenik eginez gero, baita Muino Beltzen kasuan ere, akordio hori «sinatu [behar dute] erreserbako gizon helduen hiru herenek». Beraz, legearen onarpena iruzurra eta lapurretara izan zen argiki, AEBk ez baitzuen lortu sinaduren %10 besterik.¹⁹⁹

Agentzia-herriak sarritan kokatzen ziren gotorleku militarretan edo horietatik gertu, eta haien helburua zen herri indigenen mugimenduak eta jarrerak zaintzea, hala erreserba barruan nola kanpoan. Horrenbestez, erreserbetan ingeniarietza soziala erabiltzen zen antolaketa komunala hausteko. 1878an, erreserbako lehen polizia-indarrak sortu ziren, legea eta ordena gobernatzeko; polizia pertsona indigenak sartu zituzten, agente federalek eta elizgizonek ezarritako ordena sozial berria indarrean jartzeko. 1883an, Indiar Arazoetarako Bulegoak epaitegi bat sortu zuen, Indiar Arau-Hausteen Auzitegia, «zibilizazioa»

198 Ikus Sidney L. Harring, *Crow Dog's Case: American Indian Sovereignty, Tribal Law, and United States Law in the Nineteenth Century* (Cambridge, UK: Cambridge University Press, 1994).

199 Ostler, *Lakotas and the Black Hills*, 101. or. Muino Beltzen lapurretari heltzeko ahaleginei buruzko kontakizun xehe baterako, ikus Mario Gonzalez eta Elizabeth Cook-Lynn, *The Politics of Hallowed Ground: Wounded Knee and the Struggle for Indian Sovereignty* (Urbana, IL: University of Illinois Press, 1998); Edward Lazarus, *Black Hills/White Justice: The Sioux Nation versus the United States, 1775 to the Present* (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 1999).

inposatzeko. Zigortzeko moduko arau-haustetzat hartzen zen eguzki-dantzak egitea, zeremonia-dantzak egitea, ohituren araberako opariak egitea, pistola edo armen jabe izatea, ponien jabe izatea, gizonek ile luzea eramatea, poligamia, oturuntza handiak egitea, salbu eta elizak antolatzen bazituen; hileta-erritual indigenak egitea, erreserbatik alde egitea eta omenaldi-zeremoniak egitea. Arauren bat urratuz gero, gosea ezartzen zen zigor gisa, elikagaiak emateari utziz, edo espetxera bidaltzen zituzten bestela. «Arau-hauste» horiek –«zibilizazio-erregulazioak» ere esan izan zitzaizkien– indarrean izan ziren 1935era arte; urte horretan utzi zituzten bertan behera.²⁰⁰ Oceti Sakowin nazioentzat gauza arrotz samarra zen estatuaren mendeko indar armatu batek, hala nola poliziak edo auzitegiek, hertsapena erabiltzea jendearen jarrera kontrolatzeko.

Luther Hartza Zuten esanetan «ezein lakota buruzagik ez zuen amestu ere egingo auzitegiko epaileak edo kale-kantoiko poliziak duen boterea erabiltzearekin, zeren beren gizartearen printzipioetan ez baitzen ezartzen norbanako batek kontuak eskatu behar lizkiokenik beste bati haren jarrera zela-eta».²⁰¹

Buruzagi indigenen lidergo politiko desafiatazalea zigortzeko, umeak kendu zizkieten, eta urruneko barnetegietara bidali, non haur ugari hil baitziren. Zenbait buruzagik, hala nola Hodei Gorrik eta Buztan Marradunek, beren borondatez bidali zituzten umeak barnetegietara; hala ere, protesta egin zuten diziplina militarren eta zigor fisikoen aurka. Sistema hark, dena dela, umeak bahitzeaz gainera, bazuen beste xede bat: umeak erabiltzea erreserbako buruzagien jarreran eragiteko. Richar Pratt –indiarren aurka borrokatu zena eta Custerrekin batera abiatu zena Oceti Sakowin jendeen aurka–, hura izan zen erreserbatik kanpoko barnetegi-sistema modernoaren arkitekto nagusia. Floridan, Marion gotorlekuan gerrako preso indigenak zaintzen ari zela otu zitzaion ideia estreinakoz. Kiowa, cheyenne eta komantxe presoen konfinamendua ikuskatzeko agindu zioten, eta Prattek esperimentuak egin zituen, hezkuntzaren bidez asimilazioa lortzeko asmoz. Haren ikuspegi militarrean, ezin zuten segitu Indiar Gerra gudu-zelaian borrokatzen; aitzitik, gerra

200 Suzanne Shown Harjo, «Introduction», in *Nation to Nation*, 4-6. or.

201 Hartza Zut, *Land of the Spotted Eagle*, 132. or.

ikasgelan egin beharra zegoen. Pratten ikuspegiarekin bat etorri ziren indiar arazoetako erreforma-zaleak; 1879an sortu zuten Carlisle Barnetegia, Pennsylvanian.

Hala eta guztiz ere, Marion gotorlekuko esperimentuak arrakasta eduki zezakeen, soilik, baldin eta antzeko egoeran gauzatzen bazen, hau da, presondegien antzeko baldintza militarizatueta; osterantzean, ezinezkoa zen, indarkeria erabili gabe, ikasleak «errekrutatzea» eta «atxikitzea». Uste zenez, haurrak gurasoengandik erabat banatzea zen indigenen moduetara itzul zitezela eragozteko bide bakarra. Komunitatetik ateratzen zituzten, eta, gero, hara itzularazten; horren ondorioz, haurrak arrotz sentitzen ziren beren guraso eta senideekiko, ez zirelako gai haien hizkuntzetan aritzeko eta ez zutelako loturarik beren jendearekin. Carlislen, ikasle indigenei arau zorrotzen errutina bat ezartzen zieten. Nahiz eta barnetegiak printzipio militarretan oinarritzen ziren –diziplina eta ordena–, eskola horietan ikasleek ez zuten borrokatzen ikasten; kontrara, otzan izaten, agindutakoa onartzen eta men egiten erakutsi zieten, horiexek baitziren AEBko patriotismoan eta hiritartasunean doktrinatzeko premiazko osagaiak. Indiar arazoetarako komisario batek, 1889an, zera aholkatu zuen «Patriotismoa indiar eskoletan txertatzea» zeritzon txostenean: «Indiarren patua da bizitza nazionalen xurgatuak izatea, ez indiar gisa, baizik amerikar gisa».²⁰²

Askok gorroto zioten AEBko banderari, herrialdearen autoritate gero eta handiagoaren sinboloa zelako: soldaduen gainean haizatzen zen bandera, herritar eta lur indigenak akabatzten, bortxatzen eta arpilatzen zituzten bitartean. Bandera izan zen erreserbako egoitzetan AEBren gailentasuna adierazteko erabili zen lehen tresnetako bat. 1874an, soldaduak estreinakoz ahalegindu zirenean bandera-masta bat eraikitzen Red Cloud agentzian, «Izarrak eta banderak» haizatzeko, oglala biztanleek, sumindurik, aizkoraz moztu zuten. Soldaduek berriro eraiki zuten, eta segidan, erreserba-agentziaren zenbaketa egin zuten. Agindu kolonialaren bi tresna oso sinboliko baliatu zituzten, hortaz: bandera eta errolda.²⁰³ Borroka armatua ia erabat utzirik,

202 Prucha, *Documents of United States Indian Policy*, 179. See also Frederick E. Hoxie, *The Campaign to Assimilate the Indians, 1880–1920* (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 1984).

203 Ostler, *The Plains Sioux*, 54–55. or.

indigenen erresistentzia aldatu egin zen: erresistentzia militarra alboratu, eta erreserba-sistemari erronka jotzeko estrategia hartu zuten, uko eginez lurrak saltzeari eta erreserbako ofizialekin lankidetzan jarduteari.

Bost urteko atzeraldiaren ondoren, 1878tik 1887ra bitartean, Dakotako Lurraldean lur indigenak merke edo «debalde» eskuratzeko desirak kutsatu zituen kolono zuriak, sukar batek bezala. Hamarkada hartan, ia bikoiztu egin zen eremu hartan bizi ziren zurien kopurua, eta «Dakotako Boom Handia» deitu izan zitzaion. 1887an, gero eta handiagoa zen 1868ko Itunak babesten zituen lurrak irekitzeko presioa; hala, urte hartan, Kongresuak lege bat onartu zuen, Dawes Zatikatzeko Legea, bidea emanez lakota eta dakota lurren kontrako eraso berri bati. Dawesen xedea zen natiboen identitate kolektiboa eta lurra lantzeko praktika komunalak deuseztatzea; horretarako, lursail pribatuak alokatu nahi zizkien familia natiboei, eta lur «soberakinak», berriz -milioika akre lur-, kolono zurientzat izan zitezela. Lege hark izango zituen ondorio gordinen berri izan bezain laster, Ordokietako nazioak antolatzen hasi ziren hari kontra egiteko, eta lakotak eta dakotak bat etorri ziren: edozein baldintza izanik ere, uko egingo zioten lurrak saltzeari, eta ez zituzten onartuko lurren zatiketari zegozkion baldintzak. Agentziako ofizialen eta elizgizonen behako beti zelatariaren pean egon arren, eta goseak jota bazeuden ere, mendebaldeko lakota eta dakota dibisio guztiek masiboki bat etortzea lortu zuten: lorpen nabarmena, mobilizazio eta diziplina politikoari dagokionez. 1888an, batzorde baten buru jardun zen Pratt, lakotak konbentzitu nahian Dawes lege-proiektuaren baldintzak onar zituzten. AEBk ez zuen 1868ko Itunak ezarritako protokoloa bete Muino Beltzen Legea osatzeko orduan; oraingoan, ordea, Pratten batzordea, gauza jakina denez, saiatu zen gizonen hiru laurdenek baimena eman zezaten, hala, geratzen ziren erreserba-lurrak zatikatu, eta milioika akre eskaintzeko han ezarri nahi zuenari.

Pratten batzordea Standing Rock erreserbara joan zen behin. Komisarioek zera bakarrik behar zuten: «bai» edo «ez» botoak, zatiketa onartzen ote zen adierazten zutenak. 1868ko Itunak babestutako lurretatik, 22 milioi akre lur geratzen ziren. Erdia saltzen baldin bazen, AEBk 50 zentimotan salduko zuen akre bakoitza, eta horrek funts iraunkor bat sortuko zuen: milioi

bat dolar. Urtean %5eko interesa jasota, diruaren erdia hezkuntzan eta nekazaritzan inbertituko zen; beste erdia, berriz, lurren zatiketa onartzen zutenei ordainduko zitzaien. John Grass hunk-papa buruzagia gidari zutela, Standing Rock erreserbako biztanle guztiak batzartu ziren, Dawes Legearen baldintzez jarduteko. Standing Rockeko kontseiluak gau osoko bilkurak egin zituen diruaren banaketa kalkulatzeko: guztira, dolar bat ordainduko zioten, urtean, erreserbetan bizi zen norbanako bakoitzari; kopuru iraingarria zen. 1887an, Grassek Muino Beltzen Legea sinatu zuen, Muino Beltzak lagatzen zituena, horren baldintzak ulertu gabe. Berarentzat, seguru asko, lurren kontuan iruzur egiteko beste amarru korapilatsu bat baino ez zen Dawes Legea. Oinarritzat hartuta aurreko legearen bidez iruzur egin zietela, argi eta garbi, eta ez zirela iraganeko zorrak kitatu ez martxan ziren harrapakaritzak geldiarazi, Grassek bideratu zuen Standing Rockek lurren zatiketari adierazitako ezezkoa. Hitzaldi batean esan zuenez, uko egiten zion ezein paper sinatzeari, ez gorria ez beltza –gorriak «ez» adierazten zuen, eta beltzak, berriz, «bai»–, eta zera azpimarratu zuen:

Erreserba honetan kokatuta dagoen nazio osoak ondorioztatu du ez dugula paper beltz hori sinatuko. Orobat diogu ez dugula paper gorria sinatuko. Badakizue zenbat garen, zehatz-mehatz jakin ere. Ez dakit zer froga gehiago nahi duzuen. Hemen dago nazio osoa, eta zera diogu: «Uko egiten diogu».²⁰⁴

Pratten Batzordeak ez zuen gutxienerako baimenik jaso Standing Rocken Dawes lege-proiektua bozkatzeko; ondoren, beste erreserbetara joan, eta uko bateratua jaso zuen, berdin-berdin. Sekulako porrota izan zen: lege-proiektuak 120 sinadura eskas jaso zituen.

Dawes lege-proiektuaren hastapeneko porrota, ordea, behin-behineko garaipen bat baizik ez zen izan. 1889an, George Crook jeneralak –indiarraren aurkako borrokalaria eta Zaldi Zoro errenditzera hertsatu zuen gizona– beste batzorde bat osatu zuen, «oniritzia» ziurtatzeko. Orduko hartan, Crookek gezurra esan zuen lege-proiektuaren inguruan: adierazi zuen legeak

204 «Letter from the Secretary of the Interior Transmitting... In response to Senate resolution of December 13, 1888, report relative to opening part of the Sioux Reservation», 50. kongresua., 2. saioa, Senatua, ex. doc. no. 17, Abenduak 17, 1888, 79. or.

arindu egingo zituela dantzaren inguruko murrizketak eta, oro har, erreserbako bizitza hobetuko zuela, lehengo itunei eragin gabe. Hasieran, gezurrek fruiturik eman ez zutenean, batzordeak mehatxuak aletu zituen, esanez indarkeria erabiliko zutela edo, zuzenean, lurra kenduko zizkietela, indigenen oniritzia jaso ala ez; horren ondorioz, askok sinatu zuten. Erresistentzia piztu zenean, Rosebud erreserbako indiar arazoetarako agenteak zera ohartarazi zion oposizioari: sinatzeari uko eginen bazioten, arriskuan jarriko zela ez soilik AEBrekin zuten harremana, ezpada beren ondare osoa: «Zuek hil eta joan ondoren, eta norbaitek irakurtzen dituzenean... itun hau sinatu zuten pertsonen izenak, uste dut nahi izango duzuela izen horiek ozen irakur ditzaten».²⁰⁵ Pine Ridge agentzian, oglala biztanleek uko egin zioten sinatzeari, Hodei Gorri buru zutela; orduan, indiar arazoetarako agenteak «iraultza-legea irakurri» zien hari eta haren zaleei, lurra emaitza sinatzen ez zutenak kriminalizatzeko²⁰⁶. Wasicu Tasunka (Amerikar Zaldi) oglala buruzagiak sinatu egin zuen, baina, gero, damutu egin zen, behiki-anoak izugarri murriztu zirelako eta okerrera egin zuelako ordurako gosetuta zegoen jendearen egoerak. Batzorde-kideek, aurrez, ziurtatu zuten lege-proiektuak ez zuela eraginik izango anoetan edo urterokoetan. Baina anoak txikiagotu ziren, bai, eta bidegabekeriaren beste sail eder bat ere izan zen, inoiz konpondu ez zirenak; hori guztia, Amerikar Zaldiren arabera, «gure buruak moztea» bezalakoa izan zen.²⁰⁷ Beste hainbat promesa egin ziren, baina ez ziren bete; esaterako, urterokoari zegozkion produktuen kalitatea, hala nola jantziena eta nekazaritzako ekipamenduarena, ez zen hobetu, eta erreserbatik kanpoko barnetegietan, hala nola Carlislen, haurren heriotza gehiago izan ziren, inongo azalpenik gabe.

Izan ere, erreserbako ordena politiko berria ahalegindu zen Oceti Sakowin jendeen buruzagiak kaltetzen, horretarako haien hurrak hartuz, lurra usurpatuz, bufalo-nazioak ezereztuz eta indigenen aginpide politikoa murriztuz. Lurren zatiketa indarrean sartzeko behar adina sinadura bilduta, 1868ko Itunak

205 «Message from the President of the United States... Transmitting Reports relative to the proposed division of the great Sioux Reservation, and recommending certain legislation», 51. Kongresua., 1. saioa, Senatua, ex. doc. no. 51, 1890eko otsailak 10, 67. Hemendik aurrera, «Crook txostena».

206 Hemen aipatua: Ostler, *The Plains Sioux*, 236. or.

207 Crook txostena, 222. or.

bermatzen zuen «erreserba iraunkorra» zabalik zegoen orain, eta kolono zuriak bertan sar zitezkeen. Crooken batzordeak sakonki banatu zituen Oceti Sakowin jendeen mendebaldeko dibisioak, eta alderrai utzi: batzorde hark suntsitu egin zuen lurren salmentaren eta geratzen ziren erreserba-lurak desegitearen aurkako ahalegin bateratua. Orain, Muino Beltzak menderaturik, kolono zuriek eskura zituzten 9 milioi akre. Gerora, 1889ko Siux Akordioa esan zitzaion akordio horrek osatu zituen sei erreserba garaikide hauen mugak: Pine Ridge, Rosebud, Cheyenne River, Standing Rock, Lower Brule eta Crow Creek.

1880ko hamarkadaren amaieran, indigenek ez zutenean armarik ez zaldirik, goseak jota zeudenean, eta kontzentrazio-esparrutan konfinatuta; bufalo ia denak deuseztatu zituztenean, beren lurak apurtu eta menderatu, eta beren haurrak lapurtu zituztenean, orduan, mugimendu politiko berri bat zabaldu zen Mendebaldean barna, ordokietako suaren adinako indarrarekin, indigenen birjaiotzaren promesa ekarriz. Wovoka izeneko gizonak, paiute gizon sakratua bera, bisio bat izan zuen, zeinean ziurtzat jotzen baitzen indigenek berreskuratu egingo zutela munduan eskubidez zegokien tokia, kendua zietena. Gizonaren esanetan, hildako senideak eta bufalo-nazioak berriro ere ibiliko ziren lurrian. Mamu Dantzaren profeziak irudikatzen zuen mundu garaikidea amaituko zela, kolonoak lurretik desagertuko baitziren, eta itzuli egingo zirela kolonialismoak birrindutako giza harremanak eta gizakiez kanpoko harremanak. Zera iragarri zen: etorkizun hurbileko une zehaztugabe batean, kataklismo batek –hala nola lurrikara edo haize-zurrumbilo batek– AEB ezabatuko zuela lurraren azaletik. Behin lurra garbituta, bizitzak aurrera egingo zuen, gaitzaren eta kolonialismoaren arrastorik gabe, eta harreman egokiak izango ziren, berriro ere, gizakien eta ez-gizakien munduen artean. Ella Deloria dakota antropologoak Mamu Dantzaren deskribapen bat bildu zuen, izenik gabeko lakota gizon baten ahotik, zeinak dantzan parte hartu baitzuen, Pine Ridge agentzian, barnetegitik ihes egin ostean; honela dio:

Zurumurrua zabaldu zen: «Hildakoak itzuliko dira. Bufaloak itzuliko dira. Dakota herriak berreskuratuko du bere bizimoldea. Jende zuriak ospa egingo du laster, eta horrek garai hobeak ekarriko dizkigu berriro!». Hildakoak itzuliko zirela zioen zati hori erakargarria zen niretzat...

Laster, gutako berrogeita hamar inguru, denak ere zortzi edo hamar urteko mutikoak, lurraldean barna abiatu ginen, muinoak eta bailarak zeharkatuz, gau osoan korrika eginez... Porcupine Creek-en milaka dakota zeuden kanpatuta; denak ari ziren beren zereginetan, grina handiz... Emakume bat azkar asko ohartu zen han ginela, eta gugana etorri zen: «Hauek ere [umeeek] parte hartu behar lukete», esan zuen, gutaz ari zela. Beraz, gizon batek deiadar egin zigun: «Aizuek, mutiko iheslariak, etorri hona». Arropa itsusiak erantzi zizkiguten, eta barrura bidali [arazketa-etxolaraj]. Ondo araztu gintuztenean, beste puntara bidali, eta alkandora sakratuak jarri zizkiguten... Denek zeramaten mika- eta arrano-luma bana ilean; gure kasuan, ordea, ezin genituen lumak inora lotu. Eskolak berehala hondatu gintuen: larru arrasean moztu zituzten gure adats luzeak, eta orain gure buru-azalak argiagoak ziren gure aurpegiak baino!

Jendeak, soinean zituela alkandora sakratuak eta lumak, eraztun bat osatu zuen... Denak zebiltzan oinez, tentuz eta miretsita, hildakoak geru eta eskura zeudela sentituz... Buruzagiek erritmoa markatzen zuten, kantuan, jendeak dantza egin bitartean, biribilean ezkerrera eginez eta pausoak trabeska emanaz. Atsedetik gabe dantzatu ziren, jira eta buelta; amasestuka aritu arren, dantzan segitu zuten, ahal bezain beste. Tarteka, baten bat erori egiten zen, unatuta eta zorabiatuta, eta konorterik gabe geratzen zen biribilaren erdian, «hilik» bezala... Tarte baten ostean, asko zeuden egoera horretan. Orain, «hilik» zeuden, beren maiteak ikusten. Horietako bakoitza suspertzen zenean, jesarri, eta ingurura begiratzen zuen, zur eta lur; ondoren, negar-marruka hasten zen, kontsolaezin...

Begitazioek, hasieran, ez zuten antzik, baina denak amaitzen ziren modu berean, koro batek kanpaleku handi bat deskribatuko balu bezala: han biltzen ziren inoiz hildako dakota guztiak, eta bufaloa hara joaten zen, pres- tu, haiei jaten ematera; han ez zegoen minik, bakarrik poza, eta senideek irri alaiekin agurtzen zituzten etorri berriak. Horixe zen denetan onena!

Halako bisio distiratsu baten ostean, orainaldi motel eta penagarria itzulita, ez da harritzekoa han izandakoak desilusioak jota abiatzea, beren bihotzak bitan haustera balihoaz bezala. Baina, gutxienez, ikusi zuten! ... Nahiago zuten ikustea, atsedena, janaria edo loa eskuratzea baino. Hor- taz, uste dut agintariek uste zutela zoratuta zeudela, baina ez zen hala. Oso zorigaiztokoak ziren, besterik ez.²⁰⁸

Bisioak ez ziren errealtateari ihes egiteko modu bat; aitzitik, teoria eta mugimendu antikolonial baten parte ziren, or- duantxe hazten ari zena. Parte-hartzaileak etorkizuneko mundu batera garraiatzen ziren, non aspaldiko moldeak eta hildako se-

208 Hemen aipatua: Ella Deloria, *Speaking of Indians* (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 1998), 81-83. or.

nideak bizirik baitzeuden. Amets utopiko bat zen: laburki eteten zuen «orainaldi penagarri»aren amesgaiztoa, eta kolonialismo-urreko oroitzapenak proiektatzen zituen etorkizun antkolonial batera. Esnatzen zirenean, dantzariak halabeharrez gogoratzen zituzten beren errealtate garaikideko izugarrikeriak. Oroz gain, bisioek gogora ekartzen zuten bizitzak ez zuela zertan beti halakoa izan, eta Mamu Dantzak gertakari bat iragartzen zuen, ez nolana hiko: Estatu Batuekiko harreman kolonialaren suntsipen erabatekoa. Hura, ordea, ez zen kulturaren berpizkunde-mugimendu bat: edonola ere, Mamu Dantzaren jatorria ez zen Oceti Sakowin jendeen kultura. Are gehiago, Mamu Dantza kontrarian osatzen zuen funtsean. Jeffrey Ostler historialariak dioenez, lakota mamu dantzariak «espero zuten orainaldiko mundua suntsitzea, eta berri bat sortzea».²⁰⁹ Bizimolde indigena ezin zen berregin erreserben barruan, ezta sistema kolonialaren baitan ere; aitzitik, biak ala biak suntsitu beharra zegoen, errotik.

XIX. eta XX. mendeko antropologo eta historialariak, sarritan, garrantzia kendu diote Mamu Dantzaren premisa iraultzaileei (edo gaizki interpretatu dituzte). Esate baterako, *The Ghost-Dance Religion and Wounded Knee* liburuak, hau da, gaiaz idatzi direnen artean, gehien erabiltzen denak, Mamu Dantzaren esanahia lausotzen du; liburua 1896an idatzi zuen James Mooney delako batek, besaulkiko etnografoa bera. Mooneyk, AEBko iritzi publikoaren zaletasunei men eginez, eta Mamu Dantza onargarriago bihurtzeko ahaleginean, kultur erlatibismoa erabili zuen fenomeno horren existentzia azaltzeko. Mooneyren ikuspegian, kontuan hartuta mamu dantzariak Kristoren moduko figura mesianiko bati jarraitzen ziotela –Wovoka–, horrek esan nahi zuen mugimenduak bere egin zituela kristautasunaren elementuak eta, horrenbestez, erlijio judu-kristau garaikideen traza zuela. Are gehiago, Mooneyk adierazi zuen lakota mamu dantzariak ez zutela behar moduan bat egin Wovokaren mezu bakezale eta indarkeriaren aurkakoarekin, eta, kontrara, gaiztotu egin zutela dantza hori, «etsaitasunezko adierazpen» bat bihurtu arte; modu horretan, berretsi egin zuten AEBko armadak gerora lakota mamu dantzariak zabalduko zuen irudia, alegia, mamu-dantza-

209 Ostler, *The Plains Sioux*, 262. or.

riak «militanteak» zirela zioena.²¹⁰ Errealitatean, ordea, Wovokak bakea irakasten bazuen, hura erdiesteko modua ez zen kolono zuriekin harmonia betierekoa izatea, eta are gutxiago kristau moraltasunari edo bakezaletasun dogmatikoari men egitea. Kontrara, arrazoi pragmatikoengatik aldarrikatzen zuen bakea: orduko baldintzetan, alferrrikakoa zelako indigenek erresistentzia armatuari ekitea. Beraz, Mamu Dantzaren erakarmen-endar masiboak zerikusi handiagoa zuen profezietan oinarrituriko iraganeko mugimendu panindigenekin, kristautasunarekin baino. Iraganeko mugimendu horien artean, hainbat aipa daitezke: 1760ko hamarkadan, Lenni Lenape herriko Neolin profetak eta haren jarraitzaile Pontiac-ek, Odawa herrikoa bera, britainiarren okupazio militarri kontra egin zioten Laku Handien eskualdean; 1800eko hamarkadan, Tenskwatawa izeneko profetak eta bere anaia Tecumseh-k, biak ere Shawnee herrikoak, AEBk Ohio ibaiko bailara okupatzeko egin zuen saiakeraren aurka jardun ziren; azkenik, aipatzekoak dira, Smohalla profeta, Wanapum herrikoa, eta haren jarraitzaile Joseph Buruzagia, Nez Perce herrikoa, 1860ko hamarkadan jardun zirenak, eta Wodziwob profeta, Paiute herrikoa, Wovokaren aitzindaria eta Mamu Dantza gauzatu zuen lehena.²¹¹ Profeta horiek denek ekarpenak egin zizkioten elkarren mezu eta doktrinei, erresistentzia panindigenaren aldeko deia luzatuz –baita, batzuetan, borroka armatuaren aldekoa ere–, okupazio koloniala arbuizatzeko. Denak oinarritu ziren esperientzia historikoaren metaketan, eta guztiek desio zuten askapen indigena.

Garaian, eztabaida ibili zen, ea lakotek bat egiten zuten, edo ez, Mamu Dantzaren ustezko bakezaletasunarekin, baina eztabaida hark ondorio bakarra ekarri zuen: bi taldetan banatu zituzten indigenak, zeinak bizirik irauteko borrokan ari baitziren. Batetik, indarkeriarik erabiltzen ez zuten bakezale «zilegiak» zeuden; bestetik, berriz, militante oldarkor «ez-zilegiak». Izatez, sailkapen horrek, herri indigena errealek bizitako esperientziak zehaztasunez islatu baino gehiago, kolonoen gizartearen sentipenak asetzen zituen. Bi kategoria horien bidez –«indiar onak» eta «indiar gaiztoak»–, berariaz sortu ziren elementu kriminalak

210 Mooney, *The Ghost-Dance Religion*, 777. or.

211 Ostler, *The Plains Sioux*, 250. or.

nazio eta mugimendu indigenen baitan, AEBren beraren delituak lausotzeko edo ezkutatzeko. Baina Mamu Dantza ez zegoen kolono estatubatuarrei bideratua, eta haren zaleek ez zuten nahi erlijio «zilegi» gisa aitor zezaten, kristautasunaren pareko gisa. AEBk kriminalizatu egin zituen ez soilik dantzariak berak, ezpada zibilizatzeko misioari erronka jotzen zioten gauza guztiak, eta armadak horregatik ondorioztatu zuen dantza «etsaitasunezko adierazpen» bat zela. Delitutzat jotzen zen dantza-mota oro – eta, eskuarki, bizimolde indigenako gauza guztiak–, eta zigorrak ezartzen ziren: presondegia edo anoak ez ematea. Erreserbako ofizialentzat, bost axola zuen dantzariak militanteak ziren, edo indarkeriarik ezaren zaleak: Mamu Dantza ekintza politiko bat zen, berez; kontrakotasunezko ekintza bat.

Mamu Dantzaren eragin masiboa argi ikusten da bertan parte hartu zutenen kopuruan: lakota guztien ia hiru heren –laurtik bost milioira bitarte pertsona– eta dakota ugari jardun ziren horretan. Erresistentzia-mugimendu bat zen aldetik, honako taktika hauek baliatzen zituzten, besteak beste: erreserbako bizitza erabat uztea; erreserbako agintariei kontra egitea; erresistentzia-kanpalekuak sortzea eremu urrunetan, agentziaren ahalmenetik kanpo; urterokoak banatzeko zentroetan lapurreta egitea (eta, batzuetan, baita kolono zurien behiak eta uza ostea ere); nekazal ekipamendua suntsitzea, eta uko egitea hainbat gauzari, hala nola haurrak eskolara bidaltzeari, ingelesez mintzatzeari, erroldatzeari, lanera edo mezetara joateari, eta agentziako edo kontseiluko bilkuretan parte hartzeari. Bestalde, honako gauza hauek ere arbuiatzen zituzten, erresistentzia-taktika gisa: esleitutako lursailetan bizitzea, «agentziako buruei» men egitea, ilea moztea, dantza egiteari uztea, zurien arropak erabiltzea eta metalezko tresnak ez erabiltzea. Laburbilduz, mugimenduak erronka jo zion, orokorrean, gauzen ordena kolonialari. Hasieran, indiar poliziak bidaltzen zituzten dantzak zanpatzera, ilegalak baitziren, baina polizien erabakimena ahuldu egiten zen hara iristen zirenean, izan ere, guardia armatuak izaten baitzituzten zain, dantzariak defendatzeko prest, baita, behar izanez gero, hori bortizki egiteko ere. Dantza egiteari uzteko uko ozenarekin topo egitean, indiar polizia batzuek dimisioa

aurkeztu zuten, nahiago baitzuten hori egitea, beren senideak akabatu edo atxilotu behar izatea baino.²¹²

Mamu Dantzak erakarmen-gaitasun zabala izan bazuen mugimendu antikolonial gisa, horren oinarria, hein batean, haren bultzatzaile eta mintzakide nagusien esperientzia historikoari zor zaio, alegia, barnetegietan ikasitako ikasle indigenen esperientziari. Mugimenduaren lakota bultzatzaile nagusietako bik –Mato Wanahtake (Hartz Ostikatzaile) eta Tatanka Ptecela (Zezen Motz)– trenak eta idazmena erabili zituzten Mamu Dantzaren mezua Oceti Sakowin jendeeri zabaltzeko. Hartz Ostikatzailek eta Zezen Motzek, Nevadara trenez bidaiatu, eta Wovokarekin bildu ostean, txostenak egin zituzten, eta barnetegietako ikasleek, berriz, gai baitziren irakurtzeko eta idazteko, eta maiz bietan moldatzen baitziren, bai ingelesez bai lakotaz, txosten horiek transkribatu zituzten. Era berean, Mamu Dantzaren profeziak, otoitzak eta kantuak transkribatu eta postaz bidali ziren hainbat erreserbatara; han, barnetegietako ikasleek ahoz gora irakurtzen zizkieten Mamu Dantzako beste ki-deei. Halako hedapen-bitartekorik gabe, Mamu Dantza ez litzateke horrenbeste zabalduko; Mooneyk egitate hori aitortzen du bere etnografian. Oceti Sakowin jendeen erreserbetara erruz iritsi ziren gutunak, Mamu Dantzaren kantuak eta doktrinak zekartzatela, Utah, Wyoming, Montana eta Oklahomako nazio indigenetatik.²¹³

Mamu Dantza abiatu zenean lakoten artean, komunikabideek adierazi zuten gauza kezagarria eta geraezina zela. Ipar Ordokietara bidali zuten armada, Gerra Zibilaz geroztik izandako hedapen militar handiaren, mugimendua zanpatzera, eta orobat bidali zituzten Guardia Nazionaleko unitateak inguruko estatuetatik, tropa federalei laguntzeko. Lehen jomuga Zaldi Eseri zen: azken buruzagi boteretsua, inoiz itunik sinatu ez zuena eta uko egiten ziona, oraindik ere, erreserbako bizimoldeari. Standing Rockeko indiar arazoetarako agente James McLaughlin beldur zen Zezen Eserik eta haren mamu dantzariak ez ote zuten erreserbatik ospa egingo. 1890eko abenduaren 15ean, indiar polizia ahalegindu zen Zezen Eseri atxilotzen, zaintza zorrotzarekin, gizonak Mamu Dantzan zuen rolarengatik. Indiar poliziak goizean goiz altxarazi zuen ohetik Zezen Eseri, bere etxolatik

212 *Ibid.*, 277-278. or.

213 Mooney, *The Ghost-Dance Religion*, 819-820. or.

herrestan atera, eta tiro egin zioten buruan. Jarraian, tiroketa labur bat izan zen: Zezen Eseriren jarraitzaileek sei indiar polizia hil zituzten, eta poliziek, berriz, buruzagiaren zazpi jarraitzaile. Zezen Eseri erail eta gero, armadak atxiloketa-aginduak igorri zituen Mamu Dantzaren beste lider batzuen kontra, esaterako, Hehaka Gleska (Orein Pikart) mniconjou buruzagiaren aurka. Orein Pikartek bere herrikideen artean zuen ospea gutxiagotzeko ahaleginean, soldadu zuriek Si Tanka izendatu zuten (Oin Handi), mespretxuz, zergatik-eta AEBko gobernuak bidalitako oinetakoak eramaten zituelako soinean, nahiz eta txikiegiak izan berarentzat. Errepresalien beldur, Zezen Eseriren zaleak Orein Pikart eta haren jarraitzaileekin elkartu ziren Cheyenne River erreserban. Ondoren, mamu dantzariak ihes egin zuten, eta Red Cloud agentzian aurkeztu ziren, Pine Ridgen; Wounded Knee bailaran atxiki zituzten, soldaduek zeharo inguraturik. Zazpigarren zalditeriak, Custerren erregimentua izandakoak, kanpalekuaren agintea hartu zuen, eta, lehenik, armak guztiak emateko eta errenditzeko agindu zioten taldeari. Banan-banan miatu zituzten tipiak, arma moduan erabil zitezkeen gauza guztiak konfiskatuz, hala nola aizkorak eta labanak.

1890eko abenduaren 29ko goizean, Orein Pikart eta kanpalekuko beste buruzagiak deitu zituzten soldaduekin batzarra egitera eta geratzen zitzaizkien pistolak ematera. Muinoaren alboetan, Hotchkiss erako metrailadoreak jarri zituzten (artilleria arin mugikorra), estrategikoki, mamu dantzariari destatuz, zeinak gosetuta, errenditzeko zorian eta ia armarik gabe baitzeuden. Istilu bat piztu, eta norbaitek tiro egin zuen. Zazpigarren zalditeriak 270etik 300era bitarte lakota masakratu zituen egun hartan, tartean, Orein Pikart. Hildakoen artean, bi heren baino gehiago emakumeak eta haurrak ziren. Mamu dantzariak aurre egin zieten soldaduei, batzuk zaurituz; borrokatu ez balira, argi dago askoz indigena gehiago hilko zirela, eta asko ez zirela gai izango ihes egiteko. Ihes egindako lakoten atzetik abiatu zen zalditeria eta, hainbat orduz, haiek ehizatzen eta hiltzen jardun ziren. Soldaduek kolpe hilgarriak ematen zituztenean, maiz jendea gertutik exekutatuz, zera murmuratzen omen zuten: «Gogoan izan Custer».²¹⁴

214 Ostler, *The Plains Sioux*, 351. or.

Armadak, oraindik ere, militante armatuen aurkako borrokaldirat hartzen du gertakari hura, nahiz eta, egiaz, gosetuta eta errenditzeaz zegoen jendea masakratu zuten. Kongresuak ohorezko dominak banatu zizkien –hogeitaz, guztira– sarraskian jardundako soldaduei. Mamu dantzariak, berriz, mendekua nahi zuten, arrazoirik gabeko erailketen ordainetan. Horren harira, azpimarragarria da Carlisle barnetegian ikasi, erreserbara itzuli eta Mamu Dantzaren mugimenduarekin bat egin zuen sicangu gazte baten historia. Tasunka (Zaldi Ugari) izeneko mutilari bere hizkuntza eta kultura erazi zizkioten haurtzaroko une funtsezko batean; hortaz, bere komunitatera itzuli zenean, esku hutsik zegoen. Hala adierazi zuen: «Ohartu nintzen ezen jaso nuen hezkuntzak ez zidala mesederik egiten. Ez neukan aukerarik lana lortzeko, ezin nuen ezer egin ostatua eta jantziak irabazteko, ez zegoen modurik gehiago ikasteko eta zuriekin jarraitzeko. Adorregabetu nintzen, eta nire aurreko bizitzara itzuli, eskola aurretik ezagutzen nuen horretara».²¹⁵

Haren bizipenak ez ziren ohiz kanpokoak. Zibilizatzeko esperimentuak huts egin zuen. Ilea luzatzen utzi, barnetegiaren aurreko lakota jantziak berreskuratu, eta Zaldi Ugarik bat egin zuen erresistentzia armatuarekin, Wounded Kneeko masakrearen ostean. Kanpaleku bat sortu zuten Badlands deritzen eremu mortuetan eta Edward Casey jenerala hara joan zitzaien bila. Zaldi Ugari haserre zegoen barnetegian bizi izan zuenagatik, erreserban jasandako goseagatik eta ikusi zuelako bere herrikideak zigorgabetasun osoz hil zituztela Wounded Kneen; horregatik guztiagatik, Caseyren atzean jarri zen, hura hurbildu ahala, eta tiro egin zion garondoan. Armadako ofizialek erailketa egotzi zioten; beranduago, ordea, absolbitu egin zuten. Epaitegiaren arabera, Zaldi Ugariri erailketa egotzen bazioten, orobat egotzi behar zieten delitu bera Wounded Kneen indigenak sarraskitu zituzten soldaduei. Epaiketan, auzitegiak ebatzi zuen bazegoela gerra-egoera bat, nahiz eta ez zen formalki deklaratu; ondorioz, Zaldi Ugarik ez zuen deliturik egin, eta Wounded Kneeko masakrean jardundako soldaduek ere ez. Modu horretan, bertan behera geratu zen genozidio-hilketen delitua.²¹⁶

215 Hemen aipatua: Robert M. Utley, «The Ordeal of Plenty Horses», *American Heritage* 26:1, 1974, americanheritage.com.

216 Ikus Dunbar-Ortiz, *An Indigenous Peoples' History*, 156-157. or.

2016ko urriaren 17an, segurtasun-indarrek sarekada bat egin ostean 1851ko Itunaren Kanpalekuaren aurka, zeinak Dakota Acces oliobidea blokeatu nahi baitzuen, usain garratz bat hedatu zen kanpalekuetan barna. Poliziak eta segurtasun-entresa pribatuek, kanpalekuko hondakinak bildu –zeremonietako gauzak, hala nola lumak, pitxiak, botika-fardoak, eta bestelako objektuak, adibidez denda txikituak, lotarako zakuak, jantziak eta tipiak–, eta meta handi batera bota zituzten, Oceti Sakowin kanpalekuaren sarreran. Poliziek eta segurtasun pribatuko langileek, objektuak beren jabeei itzuli aurretik, pixa egin zuten haien gainean.

Gau batez, pixaz blai egindako objektuak zeremonia batean erretzeko erabakia hartu eta gero, ihanktonwan adineko batek Uraren Babesle gazteak bildu zituen suaren inguruan. Soinean zituen jantzi apain batzuk, sarekadaren egunean zeramatzan berberak. Oihalezko soineko urdin ilunean zintzilikatzen ziren ehunka kobrezko txanpon, lazo gorrien bidez loturik. 1862an AEBren eta dakoten artean izandako gerran bere arbasoak hil zituztela-eta, haiei buruzkoak azaldu zituen. Etxetik kanporatu zituzten, eta gaur egun Standing Rock dagoen tokira alde egin zuten, Missouri ibaia zeharkatuz, Oceti Sakowin kanpalekua zegoen tokitik ez oso urruti; aurrez, AEBko zazpigarren zalditeriako gizonek dakotak eta lakotak masakratu zituzten Whitestone muinoan, bufaloak ehizatzeke eremuan. Bada, masakre hori, hain zuzen ere, 150 urte lehenago gertatu zen: DAPLeke segurtasun-pribatuak oliobidearen eraikuntza-egunean zeuden Uraren Babesleen aurka eraso-txakurrak askatu zituen egun berean.

1862an, Eguberri Egunaren biharamunean, soldaduek hogeita hemezortzi dakota gizon eta mutiko bildu zituzten, eta Snelling gotorlekuan preso hartu, Minnesotako Mankato hirian. Botika-fardoak kendu zizkieten, mordo handi baten ipini, eta erre egin zituzten, presoak urkamendira garraiatu eta heriotza-kantuak kantatu bitartean. Zein izan zen dakoten delitua? Beren nazioa eta jaioterria babestea. Aste berean, Abraham Lincoln presidenteak bi agindu sinatu zituen: Askapen Adierazpena, esklabo beltzak askatzen zituena, eta hogeita hemezortzi dakota abertzaleen heriotza-zigorra. Adineko emakumearen jantzi apainean, zulatuta zeuden Lincolnen aurpegia zuten txanponak, eta lazo gorria pasa-

tzen zen zuloen barnetik. «Ez zuen aditzen», esan zuen emakumeak Askatzaile Handiaz, «beraz, belarriak ireki genizkion».

1867an Greasy Grasseko gudua gertatu eta gero, lakota emakumeek zuloak egin ohi zituzten Custerren belarrietan, puntzoiekin, hartara, hobeto aditzeko gai izan zedin hil ondoko bizitzan. Gaur egun, beste batzuk ari dira entzungor egiten: Barack Obama, Ipar Dakotako gobernari Jack Dalrymple eta Morton eskualdeko sheriff Kyle Kirchmeier. Abeslariak ekin ahala otoitzkantuak abesteari, adineko emakumeak gazteei jakinarazi zien ezen abeslariaren begietatik isurtzen ziren malkoen bidez mintzatzen zirela arbasoak, eta malko haiek ez zegozkola traumari, askapenari baizik. «Bizirik iraun dugu, genozidior genozidio».

Ondoren, dantza egin zuen, txanponak kulunkaraziz suaren distiran eta ke-hodeietan. Emakumearen atzean, milia erdi batera, polizia armatuak zeuden, muinoan jarririk; haien fokutzar itsugarriak gogor behatzen gintuzten. Gure historia da etorkizuna.

Askatasunaren hurbileko oroitzapenei, askatasunaren gauzapena erakusten duten bisioei eta hura berreskuratzeko konspirazio ausartei esker irauten dute herri indigenek, oraindik ere, ezarpenezko kolonialismoaren izugarrikerien erdian. Mamu Dantza ez zen izan mugimendu monolitiko bat, ezpada kolonialismoaren aurreko esperientzien, sentimenduen eta borroken metaketa, zeinak #NoDAPL elikatu baitzuen. Borroka bakoitzak bere egin zituen erresistentzia indigenaren aurreko tradizioen funtsezko ezaugarriak, eta, aldi berean, taktika eta ikusmolde berriak sortu, unean uneko errealtateari heltzeko; hala, etorkizunean irudikatzen zuten indigenen askapena. Traumak garrantzia handia zuen. Baina, herri indigenak gehiegi sinplifikatzen baditugu, eta uste baldin badugu betirako zaurituta zeudela, ezin dugu ulertu nola osatu zituzten senidetza-harremanak eta nola eutsi zieten, modu iraunkorrean, familiei, komunitateei eta gobernantza-egiturei, kontuan hartuta ezen, aldi berean, kolonoen estatuari ihes egin behar ziotela, preso hartzen zituztela, eta imperioaren kontra konspiratzen zutela; ezin dugu ulertu nola maitatzen zuten, nola egiten zuten negar eta barre; nola irudikatzen, amesten eta defendatzen ziren, edo nola jarraitzen duten izaten, oraindik ere, lur honetako lehen subiranoak eta aginpide politiko zaharrena.

LAU

U HOLDEA

Gure lurrak desagertzen direnean, gure bizimodua desagertzen da, gure tribuak suntsitzen dira. Armadako Ingeniarien Kidegoak hartu nahi dituen behe-lur horiek erreserbetako lurrik onenak dira. Gure lurrik funtsezkoenak. Ordezkaezinak. Ez da inon saltzen antzeko lurrik. Gure bizibidea lurraren mendekoa da, gure diru-irabaziak lurretik datoz. Gure lurrak hartzea da gure etxeak eta gure diru-sarrerak hartzea, orobat gure historiaren eta ondarearen zati bat.

*J.W. «Jiggs» Thompson, AEBko Senatuko
Obra Publikoen Azpibatzaordea, Washington DC, 1959²¹⁷*

Wounded Kneeko sarraskiaren ondoren, ez zen beste borroka armatu ikusgarririk gertatu 1970eko hamarkadara arte. Bitartean, halere, aurrera jarraitu zuen lurraren, bizitzaren eta autodeterminazioaren aldeko borrokak. XX. mendearen erdialdeko urteetan, AEBk gero eta gehiagotan baliatu zuen lurrak desjabetzeko aginpidea lur indigenak eskuratzeko, zeinak gero munta handiko proiektu publikoak egiteko erabiltzen baitzituzten; batez ere Armadako Ingeniarien Kidegoak baliatzen zituen, presak eraikitzeko. Missouri ibaiaren bi aldeetako Oceti Sakowin herrien kasuan, desjabetzeek zera ekarri zuten, lurrak urpetzea eta presak eraikitzea. Pick-Sloan Plana uraren garapenerako proiektu bat da, 1944koa. Armadako Ingeniarien Kidegoak eta AEBko Erreklamazio Sailak elkarlanean diseinatu zuten, Missouri ibaiak zeharkatzen dituen estatuen ekarpenarekin. Plan horretan, erabilera anitzeko lurrezko presa handiak eraiki-

217 «Joe Thompson Statements before the Subcommittee of the Committee on Public Works,» 1959ko otsailak 16, M. Q. Sharpen dokumentuak, 184. kutxa, Chilson Bilduma, University of South Dakota, Vermillion, Hego Dakota.



Uraren Babesleak, Dakota Access oliobidearen aurka protesta egiten, AEBko Armadako Ingeniariaren Kidegoak Chicagoko hirigunean duen egoitzaren aurrean. 2016ko iraila. Argazkia: Kristen Simmons.

tzea proposatzen zen, hiru helbururekin: uholdeak kontrolatzea, lurrak berreskuratzea eta ureztapen-sistema bat eraikitzea. Sustatzaileek ziotenez, presa haien bidez lur elkorrak biziberritzea lortuko zuten. Pick-Sloan Planeko bost presetako lauk Missouri ibaiaren inguruan kokatuta zeuden zazpi erreserba urpetu zituzten, guztiak ere Lakota eta Dakota herrienak: Santee, Yankton, Rosebud, Lower Brule, Crow Creek, Cheyenne River eta Standing Rock. XIX. mendean, lur indigenak haien amaierarik gabeko emankortasunagatik ziren gutziziatuak; XX. mendeko Pick-Sloan Planean, berriz, alferrik galtzen uzteko bakarrik nahi zituzten, alegia, urez estaltzeko. Herri indigenen bizimodua lurrarekin eta urarekin zuten harremanaren mendekoa bazen ere, hidroelektrizitatearen eta ureztatze merkearen arrisku guztiak inposatu zizkieten indigenen hainbat belaunaldiri; ordea, ez zuten jaso horren onurarik batere. Gainera, uholde-ur haiek nazio indigenak asimilatu eta indiarrek lekualdatzeko baliabide fisikoak ere ekarri zituzten, eta, lurrarekin eta urarekin zuten harremana bortizki etenda, baita «indiar arazoa» behin eta betiko bukatutzat emateko ere.

Pick-Sloan Planeko presek XX. mendeko apokalipsi indigena bultzatu zuten, eta balioetsi ezin den galera bat eragin zuten, oraindik ere nabaria dena. XX. mendean, ibaietan zeharreko merkataritzak indiarren aurkako indarkeria areagotzea ekarri zuenean, Oceti Sakowin jendeek inbasiotik ihes egin zuten, bufaloei ordokietara jarraituz. AEBko Armadak bufaloa ezereztu zuenean, ostera, bizirik atera ziren indiarrek erreserbetara jo behar izan zuten, eta berriro ere ibaiaren behe-lur oparoetan babestu ziren. Han, jana eta ehiza erruz zeuden; biziraupen-nekazaritza emankorra zen, eta ur geza, berriz, nahi bezain ugaria. XX. mendearen hasieran, erreserbako ganaduaren produkzioa unerik gorenean zegoenean, ibaiaren behe-lurrek babeska eskaintzen zioten azindari, eta laborantza-lur bikainak natiboen jabetzakoak ziren eskala txikiko abere-enpresei. Ekonomia mistoak bi oinarri zituen: batetik, biziraupen-ehiza eta -bilketa; bestetik, eskala txikiko nekazaritza eta erreserbaren jabetzako eskala txikiko ganadu-enpresak. Erreserbako egur ia guztia ibai-bazterrean aurki zitekeen, eta handik hartzen zuten etxeak eta aterpeak eraikitzeko behar zuten materiala, baita berokuntzarako zein janaria prestatzeko behar zuten erregaia ere. Gainera,

aziendaren salmentaren bidez lortu ezin zutena ibar emankorretik eskuratzen zuten: uzta, ehizaki basatiak, fruituak eta barazkiak. Hain zorionekoak ez ziren indiarrek ibaiak emandako «naturaren elikagai doakoen» mende igarotzen zituzten neguko hilabeteak, alegia, enplegu gutxiko garaiak.

Pick-Sloan Planak hori guztia suntsitu zuen, eta, hala, mende erdi geroago agertuko zen #NoDAPL mugimenduaren agertokia atondu zuen. 2014an, Armadako Ingeniarien Kidegoa aske zen Dakotako oliobidearen ibilbidea zehazteko, horretarako ahalmena ematen baitzion Pick-Sloan Planak; hain justu ere, plan hori aitzakiatzat harturik, Ingeniarien Kidegoak behin eta berriro berretsi du Missouri ibaiaren gaineko eskumena duela Oceti Sakowin jendeen erreserbetan zeharreko tartean, ofizialki halakorik sekula eman ez zaion arren. Horrek hautsi egiten zuen erabat Laramie Gotorlekuko 1868ko Ituna, zeinean itunpeko lurraldetzat izendatu baitzen lur haiek zeharkatzen zituen ibaiaren ubide osoa, ekialdeko ibaiertza barne. AEBko legearen arabera, Kongresua da itunpeko mugak aldatzeko edo jurisdikzio indigena indargabetzeko eskumena duen instituzio bakarra, eta, beraz, Pick-Sloan Planak ez zion ematen Ingeniarien Kidegoari ez baterako ez besterako eskumenik; ematen zion bakarra zen erreserbetan presak eraikitzeko eskumena. Halere, jurisdikzioaren berrespen hori ez zen gertatu sinadura soil baten bidez. Aitzitik, presen ondorioz eratutako ur-pareta baten forman etorri zen, eta horrek bizitza bera eta eskumen indigenak ere suntsitu zituen. Gainera, XX. mendearen lehen erdian erreserbako bizitzak gosea ekarri zien Oceti Sakowin jendeei, eta, beraz, mendearen erdialdean, Pick-Sloan presak eraiki zirenean, ez zen erraza Armadako Ingeniarien Kidegoaren eta haren aliatu ziren agentzia federalen aurkako erresistentzia sendo bat antolatzea. Horren guztiaren emaitza genozidioa izan zen, ez besterik: lurra suntsiturik –eta ezerezturik, era berean, landareak, animaliak eta ura–, hari loturik erreproduzitzen ziren jendeen nazioak ere eraso eta suntsitu zituzten. Halandaze, lurra eta ura kenduta, etorkizun bideragarri bat izateko aukera ere kendu zieten indiarrei.

Pick-Sloan Plana bat zetorren orobat kitatze- eta lekualdatze-politika federaletan. Politika horiek baliogabetu egiten zituzten federazio-mailan aintzatetsitako nazio indigenak, eta hirigune urrunetara lekualdatzen zituzten erreserbetako jen-

deak. 1953an, Kongresuak Ganberen Aldebiko 108 Ebazpena onartu zuen, zeinaren bidez Flathead, Klamath, Menominee, Potawatomi eta Turtle Mountain Chippewa tribuekiko harremana berehala kitatzea exijitzen baitzen; hala, lur indigenen milioika akre pribatizatzeke bidea ireki zen. Lege-proiektu hark logika maltzur bati jarraitzen zion: indigenak beren nazioen suntsiketaren bidez soilik libratu ahal izango ziren «desabantailen eta mugaketan gaineko ikuskapen eta kontrol federaletik».²¹⁸ Urte berean, Kongresuaren 280 Legeak baimena eman zien estatuei beren gain hartzeko lur natiboen gaineko eskumen kriminal eta zibilak. Horrekin batera, lege-proiektuek promesten zuten utzi egingo zitzaiola fideikomiso federalen bidez indigenak babesteari, eta ziurtatzen zuten itunen eta akordioen bidez bermatutako ordainketak ere estatuei transferituko zitzaizkiela; hala, kendu egingo zieten indigenei mende bateko politika genoziden ondoren geratzen zitzaien autoritate politiko eskasa. Kitatzea gauzatzeko onartutako legeria horrekin batera, eta lekualdatze-programa federalaren barruan, Indiar Arazoetarako Bulegoa erreserbetako natiboak zenbait hiritara eramaten hasi zen, hala nola San Frantzisko, Denver, Chicago, Los Angeles eta Cleveland. 1950-60ko hamarkadetan, 750.000 natibo inguru irten ziren erreserbetatik. Kitatzeak, Edward Valandra-ren hitzetan, «legezko bihurtu zuen gobernu natiboen eraispena, haien lurren lapurreta eta herri eta kultura natiboen suntsiketa».²¹⁹

Kitatzeak aldaketa ikaragarri bat eragin zuen Indiarren Akordio Berriaren bidez eskuratutako lorpenetan, zeinak, akatsak akats, tribuen autodeterminaziorako garai berri bat ireki baitzuen, 1935eko Indigenen Berrantolaketari buruzko Legearen (IRA) abaroan. Erreforma ikaragarri handien bidez, Indiar Arazoetarako Bulegoak erreserbetan atxiki nazioei urte luzez eragindako zigor kolektiboa erreparatu nahi izan zuten. Wounded Kneeko sarraskiaren urtean, AEBko Errolda Bulegoak erabaki zuen mendebaldeko muga ofizialki «itxita» zegoela. Hala bada, mendeetan zeharreko gerrek, goseteek, gaixotasunek eta politika genozidek Ipar Amerikako kolonialismoaren unerik beherenera

218 Hemen aipatua: Francis Paul Prucha, ed., *Documents of United States Indian Policy*, 3. arg., (Lincoln: University of Nebraska Press, 2000), 234. or.

219 Edward C. Valandra, *Not Without Our Consent: Lakota Resistance to Termination, 1950-59* (Urbana, IL: University of Illinois Press, 2010), 48. or.

eraman zituzten indiarrek. 1928an ikerketa zabal bat egin zen, Estatu Batuetako ekintzaile indiarrek eskatuta; ikerketa horrek *Indiar administrazioaren arazoa* du izena, eta Meriam Txostena ere esaten zaio. Bada, ikerketa horren egileek ondorioztatu zuten Indiar Arazoetarako Bulegoa ezgaia, ustela eta hiltzailea zela. Ekintzarik ankerrenen artean erreserbetako bizilagunen gosete handia zegoen; izan ere, Administrazioak kolonoei saltzen zizkien natiboei alde zuten edo moldez bizimodua ateratzeko balia zitzaizkien lur apurrak. 1887 eta 1932 bitartean, eta Dawes Lege zoritxarrekoaren ondorioz, lurren banaketak –eta zuriei saldutako «gaineratikoak»– lur indigenen 91 milioi akre jan zituen, eta 48 milioi akre soilik geratu ziren erreserbetarako. Administrazioak banatutako lur-zati bat eskuratu eta, beraz, lurjabe bihurtzeko indiar estatubatuarren kopurua mugatzeko, «gaitasun-batzorde» federal arrazista batek arraza-nahasketan oinarritutako patenteak banatu zituen; «odol garbikoei» jabe pribatu bihurtzea eragotzi zien, eta haien lurak fideikomisoan atxiki zituzten. Horrek gatazkak eragin zituen «odol nahasi» lurjabeen eta lurren jabe izaten jarraitzen zuten «odol garbiko»en artean, hau da, lurrak zuriei saltzeko «ezgaiegizat» jotakoak. Kolperik gogorrena Oklahoma-ko tribuek jasan zuten; esate batera, Osage jendeek lursailen %70 galdu zuten 1920ko petrolioaren goraldian. Oceti Sakowin jendeek, ostera, haien esleitutako lursail guztien %30 galdu zuten; haien artean, Rosebudek eta Lower Brulek jasan zuten kolperik latzena, lurren %40 galduta.²²⁰

IRA legeak hiru erreforma berri onartu zituen, eta, hala, oldarra aldi baterako etetea lortu zuen. Lehenik eta behin, bukatutzat eman zuen lursailen banaketa-politika katastrofikoa. Bigarrenik, bukatutzat eman zuen dantzarako debeku drakonia-rra, indigenen erlijio- eta adierazpen-askatasuna hobetu zuen, erreserbetako justizia penalaren sistema hobetu zuen eta dirua jarri zuen lursailak berreskuratzeko eta ekonomiaren garapenerako. Azkenik, Mendebaldekoaren antzeko gobernantza-molde bat ezarri zuen, Indiar Arazoetarako Bulegoaren eredura egindako konstituzio baten bidez; hura aurrera eramateko, ezinbestekoa zen erreserbek AEBko konstituzioan oinarritutako konstituzio

220 Graham D. Taylor, *The New Deal and American Indian Tribalism: The Administration of the Indian Reorganization Act, 1934–45* (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 1980), 13–14 or.

bat onartzea eta AEBrekiko leialtasuna zin egitea. Azken puntu hori izan zen polemikoena. Herri indigenek autonomia politiko handiagoa desiratzen zuten, baina ez zuten nahi beren gobernantza-eredua kentzea, adostasunean eta kidetasunean oinarritzen zena, eta haren ordez instituzio kolonialak ezartzea. Beldur ziren, halaber, hauteskunde-sistema lehiakor mendebaldetarrak ez ote zuten aukera politiko desberdinen arteko enfrontamendua areagotuko eta erreserbetan eliteen klase bat sorraraziko, zeinaren leialtasuna ez baitzen izango komunitateko kontseiluekikoa, baizik eta kanpo-autoritate batenganakoa –AEBko gobernu–, eta zeinaren botere politikoa BIAren eta Barne Sailaren kontrolpean egongo bailitzateke.

John Collier Indiar Arazoetarako komisarioa zen, eta IRA legearen egile nagusia. Bere ustez, Indigenen Berrantolaketari buruzko Legea administrazio kolonialaren diseinu orokor baten parte zen. Lege hori egiteko, Collier komisarioak beste sistema bat erabili zuen eredu gisa; hain zuzen ere, Lord Lugord-ek XX. mendearen hasieran kolonia britainiarraren administrazioerako erabili zuena, zeinaren bidez nazio kolonizatuen independentzia eragozten baitzen, nola-eta behin eta berriro geroratzuz. 1947an, Collierrek alderatu ere egin zuen Estatu Batuetako herri indigenen administrazio koloniala anexio inperialarekin eta zenbait herrialderen kudeaketa kolonialarekin (Filipinak, Puerto Rico, Hawaii, Alaska, Ozeano Bareko uharteak, Panamako kanala eta Birjina Uharteak).²²¹ IRA legea Akordio Berriko programa bat zen, baina inperialismo globalaren parte ere bazen; indiarren politika «barne-politika» soiltzat joz gero, alde batera uzten da bigarren zera hori, eta normalizatu egiten da kolonialismoa, herri indigenak AEBko subjektutzat jotzen direlako berriro. Beraz, indiar arazoak nazioarteko harremanetatik ezabatu ziren –itungintzatik eta diplomaziatik–, eta barne- edo lurralde-agintaritzara zokoratu, baina prozesu hori borrokatu egin behar litzateke, ez berriro erreproduzitu.

Herri kolonizatuen independentzia nazionala ez zen inoiz izan AEBren ahalegin inperialen helburua. Alabaina, IRA legeak aldaketa bat ekarri zien Oceti Sakowin jendeei; «gabezia gordinetik pobrezia hutsera» eramán zituen, «eta hura izan zen

221 John Collier, *America's Colonial Record* (Londres: Victor Gollancz, 1947), 31. or.

erreserbek bizi izan zuten garairik onena», azaldu zuen Standing Rock Sioux-eko kide zen Vine Deloria Jr. aditu eta ekintzaileak.²²² Izan ere, akatsak akats, IRAk indigenen autogobernurako zenbait printzipio ezarri zituen, eta federalki aintzatetsitako gobernu bat eman zien. Erreserba guztiek onartu ez bazuten ere, onartu zutenek abantaila nabarmen bat izan zuten hurrengo urteetan. Adibidez, Standing Rock, Cheyenne River, Lower Brule eta Crow Creek erreserbek IRA legearen mendeko kontseilu tribalak eratu zituzten. Yankton erreserbak ere IRA legea onartu zuen, baina ez zuen sekula ezarri konstituzio-eredu bat edo kontseilu tribal bat. Gobernu federalak aitortutako gobernurik ez zutenez, Armadako Ingeniariaren Kidegoak alde batera utzi zituen Yankton erreserba eta haren administraria –Barne Idazkaritza–, eta natiboen lurak desjabetzeari ekin zion, Fort Randall presa eraikitzeko. Yankton erreserbako kideek ez zuten baliabide handirik. Azken finean, IRA legearen babesean sortutako gobernuak erabat akastunak baziren ere, horiek gabe Oceti Sakowin herriek ezin zituzten negoziatu Ingeniariaren Kidegoak eragindako kalteak, ezta kitatzeari aurre egin ere. Alabaina, beste ezeren aurretik, IRA legea aukera faltsu bat zen: kolonizatzaileen eredu osorik onartu; etengabeko tutoretzan oinarritutako «autodeterminazioa» onartu; ala desagertu.

Garai hartan, hitzarmenak sarriago hausten ziren dekretu bidez indarkeriarekin baino. Missouri ibaiaren arroan, Pick-Sloan Planak lur indigena gehiago deuseztatu zituen AEBren historia osoan obra publikoko beste ezein proiektuk baino, eta erreserbetan kokatuta zeuden hogeita hiru komunitateri eragin zien. Proiektu hura, Deloriak idatzia duenez, «AEBk ezein triburen aurka inoiz burututako ekintza suntsitzaileena izan zen, zalantzarik gabe».²²³ Hartu eta suntsitu zuten lurra erreserbako lurrik onena zen: ibaiertzeko behe-lur basotsuak –gainerako lurak zuhaitzik gabeko ordokiak izan ohi ziren–, basabizitzaz eta landarez beteak, horien artean basa-animaliak, zeinak ezinbestekoak baitziren herri indigena ugariren biziraupenerako. Standing Rock,

222 Vine Deloria Jr., «This Country Was a Lot Better Off When the Indians Were Running It,» *New York Times*, 1970eko martxoak 8. or.

223 Vine Deloria Jr., lan honen sarrera gisa: Michael L. Lawson, *Dammed Indians Revisited: The Continuing History of the Pick-Sloan Plan and the Missouri River Sioux* (Pierre, SD: South Dakota State Historical Society Press, 2009), xv. or.

Cheyenne River, Lower Brule, Crow Creek eta Yankton erreserbetako biztanleen herena belardi zabaleko lur marjinaletara eraman zituzten, edo erreserba uztera behartu; edozein kasutan, lekualdatutako natiboek ezin zituzten erreproduzitu ibai oparoen abaroan izandako bizitzak. Orotara, AEBk lur indigenen 550 milia karratu hartu zituen: azalerari begiratuz gero, Rhode Island-en erdia.

XIX. mendean, itungintzaren bidez bermatu zuten india-
rrek lurren jabetza-tituluak zeuzkatela eta, beraz, gero AEBri laga ahal izango zizkietela. D'Arcy McNickle ekintzailea Flathead herri indigenan aditua zen, eta Pick-Sloan Planaren garaian Indiar Arazoetarako Bulegoan lan egiten zuen; berak zioenez, desjabe-
tzeen garaian lurjabe pribatuaren kategoria esleitu zieten indiar tribuei eta, hala, «estatuak haien aurka jarduteko ahalmena zuen». Beste era batera esanda, nazio indigenen identitatea dola-
r-zeinu huts bihurtu zen.

McNickleren ustez, «prozesu hori, denborarekin, modu bakarrean buka daiteke, indiarren desagertzearekin».²²⁴ Etxal-
detarrek eta lur-jabe zuriek erraz aldatzen ahal zituzten beren negozioak eta bizimoduak edozein tokitara; herri indigenak eta haien bizibidearen oinarri zen ibai-ingurune emankorra, ostera, ordezkaezinak ziren.

Sari krudela zen hori Bigarren Mundu Gerratik itzultzen ari zirenentzat. Lehen Mundu Gerratik gaur arterako gerra guz-
tietan, indigenek AEBko biztanleek baino proportzio handiagoan zerbitzatu dute, eta haiek baino proportzio handiagoan aurkeztu dute beren burua boluntario. Gainera, AEBko ejertzitoak nahita eta nahierara desitxuratu du gerlari indigenen kultura, eta maiz izen eta irudi indigenak erabili ditu kontu inperialistetarako, hala nola helikoptero bati «Lakota» izena jarrita edo misil telegidatu bati «Tomahawk». Baina indiarrek zerbitzatu izan dute, batez ere, ez «gutxiengo nazional» gisa, baizik eta nazio berei-
zi eta burujabe bezala. Lehen Mundu Gerran, adibidez, 1917an, Haudenosaunee Konfederazioak bere kabuz deklaratu zion gerra Alemaniari, eta erabaki zuen soldaduak bidaltzea bere nazioa-
ren alde borrokatzera. Bigarren Mundu Gerran ere berdin jokatu

224 D'Arcy McNickle, «Introduction» in *Dams and Other Disasters: A Century of the Army Corps of Engineers in Civil Works*, Arthur E. Morgan (Boston: P. Sargent, 1971). or.

zuen, eta bere kabuz deklaratu zien gerra Ardatzeko potentziei. Hasiera batean, indiarren soldadutzak lotura estua zuen indigenen burujabetzarekin; izan ere, soldadu indiarrek berena ez zen inperio batekin batera borrokatzen ziren. Nazio indigenak gogor saiatu baziren ere, 1924ra arte ez zuten lortu indiar estatubatuarren herritartasuna ematea.

Oceti Sakowin jendeek ere antzeko ikuspegia zuten soldadutzarekiko, eta AEBrekin adostua zuten beren sorterrria babesteko egiten zutela soldadutza, ez beste ezertarako. Beren ustez, AEBk ezin zien eskatu itsasoz bestaldera joatea haien inperioak etsaitzat eduki arren indigenen bizibideak zuzenean mehatxatzen ez zituztenen aurka borrokatzera. «Hitzarmen bat zuten [AEBko] Gobernuak eta indiarrek», azaldu zuen Bele Engainatzaile lakota santoiak 1978an, Lakota herriak Lehen Mundu Gerran erakutsi zuen boluntariorzari buruz ari zelarik, «zeinak esaten baitzuen [indiarrek] beren sorterrian soilik borrokatuko zirela, erasoetatik defendatzeko. Baina [lakotak] itsasoz bestaldera bidaltzen dituzte, hitzarmenari kontra eginez. Indiar batentzat ez da ohikoa atzerriko herrialde batean borrokatzea... Itzultzen direnean ez dira mutil berak. Edan egiten dute. Beren burua hondatzen dute».

Bigarren Mundu Gerran borrokatu ziren milaka indigenak etxera itzuli zirenean, zera gertatu zen: gerran ejertzito batekin batera borrokatu ziren, eta orain ejertzito hori bera zen beren sorterriko lurra mehatxatzen zituen etsaia. Bizitza gerran sakrifikatze eskatu zien herrialdeak beren lurrik onenak eta beren gobernuak sakrifikatze eskatzen zien. Beste desjabetze-aldi bat gertatzen ari zen ibaian gora, beste itxitura-aldi bat, zeinak baliabiderik preziatuena –ura– erabiltzen baitzuen arma gisa herri indigenak ezerezteko eta indiarrek iraupenerako ezinbestekoak zituzten lurra suntsitzeko. Nolanahi ere, ibaia kontrolatzeko gatazka ez zuen abiatu Armadako Ingeniariei Kidegoak, baizik eta Hego Dakotak eta beste estatu batzuek, zeinetako elite politikoak kitatzearen jarraitzaile amorratu bilakatu baitziren. Baina, kitatze-prozesuak bezala, ibaiaren inguruko garapenak ere erresistentziarekin topo egin zuen.

1910ean, Hego Dakota estatua izan zen, bi hamarkada eskasekin, Missouri ibaiaren goiko partea garatzeko mugimenduaren bultzatzailea. Beste estatu batzuek ere beren planak

zituzten, hala nola Montanak eta Ipar Dakotak, baina plan haiek alderaezinez ziren Hego Dakotako planen tamainarekin eta antolamenduarekin. Babes federala lortzeko ahaleginean zebiltzan, batez ere Armadako Ingeniarien Kidegoarena, hark baitzuen azken hitza ibaiaren inguruko hobekuntza-proiektu guztietan; ordura arteko saiakerek, baina, ez zuten eman fruiturik. 1924an, Hego Dakotak zentral hidroelektriko bat jartzeko kokagunea aukeratu zuen: Big Bend bihurgunea, Missouri ibaiko handiena. Plan haren arabera, erabilera anitzeko presa batek elektrizitate eta ureztatze-sistema merkeak ekarriko zituen inguruko herri nagusiki zurietara, hala nola Pierre, Winner, Chamberlain, White River, Mitchell, Huron, Redfield eta Murdo. Beraz, alde batera uzten ziren presaren eragin handiena jasoko zuten jendeak, hau da, Lower Brule eta Crow Creek erreserbetakoak. Nahiz eta presak jende haien lurrak zituen xede eta haien ur-eskubidea mehatxatzen zuen, ez zien inork iritzirik eskatu, eta proiektuaren hasierako plangintzatik kanpo utzi zituzten. Eta Hego Dakotak ibaian egin nahi zituen hobekuntza-proiektuek aski babes federala lortu ez zuten, 1933ko udaberrian Missouri Garaiko Ibarra Garatzeko Elkarteak sortu zuten, beren kanpaina aurrera eramateko.

Non eta Big Bend bihurgunetik oso gertu, milia gutxi batzuk hegoaldera, lakotek Lewis eta Clark espedizioa aurkitu zuten lehen aldiz; 1804a zen, eta espedizioa lakota lurretan isilean sartzen ahalegintzen ari zen. Orain, ibaiaren garapenaren sustatzaileak ere gauza bera egiten saiatu ziren, Oceti Sakowin jendeen azterketa zorrotzari itzuri egiteko. Baina, espedizioarekin gertatu bezala, haien planei ere laster igarri zieten indigenek. 1937ko maiatzaren 16an, Lower Brule tribuko mahaiburua Ruben Estesek Hego Dakotako kongresukide Francis Case-ri idatzi zion, eta Big Benden zentral hidroelektrikoa egiteko babes eskaini, Lower Brule herriari «lana eta laguntza» eta elektrizitatea ekarriko zizkiolakoan. Baina Estesek kezka ere agertu zuen, kontseilu tribala Lower Bruleko lurren eta uraren garapenerako planetatik kanpo utzi zutelako. Estesek argudiatu zuenez, IRA legeak eskumen berriak ematen zizkion Lower Bruleri, eta tribua eskumen haiek erabiltzeko prest zegoen, baldin eta estatuak aurrera egiten bazuen haien onarpenik gabe lur tribaletan abiatutako proiektuarekin. Azkenik, Estesek zalantzan jartzen zuen gober-

nu federalak edo estatuak eskubiderik ote zuen Lower Bruleko eta Crow Creekeko «jendeen onarpenik gabe urarekin lotutako proiektuak garatzeko erreserbako mugen barruan», edo, are, ibaitik bizi zen edozein herri indigenaren onespenik gabe.²²⁵

1935erako, Siux herriko Lower Brule tribuak IRA legea onartu zuen. Oceti Sakowin herrietan lehena izan zen, eta Estatu Batuetako bigarrena.²²⁶ Arrazoi pragmatikoengatik egin zuten, erakunde estatal eta federalak Missouri ibaia aldarrikatzeko eta garatzeko egiten ari ziren saiakerei erantzuteko.²²⁷ IRA legean oinarritutako kontseilurik gabe, Lower Brulek apenas zuen botererik ibaiaren garapen-planak gerarazteko, mailegu federalak eskatzeko edo bere lurrak defendatuko ote zituen lege-aholkulariak kontratatuzko. Aitzitik, IRA legearen babesean, garapenaren nondik norakoak erabakitzeko aukera ematen zieten planak babestu ahal izan zituzten; plan haiek, gainera, aukera ematen zieten erabakitzeko zer neurritakoa izango zen Depresio Handiaren garaian hain beharrezkoa zuten arindura, batez ere enpleguari eta elektrizitateari zegokienez.

1937ko ekainaren 1ean, Casek Estesi erantzun zion, eta hark esandakoa onartu zuen: «[Big Bend] zuen erreserban dago, eta zuen iritzia agertzeko eskubidea duzue».²²⁸ Lower Brulek haien etsenpluari jarraitu zion, eta Indiar Arazoetarako Bulegoaren (BIA) mailegu federalak eskatzeko ebazpen bat onartu zuen, zentral hidroelektriko txiki bat egiteko. Tribuak proiektu txiki bat egin zuen, komunitateari berehala onurak ekarriko zizkiona, baina Casen proiektua handinahiagoa zen, eta ez zituen kontuan hartzen komunitate indigenak, edo bigarren maila batean uzten zituen. Casek aldarrikatzen zuen Big Bendek «zeresan handia» eduki zezakeela «defentsa nazionalean, indiarren susperraldian eta Hego Dakotaren erdialdeko herritar guztien ongizatean».²²⁹ 1937 eta 1940 bitartean, Lower Brulek inguru hura garatzeko onarpena eskatu zuen, eta barne-arazoetako idazkari Harold

225 Ruben Estesek Francis Caseri, 1937ko maiatzak 16, 157. karpeta, Francis Caseren dokumentuak, bilduma bereziak, Dakota Wesleyan University, Mitchell, Hego Dakota. Ruben Estes egilearen birraitona da.

226 *Chamberlain Register*, 1935eko azaroak 7; Ernst Schusky, *The Forgotten Sioux: An Ethnohistory of the Lower Brule Reservation* (Chicago: NelsonHall, 1975), 191. or.

227 Schneiders, 158–60. or.

228 Casek Estesi, June 1, ekainak 1, Caseren dokumentuak.

229 Casek John Herricki, 1940ko ekainak 12, Caseren dokumentuak.

Ickes-ek plana babestu zuen, betiere BIAk sustatutako proiektu gisa, ustez-eta Barne Arazoetako Sailak ibaiaren gainean zuen eragina eta kontrola areagotzeko baliabide bat izan zitekeela.²³⁰ Baina Armadako Ingeñarien Kidegoak bi proposamenak bota zituen atzera, BIArena eta Lower Brulerena, bi arrazoï argudiatuz: batetik, «kostu-irabazien analisi» bat; bestetik, ez zioten autoritaterik eman nahi ez tribuei ez gobernu federalari.²³¹ Azaletik begiratuta, irudi dezake gatazka burokratiko bat zela, edo borondate politikorik eza. Baina Hego Dakotak, Armadako Ingeñarien Kidegoak eta BIAk adostu zutena zera zen: indigenek onartu ala ez, ibaiaren garapen-planak aurrera egingo zuen.

Hasiera batean, Lower Brule planaren aurka agertu zen, eta jarrera hark bat egiten zuen lehenago ere beste herri indigena batzuek beren ur-eskubideak babesteko egindako saio-kerekin. 1908ko *Winters* erabakian, AEBko Auzitegi Gorenak Fort Belknap Erreserbaren aldeko epaia eman zuen. Izan ere, laborari zuri bat Montanako Milk ibaiaren ur-emia kontrolatu nahian zebilen, zeina Missouri ibaiaren adar bat baita, eta Fort Belknap Erreserbako jendeek adierazi zuten haiek ere ur hura erabiltzeko eskubidea zutela. Bada, Auzitegi Gorenak esan zuen ezen nahiz eta Fort Belknap Erreserbak bere lur emankorrek eman zituen lur elkorren truke –zeinak, auzitegiaren arabera, egokiak baitziren «zibilizatu gabeko herri nomadentzat»–, lur haiek okupatzea ez zettorrela bat gobernuaren asmoekin, alegia, herri ez-zibilizatu hura «artzaintzara dedikatzen den herri zibilizatua» bilakatzea.²³² Labur esanda, herri indigenek ur-eskubide kuantifikagarriak izan zitzaizketen baldin eta soilik baldin uraren erabilera gobernu federalaren zibilizazio-misioarekin bat bazetorren. Erabaki hura *Winters* Doktrina gisa egin zen ezagun, eta honela dio: erreserbaren unean uneko mugak edozein direlarik ere, tribuek eskubide goren eta erreserbatuak dituzte hitzarmen, dekretu edo agindu exekutiboen bidez zehaztutako jatorrizko mugen barruko uren gainean.²³³

230 Casek J. W. Jacksoni, 1940ko uztailak 12, Caseren dokumentuak.

231 Schneiders, 159; Lawson, 7. or.

232 *Winters v. US*, 207 US 564 (1907), 576. or.

233 Ikus Willima H. Veeder, «Winters Doctrine Rights: Keystone of National Programs for Wester Land and Water Conservation and Utilization,» *Montana Law Review* 19, 1965, 149–72. or.

Ordura arte, ez Lower Brule tribuak ez Missouri ibaiaren garapenari aurre egin zion beste ezein herri indigenak ere ez zuen sekula jo Winters Doktrinara. Baina oraindik ere bazuten hori egiteko eskumena. Doktrinaren erabilera aurreikusi izanak erakusten du kolonoen legeek indigenen ur-eskubideak mugatzen zituztela; nolana ere, baldin eta estatuak edo gobernu federalak arrazoi bat edo beste dela medio uraren jarria aldatu edo eteten badu tribuen onespenerik gabe –adibidez, presak eraikitza-, Winters Doktrinaren espiritua urratzen du.

1944ko Uholdeak Kontrolatzeko Legeak, zeinak Pick-Sloan Plana baimendu baitzuen, presak eraikitzeko baimena ematen zion Ingeniarien Kidegoari, ez besterik; hau da, ez zion baimeunik ematen goitik behera ezabatzeko jurisdikzio indigena edo itun- edo ur-eskubideak. Zehaztetik batere ez zuen hizkuntzan idatzitako legearen 4. atalak ibaia «erabilera publikorako» eta «aisiarako» baliatzeko aukera ematen zuen. Ez zion ibaiaren gaineko autoritate politikorik kendu Crow Creek, Lower Brule, Standing Rock, Cheyenne River, Yankton eta Fort Berthold erreserbei, ezta ere, egia esan, beste ezein nazio indigenari ere. Edonola den, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan Ingeniarien Kidegoak hondamendi-eremu izendatu zituen desjabeturiko lurak, eta Kongresuak konpentsazioak eman zizkien kalteak jasan zituzten erreserbei. Ez Uholdeak Kontrolatzeko Legeak (zeinak lurra hartu baitzuen) ez kalteei buruzko kongresu-legeek ere (zeinek konpentsazio bat eman baitzuten lurak hartzearen truk) ez zuten esplizituki indargabetu jurisdikzio indigena; era berean, Armadako Kidegoak Missouri ibaia hartu zuenean ez zuten ezelango konpentsaziorik eskaini, ezta halakorik baimendu ere. Lurren kasuan soilik berdindu zituzten desjabetzeak, ez uraren kasuan. Orduz geroztik, Oceti Sakowin jendeek aldarrikatzen dute legearen arabera berek ez dituztela sekula laga Missouri ibaia eta haren ibaiertza. Eta, legea eskuan hartuta, arrazoi dute: presak eraikitzean, Ingeniarien Kidegoak ibaiaren ur-emia aldatu zuen, eta horrek Winters Doktrina eta Laramie Gotorlekuko 1868ko Ituna urratzen ditu.²³⁴ Nolanahi ere den, itun-eskubideak

234 Ikus Jeffery Ostler eta Nick Estes, «'The Supreme Law of the Land': Standing Rock and the Dakota Access Pipeline,» *Indian Country Today*, 2017ko urtarrilak 16, indiancountrymedianetwork.com.

eta legezkotasuna gorabehera, Ingeniarien Kidegoak bere proiektuarekin aurrera egin zuen.

Dakoten eta lakoten kasuan, ur-eskubideak itun bidez daude zehaztuta. Adibidez, Laramie Gotorlekuko 1868ko Ituneko 2. artikuluan zehazten zen ezen «Siux lurraldearen» ekialdeko muga Missouri ibaiaren ekialdeko ertzaren «uberaren arrastoan» hasten dela. Aitzitik, Cheyenne River, Standing Rock eta Lower Brule erreserbetako konstituzio tribalek 1889ko Siux Hitzarmenaren arabera zehazten zituzten erreserben mugak. Hitzarmen hark bost erreserbatan bereizten zituen ibaiaren mendebaldeko tribuak (Pine Ridge, Rosebud, Cheyenne River, Lower Brule eta Standing Rock), eta ibaiertzeko hiru erreserben (Standing Rock, Cheyenne River eta Lower Brule) ekialdeko mugatzat «Missouri ibaiaren kanal nagusiaren erdigunea» jotzen zuten.²³⁵ 1889ko Hitzarmenak erreserben lurak murriztu bazituen ere, erreserba horiek guztiek eta Oceti Sakowin jendeek Winters Doktrinaren arabera eskumenak dituzte oraindik Missouri ibaiari dagokionez, 1868ko Hitzarmenaren jatorrizko bertsioan zehaztutako mugak kontuan hartuta, betiere ura modu «zibilizatuan» erabiltzen bada.

Wintersen ur-eskubideak autoritate federalak erreserbak sortu zituen egun berean sartu ziren indarrean, eta kuantifika ezintzat jotzen dira, edo, auzitegiaren arabera, «zedarritu gabeko»tzat; beraz, aberri indigena iraukor batek betiko profitatu eta erabili ahal izango lituzke. 2012an, Dineh²³⁶ herriko Melanie K. Yazzie adituak Little Colorado River ur-kokaleku navajo-hopia aztertu zuen. Haren arabera, Auzitegi Gorenak geroago emandako erabakietan interpretatu izan da «zedarritu gabeko» esapide horrek erreserbaren «beharrizan minimoa» esan nahi duela. Beste hitz batzuekin esanda, nazio indigenek helburu «zibilizatu»etarako balia dezaketen ura soilik erabil dezakete. Helburu horiek kuantifikatuta daude; edo, beste era batera esanda, subiranotasun indigena da kuantifikatuta dagoena, ur-erabileraren eta erabilera «zibilizatu»aren maila desberdinen arabera. Erabiler horietatik aparteko guztia soberakintzat jotzen da, erabili gabekotzat, alferrik xahututzat. Beraz, gainerako hori neurtu eta desbideratu egin daiteke, natiboekin zerikusirik ez duten inte-

235 *Ibid.*

236 Navajoek *dineh* esaten diote beren buruari (iturria: Euskarazko Wikipedia) [l. o.]

resetarako. Alde bakoitzak bere beharrak kuantifikatu ondoren, erreserbetan edo itunpeko lurretan zehar dabilen ura ez da gutzitiz eta erabat nazio indigenen «jabetzakoa» (bistan denez, ez da makala ondorio horretara iristeko behar den irudimena). Ondorioz, nazio indigenek beren lurretatik igarotzen den uraren kantitate mugatu bat bakarrik erabil dezakete –kasu batzuetan, portzentaje baten zati bat–.

Kolonoak hain dira aseezinak, non nekazaritzara zuzendutako urarekin dituzten interesek beti gainditu baitute herri indigenen biziraupena. Missouri ibaiaren arroaren ordokietan, ureztapena ezinbestekoa da nekazaritzarentzat, eta nekazaritza horrek, produkzio-molde gisa, kolonialismoa irudikatzen du: sedentarioa da, eta nagusiki iraunkorra, hau da, urte osoan uzta ematen duena; bere burua erreproduzitzen du; beti behar du gero eta lur gehiago eta gero eta ur gehiago. Hedatzen doan heinean, lur indigenak jankatzen ditu, eta fauna eta flora suntsitzen ditu, eta iraupen-ekonomia deuseztatzen. Horrek ez du esan nahi herri indigenak ez zirenik izan artzainak, nekazariak edo baserritarrak kolonizazio aurretik eta kolonizazioak iraun zuen bitartean. (Kolonizazioaren aurretik, gizarte indigena gehienak nekazariak ziren, ez «ehiztari-biltzaileak», eta landare etxekotuen zale handiak ziren; adibidez, artoarenak).²³⁷ Izan ere, Pick-Sloan Planaren proposamena iritsi zenerako, Missouri ibaiko nazio indigenek behi-azienden enpresa emankorrak zeuzkaten, natiboek berek kudeatuak, baita eskala txikiko nekazaritza-proiektuak ere, askotan jardunbide komunalen isla zirenak. Eskala txikiko ekonomia haiei esker, nazio indigenek ez zuten lurrik saldu behar izan elikagaiak eskuratzeko, eta, hala, erreserba-lurren urritzeari aurre egin ahal izan zioten.

Lanniko L. Lee lakota idazlea da, Cheyenne River erreserbako kidea, eta akorduan ditu uholdeen aurretik han izaten ziren behe-lurrak. Haurtzaroko oroitzapenetan arakatuz gero, erraz ekartzen du akordura nolako bizimodua zuen Oahe presak bere lurrak hartu aurretik:

Ibaiertz bat dakusat gizon-emakumeekin, gazteak eta zaharrak, ura eramaten, baiak biltzen, sutako egurra jasotzen, arrantzan ibaiertzean,

237 Ikus Dunbar-Ortiz, *An Indigenous Peoples' History*, 15–31. or.

lezka-zuztarren xerka zingiretan, askotariko teak jasotzen, eroritako hosto eta adarrekin haurrentzako jostailuak egiten, pertsona izatera iritsi gineneko istorioak kontatzen, altzariak egiten, emakumeak bilobei ibaiaren gaineko istorioak esaten, haurrak ibaiaren opariei buruz ikasten. Gizonak entzuten ditut kantuan; emakumeak entzuten ditut, zaharrak eta gazteak, haiek ere kantuan, zuhaitz artean lan egiten duten bitartean, haietan bizi diren artean. Haurren barreak ere entzuten ditut.²³⁸

Pick-Sloan Planeko proiektu handiek, adibidez, ia literalki ebatsi zieten janaria ahotik indiarrei, zeinek non-eta sabeleko gosean ere senti baitzezaketen subiranotasun indigena; hala gertatu zitzaien, adibidez, Oceti Sakowin jendeai, haien lurrik produktiboenak kolonoek hartu zituztenean. Alde horretatik, subiranotasun indigena ur-eskubideen bidez neur daiteke, zeinek, Yazzie-ren arabera, «muga mugagabeei» egin behar baitiete aurre auzitegi federaletan.²³⁹ Alegia, kolonoen legeak ez du sekula ekarri subiranotasun indigenaren oinarri materiala hedatzea, hau da, lurra eta ura; legeak oinarri material hori higatu besterik ez du egin, haren gainean murrizketa etengabeak ezarriz. Lege horietan, eta ur-eskubideei dagokienez, «indiar»ren legezko tasunaren ezaugarriak zehazteaz gain, «kolonoak» ere subjektu legal bilakatzen dira, ur indigenan interes zuzena dutenak. Bestela esanda, herri indigenek estatutu federalen, agindu exekutiboen edo itunen arabera ur-eskubideak dituzten kasuetan, komunitate kolonoek ezinbestekoa dute indigenei eskubide horiek murriztea, baldin eta beren beharrak aseko badituzte, indigenen onespenerekin edo gabe. Beraz, indigenen ur-eskubideak kolonoen beharren arabera kalkulatu dira, beste ezeren gainetik.

Pick-Sloan Planaren gibelegoek beste arrazoi bat ere badute: ordura arte, gobernu federalak ahalmena izan zuen lurralde-politikaren bidez espazioari buruzko teoriak irudikatu eta aldarrikatzeke, baina engoitik eskumen hura zentralizatu egin zen. Praktika hori 1785eko Lurralde Ordenantzarekin abiatu zen, eta XIX. mendean eta XX.aren hasieran ere jarraitu zuen, zeren eta autoritate federalek lurra lurralde gisa ezagutu, mapatu, be-

238 Lanniko L. Lee, «Ways of River Wisdom,» in *Shaping Survival: Essays by Four American Indian Tribal Women*, ed. Charles L. Woodard (Lanham, MD: Scarecrow, 2001), 25. or.

239 Melanie K. Yazzie, «Unlimited Limitations: The Navajos' Winters Rights Deemed Worthless in the 2012 Navajo-Hopi Little Colorado River Settlement,» *Wicazo Sa Review* 28:1, 2013, 26–37. or.

rrantolatu eta kudeatzeko lan egin baitzuten. Politika haientzat, uraren kudeaketa ezinbestekoa zen; izan ere, mendebalderantz hedatzeak eta lur indiarrek eskuratzeko arazo bat zekarren, alegia, ureztatze-sistemak sortu behar ziren, kolonoek ingurune lehorretan bizitzeko modua izan zezaten. Indigenak beren lurretatik atera ondoren, lehen zeregina zen kolonizazioa bultzatzea. Politika federalek, hala nola 1862ko Jabetza Pribatuaren Legeak, mendebaldeko lur idorretan nekazaritza-ezarpenak eraikitzea bultzatu zuten, eta lur haiek ez ziren baliagarriak kolonoek ekialdean garatutako nekazaritza-tekniketarako. 1877ko Lur Mortuaren Legea trengintzako lobbyek bultzatu zuten; kolonoen ezarpenak sustatu nahi zituzten, horrek berarekin trenbideen beharra ekarriko zuelakoan, nekazaritzako produktuak garraiatzeko. Lege hark Jabetza Pribatuaren Legea zuzentzen zuen, eta diru federala ekarri zien mendebaldeko ureztatze-proiektuei. Esate batera, Northern Pacific Railway tren-konpainiak ere kolonizazio-bulegoak zabaldu zituen Alemanian, Suedian, Danimarkan, Norvegian eta Ingalaterran, europar migratzaileak erakartzeko Ipar Ordokietara eta, hala, trenbide bidezko garraioaren eskaera sustatzeko.²⁴⁰ Kontserbazio-politikaren ondorioz, zeina Theodore Roosevelt presidentek sustatu baitzuen mende hasieran, 1902an Lurren Berreskurapenerako Bulegoa sortu zen, mendebaldeko lur idorren ureztapena bermatzeko. Lur-politikak justifikazio legal bat eskaintzen zien kolonizazioaren eraso-tropa batzuetan fidagaitzei, hau da, kolono zuri europarrei. Kolonoen ezarpenek eta kolonoek berek «legezko» eta operatibo bihurtu zuten literalki gaur egungo uraren legea, zeina ur indigenaren lapurretaren menpekoea baita neurri handi handi batean.

Gobernu federalak ahalegin ekonomiko handia egin zuen «lur publikoak» «onura publikoaren» izenean eskaintzeko eta horren bidez zenbait alderdi sustatzeko, hala nola enpresa pribatua, arrazagatiko bazterkeria eta indigenen suntsiketa. Jabetza Pribatuaren Legearen bidez, milioi bat eta erdi familia zurik lur indigenen 246 milioi akreren jabetza-titulua eskuratu zuten –kasik Kalifornia eta Texas elkartuz lortzen den hedadura–, balio

240 Ikus James B. Hedges, «The Colonization Work of the Northern Pacific Railroad,» *Mississippi Valley Historical Review* 13:3, 1926, 311–42. or.

erantsi batekin, gainera: gobernu federalak diruz lagundutako ureztaketak. Gaur egun AEBn bizi diren helduen laurdena garai hartan Jabetza Pribatuaren Legearen bidez lursailen jabetza arrazializatu eskusiboaren ondarea eta mugikortasun ekonomikoaren ondarea profitatu zuten haien ondorengo zuzena da, eta ondare hark erabat bazterrean utzi zituen beltzak, indigenak eta beste herri ez-zuri batzuk.²⁴¹ Lur indigenen jabetza segurtatzeko eta lur horietatik belaunaldiz belaunaldi aberastasuna sortzeko, ezinbestekoa zen ur indigena erabiltzeko eskubidea izatea. Beraz, lur-politika bakar batek ondare politiko eta ekonomiko sakon iraunkorra izan du. Horrek gaur egungo desberdinkerien berri ematen digu, zeinak axioma bakar batean bil baitaitezke: lurra aberastasuna da, eta ura aberastasuna da. Pick-Sloan Plana, bere aldetik, engranajeak urarekin koipeztatzen dituen laborantza-makina kolonial erraldoi horren zati integral bat da. Gaur egun, AEBko mendebaldeko nekazaritzak ur-erabilera totalaren hiru laurden hartzen ditu.²⁴² Ura kolonialismoak bizirauteko behar duen odola da, herri indigenei etengabe erauzi beharreko odola.

Pick-Sloan Plana honela aurkeztu zuten, ureztatze-eskakizunei erantzuteko ezinbestekotzat. Nolanahi ere, ez zen izan Washingtoneko gobernu-bulego ilun batean bururatutako ideia bat, ondoren horren berririk ez zuten laborari-komunitateei jakinarazi beharrekoa. Estatuek, tokiko gobernuak, Armadako Ingeniarien Kidegoak eta beste agentzia federal batzuek ere bultzatu zuten Missouri ibaiaren garapena hainbat modutan, jardunbide horrek komunitate indigenentzat izango zituen ondorioei jaramonik egin gabe. 1944. urterako boterearen zatirik handiena autoritate federalen eskuetan bazegoen ere, «oinarrizko» erakundeek paper garrantzitsua jokatzeko zuten oraindik. 1941erako, deuseztatu egin zen Missouri Garaiko Bailarako Garapenerako Agintaritzak. Horren ordez, Missouri Ibaiko Estatuen Batzordea sortu zuten, Missouri ibaiaren arroan kokatutako estatuetako gobernadoreek osatutako erakundea. Argigarria da oso ezen batzorde harekin gogo onez bat egin zuten lehe-

241 Thomas M. Shapiro, *The Hidden Cost of Being African American: How Wealth Perpetuates Inequality* (New York: Oxford University Press, 2005), 190. or.

242 Char Miller, «Welcome to the Era of Scarcity» in *Water In the 21st-Century West: A High Country Reader*, ed. Char Miller (Corvallis, OR: Oregon State University Press, 2009), 303. or.

nengo estatuek (Hego Dakota, Ipar Dakota, Montana, Wyoming eta Nebraska) beren barruan hartzen dituztela Missouri ibaiak zeharkatzen edo inguratzen dituen hamahiru erreserba indiar (Omaha, Winnebago, Santee, Rosebud, Ponca, Yankton, Lower Brule, Crow Creek, Cheyenne River, Standing Rock, Fort Berthold eta Fort Peck). Aurrerago, Missouri, Kansas eta Iowa estatuek ere batzordearekin bat egin zuten. Horiekin batera, batzordean ordezkatuta zeuden, batetik, erakunde eta funtzionario federalak eta estatu- eta udal-agentziak, eta, bestetik, enpresak eta erakunde komunitarioak. Ibaiaren kanalizazioa batez ere ibaian beherako estatuentzat izan zen onuragarria, nahiz eta ibaian gorako estatuek jasan behar izan zuten zamarik handiena, han eraiki baitziren presa eta urtegi gehienak. Urpetu beharreko lur gehienak indigenak zirenez, Hego Dakotako eta Ipar Dakotako politikariak zama hori beren gain hartzeko irrikan zeuden. 1951n, balorazio-saio batean, Standing Rockeko presidente Josephine Kelly-k zalantzan jarri zuen Pick-Sloan Planaren alderdi hori, bereziki Oahe Presak Standing Rockeko lurra bereganatzeko zuen asmoa. Norbaitek galdetu zuen zergatik ez ziren eraikitzen presak behe-arroko estatuetan, haiek baitziren uholdeak kontrolatzeko ahaleginen onuradun nagusiak, eta Kellyk argi eta garbi erantzun zuen, Armadako Ingeñarien Kidegoaren eta autoritate federalen aurrean: «Inguru hartan ez dagoelako indiarrik».²⁴³

Estatu-batzordeak ez zuen behin ere eskatu eragindako erreserbetako ordezkari indigena bakar baten parte-hartzea edo ekarpena. Batzordeak Lurren Berreskurapenerako Bulegoarekin eta Armadako Ingeñarien Kidegoarekin batera lan egin zuen, eta hala egin zuen, haren kide M.Q. Sharpe-k zioen bezala, «[Missouri ibaiaren] garapen orokorrerako, hainbat xederekin: uholdeen kontrola, energiaren garapena, ureztapena, nabigazioa, lurraren kontserbazioa [eta] faunaren eta aisiaren garapena». Horrela jarraitzen zuen: «Ordurako, Missouri Ibaiko Estatu Batzordea egiazki bilakatua zen Missouri ibaiaren arroa garatzeko xedez zenbait lan egiten zituen batzordea –hala nola bailara guztia barne hartzen zuen plan orokorra ikuskatu, koordinatu, zuzendu eta ordezkatu–, eta arroaren inguruko estatu subirano guztiak ordezkatzeko zituen, haien estatus subiranoan eta modu erdi-

243 Hemen aipatua: Lawson, *Dammed Indians*, 102. or.

ofizialean».²⁴⁴ Hortaz, estatuen interesa ez zen soilik ibaiaren garapenarekikoa; indigenen autoritate politikoa erabat ezereztea ere proposatu zuten, kitatzearen bidez.

1933an, Fort Peck presa eraiki zuten Missouri ibaiak Montanan zehar egiten zuen ibilbidean, eta horrek aurrekari bat ezarri zuen, Armadako Ingeniarien Kidegoak ez zituelako inolaz ere aintzat hartu ez komunitate indigenak, ez itunak, ez ur-eskubideak. 1927ko uholde suntsitzaileen ondoren, Ingeniarien Kidegoak lau urteko azterketa hidrologiko sakon bat egin zuen Missouri ibaian. Azterketa haren emaitzak «308 Txostena» izeneko dokumentuan argitaratu ziren, eta dokumentu hura erreferentziazko eskuliburua bihurtu zen etorkizunean arroan gauzatuko ziren proiektu guztietarako; tartean, 1944ko Pick-Sloan Plana. Gainera, txosten hartan esaten zen Fort Peck zela urtegi erraldoi bat eraikitzeko kokalekurik egokiena (Fort Peck hori ez da nahasi behar Fort Peck izeneko erreserba indiararekin). Proiektu hura bat zetorren Itun Berrian aipatzen ziren laguntza-lerroekin eta obra publikoko proiektuekin, eta Franklin D. Roosevelt presidenteak biziki azkar baimendu zuen Fort Peck presaren eraikuntza, 1933ko Industria Nazionala Suspertzeko Legearen bidez. Beraz, Armadako Ingeniarien Kidegoak garai hartan munduko presarik handiena zena eraiki zuen, eta, hartan ari zela, hain beharrezkoa zuten enplegua eman zien 10.000 langile ingururi. Eskualde hartako istorioen arabera, presa ingeniaritza-alorreko maisulan historiko bat izan zen, eta esaten da funtsezkoa izan zela bai Montana bai eskualde hura Depresio Handitik ateratzeko. Fort Peck presarekin arrakasta izan zutenez, Armadako Ingeniarien Kidegoak Missouri ibaiaren adar nagusian xede anitzeko presa erraldoi gehiago planifikatu eta eraikitzeko aukera izan zuen, eta, Michael Lawson historialariaren arabera, «beren eskumen eta funtzioak muga konstituzionaletatik hagitzez harago eraman zituzten».²⁴⁵

Presaren historia maiz kontatzen da, eta oso ezaguna da; gainera, bedeinkapen ekonomikotzat eta ingeniaritza-lan miragarritzat jotzen da. Aitzitik, herri-kontakizun horietan azaltzen ez dena da inoiz kontatu gabeko historia, inon dokumentatuta

244 M. Q. Sharpe, «History of the Missouri River States Committee,» n.d., M. Q. Sharperen dokumentuak, 2. karpeta, 151. kutxa, Richardson Bilduma, Hego Dakotako Unibertsitatea, Vermillion, Hego Dakota.

245 Lawson, *Dammed Indians*, 9. or.

ez dagoena, hau da, nola atera zituzten Nakota, Dakota eta Assiniboine herrietako 350 familia Fort Peck erreserba Indiarretik eta nola urpetu zituzten Indiar Arazoetarako Bulegoak lehenago eraikitako ureztatze-proiektuak, laborari natiboek baliatzen zituztenak.²⁴⁶ Fort Peck proiektuak bidea zabaldu zien 1944ko Pick-Sloan Planari eta Uholdeen Kontrolerako Legeari, eta berriz ere antzeko prozesu bat gertatu zen: gerra osteko enplegua eta ibaia garatzeko proiektuak indiarren bizitzen eta lur indigenen bizkar sustatu ziren.

Gerra ostean izango zen enplegu-beharrari aurrea hartuz, eta uholde erraldoiak gertatu eta jarraian, 1944an Lurren Berreskurapenerako Bulegoak eta Armadako Ingeniarren Kidegoak, Missouri ibaiko estatuen ekarpen eta gidaritzarekin, bost lurrezko presa egiteko proposamena egin zuten, ibaiaren adar nagusian urtegi handiak sorraraziko zituztenak. Hego Dakota eta Ipar Dakota kontuan hartuta, presek 611.642 akre lur urpetu zituzten. Lur-eremu haren erdia baino apur bat gutxiago –309.584 akre– erreserba hauei zegokien: Yankton, Lower Brule, Crow Creek, Cheyenne River, Standing Rock, Rosebud, Santee eta Fort Berthold. Oahe presak Cheyenne River eta Standing Rock erreserbak urpetu zituen; Fort Randall presak, Yankton eta Rosebud; Fort Randall eta Big Bend presek Lower Brule eta Crow Creek erreserbak urpetu zituzten; Garrison presak, Fort Berthold, eta Gavin's Point presak, azkenik, Santee. Ondorioz, eta soilik bost erreserba horiek kontuan hartuta, 900 familia natibo baino gehiago lekualdatu zituzten indarrez, hau da, biztanleria osoaren heren bat. Komunitate batzuen lurak osorik urpetu zituzten. Komunitate indigenek ondotoxo ezagutzen zituzten Pick-Sloan Planean aurreikusitako presak, baina ezer gutxi zekiten haien kokalekuez eta ekarriko zituzten ondorioez. Gainera, komunitate batzuk bitan ere urpetu zituzten, eta bitan lekualdatu; horien artean, Crow Creek eta Lower Brule. Faunaren eta floraren %75 eta erreserba-lur haietako egur komertzialaren %90 suntsitu zituzten.²⁴⁷ Pick-Sloan Plana nazio indigenak suntsitzeko diseinatua zegoen.

246 Thurston, *River of Promise*, 82. or.

247 John Ferrell, «Developing the Missouri: South Dakota and the Pick- Sloan Plan,» *South Dakota History* 19, 1989, 309–315; Lawson, *Dammed Indians*, 41–3. or.

Garrison presak Fort Berthold erreserba urpetu zuen, zeinetan bizi baitziren Mandan, Hidatsa eta Arikara nazioak; guztira, 152.360 akre ito zituen. Lower Brule, Crow Creek, Cheyenne River eta Standing Rock erreserbetako biztanleen %30 handik atera zituzten. Garrison presak Oahe presak baino lur-eremu txikiagoa hartu bazuen ere, Fort Bertholdek lursailen laurdena galdu zuen; tartean, Elbowoods-en zeukan agentzia. Txikiagoa zenez eta biztanle gehiago bizi zirenez ibai-haranean, herritarren %80 inguru (325 familia) atera zituzten, eta laborantza-lurren %94 suntsitu.²⁴⁸ Ez ziren arduratu lur indigenetan ahalik eta kalterik txikiena eragiteaz. Aitzitik, mugaldeko Williston (Ipar Dakota) herri nagusiki zuriak lurrik galdu ez zezan, Armadako Ingeniariaren Kidegoak aldaketa batzuk egin zituen Garrison presan. Eta ibaian gora ere presa kontu handiz eraiki zuten, ez baitzuten nahi Bismarck urpetzerik, mugako herri nagusiki zuria hori ere, Ipar Dakota estatuko kapitala. (Era horretako kezkek erabili zituen Armadako Ingeniariaren Kidegoak Dakota Access oliobidearen egitasmoa landu zuenean: zuriaren kokalekuak ahalbait gutxien kaltetzea lehenesten zen). Fort Berthold erreserbaren lurren gainean dagoen urtegia Sakakawea Lakua izendatu zuten, hidatsek harrapatu eta saldu zuten xoxone emakumearen omenez, zeina ezaguna egin baitzen Lewis eta Clark espedizioari eta AEBren inperioari eskainitako zerbitzuengatik.²⁴⁹ Michael Lawson historialariaren aburuz, Pick-Sloan presek «lur indiar gehiago suntsitu zituzten AEBko obra publikoko ezein proiektuk baino».²⁵⁰

Lanniko Leek gogoan du nola elkartzen ziren ibaiertzetan gizon-emakume zahar eta gazteak, guztiak ere begiak malkoz beteak, ikusteko nola zihoan apurka zabaltzen Mni Sose edo Missouri ibaia, behatzeko nola hartzen zituzten urek mendi izurtuak isilka. «Batzuek dolu-kanta zaharrak abesten zituzten», dakar akordura. «Herritarrek ibai ondoko bizitza ezagutu zuten, eta bizitza hartara gerturatzen ari zen heriotzari abesten zioten». Leerentzat, ikuskizun hura lurra eta ura

248 AEBko Barne Saila, Indiar Arazoetarako Bulegoa, *Damage to Five Reservations from Three Missouri River Reservoirs in North and South Dakota* (Billings, MO: Missouri River Investigation Project, 1954), 22a.

249 Lawson, *Dammed Indians*, 52–3. or.

250 *Ibid.*, 47. or.

oinarri zituen identitate indiarrari buruzko galdera existenzial bat zen: «Gai izango ote ginen aurrerantzean ere geure burua Minnecoujou izendatzen jarraitzeko, hau da, ur ondoko landatzaileak?». ²⁵¹

Herri indigenek ibaiaren galera dolutzen zuten bitartean, AEBko presidente John D. Kennedy-k Oahe presaren eraikuntza ospatu zuen. 1962ko abuztuaren 17an presaren omenez Pierren-n (Hego Dakota) egindako zeremonian, Kennedyk milaka herritarren aurrean hitz egin zuen, tartean enpresariak, politikariak eta baita indigenak ere, zeinen lurak sakrifikatu baitziren. Salbazioaren mezua zabaldu zuen, argitasunaren garaipena iluntasunaren aurrean, zibilizazioa basatasunaren aurrean. «Presa hau eta ibai honetako gainerako presak», esan zuen, «zeinek orain dela 30 urte uholdeak eta iluntasuna soilik eskainiko baitzituzten, orain ureztapena eta argia eskaintzen dituzte». Armadako Ingeniariaren Kidegoak Kongresuaren aurrean esana zuen presek eragindako erreserbekin hitz egingo zutela, baina ez zuten sekula egin. ²⁵² Lur-jabe zurien kasuak banan-banan aztertu zituzten, kasuz kasu, eta Missouri ibaiko tribuak, berriz, erreserba bereizi gisa aztertu zituzten. Lur-jabe zuriek ez bezala, tribu bakoitzak diru-ordain orokor bat jaso zuen, hau da, ez zioten banaka ordaindu urpetzearen ondorioz lursailak galdu zituen kide bakoitzari. Gainera, erreserba bereizien sorrerak lehendik ere bortizki ahuldua zuen Oceti Sakowin jendeen batasun nazionala. Lursailen banaketak indibidualismoa areagotzen zuen, eta hautsi egiten zituen ahaide hurkoen familia-unitate estuki lotuak eta *tiospaye* izeneko harreman hedatuak; izan ere, lur-zati desberdinetan bakartzen zituzten, erreserba berean baina urruneko tokietan. *Tiospayea* Oceti Sakowin jendeen gobernantza-ereduaren oinarritzko unitate politiko bat zen, zeinean familia bakoitzak kolektiboki hautatzen baitzituen kontseilu orokorretan izango zituen ordezkariak. Garai batean, banakoak afiliazio politikoaren bidez identifikatzen ziren (adibidez, Hunkpapapa edo Sicangu); orain, berriz, erreserbaren bidez (adibidez, Standing Rock edo Rosebud). Pick-Sloan egitasmoaren kudeatzaileek ez zuen banan-banan negoziatzen lur-esleipen baten

251 Lee, «Ways of River Wisdom,» 37. or.

252 *Ibid.*, 40-1. or.

jabe izandako indiarrekin, baizik eta erreserba bakoitzarekin, eta, hala, sustatu egiten zuen erreserben, tribukideen eta gobernu tribalen arteko batasun eza.

Nolanahi ere, nazio indigenei auzoko zuriei baino diru gehiago eman zieten metro karratuko. Zergatik? Bada, ikuskapen federalaren bilurrei itzuri egiteko. Halaxe esan zuen Hego Dakotako kongresukide E.Y. Berry-k, 1954an Cheyenne River kokalekuan egin zen debate batean.²⁵³ Beste hitz batzuetan esanda, Berryk erreserbekiko loturak kitatu nahi zituen, eta bertan behera utzi itun bidezko betebeharrak, eta presek horretarako aukera aparta ematen zuten. Hartutako lur indigenei eta indiarren lekualdaketei buruzko lehen negoziazioetan, 34 milioi dolar adostu ziren honako bost erreserba hauentzat: Lower Brule, Cheyenne River, Crow Creek, Yankton eta Standing Rock. Baina, diruarekin batera, kateak ere etorri ziren, eta, azkenean, tribu horiek beren agintaritza politikoari uko egin behar izan zioten.

Artean ere hasierako kalteak kalkulatzen ari zirela, 1949ko azaroaren 2an BIAko superintendente Frell M. Owl-ek Lower Brule eta Crow Creek erreserbetako Kontseilu Tribalei idatzi zien, eta jakinarazi zien, beharbada lehenengoz, haien lurrak halabeharrez urpetu behar zirela. Jakina, bi tribuek bazuten Pick-Sloan proiektuaren berri, baina, nolabait esan, ez bata ez bestea ez ziren iritsi ulertzero horrek berekin ekarriko zuen hondamendia. Owlek esan zien Kongresuak Armadako Ingeniariei Kidegoari transferitu zizkiola Big Bend eta Fort Randall presak egiteko «behar» ziren lur guztiak. Bestalde, idatzi hartan ondoko hau ere gehitu zuen: «[zuen lurrak hartzeko proposamena] ez dizuegu bidali zuen onespena eskatzeko, baizik eta gutxi-asko etorkizunean etorriko diren gertakizunen berri izan dezazuen». Horrekin, nolabait, nabarmendu nahi izan zuen Lower Brulek eta Crow Creekek ez zutela ezer esatekorik gai hartan. Ondoren, Owlek negoziazio-prozesuaren berri eman zien: Ingeniariei Kidegoak lurra kondenatuko zuen, eta zuzenean negoziatuko zuen Crow Creekeko eta Lower Bruleko legezko kontseiluekin. Horren ostean, BIAk kalteen kalkuluak onartu eta bidaliko zituen, baina

253 E. Y. Berry, «Statements Before Congress,» *Congressional Record*, 83. Kong., 2. saioa, 1954, 13160.

negoziazioaren azken erabakia Kongresuarena izango zen, eta hark onartuko zuen kalte-ordainaren legea.²⁵⁴ Aurrera-atzerako prozesu luze hark ekarri zuen tribuek hiru erakunde desberdinekin negoziatu behar izatea –Armada Kongresuari Kidegoa, BIA eta Kongresua–, eta horrek halako atzerapenak eragiten zituen saioetan eta prozeduretan, non tribuek lurrak urpetu ondoren jaso baitzuten lekualdatzeari zegokion dirua.

1946an, BIAk bi urteko ikerketa-misio bat babestu zuen, Missouri Ibaiaren Arroaren Ikerketa (MRBI) izenekoa, balioeste-ko Missouri ibaiko tribuei eragindako kalteak eta lekualdatzeen, hartutako lurren eta «kalte ukiezinen» ordainetan eman beharreko diru-sariak. Prozesu hartan, «aukera bat» ikusi zuten indigenen «kanporatzean», «tokialdatzean» eta «birgaitzean», guztiak ere «kitatze»ren sinonimoak zirenak. Horrek natiboak bereiziko lituzke gainerako biztanleekin nahastea eta «egoera primitibo»tik harago joatea eragozten dien gauza bakarretik: erreserba eta lurrak. Argi esanda, presek kitatze- eta tokialdatze-prozesuak bizkortuko zituzten. BIAren ikerketak ondorioztatu zuen ezen kultura indigenak, pobreziaren kultura «autonomo eta berezkoa» zenak, estatuaren esku-hartze onginahizko baten eta zibilizazio-proiektu baten bila zebiltzala. Nazio indigenek nolabaiteko autonomia lortu zuten IRAren abaroan, baina, «demokraziaren oparia» jaso nahi bazuten, ezinbestean deuseztatu behar zituzten indigenen agintaritzak politikoa eta gobernu federalak fideikomisoekiko zituen erantzukizunak –eta, beraz, nazio gisa suntsituak izan behar zuten–.²⁵⁵

MRBI ikerketak erakutsi zuen bezala, ibai inguruko komunitate indigena gehienak «naturaren doako produktu»en menpeko ziren –ehiza, harrapaketa eta bilketa– behe-lur oparotan, non historian zehar lakota eta dakota ugarik kanpatu baitzuten. Beraz, kolonoek lur haiek hartzeak «[indiarrak] behartuko lituzke diru-sarrerak bilatzera, baldin eta dirutan jaso nahi bazuten une hartan ingurunetik jasotzen zituzten natura-baliabideen balioa».²⁵⁶ Bestela esanda, herri indigenek demokrazia

254 *Ibid.*

255 AEBko Barne Departamentua, Indiar Arazoetarako Bulegoa, Missouri Ibaiaren Arroaren Ikerketa, *The Indian and the Pick-Sloan Plan* (Aitortza, MO: Missouri Ibaia Ikertzeko Proiektua, 1954), 4–5.

256 *Ibid.*, 9. or.

erdiesteko zuten modu bakarra zen lehenik eta behin nazio gisa suntsituak izatea.

BIAk irudiarazi zuen ezen uholde-agentziek, zeinak erreserben egoitza nagusiak baitziren, aginpide diktatorialek askatzea zekartela. «Gure erakunde indiarrek mugatik eratorritako tumoreak dira», zioen txostenak. Hiriei «ez-demokratiko» zeritzen, eta esaten zuen haien akabera honela gerta zitekeela, «Gobernu Federalaren zerbitzu gehienak Estatuei transferituta». Itun bidezko betebeharrak (hau da, zerbitzu federalak: osasungintza, hezkuntza eta abar) estatuei transferitzea kitatze-prozesua gauzatzea da, 280 Lege Publikoaren arabera. Agentziak «deuseztatzea», ondorioztatzen zuen txostenak, «aukera bakan bat da, aurkikuntza esanguratsuak ekar ditzakeena, zeinek aplikazio zabala izango baitute Estatu Batuetan indiar arazoa bideratze-ko». Beste hitzez, demokraziaren barruan egindako esperimentu bat zen.²⁵⁷

«Bihotza erauzten die indiarrei», esan zuen kongresukide batek, legeriari buruz zintzoki ari zela. «Erreserbetako lurra hartzen badituzu, suntsitu egiten duzu ez soilik hartutako lurra, baizik eta baita bizitza komunitarioa ere, jendeen bizitza erlijioso eta zibila. Nazioak suntsitzen dituzu».

Agentziek nazio horien muina osatzen zuten. Ospitaleak, osasun-zentroak, eskolak eta administrazio-bulego guztiak –nazio subirano bat izaten jarraitzeko ezinbestekoak diren erakundeak, hain zuzen– agentzia-herrietan kokatuta zeuden. Merezki du kalteak osotasunean ikertzea.

Oahe presak erabat urpetu zuen Cheyenne Agentzia, Cheyenne ibaiko komunitaterik handiena. Agentziak 60 milia barrurago lekualdatu behar izan zuen, Eagle Butte larre-herri bakartura. 180 familia baino gehiago behartu zituzten etxeak uztera, agentziaren biztanleriaren % 30 inguru. Fort Yates, Standing Rockeko Agentzia, Oahe presak azpiratutako lurretatik kanpora geratu zen, baina Agentziazik beherako lurra urpean geratu zen, eta jende gehiena eremu hartan bizi zen. Ondorioz, Fort Yates uharte bilakatu zen, eta zubi bat eraiki behar izan zuten; 170 familia lekualdatzera behartu zituzten, erreserbako biztan-

257 *Ibid.*, 9. or.

leriaren %25. Crow Creeken, Fort Randall presak Fort Thompson urpetu zuen; Fort Thompson Lower Bruleko eta Crow Creekeko agentziaren egoitza zen, eta komunitaterik handiena; ondorioz, Crow Creekeko 84 familia, Lower Bruleko 35 eta Yanktoneko 20 ere lekualdatu zituzten. Crow Creekeko eta Lower Bruleko agentzia elkartuen egoitza Pierrera lekualdatu zuten, Hego Dakotako hiriburura, bi erreserbetatik 60 milia inguru iparrera. Osasunerbitzu indiarrek Chamberlainera lekualdatu zituzten –zuriak nagusi ziren mugako herri nabarmen arrazista–, hogeï milia hegoaldera.

Agentzietatik harago, gainerako erreserbetan eragindako kaltea ez zen izan lausoagoa. Presarik suntsikorrena Oahe izan zen: Standing Rockeko eta Cheyenne Riverreko 160.889 acre suntsitu zituen, horietatik 104.420 Cheyenne Riverreko lurak eta 55.994 Standing Rockekoak. Cheyenne Riverren hartu zituzten lurrik gehienak bazka-lurak ziren; Cheyenne Riverretik eta Standing Rocketik abeltzainen %75 eta %60 lekualdatu zituzten, hurrenez hurren. Oahe presa Pick-Sloan proiektuko presetan garestiena eta handiena izan zen: 346 milioi dolarreko kostuarekin, 245 oineko altuera du, eta 595.000 kilowatt energia hidrauliko sortzen du. Oahe urtegiak (Oahe Lakua) 250 miliako zabalera du Pierretik Bismarckera, eta 23,5 milioi acre-oineko bolumena; Eerie Lakua bezain sakona da, eta Ontario Lakua baino luzeagoa.

Presarik handienetan bigarrena Fort Randall da. 160 oin garai da, eta 21.497 acre suntsitu zituen. Crow Creekek 9.418 acre galdu zituen, eta laurogeita lau familia kanporatu zituzten; Lower Brulen, berriz, 7.997 acre galdu ziren, eta hogeita hamabost familia kanporatu zituzten; Yanktonen, 2.851 acre galdu, eta hogeï familia kanporatu; eta Rosebudek, azkenik, 1.231 acre galdu zituen. Fort Randallek 320.000 kilowatt energia hidroelektriko sortzen du, eta 200 milioi dolarreko kostua izan zuen. Fort Randall presak sortutako urtegiak Francis Case Lakua du izena (Hego Dakotako kongresukide baten omenez, ibaiaren garapeneren lehen babesleetako bat izan zena); 107 milia luze da, eta 5,7 milioi acre-oineko edukiera du.

Pick-Sloan Planaren testuinguruan eraikitako presen arte-tik, Big Bend da handienetan hirugarrena. Hura eraikitzeko, Crow Creekeko eta Lower Bruleko lurak urez estali zituzten, eta hango jendeak lekualdatu. Hura ingeniaritza-kalkulu ikaragarri ergel

eta krudela izan zen; izan ere, komunitate haiek lekualdatze baten ondorioz iritsi ziren lur haietara, Fort Randall urpean geratu ondoren. Beraz, bi erreserba haiek bi aldiz lekualdatu zituzten. Big Bend presa 94 oin luze zen, eta 468.000 kilowatt energia sortzen zuen; Fort Thompson herria kokatu behar zen tokian eraiki zuten, Crow Creek eta Lower Brule erreserben lurretan, bakoitzaren 20.478 akre urpetuz eta Lower Brule Agentziaren egoitza nagusia suntsituz. Lower Brulek 14.299 akre galdu zituen, eta 62 familia kanporatu zituzten, biztanleriaren erdia baino gehiago. Fort Randall presaren eraikuntzan Lower Brulen suntsitu ez zituzten etxaldeen erdiak Big Bend presa eraikitzean suntsitu zituzten. Crow Creekek 6.179 akre galdu zituen, eta 27 familia kanporatu zituzten. Big Bend presaren atzean dagoen urtegiak Sharpe Lakua du izena; izan ere, M.Q. Sharpe abokatu izendatuak Lower Brule eta Crow Creek tribuak ordezkatu zituen Pick-Sloan proiektuaren negoziazio-prozesuan. Bizi osoan erakutsitako konpromisoagatik –ez herri indigenekiko engaiamendua, baizik eta haien lurrak hartzearekikoa, urez estaliz–, Lower Brule eta Crow Creek tribuen lurren gainean datzan urak Sharpe betikotzen du.

Presarik txikiena, eta hegoalderen dagoena, Gavin's Point da, eta hura eraikitzeke Santee lurren 593 akre hektarea hartu zituzten. Gavin's Point presaren ondorioz Lewis eta Clark Lakua eratu zen; hau da, Oceti Sakowin jendeek «basatien arteko doilorrenetan doilorrentzat» jo zituzten bi esploratzaile estatu-batuarreri egiten die gorazarre.

Armadako Ingeniarien Kidegoa ohartzen zen Missouri ibaia kudeatu eta administratu beharreko arazo tekniko bat zela, baina, halere, MRBI ikerketak auzi eta arazo teknikoen multzo gisa aurkeztu zituen indigenen lekualdatzea eta horren ondoriozko trauma, zerbitzu federal eta estatalen administrazioak konpondu beharreko kontutzat. Arazo haietako bakoitzak irtenbide bat zuen, ondoren diruz ordaindu beharrekoa. Itxura batean, eta txostenak zioenez, ibai inguruko komunitate indigena gehienak «naturaren doako produktuen» menpekoak ziren, hala nola ehi-za, harrapaketa eta bilketa. Eta, ustez, harreman horrek eragotzi egiten zien indigenei merkatu-ekonomian erabat integratzea. BIAk honela argudiatzen zuen: behe-lurrak kenduz gero, «[indiarrek] ezinbestean bilatu beharko dituzte diru-sarrerak, baldin

eta dirutan berdindu nahi badute une honetan inguruneak eskaintzen dizkien natura-baliabideen bidez lortzen dutena». «Diru-sarrera» horretan ez zuten kontuan hartzen soilik herri-tarren soldatapeko lana; irabaziak baino gehiago, kontsumorako biltzen zuten uzta hartzen zuten kontuan. Baliabideak «ukigarri» eta «ukiezin» gisa katalogatzeak diru-ekonomiaren parametroen arabera pentsatzera behartuko zituen indigenak, alde batera utzita gainerakoan «doako»tzat eta, ongi kudeatuz gero, natural-ki berriztagarritzat jotzen ziren produktuekiko menpekotasuna. «Aurrerantzean, urtegiek suntsitutako produktu natiboen orde-zkoak dirutan ordaindutako produktu komertzialak izango dira», arrazoitu zuen MRBI ikerketak.²⁵⁸

1958an, Oahe presari buruzko kongresu-saio batean, Standing Rockeko kide Louis Thief-ek alderaketa bat egin zuen bi hauen artean, batetik, «kalte ukiezin»en zorigaiztoko eragina, eta, bestetik, bomba atomiko baten leherketa luzatua, denboran eta espazioan apurka gertatzen dena, ez lipar batean, lurra betiko suntsituz, eta zeinaren ondorioak etorkizuneko belaunaldiek soil-lik ulertuko baitituzte osotasunean. Bomba hark merkatu-baliorik gabeko «gauza txikiak» hil zituen, hala nola sagu-babarrunak, lehenago ere indigena asko gosez hiltzetik salbatu zituztenak, edo *makatomnica* (lakota hizkuntzan), hots, lur artean aurkitzen diren babarrunak, kultura indigenan oso estimatuak direnak. La-kota eta dakota emakumeek berariaz sortutako kantuak abesten zituzten, saguei baimena eskatzeko beren babarrunak hartzeko eta, era berean, haiei agintzeko opari egokiak utziko zizkietela trukean. Babarrunak proteina-iturri nagusia ziren familia asko-rentzat, eta gaur egun ia desagertuta daude.²⁵⁹ Thiefek azaltzen zuen nola haren aurreko neguan gizon batek sagu-babarrunen ale batzuk atera zituen lurpetik, eta nola horrekin nahikoa izan zuen bi astez estutasunetik ateratzeko eta bere familia gosez hilt-zetik libratzeko».²⁶⁰

258 AEBko Barne Arazoetarako Departemantua, Indiar Arazoetarako Bulegoa, *Damage to Five Reservoirs from Three Missouri River Reservoirs in North and South Dakota* (Aitortza: Missouri Ibaiaren Arroaren Ikerketa Proiektua, 1954), 71. or.

259 Mary Annette Pember, «Mouse Beans: More than a Reliable Food Source,» *Indian Country Today*, 2017ko abuztuak 29, indiancountrymedianetwork.com.

260 AEBko Kongresua, Indiar Arazoetarako Ganberako Azpibatzordea, Barnealdeko eta Uharteetako Arazoetarako Batzordea, *Compensation to Indians of the Standing Rock Sioux Reservation* (argitaratu gabeko saioa), 85. Kong., 2.saioa, 1958, 239–40. or.

Faunaren eta floraren eta lorategien galerak osasunean ere izan zituen eragin kaltegarriak. Presak eraiki aurretik, ez zegoen diabeterik. Presak eraiki ondoren, diabete-tasak izugarri igo ziren. AEBko Nekazaritza Sailaren oinarritzko elikagaiek –hala nola haragi eta barazki ontziratuak, irin zuriak eta azukre zuriak– elikagai osasuntsuak ordeztu zituzten. Ibai bazterretako paisaia «zibilizatzean», alde batera utzi zen barazki eta haragi-giharrez osatutako dieta osasungarria, eta karbohidrato, azukre eta gantz ugariako dietarekin ordeztu zen, zeinak belaunaldi guztiei eragiten dieten osasun-arazoak ekarri baitzituen.²⁶¹

Thiefen lekukotasunak gogorazi zuen ezen Missouriko komunitate indigenak «energiaren alde sakrifikatuko zonaldeak» ere badirela. Termino hori Zientzien Akademia Nazionalak erabili zuen lehen aldiz, Nixon-en garaian, Nevadan proba nuklearrak egiteko hartu ziren xoxone eta paiute lurraldeak deskribatzeko. Ez ironiarik gabe, AEBko Energia Sailak 1.360 milia karratuko «erreserba» sortu zuen, non 928 bonba nuklear leherrarazi baitzituzten, eta Proba Eremu hura munduko tokirik bonbardatuena bihurtu. Desberdintasun bakarra zegoen: Nevadako Proba Eremuaren helburua zen atomoak energia nuklear bihurtzea; Pick-Sloan Planarena, berriz, ura energia hidrauliko bilakatzea. Biek eragin zituzten ezin bizitzeko paisaiak. MRBI ikerketaren bidez kaltearen kostua kalkulatzeko saiatu ziren, baina lurraren balioa ezin izango zen sekula ordeztu.

Era berean, jokoan zegoen etorkizunean indigenen biziei utsiko zien bizitza-molde bat, familiak gosez hiltzea eragotziko zuena. Alde horretatik, presak etorkizuneraino iritsi ziren, bizitza gizatiarra eta ez-gizatiarra hartzeraino, eta haren erreproduktzio-potentziala ito zuten, literalki. Egindako kalkuluak ez zegozkien berehalako kalteei, baizik eta etorkizunekoei, eta horrek agerian uzten zuen MRBI ikerketako taldeari ezinezkoa zitzaiola giza-bizitzez gaindiko beste bizitza-mota batzuekiko loturak egitea. Oceti Sakowin herrientzat, beren etorkizunaren truke konpentsazio bat eman nahi izatea ez zen kontu berri bat. Muino Beltzen legez kanpoko anexionean ere, funtzionario federal batek 6 milioi dolar eskaini zizkion Hodei Gorri trukean. Hodei

261 Lisa Jones, «A Dam Brings a Flood of Diabetes to Three Tribes,» *Indian Country Today*, 2011ko uztailak 6, indiancountrymedianetwork.com.

Gorrik ezetz esan zuenean, funtzionarioak Muino Beltzen balioaz galdetu zion. «Muino Beltzen balioa zazpi belaunaldiren parekoa da niretzat», erantzun zuen Hodei Gorrik.²⁶² Beste hitzez esanda, kontua ez zen dirua, ezpada etorkizun bideragarri bat, eta hori ez zen inondik ere kuantifikagarria. Ez zen soilik nork bere lurrrak lagatzea, baizik eta baita norberak etorkizunean lurrarekiko izango zuen harremana lagatzea ere. Honela azaldu zuen Lower Bruleko Kontseilu Tribaleko kide Richard LaRoche Jr.-k Kongresuaren aitzinean, 1955ean:

Zalantza egiten dugu lur honi arrotz zaion ezein talde, tasatzaile gisa nolabaiteko trebetasuna izanda ere, gai izango ote den hona etorri eta lur honen benetako balioak aurkitu eta horiek zehaztasunez balioztatzeko. Gu lur honekin bizi izan gara, lur honen zati baten jabe gara, eta bizitza osoa daroagu lur hau lantzen; eta, gure ustez, zuek baino egokiagoak gara bere egiazko balioa kalkulatzeko.²⁶³

BIAk gauza «ukiezin»en galera konpentsatu nahi zuen, hala nola sagu-babarrunak, basa-okaranak, Virginiako gereziak, *sepherdia* zuhaixka, basa-ehizakiak, sendabelarrak eta sutako egur oparoa; eta, horretarako, uste izaten ari zen berdindu egin zitezkeela «basa-produktuen balioa eta janari-denda batena, hartara bigarrenak lehenak ordezkatu ahal izateko».²⁶⁴ Baina galdutako «basa-produktu»etako asko funtsezkoak ziren urte-sasioarekin lotutako zeremonietan. Emakumeen adin-nagusitasuna ospatzeko, adibidez, Virginiako gereziak erabiltzen ziren; baina, urpetzearen ondoren, gerezi haiek ez ziren sekula berriro haziko Lower Bruleko lurretan, eta, beraz, zeremonia hura ezin izango zen berriro egin. LaRoche suminduta zegoen hori azaldu behar zuelako eta galdutako erritu zeremonialei diru-balio bat esleitu behar zielako. «Tira, gizon zuria ez zen sekula kezkatu horrelako gauzez; zer zenik ere ez zekien».²⁶⁵

262 Hemen aipatua: Edward Lazarus, *Black Hills/White Justice: The Sioux Nation versus the United States, 1775 to the Present* (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 1999), 121. or.

263 Lower Brule Sioux Tribe, Kongresuko entzute-saioak, 1955, Richard LaRoche Jr.-ren adierazpena Ordezkarien Ganberan, Ganbera Batzordearen aurrean. 3544 (S. 953), 1955eko ekainak 23, Sharperen dokumentuak, 184. kutxa.

264 *Damage to Five Reservations*, 13. or.

265 George Estes eta Richard Loder, *Kul Wicasa Oyate* (Lower Brule, SD: Lower Brule Sioux Tribe, 1971), 70. or.

1958ko kongresu-saio batean, non hitz egin baitzuten Oahe presaren ondoriozko lekualdatzeari eta Standing Rock birgaitzeari buruz, Josephine Kelly –ordurako jada ez zen Standing Rockeko presidentea– atsekabeturik agertu zen, AEBko gobernuak eta Armadako Ingeniariaren Kidegoak hitzarmenak mespretxuz tratatu zituztelako. Gizonezko kongresukide zapuztuek larderiaz esan zioten hitzarmenaren bidez indigenek maileguak erdietsiko zituztela, nekazaritza eta komunitatea garatzeko. «Ez dugu nahi mailegurik», ihardetsi zien Kellyk. Orduan, kongresukideak mailegua eta Santa Klaus-en opariak alderatu zituen, Kelly ume mizke bat izango balitz bezala. «Siux indiarrok ere izan gara Santa Klaus. Uko egin genien gureak ziren Muino Beltzei, uko egin genien gure lurrei», erantzun zuen, «eta orain soinean daramaguna besterik ez daukagu, arlote-aldra baten gisan, eta hori oso tristea da».²⁶⁶

Bost axola. Nola giza bizitzak hala animalienak, azaldu zuten BIAko funtzionarioek zakarki, «goi-lurretako ordoki zabaletan lehengoratu beharko dute, non klima ez baita hain abegitsua, ezpada latzagoa».²⁶⁷ Eta lurraren galera «merkatu-balio justu» baten bidez berdintzea erabat ezinezkoa zen; izan ere, lur abegikorragoen eskaera bat-batean igo zenez, gora egin zuten baita bai eraikinen prezioek bai rantxorik onenak eskuratzeko lehiak.²⁶⁸ Ondorioz, familia askok diru gisa jasotako konpentsazioaren pentzura biziraun behar zuten, baina diru hori beren etxeak urpetu ondoren jasotzen zuten, eta, beraz, «arrisku handia zuten sosik eta etxerik gabe amaitzeko».²⁶⁹ Eta hala gertatu zitzairen askori. Michael Lawson-ek ezagunegia den eszena bat deskribatzen du, Standing Rocken gertatu zena eta Lower Brule eta Crow Creek erreserbetan ere bizi izan zutena:

1960 urtarrilean, Armadako Ingeniariaren Kidegoak azkenean ere hitzarmenean jasotako diru-funtsak Standing Rocki bidali zizkionean, berehala alde egiteko agindua ere eman zien. Dakotarako ohikoa zen negu gorri baten erdian, tenperaturak zero azpitik hogeita hamar gradura iristen zirela, Oahe erreserbaren esparruan bizi ziren familia tribalek beren ondasun guztiak bildu eta beren lurra utzi behar izan zituzten. Gobernu

266 *Compensation to Indians of the Standing Rock Sioux Reservation*, 239–40. or.

267 *Damage to Five Reservations*, 8. or.

268 *Ibid.*, 11. or.

269 *The Indian and the Pick-Sloan Plan*, 7. or.

federalaren funtsak oraindik ez zeuden erabilgarri etxe berriak eraikitze-ko edo jendea etxebizitza zaharretan birkokatzeke, eta, beraz, indiarrek karabana hotz eta hitsetan pilatu ziren, gastuak beren bizkar hartuta, etxebizitza iraunkorrak prestatu arte.²⁷⁰

Presek promestu zuten lurra suntsituz nazio indigenen heriotza ere bizkortuko zutela, baina ez zuten halakorik lortu, Oceti Sakowin jendeek gaitasun handia erakutsi baitzuten mobilizatzeko, elkarganatzeko eta kitatze-legeari aurre egiteko; ez behin, baizik eta bitan. Nolanahi ere, lan malkarra baino malkarragoa izan zen. Pick-Sloan Planari buruzko lehen negoziazioetan, Oceti Sakowin jendeen «alde» agertu ziren politikari gehienak kitatzearen defendatzaile sutsuak ere baziren, eta Pick-Sloan Planaren babesleak. Haien artean zeuden, besteak beste, Hego Dakotako kongresukide ziren Karl Mundt, E.Y. Berry eta Francis Case; Lower Brule eta Crow Creek erreserbetako lege-aholkularia, M.Q. Sharpe; eta Indiar Arazoetarako burua, Dillon Myer. Indiar Arazoetarako Bulegoaren ardura hartu zuen unetik beretik, Myerrek hankaz gora jarri nahi izan zituen John Collierrenengandik jasotako ondare aurrerakoiak –hark ahalbidetu zuen IRA legea–. Gainera, Myer gizon perfektua zen nazio indigenen eraispinari ezikusia egiteko. Franklin Roosevelt presidenteak Gerrako Presoak Kokatzeko Agintaritzako zuzendari izendatu zuen, eta gogotik saiatu zen bere zereginean, Bigarren Mundu Gerran 100.000 japoniar eta japoniar estatubatuar baino gehiago espetxeratu baitzituen kontzentrazio-esparruetan.

Berehalako urpetzeari aurre egin behar izatea gutxi ez-eta, Lower Brule eta Crow Creek erreserbek negoziazio-prozesuan zuten ordezkaria Pick-Sloan Planaren eta kitatzearen defendatzaile sutsua zen. 1951ko ekainean, Lower Brule eta Crow Creek erreserbetako agentzia bateratuek M.Q. Sharpe izendatu zuten lege-aholkulari, erreserbetatik gertu jarduten zuelako eta harreman politikoak zeuzkalako Kongresuan eta agentzia federaletan; eta, batez ere, ordainsariari begiratuta abokaturik arrazoizkoena zelako. Indiar Arazoetarako arduraduna zen Dillon Myerrek ez zuen onartu Crow Creek erreserbak aparteko lege-aholkulari bat kontratatzea, haiek Lakota herriko Ramon Roubideaux

270 Lawson, *Damned Indians*, 182. or.

abokatua hautatua zutelako lehenagotik.²⁷¹ Bi erreserbetarako lege-aholkulari bakarra hautatzeko prozesuak huts egin eta negoziazio-prozesua atzeratu zenean, Myerrek zuzenean esku hartu zuen, eta berak hartu zuen erabakia.²⁷² Negoziazioan zehar, Myer bera eta Hego Dakotako politikariak behin eta berriro saiatu ziren elkarriketak kitatzerantz bideratzen.

Orduan arazo bat sortu zen. Agentziaren egoitza –hau da, IRA legearen babesean sortutako gobernu tribalaren bulegoa– erreserbetatik kanpora mugitu nahi zuten, zuriak nagusi zirenan inguruko herrietara. Mugimendu horrek bi helburu beteko lituzke: batetik, kitatze-prozesurako eredia izango litzateke; bestetik, indigenak inguruko komunitate zurietara aldatzeko prozesua abiaraziko litzateke. Berryk eta Myerrek adierazi zuten mugako Chamberlain herri nagusiki zuriko buruek beren herria eskaini zutela Lower Brule erreserbaren balizko kokaleku gisa. Mugimendu hark, idatzi zion Myerrek Barryri abuztuaren 31n, «eragozpen batzuk ekar liezazkieke indiar batzuei», baina, luzera begira, «orain beren arazo txiki zein handiak agentziako superintendenteari ekartzen dizkieten indiarretako askok ezinbestean hasi beharko dute arazo horiek beren kabuz konpontzen». Fort Randall presaren eraikuntza bukatzea, jarraitzen zuen Myerrek, «lehen urratsa izan liteke indiarrek asimilazio- eta integrazio-maila handiagorantz» bultzatzeko, «erreserbetan ohikoa» zen «bizimodu hertsia eta endogamikotik urrun».²⁷³

Herriko agintari zuriek oldarka erantzun zuten. Chamberlain herria Brule barrutiaren administrazio-zentroa zen, eta barrutiko ordezkariak ebazpen bat onartu zuten, BIA eta Kongresua egiten ari ziren ahalegina zapuzteko; izan ere, BIAk eta Kongresuak eskola publikoetan eta oro har komunitatean integratzera behartu nahi zituzten Lower Brule eta Crow Creek erreserbetako kideak. Eta horrek, ordezkariak argudiatzen zuten, «zama ekonomiko jasanezina ekarriko lioke Hego Dakotako Brule Barrutiari».²⁷⁴ Chamberlaineko alkate Herschel V. Melcher-ek are hizkera mehatxuzkoagoa erabili zuen 1954ko martxoaren

271 «Joint Meeting of the Lower Brule and Crow Creek Tribal Councils»-eko aktak, 1951ko ekainak 22, Sharpen paperak, 184. kutxa.

272 Alice H. Jandreauk Sharperi, 1951ko azaroak 17, Sharpen paperak, 184. kutxa.

273 Dillon S. Myer-ek E. Y. Berry-ri, 1951ko abuztuak 31, E. Y. Berryren dokumentuak, Black Hills State University, Spearfish, Hego Dakota.

274 Brule barrutiko ordezkariaren mozioa, 1951ko abenduak 5, Berryren dokumentuak.

30ean Caseri eta Berryri bidalitako gutunean; izan ere, gogorarazi zien ez hiriei ez estatuei, baizik eta gobernu federalari zegokiola «indiarrei laguntzearen zama» bere gain hartzea.²⁷⁵ «Inolaz ere ez diegu utziko indiarrei hemen inguruan ibiltzen. Ez dugu haiekin bizi nahi, ez ditugu nahi gure eskoletan», idatzi zuen. Berantetsia, beste eskutitz bat bidali zuen handik eta bi aste eskasera, arrazagatiko indarkeriarekin mehatxu eginez. «Jabetzaren bat alokatzen dien orok helbidea aldatu beharko du, eta ez nuke nahi haien eraikinaren aseguratzailea izatea. Ez zaigu iruditzen hiri hau halako anabasa batek hondatu behar duenik, eta ez dugu isilik geratzeko asmorik».²⁷⁶

Crow Creek eta Lower Brule ere lekualdatzearen aurka agertu ziren; horretarako, ebazpen bat onartu zuten, zeinaren bidez eragotzi egin baitzioten Myer ordezkariari tribuen lege-aholkularitzaren eskaria oztopatzea eta negoziazioak abiatzea Kongresuarekin eta Armadako Ingeniarien Kidegoarekin.²⁷⁷ Baina Myerrek ez zuen onartu ez proposatutako lekualdatzea bertan behera uztea, ez tribuek beren lege-aholkularia hautatzea, ez berehala negoziazioak abiatzea Fort Randallen aldarrikapenak bideratzeko. Ezespren horrek kitatzearen akats handiago bat azalerazi zuen, kolonialismoaren «Indiar arazoaren» ezaugarri iraunkor bat: kolono zuriek lur indigenak nahi dituzte, baina ez dute nahi indigenarik. Tribuen lurak suntsitu ondoren, agentzia federalek estrategia ez-interbentzionista bat abiatu zuten tribuekin; BIAk eta Kongresuak jokabide bat gomendatu zuten, eta gero atzera egin zuten, jada kinka larrian zeuden komunitate indigenak bakarrik utzita, beren kabuz borroka zitezen burokrazia federal indartsuen aurka eta etsaikeria bortitza erakusten ari ziren zurien kontra. Utzikeriaren taktika zen. Pick-Sloan Planak natiboen lekualdatze eta asimilazio behartuarekin esperimentatzeko aukera ekarri zuen, hau da, gobernu federalaren zaintza-erantzukizuna alde batera uzteko bidearekin. Espe-

275 Edward C. Valandra, *Not Without Our Consent: Lakota Resistance to Termination, 1950–59* (Chicago, IL: University of Illinois Press, 2006), 79. or.

276 Melcherrek Berryri eta Caseri, 1954ko apirilak 14, Berryren dokumentuak.

277 Herbert Wounded Kneek E. Y. Berryri, Crow Creek Sioux Tribe, «Resolution Opposing Moving the Agency» eta «Resolution Urging Prompt Opening of Negotiations with the Crow Creek Tribe» dokumentuaren zirriborroa, 1951ko abuztuak 27, Berryren dokumentuak.

rimentuak huts egin zuen azkenean, baina kitatzearen gaiak mahai gainean jarraitu zuen.

1957an lege-proiektu bat aurkeztu zen Hego Dakotako legebiltzarrean, dakota eta lakota lurren gaineko jurisdikzio penala eskuratzeko, baina Oceti Sakowin jendeak lege haren kontra borrokatu ziren. 1958an erreserban egindako erreferendumean, lurrak Hego Dakota estatuaren barruan zeuzkaten lakota eta dakota gehienek ezezko biribila eman zioten jurisdikzio estatalari.²⁷⁸ Baina garaipen hark ibilbide laburra izan zuen. 1963an, Hego Dakotak legedia berria onartu nahi izan zuen, 280 Lege Publikoaren babespean gobernu tribalak uzkailezko edo erorarazteko. Izan ere, lege publiko hark esaten zuenaren arabera, lege berri bat onartzeko ez zen ezinbestekoa herri indigenen berehalako onespina; aitzitik, legeak baimena ematen zien estatuei autoritate indigena berenganatzeak ekarritako kostu ekonomiko guztiak beren gain hartzeko. Aste batzuen buruan, Oceti Sakowinek Sioux Tribuen Batasuna (UST) sortu zuen, eta 20.000 sinadura baino gehiago bildu zituzten, legedia estatu-mailako erreferendum batean bozka zedila eskatzeko. 1964an, USTk komunitate natiboak eta ez-natiboak mobilizatu zituen, jurisdikzio estatalaren «bidezketasuna» aipatzen zuen publizitate-kanpaina burutsu bat eginez kalean eta komunikabideetan. Historikoki, Hego Dakotak indiarren aurkako etsaigoa erakutsi zuen behin eta berriro, eta, beraz, indiar gutxi ziren estatu-mailako politikan parte hartzen zutenak; halere, Hego Dakotako natiboen %90 inguru joan ziren botoa ematera. Erabateko garaipena lortu zuten, estatu osoan %80 inguru alde agertuta (hau da, kitatzearen aurka).²⁷⁹ Hego Dakota indiarren guztiz aurkakoa zen, eta, gainera, haien erreserbetako lurrak hartu nahi zituen, baina, araubide federaletik «askatzen» bazituzten, ezin izango zuen haien ardura hartu, kitatzearen eta estatu-jurisdikzioaren «zama» ekonomikoa gehiegizkoa izango litzatekeelako. Nola-nahi ere, plebisituaren garaipenak bertan behera utzi zuen kitatzearen agenda, eta agerian utzi zuen Oceti Sakowin jendeen erresilientzia.

278 Valandra, *Not Without Our Consent*, 221–30. or.

279 Charles Wilkinson, *Blood Struggle: The Rise of Modern Indian Nations* (New York: Norton, 2005), 123–5. or.

Halere, Pick-Sloan presek hor diraute; egitura disruptiboak dira ibaiaren paisaian, eta ez da erraza jakitea zer inpaktu izango duten epe luzean. Rob Nixonek dioenez, zaila da ingurumenaren suntsipena ulertzea, baita klima-aldaketa ere, denbora luzez gertatzen direlako. Indarkeria berehalakotzat jotzen da maiz, apartekotzat, ikusgarritzat, XIX. mendeko Indiar Gerretan gertatu antzera. Nixonentzat, ordea, ingurumenaren degradazioa «indarkeria mantsoa» da: «ez ikusgarria ez berehalakoa» ez den indarkeria.²⁸⁰²⁸¹ Beharbada, Pick-Sloan egitasmoaren helburu esplizitua ez zen gobernu tribalak uzkailezea, baina, edozelan ere, «indarkeria mantsoa» eragin zien indigenei nazio burujabe gisa, eta ez soilik kultura bezala. Nazio horietako jendeek janaria behar dute, aterpe bat, berotasuna, segurtasuna eta zaintza; eta, horiek gabe, nazioei ezinezkoa zaie beren burua erreproduzitzea edo berek hautatu bezala bizitzea. Eta kontua ez da soilik kulturalki bizirautea, hori baino askoz gehiago da; kultura berpizteak, garrantzitsua izanik ere, ez ditu berarekin ekarriko ebatsitako lurrrak, zeinek garai batean janaria, arropak, aterperako materiala eta sendagaiak eskaintzen baitzizkieten. Mni Soserekiko konexio kultural eta espiritual orok konexio material bat zekarren berarekin: ibaiari esker, jendea ez zen gosez edo hotzez hiltzen.

Herri indigenak kultura baino gehiago dira, nazio burujabeak dira. Kulturari soilik pentsatuz gero, agentzia historiko gisa, bizitza indigenaren errealitate espezifikoa alde batera uzteko joera izaten da. Nixonek dioenez, «indarkeria mantsoa» ingurumen-kutsaduraren bidezko indarkerien metaketa jarraitu bat da –gutxiakako metaketa–, eta irakurketa horrek Pick-Sloan Planaren inpaktu iraunkorra ulertzen laguntzen digu. Baina beste metaketa-mota bat ere badago, beti ikusgarria ez dena, ezta berehalakoa ere, baina, halere, ezereztearen amaiera ezinezko bihurtzen duena: erresistentzia indigenaren tradizioa. Metaketa hori kontzientzia erradikal bat eta praktika politiko bat da, historian eta tokian erabat errotuta dagoena, eta ezin da besterik gabe irauli dekretu kolonial baten bidez edo urez estalita. Ezin da erail. Aurre egiten dio okupazio kolonialaren joko luzeari. Pick-Sloan egitasmoaren eta huts egindako kitzatze-proiektuaren ondorioz,

280 Jatorrizkoan, honela: «(...)a violence that is neither 'spectacular [n]or instantaneous.'» (I.o)

281 Rob Nixon, *Slow Violence and Environmentalism of the Poor* (Cambridge, MA: Harvard University Press, 2013), 2. or.

sorlekutik kanporatua eta hiri batera lekualdatua izan zen belau-
naldi gazte berri batek Red Power-en erantzukizuna hartu zuen
arbasoen izenean, eta askatasuna eta justizia aldarrikatu zituen
desjabetze-historia honen aurrean.



Uraren Babesleen protesta Etxe Zuriaren kanpoaldean, Nazio Natiboen Altxamenduaren aldeko manifestazioaren eta kontzentrazioaren karietara. 2017ko martxoan. Egilearen argazkia.

BOST

RED POWER

Ezin dute gerarazi haizea eta ezin dute gerarazi euria. Ezin dute gerarazi lurrikara eta sumendia eta tornadoa. Ezin dute gerarazi indarra.

John Trudell, «We Are Power», Muino Beltzen Biziraupenerako Topaketa, Hego Dakota, 1980ko uztailaren 18a²⁸²

1960ko hamarkadan, herri indigenen askapenaren aldeko zenbait ikusmolde desberdin elkartu, eta Red Power mugimendua sortu zuten. 1970eko hamarkadan, Oceti Sakowin jendeentzat AEBko Indiarren Mugimendua (AIM) bilakatu zen militantziaren abangoardia, Laramie Gotorlekuko 1868ko Itunari eta indigenen naziotasunari zegokienez. Suntsiketa-politiken eta lekualdatzeen ondorioz, baita Missouri ibaian presak eraiki eta lurrak urpetzearen ondorioz ere, milaka indigena erreserba landatarretatik kanpora atera zituzten indarrez, eta urrutiko hiriguneetan sakabanatu. Haietako askok lotura zuzena ikusi zuten Pick-Sloan Planaren eta lekualdatze-politiken artean; izan ere, Pick-Sloan egitasmoak erreserba-lurrak bereganatu zituen 1950eko eta 60ko hamarkadetan. «Missouri ibaiaren ondoan hazi nintzen», adierazi zion Madonna Trumoi Belatzek *Indian Country Today* astekariari, «eta lurra desagertzen ikusi nuen urez estali zutenean». Cheyenne River erreserban bizi zen, eta Oahe presak urez estali zizkion etxea eta komunitatea. «Ezin izan ditut eraman nire seme-alabak eta bilobak ni hazi nintzen tokira, eta hori da, ziurrenik, aktibismora bultzatu ninduen gertaerarik

282 John Trudell, «We Are Power,» *History Is a Weapon*, historyisaweapon.com/defcon1/trudellwearpower.

garrantzitsuen».²⁸³ Gero AIMrekin bat egin zuen, 1969an mugimenduak Alcatraz hartu ondoren. Laurogeita bederatzii egunez, San Frantzisko badiako espetxe-uharte federala okupatu zuten, eta horrek protesta-mugimendu militante baten hasiera ekarri zuen. «Bonba bat erortzea legez izan zen, gu metrailaren antzera sakabanatu gintuena», gogoratzen du AIMko militante Lakota Harden-ek, Lakota eta Ho-Chunk herrietako kidea bera.²⁸⁴ Metraila hura bizimodu natiboa zen, eta, aktibismo erradikal bihurturik, hainbat tokitara zabaldu zen, hala nola Minneapolis, Chicago, San Frantzisko, Cleveland, Los Angeles, Denver eta beste hiri handi batzuk.

1973an, Trumoi Belatzek AIM mugimenduaren lider eta mediku gisa jardun zuen Wounded Knee armen bidez hartu zutenean. Emakume harentzat, baina, zereginik gogorrena okupazioaren ondoren etorri zen, bere ekarpena ezinbestekoa izan baitzen hainbat kontu antolatu eta martxan jartzeko: Wounded Kneeren Defentsa/Eraso Juridikorako Komitea, ekintza haren ondorengo errepresio juridikoari aurre egiteko; Gogoan Izango Dugu Biziraupen Eskola, gazte natiboei hezkuntza alternatibo bat eskaintzeko; Indiar Itunen Nazioarteko Kontseilua, Nazio Batuetan indigenen itun-eskubideen alde lan egiteko; Nazio Gorrri Guztietako Emakumeak, emakume indiar amerikar guztiak erreproduzio-osasunaren inguruan antolatzeko (besteak beste, legez kanpoko esterilizazioa eta lur indigenen kutsadura); eta Muino Beltzetako Aliantza, natiboen eta ez-natiboen artean sortua, Muino Beltzetako uranio-meatzaritza gerarazteko. Lakota Harden mugimenduaren barruan bihurtu zen adinez nagusi, baita haren ahizpa Marcella Gilbert ere (Trumoi Belatzen alaba). Harden, Gogoan Izango Dugu eskolako ikasle zelarik, hango liderra ere izan zen. Emakume haiek guztiek indiar politika genoziden inpaktua nozitu zuten. Sorterri zuten erreserbatik egotzi zituztenean, uko egin zioten gizarte kolonizatzailearen arragoan barreiatzeari, eta XX. mendeko altxamendu indigenarik ausartena antolatzen lagundu zuten, Red Power.

283 Hemen aipatua: Sarah Sunshine Manning, «The Power of Oceti Sakowin Women,» *Indian Country Today*, 2017ko abuztuak 30, indiancountry-medianetwork.com.

284 Hemen aipatua: Elizabeth A. Castle et al., «'Keeping One Foot in the Community': Intergenerational Indigenous Women's Activism from the Local to the Global (and Back Again),» *American Indian Quarterly* 27:2, 2003, 847. or.

Hasiera batean, indiarrek lekualdatzearen helbururik behinena zen komunitate natiboak desagetea, eta, horretarako, beren lurretatik kanpora egotzi zituzten, nagusi zen hiri-giroko gizartean integra zitezen. Nolanahi ere, lekualdatzeak aurkako efektua lortu zuen. Izan ere, indiarrek ez zioten indiar izateari utzi erreserbetatik alde egin zutenean. Lekualdatzeak, asmo makur guztien gainetik, mugimendu berri baten sorrera sustatu zuen, hiriko ghetto pobreetatik eta landa-eremuko erreserbetatik ernatu zena. Lekualdatutako natiboek elkartzera jo zuten hirietan eta unibertsitateetan, eta erakunde panindigenak sortu zituzten, hala nola Indiar Gazteriaren Kontseilu Nazionala, AEBko Natibo Batuak, AIM eta beste asko. Halere, lekualdatutako natiboek eta erreserbetako kideek antzeko kezkak izaten zituzten. Eremu landatarreko eta eremu hiritarreko esperientziak elkartzean, kontzientzia politiko erradikal eta esplizituki anticolonial bat azaldu zen, erabateko arrakasta lortu zuena. Kontzientzia hark egitura kolonialtzat jotzen zuen sistema federala, ez irtenbide gisa. Eta, garai bateko gazteen belaunaldi arteko protestetan ez bezala, Red Powerrek belaunaldi zaharragoen gidaritza bilatu zuen, erreserbetako lider tradizionalena, hau da, administrazio federalari uko egin zieten adinekoak, «antzinako jardunbideak» bizirik mantendu zituztenak.

AIM mugimendua 1968an sortu zen, eta, hasiera hartan, auzo-patruila bat besterik ez zen, Minneapoliseko kaleetan zehar natibo lekualdatuen aurkako polizia-indarkeriari aurre egiten ziona. Alabaina, sortze-urte hartatik hamarkada bat igaro aurretik, askoz ere garrantzi handiagoko agertoki batera igaro zen: Nazio Batuen Erakundera. Ibilbide hori ulertzeko, ezinbestekoa da Red Powerren testuinguru historikoaren irakurketa sakon bat egitea.

Red Power sortu baino bi hamarkada lehenagotik ere, erakunde panindigena indartsuak zeuden Estatu Batuetan; adibidez, AEBko Indiarren Kongresu Nazionala (NCAI). Gobernu federala natiboen kitapenaren legedia onartu nahian zebilen, fideikomisoen alorrean tribu indigenekin zuen erantzukizuna desegingo zuena. Bada, Kongresu Nazionalak legedia horren aurkako borrokaren lidergoa hartu zuen, baita garaipena lortu ere, 1950ean. Edozelan ere, NCAIk ez zuen argi ikusten nazio-subiranotasunaren etorkizuna; iruditzen zitzaion oso lotuta zegoela

IRA legearen babesan sortutako gobernu formalei, baita sistema federalaren barruko gutxiakako erreformei ere. Azken finean, kontua zen Kongresu Nazionalak bere tokian geldirik utzi nahi zuela belaunaldi gazteago batek desegin egin nahi zuena: administrazio koloniala. Aurreko erakundearekin gertatu antzera, NCAiren irtenbide ugari ere garai hartako jarrera antikomunista erorantz eta abertzaletasunerantz lerratzen ziren. Gerra Hotza inoiz eza gutuko zuen mailarik gorenean zegoen. Hirugarren Munduan, erregimen kolonialak bortizki erorarazten ari ziren, eta, sobietarrek herrialde haietan erdiets zezaketen indarra apalarazteko, AEBk areagotu egin zituen matxino-taldean aurkako isilpeko kanpainak Latinoamerikan, Ekialde Ertainean eta Asiaren hego-ekialdean. Kanpaina haiek justifikatzeko, bi arrazoi eman zituzten: batetik, areagotu egin zela komunismo sobietarraren eta Hirugarren Munduan gertatzen ari zen deskolonizazioaren arteko gatazka ideologiko eta ekonomikoa; bestetik, Ipar Atlantikoaren inperialismoa eta kapitalismoa. Laguntza humanitarioa inperioaren truke-txanpona bihurtu zen, bihotzak eta gogoak irabazteko bide bat, bai etxean bai atzerrian. NCAiren liderrek, horretaz oharturik, askatasunak eta demokraziak duten esanahiaren inguruko gatazka nazionala sustatu zuten. Bestalde, AEBko beltz-jendeek ere azpimarratu zituzten herrialde hartan eskubide zibilen esparruan gertatzen ziren desberdintasunak eta arrazan oinarritutako injustizia. D'Arcy McNickle NCAiren sortzaileetako bat zen; 1951an, «Laugarren Puntua izeneko programa nazional bat» eskatu zuen «gure indiar erreserbentzat». Horrekin, paralelismo bat egin nahi izan zuen Truman presidenteak nazioarteko laguntzaren inguruan osatutako Laugarren Puntua Programa delakoarekin, hark munduko herrialderik txiroenetan abiatu zuena, komunismoaren zabalkundeari aurre egiteko ahaleginean.²⁸⁵ Gainera, McNicklek uste zuen natiboek «kolonien menpe zeuden beste herri indigena batzuen mundu-esperientzia» partekatzen zutela.²⁸⁶

Nola defenda zezakeen AEBk nagusitasun moralaren jabe izateko guraria, baldin eta herri natiboak aske ez baziren eta

285 Hemen aipatua: Daniel M. Cobb, *Native Activism in Cold War America: The Struggle for Sovereignty* (Lawrence, KS: University of Kansas Press, 2008), 8.

286 McNickle, D'Arcy McNickle, *They Came Here First: The Epic of the American Indian* (New York: Harper & Row, 1975), 284. or.

pobrezian murgilduta jarraitzen bazuten, mundu-mailako superpotentzia berriaren aberastasun eta oparotasunetik egotziak? «Gerra Hotzaren garaian (1945-1991), mundu-mailako identitate indigena baten aldarrikapena izan zen subiranotasun tribala eskuratzeko borrokan eraldaketarik handienetakoa eragin zezakeen alderdietako bat», dio Daniel Cobb-ek.²⁸⁷ Munduaren lerrokatze geopolitiko berriak ziurgabetasun- eta urgentzia-sentipena zabaldu zuen. Europako inperio zaharrak banatu ahala, nazio-estatu berriak sortu ziren, eta banaketa gehiago espero ziren, herri kolonizatuak independentzia aldarrikatzen ari zirelako. Herri natiboak mehatxu paralelo bat ziren Estatu Batuentzat, eta deskolonizazioaren aldeko mugimenduak, azkar zabaltzen ari zenak, ekintzaile indigenak adoretu zituen. Gerra Hotzaren garaian, mugimendu indigena gero eta gutxiago identifikatzen zen barne-politikak eskainitako irtenbideekin; aitzitik, bere burua gero eta gehiago irudikatzen zuen herri kolonizatuek osatutako komunitate politiko zabalago baten parte gisa.

Zenbat eta natibo gazte gehiagok jarraitu NCAI erakundearen lidergoari, orduan eta etsiago zeuden hark aldetaren aurrean erakusten zuen ikuspegi mugatuarekin. Lyndon Johnson presidenteak «pobreziaren aurkako gerra» ekarri nahi zuen legedia bultzatu zuen, eta, haren testuinguruan, NCAIk Aukera Ekonomikoaren Bulegoak ematen zuen dirulaguntza bat lortu zuen, Ekintza Komunitarioko Programak izenekoa, landa-eremuaren eta komunitatearen garapena sustatzeko. Gero, Johnsonen lehentasunak pobreziaren aurkako gerratik Vietnameko gerrara aldatu zirenean, erakunde batzuek –adibidez, Indiar Gazteriaren Kontseilu Nazionala (NIYC)– taktika militanteagoetara jo zuten, eta autonomia indigena sendoa eskatu, Indiar Arazoetarako Bulegoari lotuta egongo ez zena. NIYC erakundea Gallup-en sortu zen, Mexiko Berria, 1961ean, NCAIk Chicagon egin zuen konferentzia gorabeheratsuen ostean. Aktibista gazteek, «mikroari helduta», belaunaldi zaharragoen kontserbadurismoaren aurka hitz egin zuten, eta aldaketa erradikalagoa eskatu. Hasiera batean, militante gazteek aurrera egitea

287 Daniel M. Cobb, «Asserting a Global Indigenous Identity: Native Activism Before and After the Cold War.» in *Native Diasporas: Indigenous Identities and Settler Colonialism in the Americas*, ed. Gregory D. Smithers eta Brooke N. Newman (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 2014), 443. or.

lortu zuten, «fish-in» zeritzenei babeserakutsita. «Fish-in» hura Pazifikoko ipar-mendebaldeko natiboen itun-eskubideen aldeko gatazka amaigabe bat zen, zeinean lagun asko jipoituak eta batzuk erailak suertatu baitziren, zaindari zurien eta estatu-funtzionarioen eskuetan.²⁸⁸ Ekintzaile-belaunaldi hartako kide ziren, beste askoren artean, Hank Adams, Clyde Warrior, Shirley Hill Witt eta Janet McCloud, eta, guztien artean, protesta indigenen garai berri bat abiatu zuten, beren burua Red Power izendatuta. Konfrontaziorako, zenbait teknika erabiltzen zituzten, adibidez, okupazioak eta ekintza zuzena, eta botere-kanaletan ere jarduten zuten.

Muinean, Vibe Deloria iradoki bezala, Red Power mugimendu ideologiko bat zen, eta liberalak vs kontserbadoreak dikotomian oinarritutako kolonoen politika hutsaletik harago zihoan. Mundu zabalean loratzen ari zen espiritu iraultzailearekin bat eginez, Red Powerrek indigenen askapena zuen oinarri. Eta, testuinguru hartan, Deloria Indiar Herria haztatu zuen, bere belaunaldiko beste inork baino gehiago. Deloria buruargia zen, indiar herrien defendatzaile irmoa, eta XX. mendeko Oceti Sakowin jendeen arteko intelektualik emankor eta nabarmena bilakatu zen. 1969an *Custer Died for Your Sins* idatzi zuen, eta indiarren artean gazte aktibisten belaunaldi oso bat piztu zuen. Politika eta kultura natiboak berrikuntza bat behar zutela aldarrikatzen zuen, natiboen eguneroko bizipenei zintzotasunez helduta. Are gehiago, *Custer Died for Your Sins* liburuaren argumentu nagusia zuzena da oraino ere: herri indigenak berez dira politikoak. Desagertutzat jotzen direnean ere, nazio gisa existitzen jarraitzen dute, eta borrokatu egin behar dira, ez soilik bizirauteko, baizik eta baita irudikapen egoki bat egiteko ere. Egia deseroso bat dakarte berekin, alegia, Estatu Batuen sorrera genozidio batean oinarritu zela, eta kontinente baten etenik bako lapurretan. Deloria argi ikusten zuen hori guztia; izan ere, aditu eta aktibista ugariko familia ezagun batetik zetorren: izeba bat, Ella Deloria, antropologo ezaguna zen, Franz Boas-ekin ikasia; aita, berriz, Vine Deloria Sr., apezpiku entzutetsua zen, erreserban bizi zena; eta Philip Deloria semea ere herri natiboen

288 NIYC erakundeari buruz gehiago jakiteko, ikus Bradley G. Shreve, *Red Power Rising: The National Indian Youth Council and the Origins of Native Activism* (Norman, OK: University of Oklahoma Press, 2011).

historialari bikaina da.²⁸⁹ Leinu horren ondorioz, baita garai hartako urte iskanbilatsuak zirela-eta –«indiar iraultza abian zen» ordurako, bere esanean–, Delorian ernatzen ari zen mugimenduaren tximistorratz intelektuala bilakatu zen.²⁹⁰

Deloriaren Red Power ideologia indartsua –bere idazlan ugarietan argi eta garbi adierazia– ez zetorren inondik ere bat AEBren eta Mendebaldearen balioekin, ezta ere haien sistema ekonomiko eta politikoekin. Ideologia berri hark tribalismoa berreskuratu nahi zuen, baina ez iraganeko kontu bat izango balitz bezala, baizik eta AEBren mugen barruan eta haietatik kanpora existitzen zen identitate politiko moderno baten gisan. Erreserben garaitik aurrera, nortasun indigena nazional kolektibo bat asimilazio- eta lur-banaketaren politiken jomugatzat hartu zuten, eta «zibilizazioa» erdietsi ezinaren arrazoitzat jotzen zuten. Tribalismoa suntsitzeak naziotasuna ezerezteka ekarri zuen, eta, aldi berean, indiarren lurak lapurtu zituzten. 1964an, kitapenlegediari buruzko senatuko saio batean, Deloriak, artean NCAIko zuzendari exekutiboa zelarik, aurrera begirako bide berri bat marraztu zuen. «Guretzat, tribuak ez dira iraganeko aztarna bat, baizik eta etorkizuneko laborategiak», esan zuen. Deloriaren ustez, «eskubide zibil»en eta eskubide indigenen arteko desberdintasuna zen kolonoak «banako gisa etorri» zirela eta lur indigenak jabetza pribatu bihurturik lortu zutela herritartasuna. Herri indigenak, bestalde, nazio bereizi gisa eta itunen bidez txertatu ziren AEBren konstituzio-esparruan, ez eskubide indibidual edo zibilen bidez. «Gu nazio independente gisa geunden hemen», adierazi zuen, «eta itunak egin ziren gurekin, eta gutako bakoitzak bere tradizioak ditu».

Erakunde panindigenek, hala nola NCAI eta NIYC, nazio indigenak bateratu zituzten, ez berdintasunean oinarrituta, ezpada desberdintasunean, «elkarren arteko harreman independenteekin»; «Nazio Batuen antzeko zerbait, baina txi-

289 Vine Deloria-ren ibilbide profesionalari eta bizitzari buruzko ikuspegi orokor bat izateko, ikus Frederick E. Hoxie, *This Indian Country: American Indian Activists and the Place They Made* (Penguin: New York, 2012), 337–92. Deloriatarren historiari buruz gehiago jakiteko, ikus Vine Deloria Jr., *Singing for a Spirit: A Portrait of the Dakota Sioux* (Santa Fe, NM: Clearlight, 1999).

290 Deloria, «This Country Was a Lot Better Off When the Indians Were Running It,» *New York Times*, 1970eko martxoak 8. or.

ki-txikian».²⁹¹ Nazioarteko harreman indigenak irudikatzean, Deloriak ez zituen imajinatzen soilik haien artekoak edo AEB barrukoak; munduko gainerako nazioekikoak ere ikusten zituen.

Deloriari bereziki erakargarri zitzaion Kwame Ture (jatorrizko izenez Stokely Carmichael) ekintzaileak Black Power ideologiaren inguruan garatutako bertsioa. Ture Indarkeria Ezaren Aldeko Ikasleen Koordinakundeko liderra izandakoa zen, eta berak herritartasun panafrikar beltza hartua zuen, zeinak ez baitzien baliagarritasun handirik ikusten ez eskubide zibilei ez estatu supremazista zuri batean parte-hartze handiagoa izateari. Deloriaren ustez, Black Power eta Red Power ez ziren soilik kapitalismoak, kolonialismoak eta arrazismoak «lurra, herritarak eta bizitza bera esplotatzearekiko» gaitzespenaren adierazpena; horrez gain, *jendetasunaren* baieztapena ere baziren. «Independentzia kulturalik gabe, ezinezkoa da jendetasunik izatea», zioen, «eta hori, era berean, ezinezkoa da lurrik gabe».²⁹² *Jendetasunaren* kontzeptuak eskubide zibilen diskurtsotik aldendu zuen, zeinak lege-mailako berdintasuna aldarrikatzen baitzuen. Aldiz, Deloriak jendetasunerako egiten zuen aldarria –estatus tribal edo nazional bakarraren ideia aintzat hartuta– autodeterminazio nazionalerako urrats bat zen: beltz-jendeak eta herri indigenak beren gain hartzen beren bizitzak eta beren patruak. Hori egiteko, lehenik eta behin ezinbestekoa zen gobernantza indigenak berrezartzea eta lurralde indigenak berreskuratzea –urte luzetako proiektua–, baita sistema koloniala deuseztatzea ere.

Deloriak «AEBko hirugarren iraultza ideologiko» gisa ikusten zituen 1960ko eta 70eko hamarkadak. Bere ustez, arraza-talde nagusiak –beltzak, mexikarrak eta nazio natiboak– AEBko konstituzio-esparruan sartu zituzten ez gizabanako gisa, baizik eta jende-talde eta nazio-talde gisa, eta horrek are egokiago bihurtzen zituen herri edo nazio gisa borrokatzeko (eta ez gizabanako alienatu gisa). Esate batera, 1848ko Guadalupe Hidalgo Itunak AEBren eta Mexikoren arteko gerraren amaiera ekarri zuen, eta itunaren bidez AEBk lurralde eta herritar mexikarrak anexionatu

291 Vine Deloria Jr., «We Were Here as Independent Nations,» in *Say We Are Nations: Documents of Politics and Protest in Indigenous America Since 1887*, ed. Daniel M. Cobb (Chapel Hill: University of North Carolina Press, 2015), 134, 137. or.

292 Vine Deloria Jr., *Custer Died for Your Sins: An Indian Manifesto* (Norman, OK: University of Oklahoma Press, 1988), 180. or.

zituen; 1865ean, Gerra Zibilaren amaierak beltz-jende esklabuak askatu zituen; 1871n, herri indigenekin itunak egiteko ahalmenaren deuseztapenak aintzat hartu beharreko barne-«arazo» bihurtu zituen nazio natiboak.²⁹³ Kasu bakar batean ere jende-talde horiek ezin izan zuten ezer esan ez herritartasunari buruz ez AEBn txertatuak izateko moduari buruz. Inposatu egin zitzaizkien, maiz haien onarpenik gabe. Estatu kolonizatzaileak ez ziren gai herri haiek apurka eta jarraituki bizitza politiko eta sozial nagusian «irensteko», eta herri kolonizatuen potentzial iraultzaileak zerikusi zuzena zuen ezintasun horrekin. Era berean, estatu kolonizatzaileek uste zuten natiboak haien estatus ekonomikoengatik soilik zeudela arranguratuta, eta ez zuten kontuan hartzen nola gurutzatzen diren arraza eta kolonialismoa klasearekin; horrenbestez, berriz ere «arragoaren» teoriara itzultzen ziren, alegia, esaten duena AEB «etorkinez osatutako nazio bat» dela. Baina nazio natiboek eta mexikar indigenek ez zuten inondik migratu. Beltz-jendeak kateaturik etorri ziren. Pertsona haiek ez ziren «etorkinak». Eta desberdintasun ekonomikoa berdindu ahal izango balitz ere, AEBk lur indigena ebatsiaren gainean egoten jarraituko luke. Azken finean, Hirugarren Munduko nazioek borroka arrakastatsu eta zabalak gairatu berri zituzten, arraza, klasea eta kolonialismoa elkar loturik. Zergatik ezin zen gauza bera gertatu Estatu Batuetan, non herriak oso-osorik sistema kolonial batean txertatu baitzituzten, beren borondatearen kontra?

Nolanahi ere den, indigenen arazoak sozioekonomikoak ziren, eta erreserbetan eta erreserbetatik kanpo bizi zuten pobrezia latzak lotura zuzena zuen mendeetan zeharreko lur-lapurretarekin eta lekualdatze behartuekin. Alabaina, kitapenaren izenean «berdintasun»aren promesa faltsua ere bermatu zitzaizkien. Natiboentzat, «eskubide zibilak» esapideak kolonoen gizartean integratzea esan nahi zuen sarri, eta eskubide zibilen hizkuntza kitapena justifikatzeko erabili zen. «Legearen aurreko berdintasuna»; kitapen-hizkuntza hori erabili zuen 1954an Utahko senadore Arthur V. Watkins-ek, eskuineko mormoia bera, Emantzipazioaren Aldarrikapena egin zuenean: «Hitz hauek ikus ditzaket indiarren buruetan suzko letrekin idatziak: JENDE

293 Vine Deloria Jr., *We Talk, You Listen: New Tribes, New Turf* (Lincoln, NE: Bison, 2007), 145–7. or.

HAUEK ASKEAK IZANGO DIRA!»²⁹⁴ Natiboen jabetzei ezarritako «murrizketen» ondorioz –hala argudiatzen zuen–, natiboek ez zizkieten beren lurak eta bizitzak «libreki» salduko zuriei. Natiboen kezka nagusia harreman koloniala zen, zeina, askoren ustez, 1871n gauzatu baitzen, itungintza bertan behera uztean. Horren aurretik, Estatu Batuek 370 itun indigena baino gehiagotan berretsi zuten herri indigenak nazio bereizi eta autonomoak zirela eta beren lurren kontrola beren eskuetan zegoela. Orotara, AEBk 500 itun eta hitzarmen baino gehiago negoziatu zituen nazio indigenekin. Itungintzaren, beste hainbat akordioaren eta erreserba-sistemaren ondorioz, gobernu federalak onartutako 567 tribu baino gehiago daude oraindik, zati handi batean erakunde politiko autonomo gisa jarduten dutenak. «Itxura batean, alde batera utzia zuten benetako indiar arazoa, hau da, sorterriko erreserban tribu gisa existitzea», zioen Deloria, Martin Luther King Juniorrek 1968an abiatutako «pobreen kanpaina» kritikatu, zeinak ez baitzuen erdietsi babes handirik natiboen aldetik.²⁹⁵ Pobrezia erroko arazoaren sintoma bat baino ez zen, hau da, kolonialismoarena. Eta natiboen borrokak, Deloriaren ustez, «garrantzi historikoa zuen, ez zen Estatu Batuekiko haserre igarokor bat».²⁹⁶ Herri natiboak benetako nazioak baziren, nazio gisa jardun behar zuten; beren harreman propioak eraiki, eta beren etorkizuna erabaki.

Clyde Warrior bidelagunak (Ponka tribuko profeta kartsua, Indiar Gazteriaren Kontseilu Nazionalako presidentea) hitzaldi bat eman zuen 1967an, pobreziaren gainean egin zuten presidenteen batzorde batean, eta azaldu zuen ezen natiboen askatasuna bermatzeko ezarritako sistemak berak zirela haien askatasuna eragozten zutenak:

Ez gara askeak. Ez dugu erabakirik hartzen. Gure erabakiak gure izenean hartzen dituzte; gu *pobreak* gara. Erreserbetan bizi garenon kasuan, gure izenean aukeratzen eta erabakitzen dute administrazio federalek, burokratek eta beren «bai gizonak», eufemistikoki gobernu tribal deritzenak. Erreserbarenak

294 Arthur V. Watkins, «Termination of Federal Supervision: The Removal of Restrictions over Indian Property and Person,» *Annals of the American Academy of Political and Social Science* 311, 1957, 55. or.

295 Deloria, *Custer Died for Your Sins*, 183. or.

296 Vine Deloria Jr., *Behind the Trail of Broken Treaties: An Indian Declaration of Independence* (Austin: University of Texas Press, 1985), 3. or.

ez diren eremuetan bizi garenon kasuan, botere zuriaren eliteek kontrolatzen dituzte gure bizitzak. Gizarte-langile deritze, polizia, eskola-irakasle, eliza eta abar, eta orain baita Aukera Ekonomikoaren Bulegoko langile ere.²⁹⁷

BIAREN, gobernu tribalen eta estatu-instituzioen praktika burokratikoak egitura kolonial beraren parte ziren, eta, beraz, arazo beraren parte. «Indiar arazoari» dirua botatzeak ez zuen ekarriko haren desagerpena, batez ere Kongresuak zehazten zuelako diru-kopurua (sekula ez nahikoa) eta burokrata ez-hautatuek erabakitzen zutelako zenbat eta zertan erabili. Warrioren esanetan, «gobernuaren programak' ez dira indiar pobrezia irtenbidea». Aitzitik, irtenbide bakarra autodeterminazioa zen: «Erabaki dezatela pobreek behingoaz zer den haientzat onena».²⁹⁸ Mendeetako paternalismoak eguneroko bizitza natiboa baldintzatzen zuen, eta paternalismo hori instituzioetan eta pentsamoldeetan erroturik zegoen; hori zen, haien ustez, haiei zegokien zeregina, indiarrak pobreziatik ateratzea. Indar ideologiko hark benetako boterea zuen, eta aintzat hartu beharrekoa zen, ezinbestean.

Ostera, Red Power ez zen soilik teoria abstraktu bat edo ariketa intelektual bat. Natiboak egunero arduratzen ziren beren bizitzek eta beren komunitateez. Mugimendu bat zen, iraultza bat. Hezkuntza, paternalismoa, polizia-indarkeria eta kartzelatzek, herritartasunaren promesa faltsua... Horiei guztiei egin behar zitzaion aurre, edo guztiak erabat desegin behar ziren. Red Power mugimendua erresistentzia indigenaren tradizio mendeetsuaren gainean eraiki zen, eta borrokari ekin zion nola erreserba landatarretan hala hiriguneetan.

Hurrengo urteetan, Red Power mugimenduk arreta handia bereganatu zuten okupazioak eta protestak antolatu zituen; esate batera, hainbat toki hartu zituzten, hala nola Alcatraz, BIAREN bulego nagusia Washington DCn, Mount Rushmore eta Wounded Knee. Ekintza horiek beren jatorria ezkututzen dute askotan, bereziki 1960ko hamarkadan eta NIYC erakundearekin, baina aldaketa esanguratsu bat ere iradokitzen dute. 1969an, San

297 Clyde Warrior, «We Are Not Free,» in *Red Power: The American Indians' Fight for Freedom*, 2. arg., ed. Alvin M. Josephy Jr., Joane Nabel eta Troy Johnson (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 1999), 17. or.

298 *Ibid.*, 21. or.

Frantziskoko badiako natiboek Alcatraz uhartea okupatu zuten, espetxe federal abandonatu bat. Okupazio hura txinparta izan zen, eta natiboen gero eta nahigabe handiagoa, berriz, su-egurra. Lehenago, 1964an, eta jada kartzela itxita zegoela, lakota talde bat (Russell eta Hank Means, Belva Cottier, Richard McKenzie eta beste batzuk) uhartea berreskuratzen saiatu zen, jabetza federalesko soberakin gisa eta Laramie Gotorlekuko 1868ko Ituneko ustezko xedapen bat aipatuz, baina ez zuten lortu. Berez, uhartea lur indigena da, Ohlone herriarena. Bost urte geroago, beste talde batek bederatz hila batez okupatu zuen uhartea. Okupazio hark bi lider nagusi izan zituen: alde batetik, LaNada Means (War Jack), Xoxone-Bannock tribuetako ikasle bat, Hirugarren Munduaren Askapenerako Frontearen greben antolamenduan ere parte hartu zuena (besteak beste, Kaliforniako Unibertsitatearen Berkeley-ko kanpusean ikasketa etnikoen programak eskaintzeko eskatu zuten); bestetik, Mohawk herriko Richard Oakes ekintzailea (gizon zuri batek hil zuen 1972an).²⁹⁹ Beren burua «Tribu Guztietako Indiarrek» izendaturik, Alcatrazeko okupatzaileek batasun panindigena irudikatu eta praktikatu zuten, «gure jendeek aspalditik amesten zutena». Beren burua mugimendu «berri» eta aldi berean «zahar» gisa ikusten zuten, zor zitzaiona ez gobernuaren dirulaguntzei, baizik eta herriari. Mugimendua ren printzipioak natiboen eguneroko gurari eta esperientzietatik erne ziren, berdin komunitate desplazatuena zein erreserbetakoena. «Ideia zaharretan oinarritutako kontzeptu berriek lider berriak behar dituzte», zioten manifestuan. «Gure seme-alabek Askatasuna eta Justizia ezagutuko dituzte».³⁰⁰ Zalantzarik gabe, uhartea berreskuratzea eta kartzelaren tokian «soilik indiarrentzako unibertsitate» bat egiteko asmoa izatea gertaera historiko garrantzitsu bat izan zen, eta inflexio-puntu bat. Ez zituzten lortu ezarritako helburuak, eta Nixonen administrazioak indarrez atera zituen; alabaina, okupazioak akuilatuta indigenen mugimendua botereguneetan erreformak eskatetik harago joan zen, eta boterea langile-klaseko natibo pobreen eskuetan jarri zuen.

299 Ikus LaNada Boyer, «Reflections of Alcatraz,» in *American Indian Activism: Alcatraz to the Longest Walk*, ed. Troy Johnson, Joane Nagel eta Duane Champagne (Urbana, IL: University of Illinois Press, 1997), 88–103. or.

300 Indians of All Nations, «Our Children will know Freedom and Justice,» in *Say We Are Nations*, 158–9. or.

San Frantziskoko badian Ameriketako Estatu Batuetako Natibo Batuak sortu zen, eta Minneapolisen, berriz, Ameriketako Estatu Batuetako Indiarren Mugimendua (AIM), eta bi erakunde horiek izan ziren Alcatrazeko okupazioa ahalbidetu zutenak. AIM 1968an sortu zen, Ojibwes herriko talde batek bultzatuta; sortzaileen artean daude, besteak beste, Dennis Banks, Clyde eta Vernon Bellecourt, Patricia Bellanger eta George Mitchell. Taldearen hasierako helburua komunitatea patruilatzea zen, eta, horretarako, bi urte lehenago Oakland-en sortutako beste talde bat zuen eredu, Autodefentsarako Pantera Beltzak. Haientzat bezala, AIMrentzat ere lehen helburua zen komunitatea ahalduntzea eta zerbitzuak eskaintzea; esate batera, biziraupen-eskolak sortzea, hirietako indiar gazteei historia eta kultura natiboaren berri emateko. Edozelan ere, AIMk estatuaren instituzioen aurka ere jardun zuen, adibidez, poliziaren eta hezkuntza-sistemaren kontra. Garai hartan, polizia sarri sartzen zen tabernetan, sarekadak egitera eta hirietako natibo pobreak identifikatzera, askotan desplazatuak zirenak. Hortaz, komunitatea antolatu eta patruilak abiatu zituzten. Askotan liskar bortitzak izaten zituzten poliziarekin, eta AIMko kideek atxilotuta amaitzen zuten, baina, azkenean, poliziaren jarduna ia erabat etetea lortu zuten.

Hasierako garai hartan ere, AIM protesta-mugimendu bat baino gehiago zen. Biziraupen-eskolak sortu zituen Minneapolisen, Rapid Cityn eta Pine Ridgen, eskola publikoetan diskriminazioa jasan zuten gazteei zuzenduak. 1970eko hamarkadarako, AIMk bultzatutako hamasei biziraupen-eskola zeuden hiriguneetan eta erreserbetako komunitateetan. Eskola haien sortzaile guztiak emakumeak ziren; adibidez, Miniconjou herriko Madonna Trumoi Belatz eta Ojibwe herriko Patricia Bellanger ekintzaileak. Gogoan Izango Dugu Biziraupen Eskola Hego Dakotako Rapid Cityn sortu zuten, 1974ean, eta gero Pine Ridge erreserbara lekualdatu; eskolaren arabera, ez zuten onartzen gobernuaren dirulaguntzarik. Izan ere, irakasleek eta ikasleek zera idatzi zuten elkar harturik landutako dokumentu batean: «Lakota herriaren benetako historia ikasi behar badugu, kolonizaziotik hasi eta genozidio deritzen ondorioetara arte, independenteak izaten jarraitu behar dugu. Estatu Batuetako Natiboen Subirantotasunaren benetako esanahia ikasteko, goitik behera kontrolatu

behar dugu zer irakasten zaien gure gazteei». ³⁰¹ AIMk defentsa juridikoa ere eskaintzen zien gurasoei eta haien seme-alabei, indiar gazteak espetxeratzten zituzten ongizate-programei aurre egin ziezaieten, edo seme-alabak etxetik atera eta familia zurien zaintzapean jartzten zituztenei –praktika horrek gaur egun ere badirau neurri handi batean–. ³⁰²

Mugimendu iraultzaile guztietan gertatu ohi den bezala, ia ahaztua dago emakumeek AIM erakundean izandako rola, eta beti gizonak dira erdigunean daudenak, lider gisa agertzen direnak. AIMn, baita gainerako indiar mugimenduetan ere, oro har, lelo feminista ezagun bat betetzen zen: «Emakumeek zeru erdiari baino *gehiagori* eusten diote». FBI erakundea AIMko gizonak atxilotzen hasi zenean, AIMko emakumeak gizonak utzitako hutsunea betetzen hasi ziren, eta mugimenduarekin aurrera jarraitu zuten. Iraganean gertatu bezala, orduan ere komunikabideek eta estatu-instituzioek ez zituzten ikusten emakumeak lider gisa; baina, edozelan ere, nolabaiteko ikusezintasun horrek askatasuna eta segurtasuna ematen zien, gizonetzko liderren kasuan ez bezala. «Hala, AIMko emakumeak ohartu ginen ia edozer egiten ahal genuela polizia federalaren eta prentsaren begibistan, ikusezinak ginelako», gogoratzen du Madonna Trumoi Belatzek. ³⁰³ «Emakumeek eman izan diote beti egonkortasuna gure herriari, bai gaixotasunen aurrean, bai erlijio-kontuetan, bai indiarrei buruzko politika federalen aitzinean». ³⁰⁴

Hala eta guztiz ere, emakume indigenek AIMren ekintza, okupazio eta kanpaina nagusi guztietan parte hartu zuten, eta lidergo-rolak bete zituzten. 1977an, apartheidaren eta kolonialismoaren amaierari buruzko nazioarteko konferentzia batean

301 Gogoan Izango Dugu, eskuorria, Roger A. Finzelen dokumentuak, Hego Mendebaldearen Ikerketarako Zentroa, University of New Mexico, 1. kutxa, 2. karpeta.

302 Ikus Julie L. Davis, *Survival Schools: The American Indian Movement and Community Education in the Twin Cities* (Minneapolis: University of Minnesota Press, 2013), 88–91; Brenda J. Child, *Holding Our World Together: Ojibwe Women and the Survival of Community* (New York: Viking, 2012), 156, 160; Elizabeth A. Castle, «The Original Gangster: The Life and Times of Red Power Activist Madonna Thunder Hawk,» in *The Hidden 1970s: Histories of Radicalism*, ed. Dan Berger (New Brunswick, NJ: Rutgers, 2010), 272–5. or.

303 Madonna Thunder Hawk, «Native Organizing Before the Non-Profit Industrial Complex,» in *The Revolution Will Not Be Funded: Beyond the Non-Profit Industrial Complex*, ed. INCITE! Women of Color Against Violence (Cambridge, MA: South End, 2007), 101. or.

304 Hemen aipatua: Manning, «The Power of Oceti Sakowin Women».

parte hartu ondoren, eta ikusita bazirela emakumez osatutako batzorde gehiago beste mugimendu iraultzaile batzuetan, AIMko emakumeek erabaki zuten batzorde propio bat osatzea. Hurrengo urtean, Rapid Cityn, Thunder Hawk, Young, Bellanger, Lorelei DeCora Means, Agnes Williams, Lakota Harden eta Janet McCloud ekintzaileek Nazio Gorri Guztietako Emakumeak (WARN) erakundea sortu zuten, lelo batekin: «Indiar emakumeok beti egon izan gara lehen lerroan gure nazioen aldeko borrokan».³⁰⁵ Oglala herriko ekintzaile Lorelei DeCora Meansek manifestu bat irakurri zuen, honela zioena: «Estatu Batuetako indiarrek eta emakumeak gara, ordena horretan. Lehenik eta behin, eta batez ere, Estatu Batuetako indiar gisa gaude zapalduak, AEBk kolonizatutako herri gisa, ez emakume gisa». Are gehiago, AEBko indiar emakumeen ezaugarri gailena deskolonizazioa zen –hau da, bizitza eta lurralde natiboaren etengabeko suntsipenaren amaiera–, Meansek «kontuan hartu beharreko agenda *bakar*» gisa definitu zuena.³⁰⁶ Mugimenduaren barruan, WARNek argudiatu zuen kolonialismoak ondorio desberdinak zituela AEBko indiar emakumeentzat eta gizonentzat. Erreserban zein erreserbatik kanpo, emakumeek era askotako auziei egin behar zieten aurre: esterilizazio behartuari, haur txikien malnutrizioari eta maila handiko etxeko indarkeria eta abusuari.

Funtsean, baina, AIM erakundea batez ere jende artean asko zabaldu ziren protestengatik egin zen ezagun. Alcatrazekoaren ondoren, AIM azkar hazi zen: 1973rako, hogeita zazpi atal zeuden, haietako zortzi Kanadan.³⁰⁷ Mugimendua Oceti Sakowin jendeen lurretan zehar hedatu zenean, izaera espezifikoki abertzalea hartu zuen, eta arreta nagusia Laramie Gotorlekuko 1868ko Itunean eta Oceti Sakowin jendeetan jarri zuen. 1970ean, AIMk, AEBko Natibo Batuak erakundeak eta Hego Dakotako lakota aktibistek Muino Beltzetako Rushmore mendia okupatu zuten. 1868ko Itunari buruzko arreta piztu nahi zuten, eta monumentuaren azpiko lurak lur ebatsiak zirela salatu. Aktibistek adierazi zuten monumentua bera bandalismo-mota bat zela; ez

305 Hemen aipatua: Castle, «The Original Gangster,» 275. or.

306 Hemen aipatua: Lorelei Means, «Women of All Red Nations,» in Josephy et al., *Red Power*, 52. or.

307 Dennis Banks, Richard Erdoes-ekin, *Ojibwa Warrior: Dennis Banks and the Rise of the American Indian Movement* (Norman, OK: University of Oklahoma Press, 2004), 64. or.

zela «demokraziaren santutegia», ezpada «hipokrisiaren santutegia». Presidente guzti-guztiek –Washington, Jefferson, Lincoln eta Roosevelt– hartu zuten parte indigenen genozidioan eta lurren lapurretan. Haudenosaunee Konfederazioak «hiri-suntsitzaile» deitu zion Washingtoni, irokes herrixken erauzketan izan zuten parte-hartzeagatik. Jeffersonek jarraipena eman zien indigenak lekualdatzeko politikei, eta AEBren inperioaren mende balderanzko hedapena abiatu zuen. 1862ko AEB-Dakota Gerraren ondoren, Lincolnnek hogeita hemezortzi lakota aberzale urkatzeko agindua eman zuen, eta 1864an Navajo herriak hego-mendebalderantz egin zuen Ibilaldi Luzea gainbegiratu zuen. Rooseveltek lur indigenen milioika akre «nazionalizatu» zituen parke nazionaletarako. Artean kopuru sinbolikoa bazen ere, gero eta militante gehiago elkartzen zen boterea hartzeko eta eraikinak okupatzeko taktiken inguruan. AEBren luze-zabalean, BIAren bulegoak protesten helburu bilakatu ziren. Protesta-egileen kexa ugarien artean, itunak hautsi izana zegoen. Gobernu federaleko kritikariek, baina, erretorika huts zeritzeten itunen aldarrikapenei.

Vietnameko gerra gogortu ahala, 1972. urterako itunaren aldeko mugimendu indartsu bat zertu zen. Zortzi erakunde natibok –besteak beste, AIM, NIYC eta Kanadako Indiarren Anaitasun Nazionala– milaka natiboz osatutako karabana bat antolatu zuten, kostatik kostara, eta hiri eta erreserba guztietan parte-hartzaileak elkartzen zitzaizkien. Behin Washington DCra iritsita, azaroaren 3tik 9ra bitartean BIAren bulegoak okupatu zituzten. Okupazioak eta horrek eragin zuen prentsa txarrak karabanaren benetako eskakizunak estali zituzten. «Itun hautsien ibilbideak» –hala esaten diote– presidentearen hautaketa-prozesua oztopatu nahi zuen, herritarrek betetzen ez ziren itun-eskubideei errepara ziezaieten. Antolatzaileek dokumentu bat argitaratu zuten, «Hogei puntu» izenekoa eta nagusiki Hank Adamsek idatzia. Lehen puntuan zera eskatzen zuten: «Konstituzioan jasotako Itungintzarako Aginpidea berrezartzea: izan ere, aginpide hori berrezarri gero gobernu federalak indiar nazio guztien eta bakoitzaren subiranotasuna onartu behar luke».³⁰⁸ Punturik nabarmenenetan itungintza berrezartzea eta indartzea

308 Ikus Josephy et al., *Red Power*, 44–7. or.

proposatzen zen. Gobernuko funtzionarioek hogei puntuetan jasotako eskaerei kasu egingo zietela agindu zuten, baina promesa hura ezerezean geratu zen. 1977an, «Hogei puntu» dokumentu bikaina Nazio Batuen aurrean aurkeztu zuten, eta, 2007an, Herri Indigenen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpenaren oinarria izan zen.³⁰⁹

Itun Hautsien Ibilbidearen ondoren, AIM erakundea berriz elkartu zen, eta hiriguneetako natiboen eskubideen alde lanean jarraitu zuen; alegia, Paul Chaat Smith eta Robert Warriorrek izendatu bezala, «mugako hirietako kanpaina» egiten.³¹⁰ 1972ko otsailean, negu-giro izugarri latzean, lau gizon zurik –Melvin eta Leslie Hare, Bernard Ludder eta Robert Bayless– Oglala herriko 51 urteko gizon bat bahitu zuten, Raymond Trumoi Hori. Biluzi egin zuten, jipoitu, eta dantzaleku batean «indiar mozkor» baten gisara dantzatzera behartu, zurien gozamenerako; eta gero hiltzen utzi zuten Gordon-en (Nebraska). Gordon hiria Pine Ridge erreserbaren hegoaldeko muga dago. Herri-hizkuntzan, «mugako hiri» deritze indiar erreserbak inguratzen dituzten eta zuriak nagusi diren ezarpeneko hiri eta herriei. Mugako hirietan, natiboentzat eguneroko kontua da indiarren aurkako esplotazioa, diskriminazioa, bortxaketa eta kriminalizazioa. Bada, Gordon toki horietako bat zen. Trumoi Horiren senideek heriotza ikertzeko eskatu zioten AIM erakundeari, uste baitzuten autoritateentzat «hildako indiar bat gehiago» besterik ez zela izango, erreserbatik kanpora aurkitzen zituzten natibo hilekin gehiegitan gertatu ohi zen bezala. AIMren defentsari esker, Leslie eta Melvin Hareri zuhurtziagabekeriazko giza hilketa egotzi zieten, eta kartzela-zigorra ezarri. Trumoi Hori, berriz, «Raymond Trumoi Horiren Abestia» kantuan betikotu zuten, denborarekin AIMren ereserki bihurtuko zena.³¹¹ Kanpaina arrakastatsu haren ondorioz, AIM erakundeko kideek Pine Ridgeko oglala adinekoen eta tradizionalisten errespetua irabazi zuten, eta gero, 1973an, azken horiek berriro jo zuten AIMrengana, Wounded Kneen beren alde egin zezaten.

309 Dunbar-Ortiz, *An Indigenous Peoples' History of the United States* (Boston: Beacon, 2014), 185. or.

310 Paul Chaat Smith eta Robert Allen Warrior, *Like a Hurricane: The Indian Movement from Alcatraz to Wounded Knee* (New York: The New Press, 1996), 171–93. or.

311 *Ibid.*, 112–26. or.

Krimena izugarria izan arren, garrantzitsua da berriz ere atzera egin eta AIMren aurkako kritikari eta kazetari Stew Magnuson-engana itzultzea, zeinak zalantzan jarri baitu Trumoi Horiren hilketa. Hiltzaileek Trumoi Hori indarkeriaz tratatu zuten arrazoi beragatik kriminalizatzen ditu Magnusonek Red Powerreko ekintzaileak: guztiak ziren erreserbetatik kanpoko indiarak, eta jaso zutena merezi zuten. 2008an, adibidez, Magnusonek *The Death of Raymond Yellow Thunder* [Raymond Trumoi Horiren heriotza] liburua argitaratu zuen, sari ugari jaso zituen; bada, liburu hartan zalantzan jartzen du, berariaz, heriotza hura «hilketa» bat izan ote zen, nahiz eta soilik pertsona zuriz osatutako epaimahaiak zalantza izpirik gabe erabaki zuen hala izan zela. Aurretiko kazetari-belaunaldiek egin bezala, Magnusonek ere mito bera darabil, alegia, «siux gudari kriminal, militante eta etsakeriazkoen» biktima gisa agertzen ditu kolono zuriak eta indiar lagunkoiak. Ikuspegi horren arabera, «indiar onak» eta «indiar txarrak» daude, eta AIMko kideak «indiar txarrak» ziren. Magnusonen kontakizunak ez du zerikusi handirik kolonialismoaren errealitate historiko eta lazgarriarekin; bai, ordea, AIMko gizonen ausardiarekiko obsesioarekin. Liburuaren lehen orrialdeetan, 1999an White Clay mugako hiri garrantzitsuan alkoholaren aurka egindako protesta-ekintza bat azaltzen du. White Clay erreserbaren hegoaldean dago, milia eskas batera, eta dozena bat biztanle inguru ditu. Hango likore-dendek milioika garagardo-poto saltzen zituzten urtero, guzti-guztia Pine Ridgeko biztanleei, han alkohola debekatua baitago. Oraintsu arte, ohiko protesta-leku bat izan da, hau da, likore-dendek itxi zuten arte; lehen, baina, likore-dendak zabalik zeudenean, ezin konta ahala natibok beren bizitza ahitu eta suntsitu zuten han, hala espekulatzen baitzuten heriotzarekin eta oinazearekin White Clayn eta mugako antzeko beste hiri batzuetan. «Guztiak ziren gizon gazteen beldur», dio Magnusonek, protesta-egileak White Clayra jaitsi ziren uneaz; eta deskribapen horrek legeari jarraitzen ez dioten natiboez inguratutako kolono-saldo arrunt bat ekartzen digu gogora.³¹² Kolonizatzaileak biktima gisa erakutsiz –kasu honetan, likore-dendetako dozena bat saltzaile zuri–,

312 Stew Magnuson, *The Death of Raymond Yellow Thunder: And Other True Stories from the Nebraska-Pine Ridge Border Town* (Lubbock: Texas Tech University Press, 2010), 4. or.

kolonialismoa autodefentsarako estrategia gisa agerrarazten du. Deskribapen horrek gogora ekartzen digu baita mugako hiri arrazistetara jaisten ari diren AIMko gerlarien irudi beldurgarria, Gordonen eta beste toki batzuetan egin zuten gisan 1970eko hamarkadan.

Ñabardura arrazistak baditu ere, Magnusonek darabilen «indiar haserretu»en estereotipoa baliagarria da ulertzeko zer lortu nahian zebilen AIM eta nola kriminalizatu zuten horregatik. AIMko kide gehienak «erreserbatik kanpoko» natiboak ziren. «Erreserbatik kanpokoak» [*off the reservation*] Estatu Batuetako ingelesaren lokuzio bat da, eta heriotzarekin lotutako esanahia hartu zuen indiar erreserbak sortu zituztenean. Oxford English Dictionary hiztegiaren arabera, «espero denetik edo ohikoa denetik aldentzea» esan nahi du.³¹³ Esapide hori eremu militar eta politikoa ere erabiltzen da, eta deskribatzen du pertsona bat aginduak desobeditzen dituen, iragarrezina eta, beraz, gobernaezina dena. Jergoi militarrean, «erreserbatik kanpora doazenak» alprojak edo inkonformistak dira, hots, base militarretako («erreserba» esaten diete) «haria gainditzen» dutenak edo etsaiaren lurraldean («indiarren lurraldean») sartzen direnak.³¹⁴ Natiboentzat, berriz, «erreserbatik kanpora» joandakoak zera dira, uko egin diotenak historikoki erreserban bizitzea-ri edo haren mugak errespetatzeari, muga barruan geratuz gero etsaiak erraz kontrolatzen eta kudeatzen ahal dituelako. Beren borondatez muga gurutzatzen zutenak arnegatutzat, gaizkiletzat edo etsaitzat jotzen ziren, eta, harrapatu eta epaitu ostean, fusilatu, urkatu edo espetxeratu egin ohi zituzten. Ez halabeharrez, «erreserbatik kanpora» esapidea XIX. mendeko Indiar Gerretan erabilitako hizkuntzatik dator, eta erreserbako bizitza onartu ez zuten haiei eragindako ondorio hilgarrietatik. Horrenbestez, «erreserbatik kanpora joatea» da lurraldea eta subiranotasuna zalantzan jartzea, orobat praktika politiko bat. Kahnawà:ke Mohawk herriko Audra Simpson gogora ekarrita, natibo bat erreserbaren mugak gaindi joaten bada eta «kolo-

313 Hemendik hartua: «reservation, n.,» Oxford English Dictionary, 2016ko iraila, *OED Online*, oed.com.

314 Ikus Winona LaDuke eta Sean Aaron Cruz, *The Militarization of Indian Country* (East Lansing, MI: Makwa Enewed, 2013); Dunbar-Ortiz, *An Indigenous Peoples' History*, 133–61.

nizatutako» lurraldetzat jotzen denera igaro, kolonizazioaren legitimotasuna zalantzan jartzen du, eta horrek adierazten du kolonizatua izatek urrun dagoela.³¹⁵ Bestela esanda, erreserbatik kanpora dauden natiboak kolonizatzaileen lan bukatu gabea dira: desagertzeari uko egin diotenak, lurrak saltzeari uko egin diotenak, indiar izateari uko egin diotenak.

Rapid Cityn, Hego Dakota, sentipen horiek errotu eta hazi egin ziren, eta, hala, AIMk mugako hirietan egin zuen kanpainaren jopuntuetako bat bilakatu ziren. Rapid City hiriak Oceti Sakowin eta He Sapa (Muino Beltzak) herrien unibertso moral eta politikoa betetzen du, eta, Gordon eta White Clay hiriak bezala, Laramie Gotorlekuko 1868ko Itunean jasotako lurraldearen barruan dago. Belaunaldiz belaunaldi gertatu bezala, Rapid Cityko natibo gehienak miseria gorrian bizi ziren Rapid Creek inguruko txabola-eremuetan, hau da, trenbide-barrutiaren ondoko hirigunean, edo baita Sioux Addition-en ere, hots, hiri-mugetatik kanpoko «indiar ghettoa» (edo «gorri-jendeen ghettoa»), Rapid City Indiar Eskola izandakotik geratzen ziren fideikomiso-lurretan eraikia; eskola hura erreserbaz kanpoko barnetegi-eskola bat zen, 1930ean itxi zena.³¹⁶ «Indiar arazoa» bueltan zen, oraingo honetan erreserba utzi zuten «indiar herritar»ren eskutik.

Erreserbetatik kanpoko hiri zurietarako migrazioa mantsotu eta kontrolatzeko, 1939an Hego Dakotak «ohartarazpenezko» zenbait lege onartu zituen. Ondorioz, «iragaitzako» herritarrek ziurtagiri bat bete eta sinatu behar zuten, esaten zue-na leku hura ez zela beren bizilekua. Ziurtagiri harekin, zenbait eskubide galtzen zituzten: pobreei zuzendutako dirulaguntzak jasotzea, gizarte-laguntzako zerbitzuak erabiltzea, botoa ematea eta bizileku egonkor bat izatea. Pennington County-ko Rapid City hirian, eta Hego Dakotan, oro har, ohartarazpen-legeek erreserbako natiboak zituzten xede; lege haien bidez, debekatu egiten zieten komunitate jakin batzuetan bizitzea eta oinarrizko zerbitzu batzuk jasotzea, alor hauetakoak, hain justu: etxebizitza, gizarte-laguntza, ongizatea, hezkuntza eta osasungintza. Ramon

315 Audra Simpson, «Settlement's Secret,» *Cultural Anthropology* 26:2, 2011, 205–17. or.

316 Smith eta Warrior, *Like a Hurricane*, 179; James E. Emery-ren elkarriketa, Stephen R. Ward-ek egina, 1972ko uztailak 11, SDOHP 0527, transkribapena, Hego Dakotako Ahozko Historiaren Proiektua, Hego Dakotako Ahozko Historiaren Zentroa, Hego Dakotako Unibertsitatea, Vermillion, Hego Dakota, 11. or.

Roubideaux abokatua Sicangu herriko kide bat zen, Rosebud erreserban bizi zena, eta honela deskribatu zuen ohararazpen-legearen praktika hori 1962an, eskubide zibilei buruzko saio batean: «Rapid Cityn zintzo-zintzo betetzen dute programa hori. Iragaitzako indiarrei zera ematen diete... ez-egoiliarren jakinarazpena. Hala deitzen diote. Beste hitzez, gizabanako bati ohararazpen hori emanda, eragotzi egiten diozu, estatutuek diotenez bezala, *legezko bizileku* bat eskuratzea».³¹⁷ Askotan, barrutiko gizarte-zerbitzuek eta osasun-agintariek ez-egoiliarren ziurtagiriak ematen zizkieten natiboei zerbitzu eske joaten zirenean, edo zerbitzuak ukatzen zizkieten, besterik gabe. Erreserbetatik kanpora zeuden natiboak «iragaitzako» izendatzeak garrantzi handiko ondorioak izan zituen. Pertsonatasuna eskuratzeko, ezinbestekoa zen lehenik bizileku finko bat izatea –etxebizitza baten jabe izatea, herritartasuna izatea, zergak ordaintzea, enplegua izatea eta abar–, eta horrek ez zuen batere zerikusirik indiarren bizimodu «nomada» edo «iragaitzako»arekin. 1972an, pertsonatasunari eta herritartasunari buruzko auziek goia jo zuten. Urpetze batekin hasi zen.

Ekainaren 9an, 15 hazbeteko uholde-urek Canyon Lake presa buxatu zuten. Biharamuneko lehen orduan, presa lehertu eta ur-horma bat bidali zuen Rapid Creeketik behera. Ordu gutxiren buruan, uholdeak 1.200 etxe, 5.000 automobil eta 238 bizitza eramane zituen aurretik. Kolperik latzena pobreek jaso zuten –natiboek eta zuriek–, zeinak errekarren ondoan bizi baitziren, karabanetan edo egitura kalamastretan. Natiboak Rapid Cityko biztanleriaren %5 baziren ere, uholdean hildakoen %14 natiboak izan ziren, eta asko izan ziren baita ere beste toki batera aldatu behar izan zutenak. Hiriak 160 milioi dolar jaso zituen, hondamendiari aurre egiteko eta hirigunea berriztatzeko programen bidez.³¹⁸ Nolanahi ere, dirulaguntza emateko garaian irizpide arrazistak eta klasistak erabili zituzten. Dirulaguntza jasotzeko eskubidea bera zen uholdeko biktima guztientzat, baina, Don Bartlett alkate liberal demokratik adieraz zuenez, «horrek ez du

317 Enfasia erantsi zaio. Hemendik hartua: US Congress, *Constitutional Rights of the American Indian*, 603

318 AEBko Kongresua, Senatuko Herrilanen Batzordea, *To Investigate the Adequacy and Effectiveness of Federal Disaster Relief Legislation*, 2. zatia, 93. Kong., 1. saioa, 1973ko martxoak 30 eta 31, 291, 297. or.

esan nahi denei diru-kopuru bera eman genienik. Txabola eta lau altzari zahar galdu zuten indiarrek ez zuten eskuratu 40.000 dolarreko etxea eta 25 urtetako ondasunak zituztenek adina». ³¹⁹ Klase ertaineko zuri etxejabeei eta enpresa-jabeei dirulaguntza gehiago eman zizkieten. Diskriminazioa ez zen hor amaitu. Natibo ugari hiritik kanpo bizi ziren senideengana aldatu ziren, batzuk erreserbetara, eta, ondorioz, ez zuten izan dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik. Hirian geratu zirenei behin-behineko aterpea eskaini zieten, baina ez guztiei toki berean, baizik eta han-hemen banatuta. ³²⁰

Zuri egoiliarrei kiroldegietan eta elizetan eman zieten aterpe, baina ehunka natibo Guardia Nazionalaren «Camp Rapid» basean pilatu zituzten, jatorriz Rapid City Indiar Eskolarenak ziren lurretan. Kanpamentu hartan, natiboak egoera militarizatuan eduki zituzten, polizia-molde gogorrekin, eta etengabe zelatatzen zituzten, ia-ia aire zabaleko kontzentrazio-esparru bat izango balitz bezala. «Gure ustez, Etxebizitza eta Hirigintza Sailak (HUD) indiarren estereotipoaren (mozkorrak, bazter-nahasleak) inguruko aurreiritziengatik banandu zituen karabanak», azaldu zuen etxebizitza-eskubidearen aldeko lakota aktibista Edgar Lonehill-ek. «Gure ustez, polizia zuriak eta HUDekoek gu begi-bistan edukitzeko jokatu zuten horrela. Arrazoi berarengatik argizatzen dituzte fokuekin gaez indiarren karabanen inguruak. ³²¹

Laguntza apurka iristen zen, gorabehera handiekin, eta, sarri, natiboen komunitatea kolektiboki zigortzeko erabiltzen zen. Hasiera batean, Camp Rapidekoak aldi baterako kontua izan behar zuen, baina hilabeteak igaro ziren familia natiboei etxeak eman aurretik, nahiz eta familia zuri asko jada beste etxe batera aldatuta zeuden. Familia natiboei zuzendutako HUD etxeak Sioux Additionen zeuden –aurrerago, toki hura Lakota Etxeak izeneko etxebizitza-proiektu federala bilakatu zen–, hiri-mugetatik kanpo. Halere, komunitatearen aurkako jazarpena eta poliziaren kontrola areagotu egin ziren, natiboak orain auzo zehatz batean inguratuta baitzeuzkaten; irtenbide iraunkor bat

319 Hemen aipatua: Calvin Kentfield, «A Letter from Rapid City,» *New York Times*, April 15, 1973.

320 AEBko Kongresua, *Federal Disaster Relief Legislation*, 452. or.

321 *Ibid.*

zen hiriko «indiar arazo» amaigabearentzat. Orain, indiarrek susmagarri bihurtzen ziren ez erreserbatik irteategatik, baizik eta «gorri-jendeen ghetto»tik aterateagatik.³²²

Halandaze, aurretik beste ezelan ere lortu ez zena lortu zuen uholdeak: berriro hutsetik hasteko aukera eman zion hiriari, suntsitu egin zelako bakoitza bere tokian mantentzen zuen ingurune eraikia. Udal-langileentzat, uholdea gizartea berdintzeko tresna bat izan zen, eta maila berean jarri zituen ez bakarrik etxeak, baita arrazan eta klasean oinarritutako bereizketak ere. Edozertara ere, uholdearen ondorioz egiturazko arrazismoa beste modu batzuetan berrindartzeko bidea ere zabaldu zen. Hirigunean pilatutako jendilaje txiro eta natiboak ezereztu (eta hil) zituen, hiritik kanpo joatera behartuz literalki, bide egiteko negozioen komunitateak «hiria berrizatzeko» aurkeztutako programei; hau da, hirigune suntsitua berreraikitzea. Diru-sarrera txikiko familiez eta komunitate zaugarriez den bezainbatean, asmo hori bat zetorren etxebizitza-politika federaletan eta komunitatearen garapenerako programekin. Etxebizitza-eskubi-dearen aldeko aktibistek «gentrifikazio» deritzote horri, hau da, hiri-komunitate txiro eta arrazializatuak kanporatzeko prozesua, maiz negozio-interes dirutsuek sustatua, toki egiteko klase ertaineko auzo aberatsagoei eta ondasun higiezinaren balioa aragotzen duten negozioei. Alokairu garestiek eta prezio handiko etxebizitzek ia ezinezko egiten dute komunitate pobreentzat auzo «berriztu» horietara itzultzea edo horietan bizitzea. Normalean, aktibistek eta akademikoek uste dute hiri handietan soilik gertatzen direla horrelakoak, batez ere 1970eko hamarkadako New York hiriko Lower East Side-n. Baina gentrifikazioa ez da bakarrik hirietako kontu bat, eta ez da kolonizazio-prozesuaren imitazio huts bat; kolonialismoa da. Kolonizazioa funtsezkoa izan da AEBren hedapenaren historian, nola mugako hirietan hala eremu landatarretan eta geografia hiritarretan, xede hori lortzeko ezinbestekoa izan baita herri indigenak kanporatzea, desjabetzea eta suntsitzea. Rapid City hiru aldiz ostutako lurra da: lehenik, Muino Beltzak ilegalki hartu zituztenean; bigarrenik, garai batean Rapid City Indiar Eskolarenak izanak ziren fideikomiso-lurretatik geratzen zen zatia ebatsita; eta hirugarrenik,

322 *Ibid.*, 455. or.

komunitate natibo eta pobreak urez estalita eta etxebizitza-politika esplotatzaileak inposatuta. Baina kolonialismoarekiko antzekotasunak ez dira hor bukatzen.

1974an, Etxebizitza eta Hirigintza Sailaren *Challenge* al-dizkariko artikulu batean «etxalde hiritarrak» sustatu zituzten, 1862ko Etxaldearen Legean oinarrituta, zeinak landa-eremuko lursailak ematen baitzizkien doan baserritarrei baldin eta haie-tara migratzen bazuten eta haiek hobetzeko lan egiten bazuten. «XIX. mendean, etxaldetarrek gobernuaren laguntza behar izan zuten bizimodua nolabait ateratzeko, Mendebaldearen garapena-ri ekarpen bat egiten zioten bitartean», zioen artikuluak; «bada, era berean, hiriaren oihanean esperientzia latz eta gogor bat izateko prest daudenek ere laguntza behar dute haien inguruan komunitateak eraiki ahal izateko». Beste hitz batzuetan esanda, etxalde hiritarren helburua zera zen: «Gaixotasunak, krimenak eta zerbitzu publikoen gabeziak lar deprimigarri eta lar arriskutsu bihurtu dituztelako ezertarako balio ez duten» lurrak eta etxebi-zitzak suspertzea eta birmoldatzea.³²³ Berreraiki egingo zituzten garai batean auzo pobreak eta abandonatuak izan zirenak. Zibi-lizazioaren aldeko ahalegin bat zen. Rapid City hiriak programa hori erabili zuen bere «oihanari» aurre egiteko, hau da, alde egin nahi ez zuten indiar basatiak, gaixotasunen eta krimenaren iru-dikapena izanagatik jabetzen balioak erorarazi zituztenak, edo, Lonehill-ek esan bezala, «indiar mozkor, liskarzale» eta krimi-nalak. Nolanahi ere den, hiria berreraiki zuten eta ekintza hura HUDen lorpen arrakastatsuetako bat bilakatu zen. Bitartean, nati-boak gero eta erresuminduago zeuden, gentrifikaziora behartzen zituztelako eta segregazioa gero eta handiagoa zelako. Izan ere, oinarritzko «auzia» –hau da, hiria lur ebatsien gainean eraiki zela-ez zen sekula aipatzen, eta areagotuz zihoan, gainera, natiboen bizimodua «hobetzeko» abiatzen zituzten programa federal uga-riengatik, zeinek autodeterminazioa eta autonomia eskaintzen baitzieten komunitateei diruz lagundutako etxebizitzaren bidez.

Etxebizitza-politika federalek berriz sendotu zituzten nati-boen eta kolonoen arteko ertzak mugako hirietan; adibidez, Rapid Cityn. Bitartean, zaindaria, polizia eta eguneroko kolonoak

323 Mary F. Berry, «Homesteading: New Prescription for Urban Ills,» *Challenge*, 1974ko urtarrila, 2.

natiboen inbasioaren mehatxu hiperbolikoaren aurka borrokatu ziren (askotan indarkeriaren bidez). «Indiar mozkorra» itu espezi-fiko bilakatu zen. Mugako hirietako kolono zurientzat, «indiarrek atxilotzeko» praktika hiltzailea –gizon natibo hordiak jipoitu, torturatu eta hiltzea– asteburuko denbora-pasa bat eta kirol bat zen. 1973ko urtarrilean, gizon zuri batek Wesley Zezen Bihotz Gaizto erahil zuen sastakaiz Custer ondoko Buffalo Gap-en (Hego Dakota), eta AIMko 200 kide Custerera joan ziren, akusatua aurka erailketa-karguak aurkez zitezen eskatzera. Zezen Bihotz Gaiztoen hiltzailea nahigabeko hilketagatik epaitzen ari ziren, baina AIMko kideei eragotzi egin zieten epaitegira sartzea, eta liskar bortitz bat eduki zuten poliziarekin. Su eman zieten poliziarren zenbait auri, eta dozenaka kide atxilotu zituzten.

Custerreko liskarra laster zabaldu zen Rapid Cityko taberna-eremuan, non natiboek diskriminazio bortitza jasan baitzuten, nola zaindari zurien eskutik hala polizienetik. «Indiar mozkorra»ren irudia kolonoen imajinario kolektiboan iltzatuta geratu zen betiko. Indiarra edo mozkorra edo biak izatea ez zen inondik ere legez kanpokoa, baina erreserbetako natiboak mozkor, militante eta biolento gisa irudikatzea poliziagintzaren arte politikoaren adibide klasiko bat da. Hori dela eta, mugako hirietan indiarren presentzia kriminalitatearekin eta ilegalitatearekin nahasten da beti. «Ez dut uste gutako inor irteten garenik indiarrek atxilotzeko asmoz mozkor egote hutsagatik,³²⁴ baina kalean bera bakarrik dabilen indiar bat ikusten baduzu, litekeena da atxilotua izatea, litekeena baita aterperik ez izatea. Gizon zuri mozkor batek etxe bat izango du», azaldu zuen Rapid Cityko polizia-agente batek 1973an. «Jakina, horrek dakar indiarren atxilotze-kopuruak aski handiak izatea».³²⁵

Horri aurre egiteko, AIM erakundeak Rapid Cityko taberna eta dantzalekuetan –non natiboak zaindarien eta polizien biktima izan baitziren– ekintzak egiteko deia zabaldu zuen, «jendea erne edukitzeko».³²⁶ Barlett alkatearen esanetan, kanpaina hark «ziurgabetasun- eta beldur-sentsazioa» eragin zuen.³²⁷ 1973ko

324 Jatorrizkoan honela: «I don't think any of us go out on purpose to arrest Innuns [sic] for being drunk (...)». [I.o.]

325 Hemen aipatua: Kentfield, «A Letter from Rapid City».

326 *Ibid.*

327 Don V. Bartlett, interview by E. Hausle, July 30, 1973, SDOHP 0952, transcript, South Dakota Oral History Project, South Dakota Oral History Center, University of South

otsailaren 6an, Wounded Knee armez hartu baino hiru aste lehenago, AIMk Arrazak Adiskidetzeko Komitearen bilera bat zapuztu zuen, sortu zena, hein batean, etxebizitzaren eta enpleguaren alorreko diskriminazioari irtenbide bat bilatzeko eta «arrazen arteko harremanak» hobetzeko. 200 natibo inguruk mukuru bete zuten bilera-aretoa. «Ez ziren eskubide zibilekin konprometitutako pertsonak», horrela deskribatu zuen Bartlettek jendetza hura. Funtzionarioak beren jarlekuetan hondoratu ziren, AIMko liderrek sutsuki hitz egiten zuten bitartean. Matxinadara joko zutela aldarrikatu zuten, baldin eta beren eskaerak betetzen ez baziren, hots, berdintasunean oinarritutako etxebizitza-politikak, polizia-agente natibo gehiago eta pertsona natibo bat hiriaren abokatu karguan. AIMko lider Dennis Banks-ek adierazi zuen eskaera bete ezean «Muino Beltzetako hiri guztietan gerra deklaratzeko» prest zeudela. Komiteak zenbait bilera egitea onartu zuen, AIMko kideen eskaerak aztertzeko; batzuk egin ziren, baina gehienak bidean geratu ziren.³²⁸

Horri erantzunez, Bartlettek komunitate natiboari gogorarazi zion ezen indarkeriaz erantzungo zuela baldin eta desobedientzia «ez-zibilean» parte hartzen bazuten eta ez bazuten jarraitzen zentzuzko eta arrazoizko elkarrizketaren doktrina liberala. Eta erantsi zuen: «[AIM erakundeak] Nahiko balu Rapid City Selma (Alabama) bezain ezaguna izatea, 15 minutu inguruan lortu ahal izango nuke». AIMk ez zuen etsi. Ezta Rapid Cityk ere. AIMk hogeita hamar egunez tabernak ixteko deia egin zuen, hau da, AIMko kideek udal-funtzionarioekin negoziatzen zuten bitartean; baina tabernariak ez zioten erantzun deiari, eta AIMko kideek Rapid Cityko kaleak hartu zituzten zenbait gauez. Kaleborroka piztu zen. Istiluen aurkako poliziak kalera atera ziren, eta ehunka lagun jipoitu eta atxilotu zituzten, eta hiritik kanpora egotzi. Bartlettek berak zuzen-zuzenean hartu zuen parte goitik behera armatutako AIMko kideak moteletatik eta hirigunetik kanpora egotzen.³²⁹ Elite zuriak alerta gorenean zeuden, lurraren gaineko aldarrikapen lausoak nabarmen geratu baitziren.

AIMk Rapid City indarrez hartu zuen hilabete berean, erakundeko kideek Wounded Knee ere okupatu zuen. 1973ko

Dakota, Vermillion, South Dakota, 11. or.

328 *Ibid.*, 13, 14. or.

329 *Ibid.*, 11, 16–9. or.

otsailean, herri-mugimendutik sortua zen Oglala Siuxen Eskubide Zibilen Batzordeak (OSCR) eta lider tradizionalen talde batek beste urrats bat egiteko eskatu zioten AIMri. Richard «Dick» Wilson, Pine Ridgeko zinegotzi hautatua, gero eta autoritarioagoa bilakatzen ari zen, eta bere aurkari politikoak Oglala Nazioko Zaindaria (GOON) izeneko eskudroi paramilitarrarekin izutzen zituen. Bereziki, herri-mugimendua IRA legearen babesean eratutako gobernuaren aurkakoa zen, eta itunen kontseiluak eta ohiturazko lidergoa berrezartzea eskatzen zuen. Garai hartan, zenbait zeremonia krimenez jotzen ziren oraindik –adibidez, eguzki-dantza–, eta indiarrek ezkutuan egiten zituzten. Jendeak «antzinako bizimodura» itzuli nahi zuen; AEBrekin itun bidezko harremanak eduki, eta erreserbetako indarkeria bortitza desagerrarazi. Eta iruditzen zitzaion AIMk jendartean izandako oihartzun arrakastatsua erabilgarria izan zitekeela Oceti Sako-win jendeen biziberritze politiko eta kultural bat sustatzeko. Are garrantzitsuagoa zena, GOON eskudroietatik eta polizia-buru federalak babestutako Dick Wilsonen erregimenetik defendatzeko baliabideak eduki nahi zituzten.

Otsailaren 27ko gauean bilera bat egin zuten Pine Ridgeko Calico herrixkan. OSCRekin erakundea eta ohiturazko buruzagien kontseilu bat –Hodei Gorri, Burdin Hodei, Bele Engainatzaile, Artaburu Txar eta Etsai Hiltzaile– AIMrekin elkartu ziren, eta zer aukera zituzten aztertu zuten. Edozertara, adineko emakumeak izan ziren erabakigarrienak. Gizonek foro publikoan eztabaidatzen zuten bitartean, Oglala herriko Gladys Bisonette eta Ellen Mugitu Kanpamentua adineko andreak AIMko gerrariekin hitz egin zuten, eta arren eskatu zieten zerbait egiteko. Biek oroitu zuten nola Wilsonen aurka protesta egin zuten gehienak gobernantza tradizionalen sinesten zuten adinekoak eta emakumeak zirela. Kanpamentua Damugik galdetu zuen: «Non daude gure gizonak? Non daude gure defendatzaileak?»,³³⁰ Haien erregu sutsuak eragina izan zuen, eta Bele Engainatzailek eskatu zion AIMko kide eta Oglala herriko lider Russell Means-i bere gerrariak Wounded Knee herrixkara eramateko, non 1890ean sarraski bat gertatu baitzen Zazpigarren Zalditeria mendekariaren eskutik. AIMk herri indigena guztien bizitzaren eta askapenaren

330 Hemen aipatua: Warrior eta Smith, *Like a Hurricane*, 198. pr-

aldeko aldarrikapena egin zuen, eta mezua mundu osora zabaldu zen.

Komunikabideak AIMren eta Red Power mugimendua-
ren atzetik ibili ziren ekintza batetik bestera, baita FBIa ere. Informatzaileak infiltratu zituzten antolamendu-lanetan, eta difamazio-kanpaina bat abiatu zuten. 1956an, FBIk Kontrainteligentzia Programa (COINTRELPRO) abiatu zuen, Alderdi Komunistan infiltratu eta hura nahasi eta suntsitzeko. 1960ko eta 70eko hamarkadetarako, COINTRELPOk beste batzuk ere jarri zituen jomugan, hala nola eskubide zibilen aldeko liderrak, gerra-
ren aurkako mugimenduetako ikasleak, Pantera Beltza Alderdia eta beltz-jendeen aldeko mugimendua, oro har. 1967an horri buruzko barne-txosten bat egin zuten, «Beltz Jende Nazionalistaren Gorroto Taldeei buruzko Kontrainteligentzia Programa» izenekoa, esaten zuena ezen programaren xede nagusia zela jomugan jarritako taldeak eta «haien lider, bozeramaile, kide eta jarraitzaileak azaleratzea, nahastea, okerreko bideetatik eramatea, gezurtatzea edo beste eraren batean neutralizatzea», eta «indarkeriarako eta desordena zibilerako zuten jaidurari aurre egitea».³³¹ Baina COINTRELPOri buruzko erreportajeak prentsa-
ra filtratu ziren, eta, 1971n, bertan behera geratu zen ofizialki. Halere, geroago jakin zen FBIa AIMn infiltratu zela eta beste COINTELPRO operazio bat abiatu zuela bere kabuz, erakundea eta haren liderrak kontrolatzeko eta haien izena zikintzeko.

Wounded Kneeren hirurogeita hamaika eguneko oku-
pazioak argi utzi zien AIMri eta munduari zer neurritaraino zapaldu nahi zuen AEBk mugimendu indigena. AIMko kideek, nagusiki eskopetak eta ehizarako errifleak hartuta, arma era-
bat automatikoz eta pertsonak garraiatzeko ibilgailu blindatuz hornitutako GOON eskuadroi paramilitarrari aurre egin zieten. Egunero izaten ziren tiroketak. AIMri dagokionez, poliziak Frank Clearwater eta Lawrence «Buddy» Lamont hil zituen. Polizia-tak-
tika gogorren gagnetik, AIMk, OSCrk eta Oglala herriaren lidergo tradizionalak Oglala Nazio Independentea aldarrikatu zuten, Laramie Gotorlekuko 1868ko Itunaren autoritatean oinarrituz. Horrekin batera, AEBren eta Oceti Sakowin jendeen eta herri

331 Hemen aipatua: Brian Glick, *War at Home: Covert Action Against US Activists and What We Can Do About It* (Boston, MA: South End Press, 1989), 77. or.

indigenen arteko harreman koloniala amaitzeko beharra ere aldarrikatu zuten.

Kasualitatez, Wounded Kneeko okupazioak iraun zuen bitartean My Lai Sarraskiaren bosgarren urteurrena bete zen. Antzekotasunak zeuden bien artean, eta zaila zen antzekotasun horiei muzin egitea; izan ere, gertu zeuden 1890ko Wounded Knee sarraskian hildako indigenak eta AEBko Armadak Vietnamen bidegabeki hildako ehunka baserritarrak. John Grenier historialari militarrek «gerrarako lehen moldea» deritzo mugalderako indarkeriari: «Nola militarki zuten beharragatik hala esperientzia praktikoaren ikuspegitik, belaunaldiz belaunaldi estatubatuarrek, soldaduek zein zibilek, beren lehen tradizio militarren bereizgarritzat –eta, beraz, identitate partekatuen elementutzat– hartu zuten indiar gizon, emakume eta haurrek hiltzea».³³² D’Arcy McNickle 1949an «inoiz amaitzen ez den indiar gerra» izendatu zuenak –natiboen eta desjabetzaile inperialen arteko betiereko gatazka– mundu-mailako inplikazioa zuen zalantzarik gabe.³³³ Esan izan da gerra «etxera ekarri» zela 1960ko eta 70eko hamarkadetan, baina beti «beren etxea» izana zen lur indigena okupatueta. Nolako taktikak erabili zituen AEBren inperioak herri indigenen aurkako «gerra irregular»retan –hau da, inperioaren jatorrizko etsaien kontra–, halako taktikak erabili zituen baita etsaia zapaltzeko ondorengo gerra kontrairaultzaileetan: deskolonizazio-kanpaina; Viet Cong, Vietnamen; eta Black Power eta Red Power mugimenduetako ekintzaileak AEBn. Nola hiltzen zituzten zaindaria mugako hirietan, nola erabiltzen zuen polizia indarkeria basatia indigenen aurka... hori guztia garai bateko mugetan abiatutako erailketa-tradizio militarren aurpegi modernoa baino ez zen. AIMk ondo baino hobeto lotu zituen mugako hirietako indigenek egunero-egunero bizi zuten poliziaren jazarpena eta kriminalizazioa kolonien aurkako mundu-mailako borrokarekin eta itun-eskubideekin. Wounded Kneeko okupazioa borroka horren jarraipena izan zen.

Hirurogeita hamaika egunez, Wounded Knee lurralde indigena independente bat izan zen; mundu osoaren arreta erakarri zuen, eta mugimendu iraultzaileen babes. Lehenbi-

332 John Grenier, *The First Way of War: American War Making on the Frontier, 1607–1814* (Cambridge, EB: Cambridge University Press, 2005), 12. or.

333 Ikus D’Arcy McNickle, *They Came Here First*.

ziko aldiz, AEBko indiarrek publiko leial eta ulerbera bat zuten nazioartean, eta horrek erantzun militar eta polizial gogorra eragin zuen. 1973ko Wounded Kneeren ondoren, FBIk eta Dick Wilsonek beren aurkarien kontrako gerra zikina abiatu zuten Pine Ridgen, «izuaren erreinu» gisa ezagutzen hasi zena. Dozenaka lagun erail zituzten. Ehunka espetxeratu. 1975eko ekainaren 26an, Custer Zezen Saltokari etxaldeko gertaeretatik laurogeita hemeretzi urtera. FBIko bi agenteak lursailean sartu ziren, aitzakiatzat jarriz cowboy-bota pare baten lapurreta. AIMk kanpamentu bat ezarria zuen lursailean, Zezen Saltokari bikote zaharra GOONen eta FBIren jazarpenetik babesteko. Toki berean, gazteei zuzendutako kultura-kanpamentu bat ere sortu zuten. Tiroketa bat egon zen, eta Ronald A. Williams eta Jack R. Coler agenteak hilik suertatu ziren. Jarraian, FBIko eta BIAko poliziakideen aurkako bataila bat sortu zen, eta frankotiratzailer batek Joeseph Stuntz Killsright hil zuen, natibo gazte bat. Haren ostean, indigenen aurkako bilaketa itzel bat etorri zen. Geroago, AIMko lider Leonard Peltieri bizitza osoko bi zigor ezarri zizkioten, FBIko agenteen hilketa egotzita. Fiskal eta agente federalek ebidentziak eraiki zituzten, errugabetasun-frogak ezkutatu, lekukotasun faltsuak eman; epailearen aginduei entzungor egin zieten, eta Peltierrek hilketa haietan jokatu zuen paperari buruzko gezurrak esan zizkioten epaimahaiari. Kartzelatu zuten zuzenez geroztik, FBIko agente ohiek eta fiskal federal ohiek (tartean, zigorra ezarri zion fiskal-taldearen burua), eskubide zibilen eta giza eskubideen aldeko hainbat erakunderekin batera, akatsak aurkitu dituzte FBIk Peltierren kasuan izandako jokabidearen inguruan, eta errukitasuna eskatu dute. Bi alditan, Peltierren kasua barkamen presidentzialera edo errukitasunera gerturatu da. Bi kasuetan, FBI erakundeak AIMren eta Peltierren aurkako difamazio-kanpaina bat bultzatu du, argi utziz Indiar Gerrak bere horretan dirauela. Berrikiago, Obama presidenteak ez zuen onartu Peltier aske uzteko eskaera –Standing Rocken Dakota Access oliobidea gerarazteko ahaleginean zeudela egin zen–, nahiz eta bere gobernuak aurreko hamahiru administrazioek baino errukitasun gehiago eman zituen. Izan ere, Obamak ezin zituen alde batera utzi petrolioaren eta gasaren industriarekin zituen konpromisoak, ezta askatasunaren alde borrokatutako indigena errugabe baten kartzelatze jarraitua ere.

1973an Wounded Kneen galdutako bizitzen ondorioz, AIMri egotzi zioten gertakarien ondorengo neurri zorrotz hilgarrien erantzukizuna, baita komunitate indigenen gabezia gero eta larriagoena ere. Haren ostean Pine Ridgen zabaldu zen gerra zikinak AIMko berrogeita bost lider eta antolatzaileen erailketa ekarri zuen, guztiak ere argitu gabeak. Ezagunen artean Anna Mae Aquash-en exekuzioa dago, Mi'kmaq herriko aktibista zena; urte batzuetara, AIMrekin lotutako bi gizon natibo kondenatu zituzten Aquashen heriotzaren kariatara. Aquashen kasuan zurrumuru asko dabil, baina eraildako gainerako berrogeita bostak, gehienak lakotak, ez dira hain ezagunak, eta gaur egun ere haien familiek, sendiek eta seme-alabek erantzunik gabe jarraitzen dute.³³⁴ Red Powerrek estatuaren erantzun gogorra jaso bazuen ere, Jordan Camp historialariak zera dio: «Arreta guztia kale-protesten kriminalizazioan jartzen duten haiek gutxi-gutxitan lotzen dituzte protesta horiek jende txiro arrazializatuak egunero jasan ohi duen polizia-zaintzarekin, patruilekin eta kriminalizazioarekin».³³⁵ Bestela esanda, gatazka horien –nola AIMren aldekoena hala Pantera Beltzenekoena– helburua da egunero jasaten duten estatu-indarkeria deuseztatzea. Horren adibide da AIMk mugako hirietan egin zuen kanpaina, zeinak aurrez aurre jarri baitzituen polizia deskontrolatua eta justiziazko indarkeria.

Oraindik ere badirau AIMren aurkako sentipen orokorrak, batez ere Hego Dakota moduko lekuetan, non estatu-politikariek –adibidez, William Janklow– aktibista indigenak atxilotuz eta demonizatuz lortu baitute beren arrakasta profesionala. 1974an, Janklow justizia-ministro izendatu zuten indiarren aurkako olatu batean, eta hark adierazpen hauek egin zituen: «Hego Dakotan, indiar auziari heltzeko bide bakarra da AIMko liderrei pistola batez destatzea burura eta katua sakatzea».³³⁶ Nolanahi ere den, AIMko kideak hil beharrean, bi aldiz estatuko gobernadore eta behin Hego Dakotako senatari izandakoak gizon zuri bat hil zuen 2003an, Randy Scott, Cadillac autoarekin harrapatuta.

334 Ikus «Pine Ridge Reservation Deaths to Be Reinvestigated,» *Weekend Edition*, NPR, August 18, 2012, npr.org

335 Jordan T. Camp, *Incarcerating the Crisis: Freedom Struggles and the Rise of the Neoliberal State* (Berkeley, CA: University of California Press, 2016), 7. or.

336 Hemen aipatua: Peter Matthiessen, *In the Spirit of Crazy Horse: The Story of Leonard Peltier and the FBI's War on the American Indian Movement* (New York: Penguin, 1992), 107. or.

Gertakari haren ondorioz, Janklowk politika utzi zuen, eta ehun egun egin zituen kartzelan nahigabeko hilketagatik; desohoraturik hil zen, 2012an.

Neoliberalismoaren babesean, indiarren aurkako sentipena ere indartu egin da. Politikak eta ekonomia pribatizaziorantz berregituratu dira; besteak beste, jada ez dira diruz laguntzen hezkuntza, garraioa, osasungintza eta sektore publikoko enplegua, hau da, munduko beste toki batzuetan giza eskubidetzat jotzen diren zerbitzuak. Era berean, XX. mendearen erdialdetik aurrera areagotu egin da Estatu Batuek indiarren aurkako giroa sustatzen izan duten papera; besteak beste, ejerzitua eta kartzelak hedatuta. Esate batera, 1960ko hamarkadaren amaieran 200.000 pertsona inguru zeuden kartzelan, eta 2000ko hamarkadan, berriz, 2,4 milioi. 2018. urteari dagokionez, 6,9 milioi pertsona heldu daude kartzelan, presondegian edo baldintzapeko askatasunean, eta gehienak ez-zuriak eta pobreak dira. Hego Dakotan, kartzelatze-tasa AEBko handienetako bat da. Azken bi hamarkadetan, nazio- eta estatu-mailako krimenak behera egin du, baina, halere, Hego Dakotako espetxeratze-tasa batezbesteko nazionala baino hamar aldiz handiagoa da, eta %500 hazi da 1977-2012 bitartean. Presoen %30 baino gehiago natiboak dira, nahiz eta estatuko biztanleriaren %9 inguru bakarrik izan.³³⁷ Korrelazio zuzena dago bi hauen artean: kartzelatze-ratioaren igoera eta 1970eko hamarkadan natiboek jarduera politikoa areagotu izana. Errepresio politikorako erabili izan den ezabaketa-prozesu historikoak –hau da, natiboak beren lurretatik atera eta kartzelatzea– beste molde bat hartu du, natiboak masiboki kartzelatzea. Beraz, «indiar auzia» ez zen konpondu haien itun-eskubidea aitortuta –hala nola osasungintza, enplegua, hezkuntza eta gizarte-ongizatea–, baizik eta poliziaren eta kartzelen bidez.

Gaur egun, Hego Dakotako Rapid City hirian –zeina lakota unibertsoaren erdigune kosmologiko eta politikoan kokatuta baitago, He Sapan (Muino Beltzak)–, biztanleen %12 natiboak dira, gehienak lakotak. Halere, populazio natiboaren erdia baino gehiago pobrezia-lerrotik beherako mailan bizi da, eta indize

337 Hego Dakotako Justizia Kriminalaren Ekimena Lantaldea, *South Dakota Criminal Justice Initiative: Final Report 2012* (Pierre, SD: State of South Dakota, 2012).

hori erreserba gehienetan dutena baino handiagoa da.³³⁸ Hiriko etxegabeen hiru laurden natiboak dira. Natiboak dira baita hiriko espetxe-biztanleriaren erdia, eta atxilotuak izateko edo zirkulazio-isunak jasotzeko duten probabilitatea bost aldiz handiagoa da.³³⁹ Estatistika horiek argi erakusten dute Estatu Batuetan natiboen aurkako polizia-indarkeriak eredu orokor bati jarraitzen diola. *The Guardian*ek poliziak eraildako herritarren datu-base bat du Internet sarean, «The Counted» izenekoa. Bada, datu-base horren arabera, 2016a bereziki hilgarria izan zen natiboentzat. Poliziak hogeita lau natibo hil zituen, aurreko urtean baino gehiago eta beste ezein jende-talde baino portzentaje handiagoan. Erailketa gehienak erreserbatik kanpoko ordena-agenteez egin zituzten.³⁴⁰ Bizitza indigena krisi politiko, sozial eta ekonomikoan dago, eta polizia erabiltzen dute krisi hori kudeatzeko, batez ere erreserbatetik kanpora. Standing Rocken #NoDAPL mugimenduaren aurka zuzendutako polizia-indarkeria bortitza ez zen izan aberrazio edo desitxuraketa bat: oliobidearen aurka protestatzen ari ziren Uraren Babesleen atxiloketa gehienak, ez bada denak, erreserbatik kanpoko ordena-agente ez-natiboek egin zituzten.

Estatu Batuen ikuspegitik, arrazoizkoagoa izan da kartzelazte-tasa eta poliziaren aurrekontua areagotzea nazio indigenekin egindako itunetako –hau da, nazioarteko akordioetako– oinarritzko printzipioei eustea baino. Jasotako erantzuna oso bortitza izan bazen ere, AIMk eta Red Powerrek beste leku batera zuzendu zuten begirada (kapitulu honetan azaldu dugun bezala), hau da, Nazio Batuetara, eta, hala, jokabide kriminalen kariatara Estatu Batuak epaitzeko aukera eman diote munduari. Nolanahi ere, AIMren ondarea osatu gabea eta gutxietsia da oraindik. 1981ean, Nisqually herriko ekintzaile Janet McCloud-ek (Yet-Si-Blue) zera esan zuen, «AIMk ahalegin ausarta eta kementsua egin du bere

338 AEBko Errolda Bulegoa, Merkataritza Departamentua, *Poverty Rates for Selected Detailed Race and Hispanic Groups by State and Place: 2007–2011*, egileak Suzanne Macartney eta Kayla Fontenot, 2013ko otsailean egina.

339 Pennington Barrutiko Sheriffaren Bulegoa, *Annual Report, 2012*, 2013an egina; Nick Estes, «Off the Reservation: Lakota Life and Death in Rapid City, South Dakota,» *Funambulist* 5, 2016ko maiatza-ekaina, thefunambulist.net; Nick Estes, «Racist City, SD: Life is Violent, and Often Deadly in Rapid City,» *Indian Country Today*, 2014ko irailak 5, indiancountrymedianetwork.com.

340 «The Counted: People Killed by the Police in the US,» *The Guardian*, 2015eko ekainak 1, theguardian.com

jendearen bizitzak hobetzeko, etsai handiari aurre egiteko eta indiar herri guztientzat ordena sozial hobea lortzeko», ez soilik herri natiboek bultzaturik, baita ere Ipar Vietnameko eta Ipar Irlandako zapalduak, Frantziako hegoaldeko nekazariak eta Australiako eta Afrikako herri aborigenek. Baina «AEBko Indiarren Mugimenduaren (AIM) onuradun nagusiak kontseilu tribaletako buruzagiak dira; izan ere, beti agertzen dira prest mugimenduak eragindako aukerak baliatzeko eta indiar herrientzat lortutako aldaketa sozial positibo guztien merezimendua arrazoirik gabe bere egiteko». Nolanahi ere, beste askok ere atera zioten etekina, hots, gazte natiboek: «Auto berriak eskuratzen ahal dituzte, luzeago bizi dira, osasun hobea dute, heziketa hobea jasotzen dute eta ondo ordaindutako lanak dituzte».³⁴¹

1974an, Indiar Itunen Nazioarteko Kontseilua sortu zen –hori ere Wounded Kneeko okupazioaren eta AIMren pizkundearen emaitza izan zen–, eta horrek Nazio Batuen Erakundearen internazionalismo indigena bultzatzeko bidea zabaldu zuen; era berean, 2007ko Herri Indigenen Eskubideen Adierazpenarako oinarria ezarri zuen. 1980an, AIM Muino Beltzetara eta Rapid Cityra itzuli zen. Aldi hartan, ordea, Nazio Gorri Guztietako Emakumeak (AIMren kontingentzia bat, emakumeak buru zituen) Muino Beltzetako Aliantza (BHA) sortu zuten; abeltzain zuriz eta aktibista natiboz osatutako koalizio bat zen, eta haien helburua zen Muino Beltzetako uranio- eta ikatz-erazketa geraraztea. Munduko bazter guztietako hamaika mila pertsona elkartu ziren, eta meatzaritza-lanak erabat geraraztea lortu zuten. Aliantza desagertu ondoren, AIMk iraupen laburreko kanpamentu bat sortu zuen Rapid Cityren kanpoaldean, Trumoi Hori Kanpamentua (YTC) izendatu zuena, Raymond Trumoi Horiren omenez. Helburua zen Muino Beltzen eremua berreskuratzen hastea, Laramie Gotorlekuko 1868ko Itunari jarraikiz. Mugako hiriko aurreko kanpainen ez bezala, BHAK eta YTCk herritar zurien babesa ere lortu zuten, ekologismoaren eta itun-eskubideen aterkipean. Adibidez, Muino Beltzetako urre-meatzarien sindikatu batek bi kanpaina horiek babestu zituen, arrazoien artean aipatuz Lakota herriaren itun-eskubideen bortxa ezintasuna eta energiaren ga-

341 Hemen aipatua: *Oyate Wicaho* 1981eko urtarrila, Finzelen dokumentuak, 4. kutxa.

rapen korporatiboarekin lotutako kontuak, «langileen osasuna eta ongizatea» mehatxatzen zituztenak.³⁴²

Langile eta etxaldetar zuriekiko aliantza –biak ere lako-ten etsai historikoak zirenak– nahitaezkoa izan zen, erakutsi baitzuen langile-klaseko kolonoek eta natiboek esplotazio korporatiboaren aurkako borroka komun bat zutela. Era berean, batzuek zein besteek iraupenerako behar zituzten lurak babes-tu nahi bazituzten, ezinbestekoa zuten natiboen lur-eskubideen eta subiranotasunaren alde borrokatzea. Baldin eta Rapid Cityn eta Muino Beltzetan esplotazio-molde nagusia desjabetzea bazen, natiboen eta kolonoen askapenak ezinbestekoa zuen, gutxienik ere, Laramie Gotorlekuko 1868ko Itunari eustea. Denbora batez, hobetu egin zen mugako hirietako zuriek natiboekiko zuten sentipena. Are gehiago, AIMren aurkari nagusietako batek, Bartlett alkateak, zera onartu zuen, altxamenduaren ondoren «titularrik gabeko ahalegin bat» egiten ari zirela «isil-gordean», Rapid Cityko natiboen bizimodua hobetzeko.³⁴³

342 Ikus Black Hills Alliance, *The Keystone for Survival*; Miners for Safety, Yellow Thunder Camp press release, 1981eko apirilak 17, Roger A. Finzelen dokumentuak, Center for Southwest Research, University of New Mexico, 2. kutxa, 19. karpeta.

343 Bartletti elkarrizketa, 20.



Oceti Sakowin kanpamentuko kartel batek kanpamentuetan ordezkaturik dauden mugimenduen eta nazio indigenen aniztasuna erakusten du, hamarkada luzez nazioartean egindako lanaren emaitza dena. 2016ko azaroa. Egilearen argazkia.

SEI

INTERNAZIONALISMOA

Pipa honekin gatozen bezala, Itunarekin ere bagatoz, 1868ko Itunarekin. Itun honi odola dario. Duela ehun urte baino gehiago egin zen. Gure adinekoek esan ziguten Itun on bat zela. Baina norbaitek odola isuri zuen Itunaren gainean. Eta esan zuten: «Ager zaitez munduaren aurrean zure Piparekin, eta eskaini iezaiozu munduari, mundua den komunitateari; onartzen badute, Ituna elkarrekin garbitu ahal izango dugu».

Larry Ator Gorria, *Palais des Nations, Geneva, 1977*³⁴⁴

1977ko udaren hondarrean, zenbait jatorritako (Kanadako Sei Nazioak, Oceti Sakowin herriak, Hopi, Panama, Guatemala, Amazonia, Mexiko eta Txile) hainbat adineko indigenak osatutako talde txiki bat ehun eta hogeitasei laguneko ordezkariak baten buru izan zen Genevan, Suitza. Martxa hark historiaren markak zituen. Gainera, zenbait mendetako genozidioari eta politika kolonial zigortzaileei –asimilazioa eta lurren lapurreta– aurre egitea lortu zuten, berekin zeramaten baita ere mundu osoko ehunka milioi indigenaren nahia, alegia, Nazio Batuen Erakundean toki bat izatea. Ordura arte, ez Genevak ez Nazio Batuen Erakundeak ez zuten sekula halakorik ikusi, ezta gerora ere, ziurrenik. Jantzi tradizionalak soinean, ordezkariak «Raymond Trumoi Horiren abestia» kantatu zuen («AIMren abestia» lege ezagutu ohi dena), 1972an zaindari zuriak bortizki erail zuten oglala adinekoa ohoratzeko. Prozesioak alderik alde zeharkatu zuen hiri

344 Larry Red Shirt, «Concluding Ceremony September 23,» Indiar Itunen Nazioarteko Kontseilua, *The Geneva Conference: International NGO Conference on Discrimination Against Indigenous Peoples*, Palais des Nations, Geneva, Suitza, 1977ko irailak 20–23, 32. or.

menditsu ikusgarria, eta Palais des Nations jauregira iritsi zen. Indigenak hara hurbildu ahala, NBEko segurtasun-guardek ate bikoitz garaiak ireki zituzten. Handik aurrera egin, eta indigenek ahotsak ozendu zituzten bigarren solairuko batzar-geletarako eskailera-begian gora zihoazela. Batzar-gela haietan, munduko liderrak zeuden bildurik, herri kolonizatuen patua erabakitzeko; batzar-gela haietan, AEBko indiarrek atea erabat itxita aurkitu zituzten belaunaldiz belaunaldi. Toki berean, berrogeita hamalau urte lehenago, Haudenosaunee Konfederazioko kide zen Cayuga herriko Deskaheh liderrak (jaiotzako izena: Levi General) indigenen eskubideen eta naziotasunaren aldeko eskaera bat egin zion Nazioen Ligari; izan ere, Kanadako estatuak Sei Nazioen gobernua eraitsi zuen, eta Deskaheh liderrak uzkailltze haren kontrako aldarria egin nahi izan zuen. Nolanahi ere, eskaera hark ez zuen fruiturik eman. 1977ko hartan, ordea, indigenek hainbat herrialderen babesa lortu zuten, hala nola bloke sobietarreko herrialdeak, Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimenduko Hirugarren Munduko nazioak eta nazio-askapenerako mugimenduak (adibidez, apartheidaren aurkako mugimendua Hego Afrikan eta Palestinaren Askapenerako Erakundea), eta, bultzada horrekin, Ipar Atlantikoko potentziek beren harreman diplomatikoak kolonietatik «kanpo» ere gailentzeko zuten gaitasuna murriztu zuten. Ondorioz, AEBko komunikabideek eta diplomazialariek biltzarra boikotatu zuten neurri handi batean. Alabaina, biltzar hartan ezarri zen gerora nazioarteko indigenen eskubideen erreferentziazko dokumentu bihurtuko zenaren oinarria, hau da, 2007ko Herri Indigenen Eskubideen Adierazpena, lau estatu kolonizatzaile zuri eta ingeles-hiztunek –AEB, Kanada, Zeelanda Berria eta Australia– hasiera batean babestu nahi izan ez zuten dokumentua.

Indigenen ordezkaritza ezaugarri finko bat da orain NBE, baina ordezkaritza horren jatorri erradikala ez da oso ezaguna. 1977ko Genevako topaketaren aurretik, indigenek beste topaketa bat egin zuten Standing Rocken, Missouri ibaiaren erriberan; soilagoa, baina ez garrantzi gutxiagokoa. Ipar Ordokietako udaberoaren gerizan, 1974ko ekainaren 8 eta 16 bitartean laurogeita hamazazpi nazio indigena baino gehiagotako 5.000 lagun elkartu ziren. Astearen amaierarako, Indiar Itunen Nazioarteko Kontseilua sortu zuten, AEBko Indiarren Mugimenduaren (AIM)

nazioarteko adar bat, zeinaren helburua baitzen NBE nazioarteko aitortza eskuratzea mendebaldeko hemisferioko herri indigenentzat. Itunen Kontseiluaren sortze-agirian («Independentzia Jarraituaren Adierazpena») zehaztu zuten naziotasuna eta itun-eskubideak direla AEBko indiarren identitate politikoa- ren ezaugarri nagusiak. «Ameriketako Estatu Batuak gaitzesten ditugu, Laramie Gotorlekuko 1868ko Ituna larriki urratu dutelako. Izan ere, Oglala Nazio Independenteko herritarrak militarki inguratu eta erail dituzte, eta gosearen goseaz erbestera joatera behartu»; halaxe zioen sortze-dokumentuak, erreferentzia eginez 1973an Wounded Knee okupatu ondoren AIMren aurka hartutako neurri zorrotzei. Itunen Kontseiluak dei egin zien «nazio kontzienteei», bat egiteko eta «Ameriketako Estatu Batuak salatu eta auzipetzeko Nazio Natibo subiranoen aurkako praktika genozidengatik; adibiderik berrienak bi dira: 1973ko Wounded Knee, eta behin eta berriro uko egitea Nazio Batuen Erakundearen 1948ko Genozidioari buruzko Ituna sinatzeari».³⁴⁵ Hirurogeita hamaika eguneko setioaren ondoren, AIMko liderrak atxilotu eta auzi-prozeduretan nahasi zituzten. Gero errepresio bortitza etorri zen, FBIren Kontrainteligentzia Programa (COINTELPRO) ezagunaren eskutik, zeinak gutxigatik ez zituen ezereztu AEBko mugimendu beltzak, indigenak eta iraultzaileak. Mugimendu indigenak estrategia aldatu zuen, eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidera jo zuen; horri esker lortu zuen estatu-errepresioa izugarria zen une hartan behea ez jotzea.³⁴⁶

Halere, Itunen Kontseilua ez zen izan Daniel Cobb historialariak «mundu-mailako identitate indigena» deritzonaren lehen bertsioa, ezta bakarra ere.³⁴⁷ Aitzitik, internazionalismo indigenaren tradizio luze batetik zetorren, eta hari zor zitzaion.³⁴⁸

345 Indiar Itunen Nazioarteko Lehen Kontseilua, «Declaration of Continuing Independence,» iitc.org/about-iitc/the-declaration-of-continuing-independence-june-1974.

346 AIMren internazionalismoaren historiari buruz gehiago jakiteko, ikus Roxanne Dunbar-Ortiz, «How Indigenous Peoples Wound Up at the United Nations,» in *The Hidden 1970s: Histories of Radicalism*, ed. Dan Berger (New Brunswick, NJ: Rutgers, 2010), 115–34; COINTEL programaren historiari buruz gehiago jakiteko, Ward Churchill eta Jim Vander Wall, *Agents of Repression: The FBI's Secret Wars Against the Black Panther Party and the American Indian Movement* (Boston, MA: South End, 1990).

347 Ikus Daniel M. Cobb, «Asserting a Global Indigenous Identity: Native Activism before and after the Cold War,» in *Native Diasporas: Indigenous Identities and Settler Colonialism in the Americas*, editoreak Gregory D. Smithers eta Brooke N. Newman (Lincoln, NE: University of Nebraska Press, 2014), 443–72. or.

348 Ikus baita Leanne Betasamosake Simpson, *As We Have Always Done: Indigenous*

Europar landutako harremanen aurretik, nazio indigenak sarri jarri ziren elkarrekin harremanetan, aliantzen, senidetasunen, gerren, bakearen edo merkataritzaren bidez. Aurreko kapituluetan erakutsi bezala, giza nazioen arteko akordioez gain nazio ez-gizatiarren artekoak ere egiten ziren, hala nola bufaloa eta lurra. Itun haiek diplomaziaren oinarria osatzen zuten, eta dute oraindik ere, eta erakusten dute naziotasun indigenaren estatusa aurretiaz ere bazegoela, eta jarraitua zela. Nazio subiranoek ez dute nazioarteko harremanik edo itunik egiten «etxe barruko» herriekin. Aitzitik, subiranotasunaren oinarririk funtsezkoena da desberdin gisa jotako haien artean harremanak negoziatzeko ahalmena, hau da, beste herri subirano eta nazio batzuekin. Baina «subiranotasun» eta «nazio» kontzeptuek esanahi desberdina dute herri indigenentzat eta europar jatorriko homologoentzat; era berean, ez datoz guztiz bat Hirugarren Munduko deskolonizazio-mugimenduek lortu asmo zuten estatuzen nazioaren definizioarekin. Defentsarako balio handia izan arren, Mendebaldeko eta Hirugarren Munduko kontzeptu horiek zati batean bakarrik islatzen dituzte erresistentzia indigenaren tradizioak.

Estatu kolonialaren barruan berdintasuna bilatzeko proiektutik askoz harago, internazionalismo indigena erradikalaren tradizioak arrazan, klasean eta nazioan oinarritutako hierarkia kolonial guztietatik aske zen mundu bat irudikatu zuen. Ikuspegi horrek aukera eman zien antolamendu indigena iraultzaileei –esate batera, Itunen Kontseiluari– ahaidetzeko, nolabait esan, desberdintzat jotzen zituzten haiekin, eta, hala, beren burua irudikatzen Hirugarren Munduko borroken eta ideologiaren parte gisa, uko eginez erabat Lehen Munduaren inperialismoari eta ohiz kanpokotasunari (han bizi arren). Egon bazeuden Lehen Munduan, baina ez ziren hangoak, amerikar indiarrek Estatu Batuetan dauden bezala, erabat hangoak izan gabe. Ipar Amerikako eta munduko indigenak liskartu, borrokatu eta hil egin ziren ideia indartsu horiek aldarrikatu, berrezarri eta birdefinitzeko. Haien xedea izan da nazioen familian dagokien tokia betetzea.

Freedom Through Radical Resistance (Minneapolis, MN: University of Minnesota Press, 2017), 55–70. Here, she writes about Nishnaabeg internationalisms between and among human, nonhuman, and other-than-human relations and nations, and the definition of Indigenous territories.

Nolanahi ere, internazionalismo indigena erradikala AIMren eta Itunen Kontseiluaren aurretikoa da. Izan ere, mugimendu panindigena garaikideak sortu ziren, hain zuzen ere, Red Powerrek hamarkada bat baino gehiago zeramalako antolatzen, alegia, 1960ko hamarkadaren hasieratik, ia-ia AIM sortu baino hamarkada bat lehenagotik. Aurretik ere, 50eko hamarkadan, Flathead herriko D'Arcy McNickle aditu eta idazleak eta AEBko Indiarren Kongresu Nazionalak internazionalismoaren alor intelektual eta politikoa bera aztertu zuten. Eta, lehenago, AEBko Indiarren Elkarteak toki bat eskatu zuen 1919ko Pariseko bake-negoiazioetako mahaian, baita Nazioen Ligan ordezkari bat ere. Kasu guztietan, galdera bera azaleratzen zen: herri indigenak nazioak badira, zergatik ezin dute izan autodeterminazioerako eskubidea?

Lehen Mundu Gerraren ondoren, mundu kolonialaren autodeterminazioari buruzko pentsamendu-korronte guztien artean bi gailendu ziren. Lehenengoan, AEBko presidente Woodrow Wilson-ek eskubide-multzo mugatuko autodeterminazioaren alde egin zuen, ordena koloniala erabat nahasiko ez zuena. Nolanahi ere, internazionalismo liberal hark alde batera uzten zituen argiro herri indigenak, zeinek uste baitzuten beren nazioak kolonoek sortutako estatuen aurretikoak zirela. Wilsonen printzipioak oso gutxitan aplikatu zitzaizkion Ipar Amerikari edo AEBri, eta inoiz ez ziren saiatu herri indigenetara zabaltzen.

Bigarren ikuspegia erradikalagoa zen. V.I. Lenin iraultzaile komunistak proposatu zuen, eta esaten zuen nazio kolonizatuek eskubidea zutela beren nagusi kolonizatzaileengandik bereizteko eta independentzia aldarrikatzeko. Hirugarren Munduko deskolonizazio-mugimenduak ere bazuen ikuspegi hori, mundu-mailako iraultza sozialista eta komunista baten parte gisa, eta beste testuinguru batzuetan ere sarri aplikatu izan da, hala nola Asian, Afrikan eta Hego Ameriketan. Baina ikuspuntu hori apenas igar zitekeen Ipar Amerikan, ez bada indigenen, beltzen, asiarren, karibetarren eta txikanoen askapen nazionalerako mugimenduetan.

Itunen Kontseiluak naziotasun indigenaren alde egin zuen, naziotasun hori mundu-mailako mugimendu anti-kolonialaren parte gisa ulerturik eta Hirugarren Munduko askapen-mugimenduarekin bat etorritik. Hamarkada luzez egon-

da gero lurren galera pairatzen, biziraupen hutsari aurre egiten, programa federalekin lan egiten saiatzen, auziak epaitegietara eramaten, kitatze-legediaren aurka borrokatzen eta jende askori eragiten zion lekualdatzeari aurre egiten, Oceti Sakowin herrien subiranotasunaren aldarrikapenak anbiziotik preskripziorako jauzia egin zuen. Urratzeko bide gutxi geratzen ziren, ez bazen nazioarteko itun-eskubideak bilatzea. Estatu Batuekin egindako itunek naziotasuna frogatzen zuten. Baina zer erakunde juridikok berretsiko zuen hori, AEBk ez bazuen halakorik egiten? Baldin eta xedea bazen kontinente osoaren okupazio bidegabea iraultzea, hasieratik okupazio hori justifikatu zuten sistema juridiko eta politikoen bidez indigenen eskubideak hobetzeko egin ahalegina mugatua suertatu zen kasu batzuetan, eta alferrikakoa bestetzuetan. Beraz, biziraun nahi bazuten, AIMk eta Itunen Kontseiluak beste norabait jo behar zuten beren eskakizunak defendatzeko, alegia, munduaren historiako eraikuntza politikorik boteretsuena den nazio-estatuaren mugetatik kanpora.

Kolonizazioaren aurretik eta bitartean, nazio indigenak konfederazio, aliantza eta gobernuetan autoantolatu ziren. Zazpi Suen Kontseilua (Oceti Sakowin), adibidez, lakota, dakota eta nakota hizkuntzak darabiltzaten zazpi nazioen arteko konfederazioa da, guztiak ere Ipar Ordokietakoak eta Mendebaldeko Laku Handietakoak. Ez da bakarra, ordea; Ipar Amerikan bakarrik, beste hauek ere badaude: Creek Konfederazioa hego-ekialdean, Sei Nazioen Haudenosaunee Konfederazioa ipar-ekialdean, Hiru Suen Kontseilua (Ojibwe, Odawa eta Potawatomi herriek osatua) Laku Handien eremuan, Indiar Nazio Batuak Ohio ibaia-
ren haranean (Tecumseh-ren Shawnee herria buru dela), All Indian Pueblo Kontseilua hego-mendebaldean eta Burdinazko Konfederazioa Ipar Ordokietan. Ipar Amerikan beste hainbat konfederazio politiko ere sortu ziren kolonoek estatuak sortu aurretik eta bitartean, eta haiek gorabehera.³⁴⁹ Eta haien ondareak nekez geratuko dira jatorrizko iraganari loturik.

Adibidez, Oceti Sakowin konfederazioko internazionalismo modernoa XX. mendean sortu zen, aktibismo eta erresistentzia indigenarentzat mugimendu txikikotzat jo ohi den garai batean. Ipar Amerikan bakarrik, kolonialismoaren aurre-

349 Ikus Cobb, «Asserting a Global Indigenous Identity».

tik hamarna milioi indigenakoa izan zen biztanleria 300.000ra murriztu zen. Flathead herriko historialari D'Arcy McNickleren ustez, zeinak 1949an idatzi baitzuen, sarraskitze hura bi prozesu nagusiren ondorio izan zen: jabetza pribatua ezartzea eta garai batean lurak lur komunal gisa mantendu zituen gobernantza indigena deuseztatzea. XX. mendearen lehen urte haietan, nazio indigenek ondasun gutxi zeuzkaten, eta ez zeukaten ez jabetza kolektiborik ez botere politikorik; izan ere, lur indigenak drastikoki murriztu ziren, eta erreserben sistemak ohiturazko gobernuak erorarazi edo ia erabat suntsitu zituen. Baldin eta garai batean herri indigenak Ameriken zuhaitza izan baziren, sustraia lurrean sakon kiribildurik, XX. mendeko erronkarik funtsezkoena zen «motzondo erauzitik haztea», McNicklek izendatu bezala.³⁵⁰

Sarraski fisikoak eta indigenen botere politikoak jasan zuten errepresioak AEBren saiakera genozida baieztatu zuten, baina ez zuten lortu beren asmoa betetzea. Eta McNicklek ondorioztatu zuen ezen Estatu Batuek, nahiz eta beste kasu batzuetan inklusiorako aldarrikapen pluralistak egiten dituzten, ezin dutela onartu, funtsean, «nazio baten barruan beste nazio bat egotea». Natiboak asimilatu behar baziren, banako gisa asimilatuko zituzten, ez nazio gisa. Herritarren imajinarioan, natiboak historiaren oihanean desagertu ziren, ez ziren sekula izan benetako nazioak, eta goragoko zibilizazio batek menderatu zituen. Inoiz nazioak izan baziren, *benetako* nazioak eklipsatu eta ordezkatu zituen, hau da, Estatu Batuek. Ezabaketa haiek gorabehera, tradizio politiko indigena bizek aurrera egitea lortu zuten. Alabaina, trebatu gabeko begiarentzat dena bere lekuan zegoen. Motzondo erauzitik berriz ere bizitzaren zuhaitza hazten hasi zen, erresistentziaren zuhaitza, hamarkada batzuk geroago iraultza gisa loratuko zena.

Badira XX. mende hasierako bi lakota aktibista gaur egungo internazionalismoaren aitzindaritzat jotzen direnak, baina ez dira, inolaz ere, bakarrak. Lehena Ohiyesa izan zen, Charles Eastman izena ere bazuena; Mdewakantonwan herriko medikua, bufalo-larruzko tipi batean jaio zen, eta dakota lurretan hazi. Lau urterekin, AEBren eta dakoten arteko 1862ko gerran esta-

350 D'Arcy McNickle, *They Came Here First: The Epic of the American Indian* (New York: Lippincott, 1949), 275.

tubatuarrek dakota jendeak Minnesota lurretatik bortizki egotzi ostean, Eastman eta bere familia Kanadara joan ziren ihesi. Kristau misiolarien eskola batean ikasi ondoren, 1887an Darmouth Unibertsitatean lizentziatu zen, eta gero medikuntza ikasi zuen Boston Unibertsitatean. Europako medikuntzan mediku lizentziatu gisa jardun zuten lehen indiar estatubatuarretako bat izan zen, eta, BIAko mediku legez, 1890eko Pine Ridgeko Wounded Knee sarraskiko biktimak artatu zituen.³⁵¹

Bestea Zitkala-Ša zen, jaiotzez Gertrude Simmons, Ithak-tonwan herriko idazle, musikari eta ekintzailea; Greasy Grass Guduaren urte berean jaioa zen, Missouri ibaiaren ertzean, Yankton Erreserban. Ume zelarik, misiolari kuakeroek sorterritik atera eta Indianara eraman zuten, kristau misiolarien eskola batera. Gobernuaren eta elizaren artean kudeatutako barnetegien produktua izanik, Carlisle Indiar Eskolako irakasle bilakatu zen, baita haren kritikaririk irmoena ere. Umore garratzekoa zen, eta abertzaletasun indigena sendokoa, eta horrek bere karrera literarioa hauspotu zuen, baita bere nazioa historian zegokion tokira itzultzearen alde lan egiteko bizi arteko engaiamendua ere. Bere ezein kidek baino gehiago –Eastman barne–, Zitkala-Šak kultura indigena berritzearen alde egin zuen, eta autodeterminazio politikorako molde erradikal bat sustatu zuen; horrek, biografo baten arabera, «Red Power mugimenduko bide-erakusle» bihurtu zuen.³⁵² Nolanahi ere, biak ziren beren garaiko produktu bakanak: barnetegi batean heziak, baina historia, kultura eta politika indigenan tinko errotuak. Eastman eta Zitkala-Ša modu berean batu ziren mugimendura, alegia, hezkuntza formalean hezitako indiar estatubatuarren lehen hiltzadietara joanda, hau da, «aurrerakoi gorri»en mitinetara.

1911n, Oglala herriko eta itunen kontseiluko kide Henry Hartz Zutunek Charles Eastmanekin bat egin zuen, nazio-mailako erakunde bat sortzeko. Izan ere, zubi bat eraiki nahi zuten bi alde hauen artean: batetik, Itunen Kontseiluko herri-mailako antolamendua; bestetik, barnetegietan ikasitako indiar estatu-

351 Ikus David Martinez, *Dakota Philosopher: Charles Eastman and American Indian Thought* (St. Paul, MN: Minnesota Historical Society Press, 2009); Raymond Wilson, *Ohiyesa: Charles Eastman, Santee Sioux* (Urbana, IL: University of Illinois Press, 1983).

352 Tadeusz Lewandowski, *Red Bird, Red Power: The Life and Legacy of Zitkala-Ša* (Norman, OK: University of Oklahoma Press, 2016), 16. or.

batuarren belaunaldi gazteagoak. Hala bada, 1911ko Kolonen Egunean,³⁵³ Indiar Estatubatuarren Elkartea (SAI) sortu zuten, xede nagusi batekin: Oceti Sakowinen lurren deuseztapen etengabearen aurka borrokatzea; izan ere, lur hori 13 milioi akretik 8 milioira murriztu zen hamar urte baino gutxiagoan. Arrangurarik handiena He Sapa (Muino Beltzak) eremuak ematen zien, «pistolaz» kendu baitzieten, Cheyenne River erreserbako lider James Bele Lumaren hitzetan, 1876ko Muino Beltzen Legearen bidez.³⁵⁴ Errusia iraultzailean langileen kontseiluak –edo sobietak– sortu baino lehen (1905ean sortu ziren, eta 1917an hartu zuten boterea), Oceti Sakowin herriaren mugimendu sozialeko lidergoak itunpeko kontseiluak eratu zituen Ipar Amerikan 1887an (hau da, lurren banaketari buruzko Dawes Legearen urte berean), indiar agente federalak nagusi ziren erreserba-sistemari aurre egiteko. (Zitkala-Ša gero batu zitzairen, eta SAiko idazkaria eta elkarteak hiru hilez behin argitaratzen zuen *American Indian Magazine* aldizkariaren editorea izan zen.)

Alde askotatik begiratuta, itunpeko kontseiluak izan ziren –zeinak nagusiki ahaidetasunean oinarritutako lidergo-egitura historikoen itzalean sortu baitziren– erresistentzia indigenaren tradizioa eskuz esku igaro zuten kolektibo politikoak; itunak egin eta sinatu zituzten belaunaldietatik jasotako tradizioa hartu, eta indiar agenteek barnetegi-sistemaren bidez asimilatutzat jotzen zituzten haiei eman zieten. Izenak berak dioen bezala, kontseiluen identitate politikoaren erdigunean AEBren eta nazio indigenen artean egindako itunak zeuden. Beraz, itunek –eta, kasu honetan, Laramie Gotorlekuko 1868ko Itunak– frogatzen zuten nazio indigenek nazioarteko harremanak zituztela, eta AEBz bestelako nazio-estatusa.

Ibilbide laburra izan bazuen ere (ofizialki, 1923an desegin zen), SAI elkarte indiar estatubatuarrek soilik gidatutako lehen erakunde nazional profesionala izan zen, eta AEBko Indiarren Kongresu Nazionalaren aurrekari ideologikoa, 1944an sortu zena. SAI Garai Progresistako beste elkarte garaikide batzuekin alderatu ohi da; adibidez, bi urte lehenago beltz-jendeen gidaritzapean sortutako NAACPren. Baina bi erakunde haien artean

353 Ameriketako Estatu Batuetan «Columbus Day» esaten diote urriaren 12ari, hau da, Amerikaren ustezko aurkikuntza ospatzeko izendatutako egunari. [I.o.]

354 Lazarus, *Black Hills/White Justice*, 128. or.

desberdintasun bat zegoen, ez baitzuten modu berean uler-
tzen askatasunerako bidea. SAiren xede nagusiak ziren Indiar
Bulegoa deuseztatzea, lurren esleipen-politika amaitzea, itun-
eskubideen alde borrokatzea eta indigenei AEBko herritartasuna
ematea. Baina itunetan jasotako obligazioak betetzea, alde bate-
tik, eta AEBko herritartasuna, bestetik, ez zetozen –eta ez datoz
oraindik– guztiz bat beltzen eta zurien arraza-bitartasunarekin.
Lehena arraza-inklusioari eta kolonia demokratizatzeari da-
gokio, eta bigarrena, berriz, AEBk Dortoka Uharte³⁵⁵ okupatu,
inbaditu eta kolonizatzearen aurkakoa da.

Bai herritartasunaren aldeko aldarrikapenak bai legearen
aurreko berdintasun formalaren aldekoak asimilazionistatzat jo
daitezke, eta hala ziren, kasu askotan. Nazio indigena batzuek,
hala nola Haudenosaunee Konfederazioak, beren subiranotasu-
na baieztatzen zuten nola-eta uko eginez irmoki Estatu Batuetako
eta Kanadako kolonoen herritartasunari. Beste batzuentzat, or-
dea, herritartasuna eskatzea ez zen nazio-estatuaren aurrean
guztiz errenditza. SAiren urteroko lehen bileran (1912an), adi-
bidez, zehaztu zuten «indiar arazoa» «bi aldiz gaizki» zegoela
eta «kondizio faltsuak» zirela nagusi. Alde batetik, kolonoen
agindupean ezinezkoa zen erabateko independentziaren «garai
bateko kondizioetara» itzultzea. Bestetik, AEBko indiarrei estatu-
batuar-herritartasuna ukatu zitzairen, eta ez ziren «ez herritarrak
ez atzerritarrak». «[Indiarrak] Bere ‘nazio’arekin egindako kon-
tratuei ‘itun’ deritze duintasunez», zioen SAIk, «eta, halere,
ezin ditu baliatu nazio baten eskubideak eta ezin ditu betearazi
itunean jasotako xedapenak».³⁵⁶ Eastmanek absurdua zeritzon
«nazio atzerritar independente» bat izatetik «nazio barruko na-
zio dependente» bat izatera igarotzeari. Bere ustez, zehatzagoa
zen esatea «eskubide ñimiñoak dituen betiereko biztanlea»,

355 Dortoka Uharte [Turtle Island] deitzen diote Lurrari edo Ameriketako Estatu Batuei
AEBko zenbait indigenak eta Lehen Nazioetako zenbait jendek, baita indigenen
eskubideen aldeko ekintzaile batzuek ere. Izenak Ipar Amerikaren kreazioaren azalpen
indigena komun bat du oinarri; izan ere, ahozko zenbait istorioren arabera, dortoka
batek munduari eusten dio bere bizkarrean, eta dortoka hori bizitzaren beraren ikono
bat da. Zenbaitentzat, nortasunaren, kulturaren, autonomiaren eta ingurumenarekiko
errespetu sakonaren adierazlea ere bada. (Iturria: Wikipedia eta <https://www.thecanadianencyclopedia.ca/en/article/turtle-island>) [l.o.]

356 Hemen aipatua: Society of American Indians, *Report of the Executive Council on
the Proceedings of the First Annual Conference of the Society of American Indians*
(Washington, DC: Society of American Indians, 1912), 11. or.

gogora ekarriz Auzitegi Goreneko presidente John Marshall-ek emandako epaia 1823ko *Johnson vs. M'Intosh* auzian.³⁵⁷

1887ko Dawes Legeari esker, natiboen *gizabanako* gisa soilik lor zezaketen AEBko herritartasuna. Horretarako, baina, beren lurak pribatizatu behar zituzten, eta, beraz, itunpeko lur kolektiboak gero eta urriagoak ziren. Lurak kudeatzeko eta nekazaritzan jarduteko 'gaitasuna' erakutsita gero, herritartasuna eskatzeko aukera zuten (AEBko indiarrei 1924an onartu zitzaizen herritartasuna eskuratzeko ahalmena). Formalki, lurren banaketa 1934an bukatu zen, Indiarrak Berrantolatze Legea (IRA) onartzearekin batera. Horrek indiar identitatea ezabatzeko tresna bihurtu zuen herritartasuna; izan ere, lurjabe pribatu eta herritar bihurtzeko, indiar *gizabanako*ek uko egin behar zieten eskubide kolektiboari, jabetza kolektiboari eta identitate politiko berezi bati. Indiarrak ez zituzten jotzen beren nazioetako kide iraunkor gisa, beren lurraldearen eta patuaren jabe. Aitzitik, «itunak berdinetik berdinerara negoziatu ondoren», Eastmanek zioen bezala, indiarra, estrainioki, haur gisa jaiotzen zen berriro, hau da, ezgai, axolagabe eta bere kabuz pentsatzeko ezgauza.³⁵⁸ Bere ustez, toki desberdinetan egon arren, alegia, bata apopiloarren lekuan eta bestea zaindarenean, «nazio zibilizatu guztien obligaziorik behinena betetzen saiatu behar dugu; itunak; obligaziorik behinena; nazioarteko zuzenbidea».³⁵⁹

Kolonizatzaileen herritartasun bera eskuratzearen eta kondizio kolonial betierekoaren arteko paradoxa ez zen izan arrazoi nahikoa SAI elkartearentzat AEBren arraza-politiken esparruan lanik ez egiteko, zeinari «arraza-harreman» esaten baitzioten oso modu zalantzagarrian. Eastman ekintzailea W.E.B. Du Bois beltz intelektual eta ekintzailearen lagun egin zen, eta hark, dudarik gabe, eragin handia izan zuen bai Eastmanengan bai SAI elkartearen hasierako zuzendaritzan, non Du Bois baitzen boto-eskubidea zuen kide ez-natibo bakarra.³⁶⁰ 1911n, Eastmanek *The Soul of the Indian* argitaratu zuen, zeinaren

357 Charles A. Eastman, *The Indian Today: The Past and Future of the First American* (New York: Doubleday, 1915), 101. or.

358 Charles A. Eastman, «Justice for the Sioux,» *American Indian* 7:2, Summer 1919, 79. or.

359 *Ibid.*, 148. or.

360 AEBko Indiarraren Elkarte, *Proceedings of the First Annual Conference of the Society of American Indians*.

izenburuak Du Boisek 1903an argitaratutako *The Soul of Black Folk* liburuaren oihartzuna baitu. Irismen-esparruaz bezainbatean desberdinak baziren ere, bi liburuek konpromiso bera erakusten zuten arraza-imaginario bat eraikitzearen inguruan, zeinean jo-koan baitaude nola nazio zuriaren arimak hala hark bazterrean utzitakoena. Horren harira, Du Boisek esaldi ezagun hau idatzi zuen: «Beste munduaren eta nire artean beti dago inoiz egin gabeko galdera bat: nola sentitzen zara zu zeu arazo bat izanda?» Galdera hark bakarrik egiten zion erreferentzia Jim Crow-en agintaritzapeko Estatu Batuetan beltz izatearen esperientziari, alegia, konpondu beharreko arazotzat jotzea beste jendeek norbera. Baina «beltz-jendeen arazo»aren definizio hori buruhaute bat zen Du Boisentzat, arrazismoaren bene-benetako muinetik bereizirik zegoelako, hau da, esklabotasunak utzitako ondarea, segregazio-erakundeak, jipoiak eta arrazagatiko izua. Berak diagnostiko hau egiten zuen «beltz-jendeen arazoaren» inguruan: beltzek «kontzientzia bikoitz» bat garatu dute, «bi arima, bi pentsaera, elkar lotu gabeko bi borroka», bata «estatubatuarra» eta bestea «beltza». Arraza-imaginario hori AEBtik harago hedatzen zen, Du Boisek ederki azaldu bezala: «XX. mendeko arazoa kolore-lerroaren auzia da, hau da, zer harreman dagoen arraza ilunen eta argien artean Asian eta Afrikan, Amerikan eta itsas irletan».³⁶¹

Liburuan, Du Boisek Estatu Batuen hegoaldeari begiratu zion kolore-lerroaren historia osatzeko. Bere kontakizunean, trenez egiten du «Gerriko Beltza»ren ibilbidea,³⁶² eta AEBren historiari beltz- eta zuri-jendeentzat toki bereziak dituen «Jim Crow-en bagoi»aren ikuspegitik begiratzeko gonbita egiten die bere bidaia-lagunei. Trenak «Txerokien antzinako lurrak zeharkatzen ditu; Txerokiak, indiar nazio ausart hura, aberriaren alde hain luzaz borrokatu zena, harik eta Patuak eta Estatu Batuetako Gobernuak Mississippitik harago bultzatu zituen arte». Gerriko Beltzaren historiaren laburpena egitean, aipagai ditu Hernando de Soto, Georgiako esklabu-salerosketa, Creek Konfederazioa, Haitiko Iraultza eta Txerokien existentzia eta lekualdatzea. Hego-

361 W. E. B. Du Bois, *The Souls of Black Folks: Essays and Sketches* (Chicago, IL: McClurg, 1903), 1, 3, 13. or.

362 Gerriko Beltza (ingelesez, Black Belt) AEBren hegoaldeko eskualde bat zen, Alabama eta Mississippi hartzen zituen, baita hegoaldeko beste eremu batzuk ere, beltz-jendeen populazio handiak zituztenak. (l.o)

ekialdeko erresistentzia indigenari buruz ari delarik, ostera, zera dio: «Gerra-oihua isilarazi zuten, eta indiarrek mendebalderantz jo zuten apurka».³⁶³ Arraza-bitartasunaren kontuaz jabetzen bazen ere, Du Boisek ezin zuen ulertu kolonialismoaren historia polemikoa, eta ezin zuen ulertu ezta ere indiar nazioak beti eta etenik gabe existitu zirela hegoaldean eta beste leku batzuetan.

Natiboen presentzia iraganeko edo «antzinako» kultura batera murriztea ohitura hedatua da historian eta politika garaikidean. Horri aurre egiteko, Eastmanek «ikuspegi humanoa» hartu zuen *The Soul of the Indian* liburuan, «ez ikuspuntu etnologikoa». Alde batera utzi zituen «arrotzek» idatzitako etnografiak, zeinek «jakin-minarekin lotutako kontuak» bihurtzen baitzituzten gizarte-sistema indigena konplexuak, eta ez zien begiratu indigenei hiltzorian zen arraza baten azken aztarnari bezala, sorterritik eta mundu modernotik hagitx urrunduak zirenak. Garai hartan, antropologoak saldoka iristen ziren erreserbetara, beti desagertzeaz omen zen herri «zahar» hura babesteko ahaleginean. Testuinguru hartan, ezinbestekoa zen desagertzen ari zen arraza hari buruzko ezagutza lortzea, haien istorioen bidez eta haien aztarnak argitara aterata, eta horrek esan nahi zuen, gutxi gorabehera, «arkeologia»ren izenean hilobiak lapurtzea. Aitzitik, Eastmanek ez zuen nahi «hezur gehiago metatzea, baidzik eta hezurak haragiz eta odolez janztea». Hitz bitan esanda, indigenak eskubidedun gizakiak ziren, eta Eastmanek nahi zuena zen mundua gizaki haiekin engaiatzea integritate kulturalari eta autodeterminazioari zegokionez. Natiboen erlijioa kristautasunarekin alderatu zuen, eta Europak herriak zibilizatzeko zuen grinaren falazia nabarmendu, zeina baitzen, besterik gabe, «diruaren, boterearen eta konkistaren irrika, arraza anglosaxoiaren bere-berezko ezaugarri bat». «Bere Jainkoaren» autoritate moralaren babesean, Estatu Batuek itunak egin zituzten nazio indigenekin, «azkar eta lotsagabeki hautsiak zirenak». Indigenen historia ezin zitekeen besterik gabe txertatu beltz-zuri moldeko arraza-dinamiketan. Horri falta zitzaion, Eastmanek zioen bezala, lehenagoko krimenekiko eta abian zen kolonialismoarekiko «haserrea, baina ez hori bakarrik; baita gutxiespena ere».³⁶⁴

363 *Ibid.*, 112–14, 123. or.

364 Eastman, *The Soul of the Indian*, xii, 22–3. or.

Ezabatze hori ez da Du Boisen kontua bakarrik, eta gaur egun ere badirau. Akats kontzeptualak bazituen ere, Du Bois gehiago zen indiar estatubatuarren eskubideen aldekoa haien aurkakoa baino. Arrazak aurrera egin ahala, Eastmanek eta Du Boisek ez zuten mugatu beren aktibismoa Estatu Batuetako publikora. 1911n, SAI sortu zen urte berean, Eastman aukeratu zuten indiar estatubatuarren ordezkatzeko uztailaren 26tik 29ra Londresen egitekoa zen Arraza Unibertsalen Konferentzian. Du Bois izan zen mendebaldeko hemisferiotik gonbidatu zuten pertsona indigena bakarra. Konferentziaren akten arabera, topaketaren asmoa zen «Europarren eta beste zibilizazio-molde garatu batzuen arteko harremanaren arazoa» aztertzea. Nolanahi ere, eztabaida gehienak ekialde-mendebalde bitartasunaren ingurukoak izan ziren, kolonizazioa eta inperialismoa Ipar Amerikakoa ez ezik munduko gainerako toki guztietako kontua izango balitz bezala. Debateak etikaren esparruan kokatu ziren, eta debekatu egin zituzten «kutsu politikoa» izan zezaketen aurkezpenak eta «erreformarako egitasmo zehatzak».³⁶⁵

Londresen, Eastmanek Du Boisen saio berean egin zuen aurkezpena, eta saiatu zen azaltzen natiboentzat arraza-identitate bide bat zela munduko gutxiengoaren artean aintzat hartua izateko. Alabaina, laster asko azpimarratu zuen erreserba-sistemaren «pobretze-efektua» «presondegri barruko existentzia zorigaiztoko» bat zela. Sistema hartan, posible zen munduak ezikusia egitea kartzelatutako indigenei eta, aldi berean, haien kultura gorestea, «parke zoologiko batean itxitako animalia basatiak» izango balira bezala.³⁶⁶ Berak «indiar arazoarentzat» proposatzen zuen irtenbidea ez zen iraganera itzultzea. Itun-eskubideak betetzeko eragozpen bakarrak AEBko herritartasuna eta Indiar Arazoetarako Bulegoa ziren. Baina herritartasunak eta berdintasunak ez zuten esan nahi kolonoen pareko bilakatzea. Are gehiago, indigenen identitatea aldi berean izan zitekeen «estatubatuarra» eta argiro «indiarra». Baina Eastman identitateraino bakarrik iritsi zen. Bere ikusmoldea ernatze espiritual batena zen, eta identitate natiboa mundu modernoarekin adiskidetze-

365 Gustav Spiller, ed., *Papers on Inter-Racial Problems, Communicated to the First Universal Races Congress Held at the University of London, July 26-29* (Boston, MA: World's Peace Foundation, 1911), xiii-ix. or.

366 *Ibid.*, 374. or.

ko nahi bat. Eastmanek onartzen zuen «natibo estatubatuarren defentsa-ildo berrian» bera gehiago zela haien «ezaugarrien eta erlijioaren defendatzailea, lurrarekiko eskubideena baino».³⁶⁷

Zitkala-Šak eta SAiren hurrengo fase batek ikuspegi sendo eta oldarkorragoarekin heldu zioten gaiari. 1917an, Ameriketako Estatu Batuak Lehen Mundu Gerran sartu zirenean, SAI elkartearen abertzaletasunaren, internazionalismoaren eta anticolonialismoaren hizkuntza erabiltzen hasi zen. Natiboak beste ezein taldetakoak baino kopuru askoz handiagoan aurkeztu ziren borondatezko soldadu gisa, nahiz eta gehienak ez ziren jotzen AEBko herritartzat, eta egoera berean zeuden Europa zuriko gerra zibil odoltsuan parte hartzen ari ziren beste herri kolonizatu batzuetako soldaduak. Harrigarria bada ere, natibo helduen %25 soldadu ibili zen zeregin batean edo bestean; bizkitartean, AEB osoari zegokion portzentajea %15ekoa zen. Gehienak erreserbatik kanporako barnetegietakoak ziren; adibidez, Carlisle Indiar Eskolakoak, non Zitkala-Šak irakasle jardun baitzuen garai batean, eta non ikasleak diziplina militarrekin eta AEBrekiko abertzaletasunean heziak izan baitziren.³⁶⁸

Halere, gerrak eta internazionalismo wilsoniarrak borroka-eremu berri bat ekarri zieten natiboek. Progresista Gorri askorentzat, Wilson presidentearen Hamalau Puntuek –non laburtu baitzuen berak zuen ikuspegia Europan epe luzerako bakera izatearen inguruan– zentzua eman zioten Estatu Batuek eta indiar estatubatuarrek gerra odoltsuan parte hartzeari. Wilsonen argudiatu zuen ezen bizitzen eta baliabideen sakrifizioen bidez eta nazioarteko erakunde baten sorrerarekin beste gerra handi bat saihestuko zela. Ikuspegi nagusia zen autodeterminaziorako eskubidea eta erregimen kolonialen abolizioa. Natiboek soldadutzan parte hartu zuten, SAIk uste zuen AEBk bete egingo zituela indigenekiko zituen konpromiso demokratikoak eta lagundu egingo zela ordezkari bat izaten mundu-mailako foro batean, beste herri kolonizatu batzuekin batera. «Ideal demokratikoen eguzki-izpiek ezin diete ekarri itxaropen eta kuraia berririk lurreko herri txikiei baldin eta ez badira iristen AEBren beraren mugen barruko txokorik urrutienetara», idatzi zuen Zit-

367 Eastman, *From the Deep Woods of Civilization* (New York: Dover, 2003 [1916]), 106. or.

368 John W. Lerner, «Society of American Indians,» in *Native America in the Twentieth Century*, ed. Mary B. Davis (New York: Garland, 1994), 604. or.

kala-Šak SAiren *American Indian Magazine* hiruhilabetekarian. «Estatu Batuek demokrazia deklaratu dutenez atzerrian, kontsekuenteak izan eta etxean ere praktikatu behar dugu». ³⁶⁹ Nolanahi ere den, Wilsonen jarrera AEBren isolazionismo gotorraren aurkakoa zen, eta, azkenean, Kongresuak ukatu egin zien Nazioen Ligako kide izatea.

Wilsonen internazionalismoa goretsita, itzalean geratzen dira posible izango ziratekeen beste historia edo etorkizun batzuk. Eta ezin aipatu gabe utzi nola Wilsonek ere, «progresista» usteko horrek, segregazioa ezarri zuen berriro gizarte-zerbitzu federalean, eta Ku Klux Klan erakundea balioetsi. Ekintza horiek bat zetozen bere atzerri-politikarekin, zeinak barne hartzen baitzuen Mexiko, Kuba, Haiti, Nikaragua eta beste herrialde batzuen inbasio militarra. Alabaina, Errusiako Iraultzak beste mundu baterako ikusmolde alternatibo bat eskaini zuen: iraultza proletario eta anticoloniala. Horren jarraian kontrairaultza inperiala etorri zen; eta gero, deskolonizaziaren aldeko mugimendua, erregimen kolonialak eraitsi zituen. AEBko indiarrentzat, Bigarren Mundu Gerraren ondoren abertzaletasun anticolonial bat etorri zen, Red Powerren eskutik. Baina hori guztia ez litzateke posible izango baldin eta XX. mendearen hasieran Zitkala-Ša ez balitz etengabe borrokatu AEBko indiarren berrikuntza politikoaren eta autodeterminazioaren alde.

Gerra –eta, horrekin batera, errekrutatzeak– inflexio-puntu bat ere izan zen SAiren norabide politikoarentzat. Nola errekruta zitzakeen herrialde batek bere herritartzat jotzen ez zituen pertsonak? Carlos Montezuma medikua SAiko kidea zen, eta, politikarekiko zuen ikuspegiak erradikalizatzerara egin zuenean, erakundea utzi zuen. Bere ustez, ez zen moralki zuzena natiboak errekrutatzea. Erabat mesfidatia zen Indiar Bulegoarekin eta gobernu federalarekin, eta errekrutatze behartuaren aurkari irmo bilakatu zen. «Indiar Arazoetarako Bulegoak gure eskubideetatik aldentzen gaitu», idatzi zuen 1917an, Soldadutza Selektiboaren Legea onartu zen urtean. «Herrialdeari esaten dio soldadu trebeak garela, baina ez herritar trebeak... Apopiloak baino ez gara; ez gara herritarrak, eta herrialderik gabe gaude mundu honetan... Zaindaria zaintzeko deitzen diete apopi-

369 Zitkala-Ša, «Editorial Comment,» *American Indian* 7:3, 1918ko uztaila-iraila, 114. or.

loei!». ³⁷⁰ Bere erretorika eta aktibismo sutsuak atentzioa eman zion AEBko Ikerketa Bulegoari (gerora FBI izango zena). Urte berean, Espioitzaren Legeak delitu kriminal izendatu zituen gerraren aurkako jarduerak, kartzelarekin zigorgarriak, eta 1918ko Sedizioaren Legeak gauza bera egin zuen AEBko instituzioen –adibidez, Indiar Arazoetarako Bulegoa– edo ikur nazionalen –adibidez, bandera– aurkako «hizkuntza desleial, profano, difamatzaile edo iraingarriaren erabilera»rekin. Errekrutatzeari uko egin zioten milaka lagun deportatu edo kartzelatu egin zituzten. Oso ezaguna da nola hiru aldiz sozialisten presidentegai izandako Eugene V. Debs ere akusatu zuten 1918ko udan, eta berehala espetxera kondenatu. SAIK jarrera nazionalista hartu zuen Lehen Mundu Gerran, beharbada bere kideen aurkako errepresalien beldur zelako. Kideetako bat 1917ko Oklahomako Arto Berdearen Matxinada salatzeraz ere iritsi zen, Soldadutza Zerbitzuaren Legearen aurkako altxamendu armatu bat, natiboek lideratua eta pobre-jendeek –zuriek, beltzek eta Seminola eta Muscogee Creek herrietakoek– babestua. ³⁷¹

Alabaina, ahalegin handia eginda ere, Zitkala-Šaren gidaritzapean *American Indian Magazine* kritika guztien helburu bilakatu zen, eduki subertsiboa argitaratzen zuelakoan. AEB gerrara batu ondoren, eta 1917ko urriko Iraultza Boltxebikearen hilabete berean, honela zioen Zitkala-Šaren hasierako editorialak: «HAUTSI KATEAK ORAIN, ASKA GAITZAZUE». Ale berezi polemiko hartan, «The Soix Number» deiturikoa, 1862ko AEB-Dakota Gerraren ondoren 1890eko Wounded Knee Sarraskian Oceti Sakowin herriak jasan behar izan zituen kanpaina militar izugarrien xehetasunak azaltzen ziren, eta azaltzen zen, baita ere, AEBk Laramie Gotorlekuko 1868ko Itunetik bete gabe geratutako promesen ondarea. Editoreek beste eskaera hauek ere egin zituzten: Indiar Arazoetarako Bulegoa deuseztatzea; programa integral bat egitea, zeinak aukera emango baitzuen nazio indigena bakoitzak erabaki zezan AEBren herritartasunaren alde ala kontra zegoen; eta itun-eskubideak mantentzea, batez ere

370 Hemen aipatua: Frederick E. Hoxie, ed., *Talking Back to Civilization: Indian Voices from the Progressive Era* (Boston, MA: Bedford and St. Martin's, 2001), 126. or.

371 «Editorial Comment,» *American Indian* 6:1, 1918ko urtarrila–martxo, 19–20. Ikus baita Roxanne Dunbar-Ortiz, *Red Dirt: Growing* (Norman, OK: University of Oklahoma Press, 1997), 14–19. or.

1868ko Ituna. Eskaera ausart horiek bete ostean soilik eutsi ahal izango zion AEBk mundu-mailako autoritate moralari, edo hala uste zuten.³⁷²

Ale berezi hark AEBren eraso militarrek ere izan zituen hizpide. Zitkala-Šak poema sarkastiko bat idatzi zuen, «The Red Man's America»; AEBko ereserki patriotiko batean («My Country, 'Tis of Thee») oinarrituta zegoen, eta abertzaletasun estatubatuarren aurkako errieta bat zen. Jatorrizko ereserkiaren bertso bat hartu, eta beste batekin ordezkatu zuen; hau da, «Land where my fathers died / Land of the pilgrims' pride / From ev'ry mountainside / Let freedom ring!» zioen lekuan beste hau jarri zuen: «Land where OUR fathers died / Whose offspring are denied / The Franchise given wide / Hark, while I sing».³⁷³ Beste poema batean, «A Sioux Woman's Love for Her Grandchild», Oceti Sako-win herriaren kuraia eta militarren tirania nabarmendu zituen; horretarako, AEBko soldaduek menderatuak izan ondoren biloba atzean uzteko prest ez dagoen amona baten kuraia deskribatu zuen.³⁷⁴ Beste kolaboratzaile batzuek ere militarismoa gaitzetsi zuten. «Zergatik aldarrikatu itunak sakratuak direla; zergatik oihukatu 'Lotsagarria!', Alemaniak Belgika inbaditzean?», galdeztzen zuen Eastmanek, AEBren Europako interbentzio militarren hipokrisiari eraso eginez; izan ere, AEBk behin eta berriro haus-ten zuen 1868ko Ituna (baita beste batzuk ere).

Zintzotasun latz hark «bene-benetako izua» eragin zien politikariei eta haien aliatuei, guztiak asaldatzeraino. Kritikariek zioten Zitkala-Ša «apatxeismora» jaitsi zen «boltxebikerik kirastunena» bilakatu zela, zeina baitzen kriminal-taldeak izendatzeko erabiltzen zen termino gutxiesgarri bat. «Gu gogorak izan bagara», gogorarazi zien Zitkala-Šak kritikariei, «guk ikusi genituen hobenak are gogorragoak izan ziren».³⁷⁵ 1919ko editorial batean, «The Black Hills Council» izenburukoan, Zitkala-Šak bere jarrera argitu zuen. Argudiatu zuen ezen «[siux jendeak] aski onak baziren mundu-mailako demokraziaren alde borrokatzeko eta hiltzeko», orduan «herritartasun estatubatuar

372 Editoriala, «Break the Shackles Now, Make Us Free,» *American Indian* 5:4, 1917ko urria-abendua, 213–21. or.

373 Zitkala-Ša, «Red Man's America,» *American Indian* 5:1, 1917ko urria-abendua, 64. or.

374 Zitkala-Ša, «Red Man's America,» 230. or.

375 Editoriala, «Editorial Sanctum: The Sioux Number of Our Magazine,» *American Indian* 6:1, 1918ko negua, 41. or.

erabatekoa merezi zuten, eta gure konstituzioan jasotako legeen babesa».³⁷⁶ Kongresua gogotsu agertu zen ez-herritarrek gerrara bidaltzeko, baina ezikusia egiten zien itun-eskubideen inguruko haien arrangura legitimoen, eta horrek sutu egiten zuen Zitkala-Ša. Oceti Sakowin jendeek itsasoz bestaldera bidali zituzten beren semeak, han borrokatzera eta han hiltzera; bitartean, indiar itunen kontseiluko buruzagiek –guztiak ere adineko errespetatuak– beren eskaerak defendatu zituzten Kongresuan, eta Muino Beltzak berreskuratzeko aldarrikapena epaitegira eramateko bidea zabalduko zuten lege-proiektuak idatzi zituzten. «Bata bestearen atzetik, Kongresuak bertan behera utzi zituen lege-proiektu guztiak», gogorarazi zuen Zitkala-Šak; «gainerako estatubatuar guztiak askoz errazagoa zen Erreklamazio Auzitegira iristea, baina Munduko Industria Langileak (IWW) eta boltxebikeak ez ziren onartzen». SAIri eta haren aldizkariari erreferentzia zuzena eginez, Zitkala-Šak egia hutsa esan zuen: are anarkistek, sozialistek, komunistek eta errekrutatzearen aurkakoez, guztiak ere estatuaren etsaitzat joak, egun bat ukan zuten epaitegian, nazio-mailako titular bat, eta legeak emandako babes apur bat. Baina indiar itunak, ebatsitako lurak, genozidioa, Muino Beltzak, herritartasuna... horiek guztiak traiziotzat jotzen ziren, edo, besterik gabe, ezikusia egiten zitzairen. Gai horiek ez ziren eztabaidatu ere egiten epaitegietan, AEBk ez zuelako onartu nahi bere jokabide kriminala eta ez zituelako onartu nahi Oceti Sakowin jendeak, ez herritar gisa ez beren nazio propioaren jabe gisa. «Ez da harrizkoa Justizia Hilezkorrek begiak estalita eduki behar izatea marmolezko idulkiaren gainean, Gizon Gorriaren dilemak ez dezan bere lasaitasuna hondatu!», adierazi zuen Zitkala-Šak.³⁷⁷ Baina SAIk Estatu Batuez haragoko beste aukera bat eskaintzen zuen, Gerra Handiaren amaieran ordena politiko berri baten promesa piztu zelako.

Bakea gerturatu ahala, SAIko kideak, hala nola Eastman, Zitkala-Ša eta Montezuma, ez ziren kikildu Kongresuaren setakeriaren aurrean, eta Wilsonen printzipioez baliatu ziren natiboen eskubideak defendatzeko. «Eguzki berriaren epelean, garai berri bat eszenaratzen ari da. Herri txikiek autodeterminaziorako es-

376 Zitkala-Ša, "Editorial Comment," *American Indian Magazine* 7:1, 1919ko udaberria, 6.
377 *Ibid.*

kubidea izan behar dute!», oihukatu zuen Zitkala-Šak 1919an.³⁷⁸ Montezuma kritikagoa zen. «Ez dago argazkirik gure arrazaren historia bezain beltza denik. Aipa ditzakezu beste herri batzuek jasandako abusuak eta tratu txarrak, hala nola belgikarrek, bohemiarrek, poloniarrek, serbiarrek eta kontinente zaharreko beste nazio batzuek; halere, haien minak eta haien errege basatiak ezin dira alderatu indiarrek Estatu Batuetako gobernuaren eskutik jasandako tratuarekin», idatzi zuen 1918ko artikulua batean, zeinak izenburu probokatzaile bat baitzuen: «Another Kaiser in America».³⁷⁹

Nolanahi ere, Eastmanek Zitkala-Šaren bideari jarraitu zion, arrazoituz apopilotzaren zigorra erabat antidemokratikoa zela, indigenen autonomia berritzea eragozten zuela eta Wilsonen autodeterminazio-printzipioen kontrakoa zela. «Sistema osoak Siux herriaren kondairako Bi-Aurpegiren istorioa gogorarazten digu. Bi-Aurpegik haur bat lapurtu zuen, haren substantzia samurretik elikatzeko, artean bizirik zela haren odola zurrupatuz; inor kexatzen bazen edo haurraren oihuekin asaldatu, hura erreskatatzen saiatzen zen, eta zapladatxo bat ematen zion maitekiro, edo laztan bat ematearen itxurak egiten zituen», idatzi zuen. Indiar Arazoetarako Bulego banpirikoak, inork gerarazi ezean, indigenen bizitza eta lurrak desegiten jarraituko luke. Eastmanek, baina, ohartarazpen bat egin zuen: «Ez dugu eskatzen lurrak ematea, ezta aparteko gobernu bat ere. Eskatzen dugun bakarra da Europako semeekin batera guk ere herritartasun estatubatuarraren pribilegio guztiak izatea».³⁸⁰

Ahalegin handia egin arren, Eastmanek, Zitkalak eta SAIk ezin izan zuten gainera kendu haiei egotzitako izaera. Barne-fakzio kontserbadoreak eragotzi egin zuen SAIk Wilson presidenteari eskatzea bake-konferentzian parte hartzeko. Jarraitzaile ez-natiboez berritasun gisa ikusten zuten SAI, ez erakunde politiko serioz gisa. Apurka, erakundeak ahanzturantzko bidea hartu zuen, eta, azkenean, ofizialki desegin zen, 1923an, Indiar Herritartasunaren Legea onartu baino urtebete

378 Zitkala-Ša, «Editorial Comment,» *American Indian* 6:4, 1919ko negua, 161. or.

379 Zitkala-Ša, «Editorial Comment,» *American Indian Magazine* 7:1, 1919ko udaberria, 6.

380 Carlos Montezuma, «Another Kaiser in America,» in *Say We Are Nations: Documents of Politics and Protest in Indigenous America Since 1887*, ed. Daniel M. Cobb (Chapel Hill, NC: University of North Carolina Press, 2015), 34-5. or.

lehenago. Lege hark herritartasuna inposatu zien indiar guzti-guztiei, aldebakartasunez eta haien onarpenik gabe. Nolanahi ere, Indiar Arazoetarako Bulegoari egindako kritikek ikerketa zabal bat ekarri zuten, eta haren jardueraren txosten bat. 1928an, *Indiar administrazioaren arazoa* txostena argitaratu zuten, *Meriam Txostena* izenez ere ezaguna dena, non asimilazioaren eta lur-banaketaren inguruko indiar politika federalen salaketa ikaragarri bat egiten baitzen. Txostenaren arabera, alde batera utzita berriazko jardunaren ala halabeharraren ondorioa ote zen, kontua zen natiboak behartasunean, pobrezian eta miseria gorrian bizi zirela, eta hutsune handiak zituzten hezkuntza eta osasun-zerbitzuak soilik eskura zitzaizkela. Indiar Itun Berriarekin, Indiar Arazoetarako Bulegoan erreforma handiak egin ziren; lur-esleipenak bukatutzat eman ziren, baita natiboen zeremonia kultural eta erlijioso batzuen debekua ere. John Collierek berriz heldu zien SAIren ideia batzuei, batez ere Zitkala-Šak berritze kultural eta politikoen inguruan proposatuak zituenei, nahiz eta sarri John Collierri berari egozten zaion 1934ko Indiarrak Berrantolatzeke Legearen burutapena. Izan ere, nabarmena da IRAren elementu ugari SAI elkartearen inspiratu zirela, baina kideek ez zuten jaso horren aitorzarik.

Ez zutenez lortu Pariseko bake-negoiazioetan eta Nazioen Ligan parte hartzea, eta, era berean, ez zutenez lortu itunekin lotutako aldarrikapenekin aurrera egiteko babesik (nahiz eta indiar estatubatuarren samalda ikaragarri handi batek jardun zuen soldadu), Zitkala-Šak azken errieta bat idatzi zien Estatu Batuei 1923an, SAI desagertu zen urtean. «Hobe zatekeen olagarro gutziatsu hau hil eta museo batean erakustea, indiar biktima babesgabeen bizi-odol guztia zupatu aurretik», idatzi zuen eztenka Indiar Arazoetarako Bulegoari buruz *Our Sioux People* izeneko panfleto argitaragabe batean. «Ahalegin handia egin arren familia humanoa kolorearen arabera eta izen-uholde batekin banatzeko eta bereizteko», jarraitu zuen, «sakon-sakonean denak berdinak dira». «Biblia esku batean hartuta eta bolbora bestean, gizon zuria izan zen bere burua humanitatearen ezein aldarrikapen benetazkotatik baztertu zuena. Siux herria ez zuten militarki garaitu, baizik eta gosez hiltzen utzita», lurak uztera behartuta; «ordainpeko tiratzaile zorrotzek nahita hildako bufalo-saldoen haratustelak kirastutako lurak, beso ahuletan

eusten dituzten gorputzño hotz bizigabeei –gosez eta sukarez hildako beren txiki maiteei– negar egiten dieten siuxei gizon zuriak egindako promes hautsien emaitza». Hedapen inperial gupidagabearen ondoren, «siux jendeak erreserba txikiagoe-tara eraman zituzten, eta, aurrerantzean, baimen-txartel bat beharko zuten handik kanpora irteteko, ezin izango zuten irten gizon aske gisa». Zenbait erreserbatan banatuta, «siux jendeen bilakaeraren bidea, haien ekimenez zehaztu ohi zena, eta haien filosofiaren arabera, eten egin da». Halere, beren tradizio politikoei gehien eusten zietenak –itun-kontseilukoak– «kriminal»tzat eta «atzeratuen»tzat jo zituzten. Nolanahi ere, itun-kontseiluak «oso lagungarriak ziren, ez zutelako alde batera utzi nahi gure kultura natiboa». Horrek ez zuen ezinbestean eragotzi indiar estatubatuarrek gizartean parte hartzea. Lorpen hori eragotzi zuena Indiar Arazoetarako Bulegoa izan zen, zeinaren ondarea baitzen «tirania hutsez jokatzeko herri aborigenekiko, eta haiei beren lurra eta beren kultura kentzea». Baina hori guztia baino larriagoa zen «itunak zapuztea», eta hori izan zen gerra handiak eragin zuena herrialde honetan; siux herriak «fede onez» engainatu zituzten, haiek etsaiei arrakastaz buru egin ondoren, baina oinazpian zanpatu zituzten errearekiko gutizia basatiak gizon zuria Muino Beltzetan zehar siuxen lurralderantz eraman zue-nean». Eta horren ondoren etorri ziren legeek kendu egin zieten siuxei haien askatasuna bermatzeko sortuak izan ziren dokumentuak interpretatzeko eskubidea. «Nor zen Estatu Batuetako lurren jabea gizon zuria etorri aurretik?», itaundu zuen Zitkala-Šak. «Eta zer prozesuren bidez eman zaio lurren jabetza AEBri?». Galdera egokiak ziren, ustez, «Justiziaren lege unibertsal»en ize-nean hitz egin nahi zuen edozein «nazio txit zibilizatu»rentzat. Beraz, AEB zibilizazioaren eta justiziaren antitesia da. Zitkala-Šaren aburuz, AEB bera da gerraren sustraia.³⁸¹

Zitkala-Ša haserre zegoen, Collierrek ez ziolako jaramonik egiten ez bere lanari ez bere aktibismoari, eta arduratuta ere ba-zegoen, IRA ez ziholako behar bezain urruti. Hala, bere nazioa antolatu zuen, Yankton erreserba, IRARI aurre egiteko. Yankton herriak IRA legea onartu zuen azkenik, baina ez zuen sekula

381 Zitkala-Ša, «Our Sioux People,» Eskuizkribu argitaragabea, 1. kutxa, 5. karpeta, Gertrude and Raymond Bonnin Collection, L. Tom Perry Special Collections, Harold B. Lee Library, Brigham Young University, Provo, Utah.

ezarri IRaren araberako konstituziorik. Horren ordean, Zitkala-Šak Ithanktonwan tradizionalen osatutako kontseilu bat antolatu zuen, eta beste konstituzio bat idatzi zuten, subiranotasunari buruzko ikuspegi zabalago bat zuena eta boto-eskubidea ematen ziona erreserbatik kanpoko kideei eta beren burua tribuko funtzionario izendatutakoei; gainera, erabateko beto-eskubidea ematen zion kontseilu tribalari lur, jurisdikzio eta kide tribalen gaineko edozein erabaki federalen aurrean. Hain zuzen ere, Yankton herriaren konstituzioak ia erabat ezabatu zuen bai BIAren eragina bai gobernu federalak tribu barruko barne-arazoetan gainean izan zezakeen esku-hartzea. Jakina, Collier eta barne-arazoetako idazkaria ez zeuden ados konstituzio berriarekin, zeinaren ondorioz Yankton erreserbak ez baitzuen ofizialki aitorturiko kontseilurik, eta horrek oso ondorio txarrak izan zituen 1950eko hamarkadan, Armadako Ingeñariaren Kidegoak haien lurak urez estali zituenean.³⁸² Are gaurko estandarretarako ere, Zitkala-Šak oso ikuspegi erradikala zuen naziotasun eta subiranotasun indigenaren inguruan, gobernu tribal gehienaren irudimena eta itxaropena gairatzen zuten ikuspegia, alegia. Erresistentzia indigenaren tradizioari ekarpen izugarria egin bazion ere, ahituta, pobre eta aitortzarik gabe hil zen. Honela dio bere heriotza-agiriak, loriatik batera ez duenak: «Gertrude Bonnin, Hego Dakota – Etxekoandrea».³⁸³

Azkenean, SAIk ez zuen lortu bere helburu nagusiak betetzea. Halere, erakundeak bai lortu zuen indigenen naziotasunari eta subiranotasunari buruzko lehenagoko ideia batzuk aurrera eramatea. Mugimendu antikolonialen testuinguruan, haien internazionalismoa nahi bat zen, gehienez, ez zuelako bere burua irudikatzen nazio-estatutik kanpora. Alde batetik, SAIren erretrika nazionalista estrategikoa zen, kontuan hartuta garai hartako errepresio-giro bortitza; baina, bestetik, abertzaletasun itsuan erortzen zen. Alabaina, Zitkala-Šaren eta Eastmanen ikuspegi politikoak urrunago zihoazen. Itun-eskubideak, giza eskubideak eta gobernantza dira, oraindik ere, nazio indigenek aurre egin beharreko erronka nagusiak; eta auzi horietako bakoitzaren erdian zera zegoen, AEBk ez zituela betetzen Laramie Gotorle-

382 Lewandowski, *Red Bird, Red Power*, 182–3. or.

383 Hemen aipatua: *Ibid.*, 187. or.

kuko 1868ko Itunean elkarbizitza baketsu baterako adostutako akordioak. Ekintzaile biek imajinatzen zuten AEBren estatu-subiranotasunarekin batera existitu zitekeen subiranotasun indigena bat, baina uko egiten ahal ziona, aldi berean, AEBren agintaritza kolonialari, hura baino lehenagoko (eta, beraz, goragoko) gobernantza- eta autoritate-molde bat irudikatzen zuelako. Nolanahi ere, Oceti Sakowin jendeek 1970eko hamarkadara arte itxaron behar izan zuten ikuspegi ausart haiek nazioarteko agertokian gauzatuak ikusi arte, hau da, Indiar Itunen Nazioarteko Kontseilua sortu arte.

Lehenago esan bezala, SAIk ez zuen lortu 1919ko Pariseko bake-negoziazioetan parte hartzea, ezta Nazioen Ligaren aitortza jasotzea ere. Horregatik, 1923an Haudenosaunee herriaren oinordetzako buruzagi Deskahehk (Levi General) Nazioen Ligan aurkeztu zituen bere nazioak Estatu Batuetako eta Kanadako gobernuen aurka zituen erreklamazioak. Helburua lortu ez bazuen ere, Itunen Kontseiluak Deskahehk eta SAIk utzitako tokitik ekin zion lanari, eta burokrazia koloniala gainditzen eta itun-eskubi-deak mundu zabalago batean balioesten saiatu ziren, gatazkaren lehen lerroak tokiz aldatuta, lehenik barrakoi armatuetatik AEB-ko auzitegitara, eta, azkenik, nazioarteko agertokira.

1973ko Wounded Kneeren ondoren, gobernu tribal ugarik ez zuten ezelango harremanik eduki nahi izan Ameriketako Estatu Batuetako Indiarren Mugimendurekin. Nekez joaten ahal ziren inora arreata ezatsegina piztu gabe. Alabaina, Standing Rockeko Kontseilu Tribalak ebazpen bat onartu zuen aho batez, eta AIM erreserbara gonbidatu zuen; kontseilu bat eratu nahi zuten, itunen auzia Nazioarteko Justizia Auzitegira eta Kolonialismoari buruzko Nazio Batuen Batzordera eramateko. Standing Rockek argi eta garbi adierazi zuen bere asmoa: «Siux Nazio Handiak ez du nahi diru-kalterik, eta 1868ko Ituna siux jende guztientzat onarrarazteko asmo sendoa du».³⁸⁴ Itunari buruzko bilerak Oglala Itunen Kontseiluaren onarpena ere bazuen, hots, AIM Wounded Kneera gonbidatu zuten adineko tradizionalistena. Oglalako Itunen Kontseiluak eskatu zuen «ituna osorik aitortzea, ez hori baino gutxiago», eta ordaintzea Pick-Sloan presak eraikitze

384 Standing Rockeko Kontseiluaren Ebazpena, 1974ko martxoak 26, Finzelen dokumentuak, 2. kutxa, 21. karpeta.

eta Muino Beltzetako urre-meatzaritzarako hartutako lur eta baliabide guztiak. Kontseiluak erabaki zuenez, 1868ko Itunaren ondoren AEBren izenean egindako legeek «ez zuten murriztu guk geure burua nazio subirano gisa gobernatzeko dugun berezko eskubidea»; gainera, «AEBko gobernuak 1868ko Itunaren inguruan gauzatutako ekintza guztiak ilegalak dira, nazioarteko zuzenbidearen jardunen aurkakoak, eta nazio subiranoen arteko ohiko harremanen kontrakoak».³⁸⁵ Are gehiago, 1948ko Genozidioaren aurkako Konbentzioa sinatu eta berrestera bultzatu zituzten Estatu Batuak. Iraganean AIM erakundea IRA gobernuen aurka agertu bazen ere, AIMk orain tradizionalisten, herri-mugimenduen eta Standing Rocken IRAn babesean eratutako kontseilu tribalaren babesa zuen.

Indarren elkarketa zinez historikoa izan bazen ere, 1974ko ekaineko bilerak apenas lortu zuen komunikabideen atentzia. Alde batetik, Indigenen Osasun Zerbitzuak ez zuen ondo diagnostikatu topaketan azaldu zen hepatitis-kasu bat. Oroitzapeneko dosiak amaitu egin ziren erreserban, eta NBEko behatzaile eta kazetari ugari ezin izan zuten parte hartu.³⁸⁶ Halere, horrek ez zion garrantzirik kendu 5.000 parte-hartzailetik gorako topaketari, guztiak ere laurogeita hamazazpi nazio indigenaren ordezkariak zirenak. Gertaera historiko hura nabarmentzeko, Hunkpapa herriko Evelyn Gabe adinekoak ongi etorria egin zien AIMko kideei, eta eskerrak eman zizkien Standing Rockera joateagatik (Evelyn Gabe John Grass-en ondorengo zuzena zen; Grass Hunkpapa herriaren buruzagi izandakoa zen, eta itunen kontseiluko liderra; 1887an, esleipenen aurkako erresistentzia arrakastatsua buru izan zen). «Itunik baliozkoen alde elkarrekin agertzea adostu dugu, eta horietako bat 1868ko Ituna da», esan zien entzuleei.³⁸⁷ Standing Rocken eskuratutako babesari esker, 1868ko Ituna NBEn egin beharreko lanaren lehentasun bilakatu zen. Gogorarazi ondoren zertarako bildu ziren, lehen-lehenik galdera hauek egin zituen: nolatan epaitu behar zuten indigenen legedia epaimahai ez-indigena bateko kideek?; nor

385 Oglala herriaren Itunen Kontseiluaren Ebazpena, 1974ko martxoa, Finzelen dokumentuak, 2. kutxa, 21. karpeta.

386 Russell Means eta Marvin J. Wolf, *Where White Men Fear to Tread: The Autobiography of Russell Means* (New York: St. Martin's, 1995), 324–5. or.

387 Itunei buruzko nazioarteko lantaldea, 1974ko ekainak 13, Finzelen dokumentuak, 2. kutxa, 21. or.

ziren kide haiek herri indigenen ezagutzaren zaindariantzat, legegile eta adineko indigenentzat?

Erabaki zuten beste herri indigena batzuek bakarrik ebatz zezaketela beren kideen gainean, eta beste herri kolonizatu batzuek ere beren kideak izan zitezkeela, baita beren naziotasuna onartzeko prest zegoen beste ezein nazio ere, kontuan hartuta AEBk ez zuela horrelakorik egingo. NBERen lankidetzaren erdies- teko, Jimmie Durham-ek –zeina geroago Itunen Kontseiluko zuzendari exekutibo izendatu baitzuten– proposatu zuen berak Genevan lagun egindako Amílcar Cabral iraultzaile afrikarraren ereduari jarraitzea. Bere mezua NBERa eta mundu europarrera helarazteko, Cabralek «hitzaldiak egin behar izan zituen, eta ideal eta asmo ‘zuriak’ erabili».³⁸⁸ Ideal eta asmo ‘zuri’ haien artean zeuden subiranotasunaren, kulturaren eta naziotasunaren hizkuntza erabiltzea. Lege-aholkulariek esan zietenean «subiranotasun-froga zehatzak» beharko zituztela NBERen, Santee herriko eta AIMko kide John Trudell-ek zera erantzun zuen: «Gure frogak itunak dira».³⁸⁹

Russel Meansen aburuz, itun eta kultura indigenak helburu handiago bat lortzeko ibili beharreko urratsak baino ez ziren. Aitortza kultural edo politikoak ez zuen ezertarako balio baldin eta ez bazuen berekin ekartzen sistema kolonialaren suntsipena eta, batez ere, itunpeko lurra berreskuratzea eta gobernantza- eredu indigena berrezartzea. Meansek ez zuen sekula ezagutu Amílcar Cabral, baina bi-biek antzeko ikuspegia zuten deskolonizazioari buruz. Itunen Kontseiluaren dokumentu, bilera-ohar eta berripaperetan, eta kolonialismoaren aurkako borroka- bezainbatean, Cabralen pentsamoldea eta ikuspegia aipatzen zen tarteka. Cabralek, zeinak Ginearen eta Cabo Verderen Independentziaren aldeko Alderdi Afrikarra (PAIGC) –alderdi iraultzaile marxista– sortu baitzuen, zera proposatu zuen, afrikar kolonizatuak «jatorrira itzuli» behar zutela. Jatorri hura afrikar kultura

388 Itunei buruzko Nazioarteko Lantaldea, 1974ko ekainak 10, Finzelen dokumentuak, 2. kutxa, 21. karpeta. Garai hartan, Jimmie Durhamek Txerokitza jo zuen bere burua, baina Txeroki Nazioko eroldaren zuzendariak eta funtzionarioek gezurtatu egin dute bere aldarrikapena. Ikus editorial berezia, «Dear Suspecting Public, Jimmie Durham is a Trickster,» *Indian Country Today*, 2017ko ekainak 26, indiancountrymedianetwork.com.

389 Indiar Itunen Nazioarteko Kontseiluaren Bilera, 1974ko ekainak 14, Finzelen dokumentuak, 2. kutxa, 21. karpeta.

desberdin bat zen, atxiki zutena, batez ere, portugaldarren kolonialismoak gehien zapaldu zituen jendeek, hau da, ez hirietako eliteek, baizik eta herri txikietako biztanleek eta basoetan bizi ziren tribuek.

Azken horien boterea erresistentziarako zuten kulturaren zetzan, horri esker lortu baitzuten atzerriko kultura baten erabateko zapalketari aurre egitea. Cabralen ustez, iraultzak ez zuen esan nahi gizarte europar bat edo europar moldeko estatu bat bilakatzea, baizik eta bere kultura eta bere balioak islatzen dituen gizarte bat bihurtzea. Gainera, erresistentzia kulturala baino zerbait gehiago zegoen jokoan. Kultura indigena haiek horizontaltasunaren adibide ere baziren: ez zuten hierarkia arbitrariorik, eta autogobernantzan oparoak ziren.³⁹⁰

Itunen Kontseiluak Standing Rocken egin zuen topaketaren azken egunean, Russel Meansek mikrofonoa hartu zuen. Egunean zehar, Irlandako Armada Errepublikarraren, Afrikar Batasunerako Erakundearen eta zenbait nazio arabiarren komunikatuak irakurri zituen, guztiak ere Standing Rockeko topaketa babesten zutenak. Itunen Kontseiluak hartu beharreko norabideari zegokionez, nolabaiteko tentsioa igar zitekeen. AIMko lider gehienak auzitegietan kateaturik zeuden oraindik, Wounded Kneeko atxiloteten ondorioz; beraz, nola borrokatzen ahal zen erakundea NBEren aitortza lortzeko? Eta, are garrantzitsua goa, nazioarteko zuzenbidearen edo giza eskubideen inguruan inolako eskarmenturik ez zuen jendea zen haien patuaren arduraduna, NBEko erabakitze-prozesu korapilatsuei buruz deus ez zekitenak. Bide etsigarri eta zalantzarik zuten aurretik, eta bilerek tonu serioa hartu zuten. Zalantzarik gabe, iraganeko ekintza puntualetatik aldentzen ari ziren. Meansek adierazi zuen Itunen Kontseiluak aliatu potentzial guztiak izan behar zituela kontuan, «Nazio Batuen Erakundea, Amerikako Estaturen Erakundea, Afrikar Batasunerako Erakundea, herrialde arabiarren, bloke komunista edo dena delakoa, gure itunak epaitegietara eramateko eta gure ahotsa munduko foroetan entzunarazteko aukera emango digun edozer». Are gehiago, Meansek azpimarratu zuen ezen mundu osoa aintzat hartuz gero AEBko indiarren

390 Ikus Amílcar Cabral, *Return to the Source: Selected Speeches of Amílcar Cabral* (New York: Informazio Zerbitzu Afrikarra, 1973).

borrokak izaera historikoa zuela. «Interesatzen zaiguna da iraul-tza, bizitza-ziklo hori behin eta berriro itzularaztea», esan zuen. Kontua ez zen soilik Dortoka Uhartea, zeren eta «munduaren historian, independentziaren alde izandako borroka arrakasta-tsuak, eta oraindik ere martxan daudenak, guztiak dira, nolabait, lurraren aldekoak, *guztiak* dira lurraren aldekoak, berdin Afrikan edo Asian edo Asiaren hego-ekialdean edo [mediterraneoan], edo Ekialde Ertainean, edo Irlandan eta Ameriketako Estatu Batuetan edo Kanadan edo Hego Amerikan edo Erdialdeko Amerikan, edo Mikronesian edo Puerto Ricon». XIX. mendean, Oceti Sakowin jendeek ezin zuten eskuratu beste herrialde batzuen laguntza, ezta Estatu Batuetako jendeena ere. Orain, Itunen Kontseiluak mundu-mailako foro bat zuen, eta aliatuak mundu zabalean. «Gure lurraren alde borrokatuko bagara, hitzak baino zerbait gehiago beharko dugu, papera baino zerbait gehiago», adierazi zuen Meansek serios. «Gure bizitzak behar ditugu».³⁹¹

Biltzarraren emaitza nagusia «Etengabeko Independen-tziaren Adierazpena» izan zen, nagusiki Phyllis Youngek idatzi eta zedarritu zuena –Standing Rockeko liderretako bat, hamar-kada batzuk geroago Dakota Access oliobidearen aurka irmo altxatuko zena (ikus 1. atala)–. Hauek ziren adierazpenean bildu-tako eskakizunak: (1) aitortzea Ameriketako Estatu Batuek itun indigenak urratu dituztela; (2) onartzea «nazioarteko harreman urraezinak» daudela nazio natiboen eta Ameriketako Estatu Batuen artean; (3) itunpeko lurak itzultzea; (4) indarkeriaren era-bilera saihestea, autodefentsarako ez bada; (5) 1871tik aurrerako dekretu betearazle guztiak eta legegintzako dekretu oro atzera botatzea; eta (6) AEBrekin eta estatu kolonialekin nazioarteko ha-rreman diplomatikoak izatea eta, horretarako, NBERen aitortza eta kidetza jasotzea. Beste ezeren gaineratik, 1974ko Adierazpe-nak zenbait indarkeria-mota aipatzen zituen, bi arrazoirengatik gertatzen zirenak. Batetik, AEBk eta beste estatu kolonial ba-tzuek uko egiten ziotelako giza eskubideen nazioarteko arauak betetzeari; Adierazpenaren arabera, arau horiek artean ez ziren behar bezala hedatu herri indigenetara. Bestetik, ez batzuek ez

391 Itunen Kontseiluaren Nazioarteko Biltzarra, 1974ko ekainaren 14a, behin betiko paperak, 2. kutxa, 21. karpeta.

besteek ez zutelako betetzen Genozidio Krimena Prebenitzeari eta Zigortzeari buruzko Hitzarmena.

Adierazpen haiek ausartak baziren ere, AIMko liderrak epaitegiei lotuta zeuden oraindik, eta ehunka ziren ebazteke zeuden kasuak. Horren harira, lider tradizionalak proposamen bat egin zuten Standing Rockeko biltzarraren amaieran, alegia, nazioarteko lanari ekin aurretik kasu haiek ebaztea. Eta beste eskaera bat ere egin zuten: AIMk azken ahalegin bat egin behar zuen, zer-eta auzitegi federalek Oceti Sakowin jendeen subiranotasuna aitortuz.

Arrisku handiko protesta-ekintza ikusgarriekin, tartean 1973ko Wounded Kneeko setioa, AIM erakundeak jendarteko epaiketa irabazi zuen, edo, gutxienez ere, jendearen atentzioa eskuratu. Laster, ordea, bai mugimendua bai haren askatasun-asmak konkistatzaileen auzitegi-tara iritsi ziren, eta egoera hark paralizatu egin zuen etenik gabe ekintzak antolatzerako ohi-tua zegoen erakundeak. 1973. urtearen amaierarako, Wounded Kneeren ondorengo atxiloketek auzitegi federal eta estataletara lotu zituzten AIMko lider gehienak zenbait hilabetetarako edo, are, urte batzuetarako. Dennis Banks-en eta Russell Meansen aurkako kasua AEBren historiako epaiketa kriminal luzeenetakoa izan zen garai hartan; bederatzita hilabeteko epaiketaren ondoren, Fred Nichols epaile federalak bertan behera utzi zituen Meansen eta Banksen aurkako kargu guztiak, gobernuak gaizki jokatu zuelakoan. Tankeak Wounded Kneetik urrundu zirenean, abokatu boluntarioen talde batek hartu zuen borroka-esparrua, eta Wounded Kneeko Defentsa/Eraso Batzordea eratu, Ken Tilsen abokatu buru zela, AIMko ehun eta gehiago kideak ordezkatzeko. Hasiera batean, bost akusatuk fiskalarekin kolaboratzea onartu zuten, eta beren burua errudun aitortu, beste ehundik gora kasuak atzera botatzearen truk. Nolanahi ere, Justizia Sailak ez zuen horrelakorik onartu, eta epaiketak beste ia bi urtez luzatu ziren. AEBko abokatuak astun jarri ziren eta gogor jardun zuten, baina, halarik ere, hasieran fiskalarekin akordioa egin zuten bost kideetatik bi bakarrik joan ziren kartzelara. Defentsa juridiko engaiatuari esker, eta karguek ia oinarririk ez zutelako, gainerako kasu gehienak baztertu egin zituzten.³⁹²

392 Ikus John William Sayer, *Ghost Dancing the Law: The Wounded Knee Trials*

Beste kasu ezagun batean, AIMko hirurogeita bost akusatu inguruk argudiatu zuten AEBk ez zuela jurisdikzio kriminalik Oceti Sakowin lurraldearen gainean, Laramie Gotorlekuko 1868ko Itunaren babespean zegoelako. Akusatuei Pine Ridge erreserbako ustezko delitu-egitate batzuk egotzi zizkieten eta, beraz, 1868ko Itunaren muga barruan zeuden; horregatik, defentsa-taldeak kasuaren largespena eskatu zuten. Lakota abertzaleek eta Wounded Kneen lagun izan zituzten aliatuek ere subiranotasuna aldarrikatu zuten, 1868ko Itunean oinarrituta. «Itun harengatik joan nintzen Wounded Kneera, ez beste ezergatik», adierazi zuen Russell Meansek. «Han igaro genuen lehenengo gauean, 1868ko Siux Ituna igorri genion FBIri, eta esan genien arrazoi harengatik geundela Wounded Kneen».³⁹³

Epaiketa hura «Siux Itunaren epaiketa» gisa egin zen ezagun. Vine Deloria Jr.-k, John Thorne defentsa-abokatu nagusiarekin batera, itunean oinarritutako defentsa eraiki zuen. Deloriak adierazi zuen Oceti Sakowin jendeak ahozko tradizioaren zehaztasunean oinarritzen zirela itunak ulertzeko. Ahozko istorio haiek AEBren akta-erregistroak bezain zehatzak ziren, eta alde batera utzi ohi zen ikuspegi bat eskaintzen zuten. «Ezin da iradoki siuxek[,] itun bat sinatzean, inoiz pentsatuko zutenik prozesu hark inoiz epaitegi federal batera eramango zituenik eta amaierarik gabeko apelazio-kate batean trabatu Estatu Batuetako Auzitegi Gorenaren aurrera», adierazi zuen Deloriak. «Ezin da esan Estatu Batuek legalki inoiz Siux Nazio Indiarraren gaineko jurisdikzioa eskuratu dutenik».³⁹⁴

Defentsarentzat, 1868ko Ituna Oceti Sakowin jendeen subiranotasunaren eta naziotasunaren ebidentzia ukazina zen, ez bakarrik natiboek hala esaten zutelako, baizik eta baita AEBk berak ere gauza bera esaten zuelako. Argi baino argiago adierazten zen hori AEBren Konstituzioko 6. artikuluan, non zalantzarako tarterik gabe esaten baita «Estatu Batuen Autoritatearen abaroen egin diren edo egingo diren Itun guztiak herrialdearen *Lege gorena*» izango direla.³⁹⁵ Estatu Batuek inoiz beren erantzukizu-

(Cambridge, MA: Harvard University Press, 1997).

393 Russell Meansen lekukotasuna, hemen aipatua: *The Great Sioux Nation*, 45. or.

394 Vine Deloria Jr., «The United States Has No Jurisdiction in Sioux Territory,» in *The Great Sioux Nation*, 146.

395 Enfasia erantsia da.

na indargabetu bazuten edo itunaren kondizioak aldatu, zioen Deloriak, Oceti Sakowin jendeen onespenik gabe egin zuten, eta hori hitzarmenaren jatorrizko helburuetatik harago zihoan. Era berean, ituna sinatzeak ez zuen esan nahi goragoko subirano bat onartzen zenik; aitzitik, Estatu Batuek hala interpretatu dute, kontrako ebidentziak ugariak diren arren. Indargune asko bazi-tuen ere, itunaren defentsa aldarrikapen ausart eta polemiko bat izan zen, arrakastarako aukera gutxi zuena.

Indigenen biziraupenari buruzko kontuek kezka handia eragin zuten hamahirugarren eguneko saioan. 1974ko abenduan, Lincoln-eko (Nebraska) epaitegi batean, Warren Urbom epaile federalak adi-adi entzun zituen Lakota eta Dakota herrietako adinekoen, adituen eta ekintzaileen lekukotasunak. Ikustaldi hura berezia eta berritzailea izan zen. Defentsak aurkeztuta-ko lekukoen zerrendako berrogeita bederatziz «aditu»en artean historialariak, antropologoak, aktibistak eta adineko indigenak eta tradizionalistak zeuden. Nor-da-nor zerrenda bat zen, ez soilik AIMrena, baizik eta mugimendu indigena guztiarena eta haren intelektual organiko eta berriena, hala nola Leonard Bele Txakur, Vine Deloria Jr., Roxanne Dunbar-Ortiz, Russell Means, Dennis Banks, Edith Zezen Hartz, Beatrice Medicine, Irma Hartz Geldiarazle, Severt Hartz Gazte, Alex Belatz Harrapari, Evelyn Gabe, Francis Bele, Gladys Bissonette, Robert Txori Beilegi, Frank Etsai Hiltzaile, Ted Means, Nellie Hontz Gorri, Faith Traversie, Matthew King eta beste asko. Tradizioa hautsita, lekukoek *canuparen* gainean (Lakota herriaren pipa zeremonial bat) zin egin ahal izan zuten, Bibliaren gainean egin beharrean. Ikustaldi hartan ez zegoen epaimahairik, eta, beraz, Lakota eta Dakota he-rrietako adinekoek eta tradizionalistek epaimahaikideen jarleku hutsak bete zituzten. Lehenengo aldiz AEBko epaitegi batean, eta Roxanne Dunbar-Ortizek dioen bezala, «Siux Nazio Handiak Ameriketako Estatu Batuak epaitzen ari ziren, ez alderantziz».³⁹⁶ Han aurkeztutako gaiak –itun-eskubideak, subiranotasuna, ko-lonialismoa eta genozidioa– biziraupenarekin zerikusia zuten kontuak ziren herri indigena guztientzat, ez bakarrik Oceti Sa-kowin jendeentzat.

396 Dunbar-Ortiz, in *The Great Sioux Nation*, 13.

AEBko publiko abegikorrak herri natiboen aurkako abusuei eta Wounded Kneeko abertzale heroikoei buruzko kezka azaltzen zuen, baina, halere, indigenen kontuak eskubide zibilien aldeko beste mugimendu baten gisa ikusteko joera zuen –eta oraindik ere badu, hein handi batean–. Baina adituen lekukotasunak zalantzan jarri zuen AEBk kontinentea kontrolatzeko legitimitaterik ote zuen, eta, hortaz, Oceti Sakowin jendeak –eta, beraz, herri indigena guztiak– bidegabeki AEBren eta europarren kolonialismoaren menpe zeuden beste herri kolonizatu batzuen zelai berean kokatu zituen.

Aukerak oso txikiak ziren. Guztiak jabetzen ziren. Azkeanean, Urbom epaileak kasua bertan behera uztearen aurkako epaia eman zuen. Urbomen erabakiaren arabera, Oceti Sakowin jendeek «herri erabat subiranoa osatu zuten garai batean. Orain ez dira herri subirano bat, eta ez dira izan denbora luzez. Inoiz berriro izango ote diren, Kongresuaren eta AEBko presidentearen ekintzen arabera izango da, ez auzitegien arabera». ³⁹⁷ Ez zuten lortu esperotako emaitza, baina, halere, eta epaiketaren ondorioz, Urbomek bere lanbidearen berezko kontserbadurismoari aurre egin behar izan zion, zeinak batez ere herri indigenei eragiten baitzien. AEBko legedia –eta, egia esan, Mendebaldeko lege-tradizio guztia– kontserbadorea da, eta ez liberala us kontserbadorea zentzu politiko bitarrari dagokionez. Mendebaldeko auzitegi-tako legeak berez dira kontserbadoreak; izan ere, ez dagoenez legedia «on» bat, askotan bere iraganeko adierazpide gordin eta arkaikoak erabiltzen ditu orain eta hemen «justizia» zer den zehazteko, eta, hala, etorkizuneko kasuetarako aurrekariak ezartzen ditu. Kongresuaren edo gobernuaren eskuhartzearen bidez bakarrik aldendu daiteke legearen ibilbidea bere berezko kontserbadurismotik, eta aukera horrek arindura txikia ekarri die herri indigenei. Bestalde, eta indiarrei dagozkien epai nagusietan gertatu ohi den bezala, erabaki «txar» bat doktrina bilakatzen da. Bere lege-tradizioei jarraikiz, Mendebaldearen unibertso moralak ez du sekula justizia indigenaren alde egiten. Kasurik onenean, ez dio kasurik egiten. Okerrenean, suntsitu egiten du.

397 Warren Urbom epailea, «Excerpts from the Decision,» in *The Great Sioux Nation*, 197. or.

Konkista, esklabotza eta genozidioa Europako legeekin justifikatu ahal izateko, herri indigenak eta nazio ilunagoak humanitatearen esparrutik kanpo utzi dira erabat, eta printzipio hori ez da apenas zalantzan jarri.³⁹⁸ Adibidez, Urbom epaileak zalantzan jarri zuen indiar lege federalaren oinarria, baina baita berretsi ere, eta, horretarako, zera hartu zuen aintzat, Auzitegi Goreneko presidente John Marshallek XIX. mendearen hasieran irudikatutako definizioa, hau da, AEB lehen urratsak ematen ari zenean. Urbomek honela esan zuen: «Beheragoko epaitegi federal guztiak» Marshallek 1823ko *Johnson vs McIntosh* epaian esandakoari «jarraitu behar diete». Epai hartan, Marshallek zioen ezen, AEBko legearen arabera, nazio indigenak ezin direla erabat subiranotzat jo, Europarekin ezein harreman izan aurretik herri indigenak «basatietan basatienak» zirelako, «gerra besterik egin ez zutenak eta nagusiki basoan eskuratutako elikagaietatik bizi zirenak. Herrialdea haien eskuetan uzteak esan nahi zuen herrialdea oihanaren eskuetan uztea».³⁹⁹ Eta herri «zibilizatuak» soilik izan daitezke erabat subiranoak. Praktikan, logika horrek zera agintzen die kolonizatzailerei, «basatietan basatienak» «zibilizatzeko», baita haien paisaia «basatia» ere. Nolanahi ere den, epaitegi guztiak ikuspegi horri eutsi behar diete, nahiz eta ez den sekula egia izan, eta nahiz eta munduak jada ez duen legitimitzat jotzen. Urbomek tradizioari jarraitzen zion, besterik ez.

Halarik ere, dena ez zegoen galduta. Defentsak garaipen partzial edo, are, esanguratsu gisa hartu zuen erabakia. Urbomek jurisdikzioaren aldarrikapen nagusia baztertu zuen, baina onartu zuen 1868ko *Ituna* Oceti Sakowin jendeen eta Estatu Batuen nazioarteko harremanaren frogatzea, eta AEBko ezein epaitegi ez zuela harreman hura indargabetzeko eskumenik. Behatzaile arduragabearentzat, badirudike puntu hori ez dela inportantea. Baina hain justu ere arrazoi horregatik arriskatu zituzten beren bizitzak AIMko kideek *Wounded Knee* AEBko gobernuaren aurka, eta arrazoi horregatik egin zieten aurre Ipar Amerikako jenderik pobreenek ordura arte munduak inoiz ezaguturiko botere militar handienari. John Thorne defentsabokatuak azken adierazpen sutua egin zuen, eta, bestek

398 Ikus Robert A. Williams Jr., *The American Indian in Western Legal Thought: The Discourses of Conquest* (New York: Oxford University Press, 1990).

399 Urbom, «Excerpts from the Decision,» in *The Great Sioux Nation*, 198. or.

beste, Oceti Sakowin jendeek nazioartean aintzatetsiak izateko zuten nahia beste nazio zapaldu batzuenekin alderatu zuten: Palestinaren Askapenerako Erakundea, Ipar Irlanda, apartheid erregimenaren menpe zegoen Hegoafrika beltza eta, Estatu Batuen barruan, Pantera Beltzen Alderdia, La Raza eta Nekazarien Batasuna.

—Zapalkuntzari buruz mintzo dira, eta bizitza hobeagoi buruz. Mugitzen dira, jarduten dute. Horri erantzunez, kartzela handiagoak eta hobeak eraikitzen ditugu, epaile gehiago izendatzen ditugu, polizia-agente gehiago, eta jende gehiago atxilotzen dugu —esan zion Thorn abokatuak Urbom epaileari—. Lege moralari jarrai diezaiozun nahi dut.

—Nondik dator nire aginpidea? —galdetu zion Urbomek.

—Aginpidea, zertarako?

—Edozertarako. Epailea naiz. Non eskuratu nuen nire aginpidea? —ihardetsi zuen Urbomek.

—AEBren eta Siux Nazioaren arteko [1868ko] Itunak hitzarmen irmoaren estatusa eskuratu zuen leku berean —gogorazi zion Thornek auzitegiari.⁴⁰⁰

—Gaizki dagoenaz ohartzeak ez digu ematen ongo dagoenaren azalpen zehatz bat —arrazoitu zuen Urbomek, errealitate koloniala iraganeko kontu bat izango balitz bezala—. Iraganarekiko larritasun soilak ez dakar berekin etorkizunerako erantzun zuhurrik.⁴⁰¹

Urbomen hitzetatik, bazirudikeen bi astez epailearen aurrean beren istorioak partekatu zituzten indiar adinekoak historia-liburu batetik irten zirela. Halarik ere, akusatuek bilatzen zutena lortu zuten: itun indigenak nazioarteko zuzenbidean errotuta daudela onartzea. Hurrengo urratsa zera zen, borroka mundura zabaltzea.

Askotan, naziotasun indigena gaizki ulertzen da, proiektu eskusibo gisa ikusten baita —herri indigenen helburu bakarra—, edo nazio-estatuaren definizio estuetara mugatua. «Indiar arazoa»ri ere antzeratsu gertatzen zaio, soilik indiarrena den arazotzat jotzen baita. Indiar Itunen Nazioarteko Kontseilua 1974an elkartu zen lehenengoz, Standing Rock indiar erreserban,

400 John Thorne, «Excerpts from the Defense Summary Argument,» in *The Great Sioux Nation*, 194. or.

401 Urbom, «Excerpts from the Decision,» in *The Great Sioux Nation*, 197. or.

eta «Etengabeko Independentziaren Adierazpena» idatzi zuten. Bada, Itunen Kontseilu haren arabera, arazoa ez zetzan herri indigenetan; arazoa beste bat zen, eta hala izan da beti: inperialismoa. Naziotasunaren xedeak Red Power mugimenduetatik bereizi zuen Itunen Kontseilua, zeinek askatasuna nazio-estatu-ekin lotzen baitzuten. Indigenek, oster, planetaren hegoaldeari begiratu zioten, naziorik beltzenei. Itunen Kontseiluak Hirugarren Munduko mugimenduekin bat egin zuen (baita AEBkoekin ere), Nazio Batuen Erakundearen herri indigenen aitortza lortzeko. Red Power mugimenduen protestak 1960ko hamarkadan abiatu ziren, beraz, hamarkadatik gora zeramaten protesta-ekintzak egiten. Horri erantzunez, 1970eko hamarkadan Nixon presidenteak indiarren autodeterminaziorako baimena eman zuen, herrialde barruko politika gisa; hala bada, kitatzea gauzatzeko asmoa bertan behera utzi, eta botere gehiago eman zien kontseilu tribalei beren arazoak kudeatzeko, eta «naziotik naziorako» harreman gehiago bultzatu. Baina Itunen Kontseiluak amets handinahiagoak zituen.

Hastapenean, Itunen Kontseiluak hainbat oztopo gainditu behar izan zituen. Lehenik eta behin, ez zuten publizitaterik AEBko komunikabideetan. Harreman estua zuten herri mugimenduetako komunitateekin (hori zen haien oinarria) eta kontseilu tribal batzuekin, baina jendeak, oro har, ez zuen haien lan garrantzitsuen berri handirik. Bigarrenik, beren «Adierazpenean» esaten zutenez, Itunen Kontseilua nazio-askapenerako erakunde bat zen, NBEn erabateko ordezkari eduki nahi zuena. Halere, munduko komunitateak ez zituen estatu subirano independentetzat aitortzen Itunen Kontseiluak ordezkatzeko zituen nazio indigenak, eta baldintza hori ezinbestean bete behar zuten, baldin eta NBEn sartu nahi bazuten. Edozelan ere, Itunen Kontseiluak gobernu kanpoko erakunde (GKE) gisa onartua izateko eskaera egin zion NBEn Kontseilu Ekonomiko eta Sozialari, eta 1977an aholku-emaile estatusa lortu zuen. Batzuen ustez, energia GKE batera bideratzea –esan liteke erakunde ez-iraultzailea eta ez-subiranoa zela– ez zetorren bat haien proiektuarekin, hura zabalagoa baitzen.⁴⁰² 1977an, Itunen

402 Ikus Alyosha Goldstein, «Thresholds of Opposition: Liberty, Liberation, and the Horizon of Incrimination,» in *Poverty in Common: The Politics of Communal Action During the American Century* (Durham, NC: Duke University Press, 2012), 199–243. or.

Kontseiluak komunikatu bat atera zuen, «Deskolonizazioa, Askapena eta Nazioarteko Komunitatea» izenburuarekin. Idatzi hartan, GKERen strategiari buruzko azalpenak eman zituzten: «Deskolonizazioa –edo, hobe esanda, askapena– prozesu mantso bat da, arretaz egin beharrekoa. Kolonizatzaileek joan deneko lau mendeetan lortu zutena ezin da aise gainditu».⁴⁰³

Itunen Kontseiluak nazioarteko aitortza bilatzeko oztopoak ere bazituen. Lehenik, AEBk ezin zituen toleratu indigenen eskubideak, are gutxiago nazio indigena subiranoak, eta bere eskuetan zegoen guztia egiten zuen Itunen Kontseiluaren ahallegina zapuzteko. Bigarrenik, NBERen barne-mekanismoek eragotzi egiten zuten herri indigenei erabateko subiranotasuna ematea, hau da, estatuenaren parekoa. Deskolonizazioaren prozesu formalak, NBERen deskolonizazio-dokumentuetan jasota zegoenak, ez zituen herri indigenak nazio potentzialtzat jotzen, ezta halakotzat aintzatesten ere. Normalean, nazio kolonizatuek gatazka armatuaren eta nazioarteko aintzatespenaren konbinazio baten bidez eskuratzen zuten independentzia. Wounded Kneeko sarraskiaren ondoren, AIM erakundeak lehena alde batera utzi eta bigarrena hautatu zuen, baina, azkenean, nazioarteko lege-esparrua ez zen suertatu haien aldekoa. Aliatuak bilatu eta mantendu behar zituzten mundu zabalean. Izan ere, munduaren iritzia eskuratuta soilik lortu ahal izanen zuten nazioarteko aitortza.

1974ko Itunen Kontseilua bukatu eta berehala, bi bulego zabaldu zituzten, bata San Frantziskon eta bestea New York hirian, NBERen bulegotik gertu, kaleaz bestaldean. Halandaze, nazioarteko aitortza eskuratzeko prozesu geldoa abiatu zuten. Kubako gobernuaren gonbidapenari erantzunez, Itunen Kontseiluaren ordezkari bat Habanara joan zen, eta Puerto Ricoren Independentziarekiko Elkartasunaren Nazioarteko Biltzarrean parte hartu zuen; izan ere, Kubako gobernuak Itunen Kontseilua aintzatesten zuen, baita munduko beste hirurogeita hamasei nazio eta hamalau askapen-mugimendu ere. Hala, Itunen Kontseilua Hirugarren Munduko independentziaren aldeko mugimenduekin eta herrialde sozialistekin batera lan

403 Indiar Itunen Nazioarteko Kontseilua, «Decolonization, Liberation and the International Community,» *Treaty Council News*, 1977ko abenduaren 3a, Finzel dokumentuak, 4. kutxa.

egiten hasi zen. Handik gutxira, zenbait ordezkari-tza munduko beste toki eta mugimendu batzuk ikuskatzera joan ziren, haien babesa erdiesteko ahaleginean: Ekialdeko blokea eta planetaren hegoaldeko nazioak, hau da, Iparraldeko Afrikakoak, Hego Ameriketakoak eta Ekialde Ertainekoak. Itunen Kontseiluaren bigarren topaketa Yankton erreserban egin zuten, 1976ko ekainean, eta «Paper Gorria» idatzi zuten, non Ameriketako Estatu Batuak gaitzesten baitzituzten, mundu osoan zeharreko arribideko genozidioengatik eta esku-hartze inperialistengatik. Bestalde, Itunen Kontseiluak nazioarteko ordezkari-tzei agindu zien adiskidantzako harremanak egiteko beste herrialde batzuekin, eta Laramie Gotorlekuko 1868ko Itunaren aitortza galdatzeko.⁴⁰⁴

Herrialde anfitrioi-iek ondo hartzen zituzten delegazioak, batez ere Sobietar Batasunean eta Ekialdeko blokeko herrialdeetan; izan ere, irrikan zeuden ez bakarrik indigenen kausak babesteko, baita AEBren hipokrisia nabarmentzeko ere: atzerrian esku-hartze «humanitarioak» egiten zituzten bitartean, askatasuna ukatzen zieten beren herrialdeko jendei. 1977an, Itunen Kontseiluko ordezkari-ek –Allene Goddard, Bill Means, Greg Zephier eta Bill Wahpepah– Sobietar Batasuna, Kazakhs-tan, Mongolia eta Mendebaldeko Alemania ikuskatu zituzten, eta bidaiaria hartan Irakeko, Aljeriako eta Namibiako ordezkari-tzekin ere elkartu ziren. «Bisitaldi hauetan hegoaldeko anaiak hobeto ezagutzeko aukera izan dugu, eta, nire ustez, orain lehen baino hobeto ulertzen dugu herri bat garel», adierazi zuen Wahpepahk.⁴⁰⁵ Sherry Meansen kasuan –Russell Meansen alaba, artean hamabost urte zituena–, Ekialdeko blokeraren egindako bidaiak begiak ireki zizkion. Estatu Batuek herri indigenekiko duten jokabideaz bestera, «herrialde hauek uste sendoa dute giza eskubideetan», adierazi zuen.⁴⁰⁶ European, Ekialdeko blokeko herrialdeek harrera beroa egin zieten, eta hori, zati batean, indiarren kulturarekiko zaletasun handiari zor zitzaion. Erregimen sozialistetan, hala nola Alemaniako Errepublikan Demokratikoan (edo Ekialdeko Alemania), indiar kulturaren zaleek osatutako

404 Indiar Itunen Nazioarteko Kontseilua, «Red Paper,» Finzel dokumentuak, 2. kutxa, 21. karpeta.

405 «Indiarren ordezkari-tza bat Sobietar Batasunean izan da», *Treaty Council News*, 1977ko azaroaren 3a, Finzel dokumentuak, box 4. kutxa.

406 Sherry Means, «Herrialde hauek uste sendoa dute giza eskubideetan», *Treaty Council News*, 1977ko azaroaren 4a.

klubek estatuaren dirulaguntza jasotzen zuten, eta paper garrantzitsua jokatu zuten Ameriketako kausa indiarrei elkartasun transnazionala adierazten. Europako erregimen sozialistek beltz iraultzaileak babesten zituzten antzera –adibidez, Angela Davis, zeina Kaliforniako estatuak kartzelatu baitzuen, eta gero askatu–, Ekialdeko blokeko herrialdeek zinezko elkartasun transnazionala eskaintzen zieten Ameriketako indigenen borrokei.⁴⁰⁷ Are garrantzitsuagoa dena, herri indigenek etsaitasunezko publikoa aurkitzen zuten Ipar Amerikan, baina abegikorra atzerrian, batez ere nazio sozialistetan eta beste herri kolonizatu batzuetan. Europako eta Asiako «nazio gorriak» babes-plataforma bat eskaintzen zieten orain Ipar Amerikako nazio gorriei.

Itunen Kontseiluko ordezkariak sarriak izaten ziren, eta harreman luze eta sakonak sustatzen zituzten. 1979an, adibidez, Irango Iraultza piztu zenean, ikasle iraultzaileek AEBko berrogeita hamabi diplomatiko eta herritar bahitu zituzten, eta AEBren enbaxadan atxiki zituzten urtebetetik gora. Bahiketa harekin, ikasle iraultzaileek zera lortu nahi zuten, AEBren babesa zuen Shah Mohammad Reza Pahlavi diktadorea ez itzultzea boterera. Ahaztuxeago dago, berriz, Itunen Kontseiluak izan zuen rola egoera hari bakezko amaiera bat emateko, baita AEBko bahituentzat antolatu zuen posta-trukerako programa ere. Russell Meansen aburuz, 1977ko Genevako biltzarraren ondoren AIMk Palestinaren Askapenerako Erakundearekin (PAE) egin zuen harremanak «nolabaiteko sinesgarritasuna eman zion» Itunen Kontseiluari «munduaren alde hartan». Nola Meansekin debekatua baitzuen AEBtik irtetea, baldintzapeko askatasunagatik, Dakota herriko John Thomas izan zen «enbaxadore alderrai»-aren zereginetan jardun zuena Libanon, Iranen eta Egipton. John Thomas AIMko kidea zen, Meansen hurrengoa; «tipo argi eta maitagarria, mundu guztiarekin ondo konpontzen dena». Eta Itunen Kontseiluak bera bidali zuen Teheranera, Guardia Iraultzaileek enbaxada hartu zutenean, «zer egin zitekeen ikustera». Azkenean, ikasleek AIMko kideei bakarrik utzi zieten fardelak eta gutunak eskura ematen.⁴⁰⁸

407 György Ferenc Tóth, *From Wounded Knee to Checkpoint Charlie: The Alliance for Sovereignty between American Indians and Central Europeans in the Late Cold War* (Albany, NY: State University of New York Press, 2016), 117–40. or.

408 Means, *Where White Men Fear to Tread*, 399.

Behin batez, John Thomas 150 eskutzeko poltsa batekin iritsi zen enbaxadara. Ikasle iraniarrek ondo hartu zuten, eta bahitu bat ikusteko baimena eman zioten, Armadako sarjentu Joseph Subic Jr.

—Gure elkartasuna adierazi nahi dizugu. AEBko gobernuak 150 urtez eduki ditu gatibu gure jendeak [AEBko indiarrek] —esan zion Thomasek sarjentuari.

—Bai, badakit. Eskerrik asko etortzeagatik —erantzun zion Subicek.⁴⁰⁹

NBEko idazkari nagusiak eskerrak eman zizkien Bill Means, John Thomas eta Itunen Kontseiluari, posta-trukea goraiatzea-rekin batera, «akordio baketsu batera iristeko negoziazioetan» laguntzearen. Posta-truke hura ez zen egin oso ezaguna, baina misio humanitario diplomatiko hark hauxe erakutsi zuen: AEBko gobernuarekin eta haren politika kolonialekin ados egon ez arren, AEBko herritarrekin, oro har, ez zuten ezelango arazorik. Bestalde, halako misio humanitario bakan bat egiteko baimena emateak erakusten zuen baita zer-nolako konfiantza-maila erdietsi zuen Itunen Kontseiluak NBErekin, Hirugarren Munduko erregimenekin eta nazio-askapenerako erakundeekin.

Itunen Kontseiluak mundura zabaldu zuen Dortoka Uhartearen borroka, baina, era berean, mundua ere etorri zen Dortoka Uhartera. Maiz, nazioarteko ordezkaritzak Estatu Batuetako nazio indigenen gonbidatu izaten ziren, eta indigenen eta palestinarren aldeko elkartasuna bereziki sendoa eta ikusgarria zen. Bai palestinarrek bai AEBko indiarrek aitortzarik gabeko nazioak ziren, aberririk gabeak, beren lurra okupatu zituzten erregimen kolonialen aurka borrokan ari zirenak. Palestinarrek Itunen Kontseiluaren ekitaldi garrantzitsu gehientsuenetan parte hartzen zuten. Eta ez ziren soilik batzar politikoak. Elizabeth Cook-ek gogora dakar nola powwow-etan⁴¹⁰ ere parte hartu zuten 1970eko eta 80ko hamarkadetan. «Otoizlarien atzean etortzen ziren goizetan, sarrera nagusiaren aurretik eta ostean, hogeita hamar, berrogei, berrogeita hamar laguneko taldetan, pistolak eta uniformeak soinean; jendea gosaltzera edo kafea hartzera

409 Hemen aipatua: John K. Cooley, «American Indians Bring Message: 'No Shah, No Hostages,'» *Christian Science Monitor*, urtarrilaren 21a.

410 AEBko herri indigenen topaketa, non indiarrek kantatu, dantzatu eta sozializatu egiten baitute, eta beren kultura ohoratu. [I.o.]

irteten zenean, edo antolatzen, palestinarrek kanpoan egoten ziren, lur asfaltatzen, maniobra militarrik egiten», dakar akordura. «Gure tribuek gonbidatuta etortzen ziren».⁴¹¹

Batzuetan, AEBko indiarrek «Ipar Amerikako palestinar» esaten zieten beren buruari, berek ere inbadituak izan zirelako eta atzerriko okupazio-potentzia bat haien tokia hartzen ari zelako. Alabaina, palestinar guztiek ez zuten ikusten beren burua AEBko indiarren pare. Batzuentzat, AEBko indiarren auzia egin-tza burutu bat zen, atzerabiderik gabea, zeinak irakasten baitzien berek ere aberririk gabe buka zezaketela, aitortzarik gabe, deserrian, edo betiko erreserbetara aldatuak, baldin eta okupazioa iraultzen ez bazuten. 1980ko hamarkadan, konparazio horren gainean itaundu zioten PAE erakundeko presidente Yasser Arafat-i, eta hau erantzun zuen: «Gure borrokaren zereginetako bat hori da, AEBko indiarrek yankee-en eskuetan jasan duten patu berera iristen ez garela ziurtatzea».⁴¹² Horrekin ez zuen esan nahi AEBko indiarrek palestinarren mailatik behera zeudenik. Baina Palestinak eta Dortoka Uharteak historia desberdina dute, eta kolonizazioaren fase desberdinetan daude. 1516-1918 bitartean, Palestina Otomandar Inperioaren parte izan zen. 1920an, berriz, britainiar autoritatearen mende jarri zuten, Nazioen Ligaren aginte-sistemaren barruan, zeinak itsasoaz bestaldeko lurraldeak administratzeko aukera ematen baitzien estatuei (nagusiki Europakoei). 1948an, Israel «juduen sorterri» bilakatu zen, eta 700.000 palestinar baino gehiago etxetik bota zituzten (populazio arabiarren %85 inguru); gertaera hura Nakba izendatu zuten, «katasstrofea». Handik gutxira, Israelek inguruko herrialde arabiarrek eraso zituen, eta hiru gerra inportante eragin, 1956, 1967 eta 1973 urteetan, zeinen bidez israeldarrek zenbait eremu okupatu baitzituzten: Ekialdeko Jerusalem, Zisjordania, Gaza zerrenda eta Golango gainak. Beste hitz batzuek esanda, une hartan oraindik ere palestinarrek gerran zebiltzan Israelgo kolonoekin, nola-eta Oceti Sakowin jendeak mende bat lehenago borrokatu ziren gisan kolonoen inbasioa beren lurretatik egotzeko. Okupazio militarren, uholdeen eta garapen industrialaren bidez lekualdatu zituzten dozenaka mila Oceti Sakowin jendeen

411 Elizabeth Cook-Lynn-en aipua, «'There Are No Two Sides to This Story,' » 42. or.

412 Yasser Arafat, «A Discussion with Yasser Arafat,» *Journal of Palestine Studies* 11:2, 1982, 14.

antzera, gaur egun sei milioi errefuxiatu palestinarrek ez dute beren sorterrira itzultzeko eskubiderik.

Palestinak New Jersey estatuaren tamainako azalera du, eta, beraz, indiar erreserba batzuk baino txikiagoa da. Nolabait esan, XIX. mendeko Ipar Amerikako kolonialismoaren mikro-kosmos baten antzeko zerbait zen. Beraz, Arafat zuzen zebilen, hein batean: Ipar Amerikako herri indigenak kolonialismoaren fase aurreratu baten froga bat ziren; gaur egun biztanle guztien %1 baino gutxiago dira, eta jatorrizko lurren %3 baino gutxiago dute. Alabaina, palestinarrek baliabide bat zuten eskura, AEBko indiarrek XIX. mendean izan ez zutena: NBERako sarbidea. Nazio Batuen Erakundea 1945ean sortu zen –zati batean, kolonialismoari amaiera emateko–, eta han palestinarrek munduaren iritzia aldatzeko ahalegina egin zezaketen. Ezabaketa eta suntsiketa fisikoaren unerik gorenean, AEBko indiarrek ez zuten izan nora jo, artean ez baitzegoen beren aurkako bidegabeke-riak salatze bidea emango zien nazioarteko erakunderik. Are gehiago, ezin zieten laguntzarik eskatu AEBko herritarrei, haiek ere onurak eskuratzen baitzizuten indiarren suntsiketarik, baita suntsiketa hartan parte hartu ere.

AEBko indiar guztiak ez zuten begi onez ikusten Palestina-rekiko harreman estu hura. Biblian ez zen aipatzen Ameriketako herri indigenarik, eta, beraz, haien existentzia azaltzeko tropo bat erabili ohi zen, alegia, herri indigena haiek Israelgo tribu galdu bat zirela. Izan ere, AEBko indiar ugari kristautasunean doktrinatu zuten, eta doktrina bibliko gisa onartzen zuten Israel estatuak «juduen sorterrira» izateko izan zezakeen zilegitasuna, AEBk bere buruari «kristau nazioa» deitu izan dion bezala. Garai hartan, Vine Deloria Jr. sionismoaren ikuspegi horren sus-tatzaile gisa azaldu zen; ideologia horrek, Ageriko Patuak bezala, juduen nazio bat berrezarri eta babestu behar dela esaten du, hau da, Israel.

1974an, Deloria *Behind the Trail of Broken Treaties* [Itun hautsien arrastoaren atzetik] liburua idatzi zuen, non iragar-tzen baitzuen nazioarteko mugimendu indigena bat sortuko zela; baina, era berean, argudiatzen zuen ezen herri indigenen subiranotasun eta autonomia erabatekoak ez lukeela zeha-ro mehatxatuko Estatu Batuen subiranotasuna, ez politikoa ez lurraldearena. Bere ustez, Israelek eta sionismoak zera era-

kusten zuten: herri zehatz batek lur-zati bat aldarrikatu badu historikoki eta belaunaldiz belaunaldi, bere ondare subiranoa delakoan, eskaera hori zilegi bihur daiteke. «Estatu Batuak gai badira onartzeko juduek lur subiranoarekiko eskubidea dutela Israelen, antzeko eskubide bat aitortu beharko diete AEBko indiarrei».⁴¹³ Alabaina, errealtateak kontrakoa esaten zuen, eta Deloriaren ikusmoldea ez zetorren bat inondik ere garai hartako internazionalismo indigena erradikalarekin. Steven Salaita aditu palestinar estatubatuarrek dio Israelen proiektu sionistaren asmoa ez zela AEBren Ageriko Patutik aldentzea, baizik eta haren luzapen bat izatea. Txakurrak (AEBk) eragiten dio buztanari (Israeli), ez alderantziz. Bere ustez, berak «iragaitzako lur santu» deritzonaren bi bertsio diferente ziren, alegia, biek erabiltzen zituzten erreferentzia biblikoak eta ideologia inperialak zer-eta, batetik, «mundu zahar» europarra marraztu ahal izateko Dordoka Uharteak eta Palestinak osatutako «mundu berri» natibo baten gainean, eta, bestetik, jatorrizko bi herrien historiak eta existentzia ezabatzeke.⁴¹⁴

Esanguratsua da nola agertu zen Israel (garai hartan, baita AEB ere) Hego Afrikako apartheid zuri supremazistaren alde, munduko beste herrialde guztiek hura gaitzesten zuten bitartean. Gainera, Israelek AEBren antzeko taktika kolonialak ere ezarri zituen palestinarrak paretik kentzeko, egozteko, kontrolatzeko eta, azkenik, ezabatzeke; era berean, Estatu Batuek Palestinaren okupazioa babestu dute politikoki, ekonomikoki eta kulturalki, eta, hain zuzen ere, Israelen kolonizazio-proiektua Estatu Batuak Ekialde Ertainean garatzen ari ziren barne- eta kanpo-politikaren eta esku-hartzearen luzapen bihurtu zuten. Hartara, borroka bakoitza besteari lotuta zegoen. Eta irakurketa hori ez zuten egiten AEBko indiarrek bakarrik. Alex Lubin adituak, adibidez, «askapen-geografia» deritze mundu-mailako borroken arteko harremani. Pantera Beltzak Alderdiaren «interkomunalismo» kontzeptua ere, garai hartako internazionalismo indigena erradikalaren antzekoa zena, nazio-estatuaren barruan berdintasuna lortzeko ahaleginetatik aldendu zen. Hala, Lubi-

413 Vine Deloria Jr., *Behind the Trail of Broken Treaties: An Indian Declaration of Independence* (Austin: University of Texas Press, 2000), 183, 185. or.

414 Ikus Steven Salaita, *The Holy Land in Transit: Colonialism and the Quest for Canaan* (Syracuse, NY: Syracuse University Press, 2006).

nen ustez, askotariko borroka haiek guztiek gauza bera bilatzen zuten: errotik desberdina zen mundu bat irudikatzea, klasean, arrazan, nazioan eta kolonietan oinarritutako hierarkiarik gabea.⁴¹⁵

Oyate Wicaho (jendearen ahotsa) argitalpenean, AIMk askotan Israelen okupazioari aurre egiten ari ziren palestinarren elkarrizketak, istorio laburrak, poemak eta erreportajeak argitaratzen zituen, eta palestinarrei «senide» ere esaten zieten. Internazionalismo indigena, Meansek 1974an Itunen Kontseiluaren lehen bilerako hitzaldian argi eta garbi adierazi bezala, beren lurren emantzipazioaren alde borrokatzen ziren haien gatazketara lotuta zegoen. Eta, azkenean, munduaren hegoaldeko herrialdeekin eta nazio-askapenerako erakundeekin egin zituzten aliantza haiek oso emankorrak izan ziren Itunen Kontseiluarentzat. Wounded Kneeko gertaeren ondoren munduak AIMri bizkarra eman zionean, munduko herrialde kolonizatuak haiekin harremanetan jarri ziren, eta herri indigenen eskubideak nazioartera eramateko laguntza eskaini zieten. Itunen Kontseilua Hirugarren Munduarekin eta erregimen sozialistekin elkartu zela jakite hutsak haien aliatu indigena eta ez-indigena batzuk mindu zituen, batez ere NBEko kanpainen lanean ari zirenak. Beste erakunde batzuek, hala nola Herri Indigenen Munduko Kontseiluak eta Indiarrentzako Baliabide Juridikoen Zentroak, erabaki zuten Ipar Atlantikoko estatuekin (hau da, potentzia inperial tradizionalekin) bat egitea eta dirua beren gobernu kolonialetatik hartzea; biak ala biak AIM erakundeak eta Itunen Kontseiluak sutsuki errefusatzeko zituzten neurriak. Baina aliantzak zentzuzkoak ziren, nola pragmatikoki hala ideologikoki. Eta finantzazioaren kontua ere bazegoen: dohaintza-emaile pribatuekin edo gobernuarekin zorretan ez egoteko, Itunen Kontseiluak batez ere eliz inguruan eratutako taldeek emandako dohaintzak jasotzen zituen, eta horrek estatu kolonizatzaileekiko autonomoak izateko aukera ematen zien.

Itunen Kontseiluak erronka handiago bati ere egin behar zion aurre: nazioarteko legedian ez zegoen herri indigenen definizio egoki eta baliagarririk. Ordura arte, NBEk barruko «po-

415 Alex Lubin, *Geographies of Liberation: The Making of the Afro-Arab Political Imaginary* (Chapel Hill, NC: University of North Carolina Press, 2014), 7–9. or.

pulazio» gisa sailkatu zituen herri indigenak. Ekintzaile indigenek eskatuta, «herri indigenak» kategoria gehitu zuten, NBEk 1974an eta lehenengo aldiz abiatu zuen Arrazismoari eta Arrazagatiko Diskriminazioari Aurre Egiteko Ekintzen Hamarkadaren testuinguruan. Horri buruzko NBEren ebazpenak arrazakeria-moldetzat jo zituen baita ere Hego Afrikako apartheidia eta Israeleko sionismoa.⁴¹⁶ Horregatik, AEBko presidentek, Jimmy Carter lehena eta George W. Bush azkena, NBEren «Hamarkada» programaren lehen eta bigarren edizioak boikotatu zituzten, hau da, 1974tik 1993ra bitartekoak.

Nolanahi ere, ekitaldirik garrantzitsuena 1977an egin zen, irailaren 20 eta 23 bitartean, NBEren Genevako (Suitza) egoitzan: Gobernu Kanpoko Erakunde Ameriketako Herri Indigenen aurkako Diskriminazioari buruzko Nazioarteko Biltzarra. Itunen Kontseiluak sustatu zuen, eta antolatu, berriz, GKE erakundearen, Arrazismoaren, Arrazakeriagatiko Diskriminazioaren, Apartheidaren eta Kolonialismoaren Azpibatzerdeak. Itunen Kontseiluari erantzunez, hemisferioko ehun ordezkari indigena baino gehiagok parte hartu zuten, besteak beste: Argentina, Bolivia, Kanada, Txile, Costa Rica, Guatemala, Ekuador, Mexiko, Panama, Paraguai, Peru, Suriname, Venezuela eta Estatu Batuak. Horiez gain, munduko beste leku batzuetako ordezkariak ere azaldu ziren, adibidez: Australia, Kuba, Frantzia, Irak, Mongolia, Siria eta Yemen. GKE garrantzitsuen eta nazioarteko erakunde nabarmenen artean, berriz, hauek zeuden: Amnesty International, YMCA erakunde Mundu Aliantza eta Musulmanen Mundu Liga.⁴¹⁷

Biltzarra lorpen ikaragarria izan zen, eta nazioarteko komunikabideetan jarraipen zabala izan zuen; ezustekorik ez, AEBko prentsak goitik behera boikotatu zuen. Gau osoa hartzen zuten saioetan gogor lan eginda, lider indigenek dokumentu kolektibo bat idatzi zuten: «Mendebaldeko Hemisferioko Nazio eta Herri Indigenak Defendatzeko Printzipioen Adierazpena». Hamahiru printzipio biltzen zituen, zeinetan zehazten baitziren, besteak beste: nazioarteko zuzenbidearen babesean naziotasun

416 Dunbar-Ortiz, «How Indigenous Peoples Wound Up at the United Nations,» 123, 132n14. 1993ko Osloko Itunaz geroztik, sionismoa arrazismoaren sailkapenetik kanpo dago.

417 Ikus Indiari Itunen Nazioarteko Kontseilua, *The Geneva Conference: International NGO Conference on Discrimination Against Indigenous Peoples*.

indigenak izan beharreko ezaugarriak; autonomia eta independentzia indigenarako eskubidea; nazio kolonizatzaileekin egindako itunen eta beste akordio batzuen berrespena; herri indigenen jurisdikzioa (legala eta lurraldeari dagokiona) beren lurren eta kideen gainean; estatu kolonizatzaileekiko gatazkak konpontzeko prozesu bat; ingurumen-babeserako eskubideak; eta kideztza indigena zehazteko eskubideak. Lehen printzipioak honela zioen: «Herri indigenak nazio gisa onartuko dira», baldin eta nazioarteko zuzenbideak naziotasuna lortzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte, hau da, populazio iraunkorra, lurralde zehatz bat, gobernua eta beste estatu batzuekin harremanak izateko gaitasuna. Ordurako, Oceti Sakowin jendeek aspalditik betetzen zituzten naziotasun-estatusa lortzeko baldintza guztiak.⁴¹⁸ Puntu haiek 1972ko Itun Hautsien Ibilbideko hogeitun puntuen gainean eraiki ziren, zeinetan eskatzen baitzen berriz ere ezartzea AEBren eta indigenen arteko harremanak – hau da, nazioarteko harremanak-. Mugimendu indigenak zirkulu osoa bete zuen. Roxanne Dunbar-Ortizek dio ezen adierazpenaren zirriborroa «nazioarteko mugimendu indigenaren funtsezko dokumentu politikoa» izan daitekeela.⁴¹⁹ Halere, lau hamarkada igaroko ziren NBEk 2007an Herri Indigenen Eskubideen Adierazpena onartu zuenerako.⁴²⁰

1987an, eta NBEren eskariari erantzunez, Kubako berri-ekarle Miguel Alfonso Martinezek itunen eta hitzarmenen estatusari buruzko hamar urteko ikerketa baten berri eman zuen. Ondorioztatu zuen ezen potentzia kolonialek, hala nola Estatu Batuak, 1868ko Ituna eta antzeko beste akordio batzuk bidegabeki erabili dituztela nazio eta lur indigenen gaineko autoritatea aldarrikatzeko. Martinezek «etxekotze»-prozesu deitu zion horri; izan ere, nazio indigenak «nazioarteko zuzenbidearen esparrutik atera zituzten, eta zuzen-zuzenean kolonoen estatuen eskumen eksklusiboaren eta barne-jurisdikzioaren menpe jarri».⁴²¹ Estatu

418 Indiar Itunen Nazioarteko Kontseilua, *The Geneva Conference: International NGO Conference on Discrimination Against Indigenous Peoples*, 25–6. or.

419 Dunbar-Ortiz, «How Indigenous Peoples Wound Up at the United Nations,» 126.

420 Geroztik, nazio horiek guztiek errotik aldatu dute beren aurkakotasuna, argudiatuz adierazpena betetzeko erabakia akordio «ez-lotesle» soil bat dela.

421 NBEren Giza Eskubideen Batzordea, *Study on Treaties, Agreements and Other Constructive Arrangements Between States and Indigenous Populations*, azken txostena, egilea Miguel Alfonso Martinez, berri-ekarle berezia, Herri Indigenei buruzko

Batuek nazio indigenak etengabe eraso dituzten arren, Martinezek dio itun-eskubideek estatus eraginkor jarraitua dutela AEB barruko eta nazioarteko zuzenbidearen arabera. Aldarrikapen hori baietsiz, erabaki juridiko batzuk Oceti Sakowin jendeen aldekoak izan dira.

1980an, AEBko Auzitegi Nagusiak Oceti Sakowin jendeen aldarrikapena baieztatu zuen, alegia, Muino Beltzak ebatsiak izan zirela. «Ziurrenik ere, gure historian ez da egongo tratu desohoragarririk hau baino kirats handiagoa darionik», zioen epaiak.⁴²² Ondorioz, auzitegiak 106 milioi dolarreko akordio bat adostu zuen. Oceti Sakowin jendeek ia aho batez erantzun zuten, lelo ezagun batekin: «Muino Beltzak ez daude salgai!». Standing Rockeko espirituari eta Itunen Kontseiluaren 1974ko jatorrizko argudioei jarraikiz, erabaki zuten konponbide zuzen bakarra zela ilegalki hartutako lur guztiak itzultzea. Eta horrek arazoaren muinera garamatza. Oceti Sakowin jendeek beren lurren alde garatu duten borrokak ez du bilatzen erreparazioa, edo barkamena, edo bakezkoak egitea. Justizia bilatzen du, eta sistema kolonialaren amaiera. Alabaina, kolono ugarik ez dute irudikatu ere egiten lurak itzultzearen aukera, edo, horretara jarrita, etorkizunean 500 nazio indigenarekin baino gehiagorekin batera bizitzea, bakean. Askok onartzen dute kolonialismoa bidegabea dela, baina, halere, ezinezkoa zaie kolonialismorik gabeko etorkizun bat irudikatzea.

1999an, giza eskubideen batzordeak saio bat egin zuen Rapid Cityn (Hego Dakota). Han, Lakota herriko Charmaine Aurpegi Zuri ekologista entzutetsuak hausnarketa bat egin zuen. Izan ere, AEBko Auzitegi Gorenak 1868ko Itunari buruzko epaia eman zuenean, Hego Dakotako «ez-indiar» ugari beren lurak galtzeko beldurrak jo zituen. «Gogoratzen ariko ote dira», zioen Aurpegi Zurik, «nola behartu zituzten beren arbasoek lakota jendeak haien etxeak eta haien bizibideak galtzera, eta usteko dute berei ere berdina gertatuko zaiela? Edo beharbada beldur dira, gobernu federalak ez ote dien berei ere bizkarra emango, lakota jendei eman bezala».⁴²³

Lantaldea, 1997ko uztailak 24.

422 *United States v. Sioux Nation of Indians*, 448 US 371, 1980.

423 Hemen aipatua: AEBren Giza Eskubideen Batzordea, Hego Dakotako Aholku Batzordea, *Native Americans and the Administration of Justice in South Dakota*,

Aurpegi Zuri nabarmentzen ari zen ez-natiboek onartu egiten zutela inplizituki lur hura indarraren eta estortsioaren bidez ebatsia izan zela. Horrek esan nahi du, baita ere, kolonoek justiziaren alorrean duten proiektuak muga bat duela; izan ere, gaizki eginen aitortza bat argitaratu dezake, baina ezin du mundua berrordenatu edo ondasunak bidezko jabeei itzuli, bereziki lurra. Ez-natiboek uste dute, nolabait, natiboek kolonoei egingo dietela haiek berei egindako bera. Baina kontrara gertatzen da. Aurreko atalean Muino Beltzen Aliantzaren kasua azaldu dugu, eta horrek erakusten du indigenak eta kolono pobreak itun-eskubideen alde antolatzen direnean energia-konpainia multinazionaleri aurre egiteko gai direla eta beren bizitzen gaineko kontrola eskuratzen ahal dutela. Gauza bera gertatu zen 2013an Keystone XL oliobidea gerarazteko protestetan, baita 2016an ere, Standing Rocken, Dakota Access oliobidea garaitzeko ahaleginean. Bi proiektu horiek aurrera egin badute ere, askotariko indarrek –talde ekologistak, nekazariak, abeltzainak, sindikatuak... Zoltán Grossman-ek «aliantza inprobableak» deritzenak– oztopo esanguratsuak jarri dizkiete.⁴²⁴

Pawnee herriko Walter Oihartzun Belatz legelari ezagunaren ustez, gaur egungo nazio natiboak «gozoro egokitu dira Nixon presidenteak 1970ean abiatutako Indiar Autodeterminazioarako Politikara». Alegia, «azken hogeita hamar urteetan» ez dietela behar bezala heldu «herri indigenen kondizio, arazo edo eskubideei».⁴²⁵ Edozertara ere, 2007ko Herri Indigenen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpena, lorpen biziki laudatua, internazionalismo indigenak nazio-estatuaz haragoko autodeterminazio bat bilatzeko duen engaiamenduaren froga bat da. Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimenduak, Ekialdeko Blokeak eta Sobietar Batasunak Mendebaldearen erasoak gerarazi zituzten. Haietako bakoitzaren gainbeherak mugimendu indigena internazionalista erradikalaren lana oztopatu zuen, aliatuak galdu zituztelako Nazio Batuen Erakundean. Askatasun indigenaren irudikapenak nazio-estatu inperialaren mugak eklipsatu

1999ko abenduaren 6an egindako foro komunitarioko transkripzioa, 86–7. or.

424 Zoltán Grossman, *Unlikely Alliances: Native Nations and White Communities Join to Defend Rural Lands* (Seattle: University of Washington Press, 2017).

425 Walter Oihartzun-Belatz, *Into the Light of Justice: The Rise of Human Rights in Native America and the UN Declaration on the Rights of Indigenous Peoples* (Golden, CO: Fulcrum, 2013), 16. or.

bazituen ere, orain ezinbestekoak zituzten kolonizatzailearen aitortza eta eskubideak. AEBk, Kanadak, Zeelanda Berriak eta Australiak Herri Indigenen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpenaren aurka bozkatu zuten, baina, nolahi ere, hiru herrialdeek beren erabakia irauli zuten; eta hala egin ahal izan zuten, hain justu ere, NBERen aldarrikapenak «ez-lotesleak» dirrelako. Hori baino kezkarriagoa izan zen 2010ean etorri zena, AEBk Aldarrikapenaren aurka emandako botoa iraultzea erabaki zuenean: barkamena eskatzeko ebazpen ofizial bat, 2010eko Defentsa Esleipenari buruzko Legearen barruan.

2009an, Kongresuak munduko historian inoiz izan den defentsa-esleipenerako lege-proiekturik zabal eta garestiena onartu zuen. 2010ean, defentsa-gastuak 683,7 mila milioi dolarrekoak ziren urte fiskaleko. Kopuru izugarri hori erreferentzia gisa hartu izan da, eta oraino ere AEB buru duen «izuaren aurkako gerra» justifikatzeko erabiltzen da, zeinaren bidez atzerrian isilpeko ekintzak hedatu baititu eta etxe barruan segurtasun nazionaleko eta zaintzako programak areagotu. Defentsa Departamentuaren 2010eko Defentsa Esleipenari buruzko Legean ezkatuturik, zeina Obamak jarri baitzuen indarrean 2010ean, «Estatu Batuetako Herri Natiboei zuzendutako Barkamen» ofiziala dago,⁴²⁶ «munduko barka-eskerik isilena».⁴²⁷ Are inportanteagoa dena, «Barkamenak» honela zioen: «Atal honetako ezerk (1) ez du baimenik ematen edo babesten Estatu Batuen aurkako erreklamaziorik; edo (2) ez du balio Estatu Batuen aurkako ezein erreklamazioren akordio gisa».⁴²⁸ Lege-proiektu bakarrean, milaka milioi dolar bideratu ziren mundua kontrolatzera, baina ezta zentimo bakar bat ere Ipar Amerikako lehen nazioekin egindako jatorrizko itunak, jatorrizko promesak, betetzera.

2012ko txosten batean, *Herri Indigenen Egoera Ameriketako Estatu Batuetan*, herri indigenen gaitan NBERen berri-ekarle berezia den James Anaya-k «Barkamena» izeneko ebazpenaren ezagutza falta orokorra aztertzen du. Gainera, Anayak lotura bat ezartzen du bi alderdi hauen artean: batetik, ez dela ekin-tza zehatzik egiten lur indigenen gaineko aldarrikapen ebatzi

426 Defentsa Esleipenaren Departamentuaren Legea, 2010ekoa, 8. idazpuru, 8113 atala, 45-7. or.


427 Oihartzun-Belatz, *Into the Light of Justice*, 276. or.

428 Defentsa Esleipenaren Departamentuaren Legea, 2010ekoa, 45-6. or.

gabeak bideratzeko; bestetik, errealtate sozial izugarrien existentzia, hala nola pobrezia, etxeko eta familiako indarkeria, gazteen suizidioa eta hezkuntzaren eta osasun-arreta egokiaren gabezia. Oceti Sakowin jendeen erreklamazio ebatzi gaberik inportanteena Muino Beltzena da, eta Laramie Gotorlekuko 1868ko Ituna da haren galeraren «oroigarririk enblematikoena eta ikusgarriena».⁴²⁹

Lur indigenen lapurreta eta nazio indigenen menderakuntza mundu-mailako inperialismoaren funtsezko parte bat da. Horretaz ohartuta, nazioarteko mugimendu indigenak lanean darrai (nahiz eta askotan isilean). Ezinbestekoa da hori, Indiar Gerrak ez baitira egiazki sekula amaitu. Itunen Kontseiluak ulertu zuen bere zeregin sakratua dela etxeko inperialismoa garaituta atzerrikoa ere garaitzea, eta 2016an, Standing Rocken, internazionalismoaren espiritu hori ikusi ahal izan zen berriro, mundu osoko nazio indigenen desfile baten bidez haien arteko elkartasuna aldarrikatu zenean.

429 Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseilua, *The Situation of Indigenous Peoples in the United States of America*, S. James Anaya berri-ekarle bereziak bidalia, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusia, 21. saioa, zk.: A/HRC/21/47/Add. 1, 2012ko abuztuak 11.



Oeti Sakowin Kanpamentuaren mapa, eskuz marraztua, heldu berriei ematen zaiena. Mapa egilearena da.

ZAZPI

ASKAPENA

Greasy Grass, 1876ko ekainaren 25a. Estatu Batuek «askatasuna»ren ehungarren urteurrena ospatu baino astebete lehenago egin zieten putz kandelei Lakota, Txeiene eta Araphao herrietako jendeek. Ordokietako aliantza indigenak Custer eta haren 268 gizon menderatu zituen. Custerrek ezusteko eraso bat abiatu zuen kanpamentu handiaren aurka, indiarrek hiltzeko eta erreserbetara itzularazteko. Gertaera hura kolonoen estatua-ren heriotza-kulturaren adierazpen bikaina izan zen. Alabaina, kanpamentu indigenan biziaren kultura zen nagusi, eta, urtero bezala, bizitzaren berritzea ospatzen ari ziren eguzki-dantza-ekin; zeremonia xume bat, non dantzariak beren gorputzak sakrifikatzen baitzituzten lau egun baraurik igarota, ez janaririk ez urik hartu gabe, haien nazioak eta munduak bizirik jarrai zezaten. Erreserbetako indigenak isilka irten ziren, kanpamentuko senideekin elkartu eta askatasun poxi batez gozatzeko. AEBko historia-liburuetan eta herri-kulturan, gudu hura «Custerren azken bataila» gisa azaldu ohi dute. «Bazirudien indiarrek lurpetik ere ateratzen zirela», azaldu zuen geroago Marcus Reno koronelak; «erle-saldoak bezala zetozen niganantz, leku guztietatik, gainera». Bi hitzetan esateko, inguratuta zeuden.

The Undercommons: Fugitive Planning and Black Study liburua ontzeko, Fred Moten eta Stefano Harney egileek Hollywood-eko filmei buruzko azterketa antiinperialista bat hartu zuten oinarri, Michael Parentik egina, zeinean kolonizazioa beti goikoz behera irudikatzen baita: inbasioak autodefentsa dirudi, eta kolonoak, beren gotorleku militarizatuetan ezkutaturik, natiboen eraso inguratzaile baten «benetako» biktimak dira. Rolan alderantzika-

tze hori, non erasotzailea biktima bihurtzen baita, asmakeriazko kontakizun nazional bat da; kolonoek Ipar Amerikako lur indigenak lehenengoz inbaditu zituztenean sortu zen, eta behin eta berriro errepikatzen da, AEBk beste herrialde bat inbaditzen edo bonbardatzen duen aldiro itsasoz haraindiko bere proiektu inperialaren testuinguruan. Nolanahi ere, Motenek eta Harneyk diotenez, egia da, era berean, kolonoak nolabait inguratuta daudela eta indiarrek haiek baino gehiago direla.⁴³⁰ Nahiz eta indigenak beren sorterriko gutxiengo estatistiko bat bihurtu diren, herri indigenen bizimoduen indarrak eta haien erresistentziaren grinak beti inguratu izan ditu Ipar Amerikako kolonoak, baita haiek lur-jabetzaren gainean egiten dituzten aldarrikapen ahulak ere. Izan ere, nazio indigenak mehatxu etengabe bat dira kolonoentzat, lurren eta nongotasunaren gainean egiten dituzten badaezpadako aldarrikapenak gogorarazten dizkietelako.

Erresistentzia indigenaren arbasoak ez ziren borrokatu soilik kolonialismoaren *aurka*; bizitza indigenaren *alde* borrokatu ziren, eta bidezko harremanak izateko senide gizatiar eta ez-gizatiarrekin eta bizitzarekin. Custer eta bere gizonak Greasy Grasseko eguzki-dantzara jaitsi zirenean, arbasoak dantzari emanak zeuden, antzina-antzinatik egin izan duten bezala, bi-ziaren zuhaitza lorarazteko Altze Beltzen irudipenean eta beren jendeen eta lurraren ernaberritzea ziurtatzeko. 2016an, Suge Beltza –hala esaten zioten Dakota Access oliobideari– eraikitzen hasi zirenean, indiarrek berriz dantzatu ziren, aldi hartan Ocuti Sakowin eta Sacred Stone kanpamentuen ertzetan, Mni Sose (Missouri ibaia) eta Unci Maka (Ama Lurra) babesteko. Erresistentzia indigena ez da aldi bakarreko gertaera bat. Etengabe galdetzen du: zer ugaritzen da inperiorik ez dagoenean? Hortaz, askatasuna definitzen du ez kolonialismoaren absentzia gisa, baizik eta bizitza indigenaren presentzia areagotu bat bezala, baita senide gizatiar eta ez-gizatiarreko eta bizitzarekiko harreman justu areagotu bat ere. Kahnawà:ke Mohawk herriko aditu Audra Simpson-ek dioen bezala, norberaren sorterritik desagertu eta erbesteratzearen kondizio ezinezkoa onartzeari eta erabateko desjabetzeari uko egiteak, horrexek egituratzen du

430 Fred Moten eta Stefano Harney, *The Undercommons: Fugitive Planning and Black Study* (New York: Minor Compositions, 2013), 17.

itzuleraren, berreskuratzearen eta nongotasuna eta tokia aldarrikatzearen politika indigena.⁴³¹

Arbasoak Missouri ibaiko Pick-Sloan egitasmoaren lehen faseetan ere dantzatu ziren, eguzki-dantzarako erabiltzen zuten eremua urez estali aurretik. Armadako Ingeñariaren Kidegoaren hasierako mapetan eta planoetan ez zen ageri ez indiar erreserbarik ez bizitza indigenarik. Gure sorterriak eta agentziaren egoitza birritan urpetu zituzten, eta gure nazioak –Lower Brule Sioux Tribua– ezinbestean irudikatu behar izan zuen nola eraiki berriro bere burua urpetzearen eta lekualdatzearen ondoren, eta nola egin hori gure baloreak ere islatuz. Halandaze, gure komunitatearen plana marraztu genuen behin eta berriro. Errepide eta ur-hodi berriak diseinatu eta eraiki behar ziren. Hilerrriak –gure arbaso hilak– lurpetik atera, eta beste leku batera eraman behar ziren, gure arbaso biziekin batera, lur garaiagoetara. Azkenean, planifikatzaileek ilargi erdiaren itxurako egitura bat hautatu zuten komunitatea eraikitzeko, keinu sinboliko bat eginez kanpamentu tradizionalen antolamenduari; komunitate ireki bat paratu zuten erdialdean, eta tipi bizitegiz inguratu, zeinen sarreak ekialdera begira baitzeuden, eguzkia altxatzen den tokirantz. Lower Brule komunitate diseinatu berriaren erdigunean eskola bat zegoen, hezkuntzari ematen zitzaion garrantzia nabarmentzeko. Handik abiatuta, abaniko-forman hedatzen ziren udalaren eta administrazioaren eraikinak, elizak, adingabeen atxiloketa-zentro bat eta, azken lerroetan, etxebizitza-ilara ugari. Nahiz eta espetxea eta kristautasuna atzerriko instituzioak ziren Oceti Sakowin jendeen gizarte tradizionalentzat, komunitate moderno lekualdatuak adingabeen atxiloketa-zentroak eta elizak izango zituen toki bat eraiki eta irudikatu zuen.

Armadako Ingeñariaren Kidegoak bezala (eta maiz harekin elkarlanean), Dakota Access Oliobidearen (DAPL) proiektugileek imajinatu zuten natiborik gabeko mundu batean eraikiko zutela oliobidea. Eta horixe behar zuten; hau da, nahitaez pentsatu behar zuten existitu ere ez ginela egiten, hala justifikatzen baitzuten lur indigenetan eta itunpeko lur babestuetan baimenik gabe sartzea. Oliobidea Bismarckeko (Ipar Dakota) bizitegi-gune

431 Audra Simpson, *Mohawk Interruptus: Political Life Across the Borders of Settler States* (Durham, NC: Duke University Press, 2014).

zuriei eragiteko zorian egon zenean, birbideratu egin zuten, eta ura kutsatzeko arriskua ibaian behera zegoen Standing Rockeko nazio natibora aldatu. DAPL oliobidea bere jabetza pribatua eta inbertsioak babesten saiatu zenean –igarobide-zorren bidez, hau da, besteren lurretan zehar igarotzeko eskubidea–, poliziak eta segurtasun pribatuko enpresek bere alde egin zuten, herri indigenak mehatxutzat hartuta. Gaur egungo kolonoak ziren, indigenek gidatutako altxamendu batek inguratuak. DAPLeko jendea lagabako itunpeko lurretan sartzea, baita Uraren Babesleen aurka neurri latzak erabiltzea ere, hori guztia autodefentsarako baliabide gisa agerrarazi zuten; alegia, kolonoak gotorlekuan zeuden, garai batean bezala, etsai natiboez inguratuta.

Poliziak, militarrek eta segurtasun pribatuko enpresek beren baseak ezarri zituzten, eta beren operazio antzeztuak planifikatu, otoitz-kanpamentuen aurkako gerra txiki bat abiatzeko. Gobernuaren gardentasuna zaintzea xede duen MuckRock webguneak⁴³² e-mail batzuk argitaratu zituen, Toby Schweitzer helikoptero-kontratastak #NoDAPL protestetan zaintza-lanetan ari ziren bi kolektibori idatziak: batetik, polizia-agenteari; bestetik, Ipar Dakotan baldintzapeko askatasunean dauden pertsonak zaintzeaz arduratzen diren funtzionarioak. Toby Schweitzer Bakken Western konpainiakoa zen, erantzun azkarreko enpresa bat; Ipar Dakotako Mandan hirian dago, eta petrolio-isuriak kontrolatzeko eta ingurumena garbitzeko lanak egiten ditu. Bada, 2016ko irailaren 14an, Schweitzerrek e-mail bat bidali zien #NoDAPL lanean ari ziren zaindari haiei, eta hala zioen goiburuan, gaiaren atalean: «Jendetza kontrolatzeko metodo israeldarra». Polizia-agenteei, berriz, beste hau idatzi zien: «Zuek ere kontrolatu jendetza. Egun ona izan!». ⁴³³ E-mail hura geroago albistegi nazionalen titularretan azalduko ziren polizia-eraso eta sarekada itzelen aurretik bidali zuen, eta oliobidearen aurkako protestak zaintzen ari ziren poliziei iradoki zien «mofeta-espraia» erabiltzeko, hau da, arma kimiko israeldar bat, palestinarrak beheratu eta umiliatzeko asmatua, egunetan joa-

432 Irabazi asmorik gabeko AEBko erakundea, Informazio Askatasunaren Legea oinarri AEBko Gobernuaren dokumentuak eskuratu, aztertu eta partekatzen dituen (<https://www.muckrock.com>) [l.o.]

433 Jatorrizko testuan: «U tube [sic] crowd control. Have a great day!» [l.o.]

ten ez den usain ustel biomediko nardagarri bat itsasten duena. «Ahaztu harresia», idatzi zuen. «Ihinztagailuak ipini hegoaldeko mugan, sentsoreekin. Erakusleihu ugari salbatuko genituzkeen Baltimore-n eta Ferguson-en. AEBk esprai hau eskuratu behar du, kontroletik at dauden manifestazioetako arpilatzaileentzat. Jendetza kontrolatzeko metodo israeldarrak. ORAIN BAI, ELKAR ULERTZEN DUGU. BIKAIN. Mofeta-esprai!». ⁴³⁴Iruzkin horiek are gehiago iraintzen dituzte palestinarren zauriak, zeinak beren etxean eraispenaren aurka borrokatzen baitira, edo beren mai-teen erailketengatik protestatzen baitute.

Beste e-mail batzuetan, polizia-agenteek Larrialdiak Ku-deatzeko Agentzia Federalaren eskuliburu bat partekatu zuten, «Gatazka-eremuko indarkeriazko operazioak» izenekoa, non zenbait operaziotan zuzen jokatzeko aholku batzuk ematen baitzitzaizkien: «jendetza kontrolatzeko» metodoak, «minaren bidezko mendekotasun»erako teknikak eta «istiluak kontrolatzeko agente»en erabilera, hala nola arma kimikoak eta zenbait jaurtigai (adibidez, gomazko balak eta «baba-poltsazko» kartu-txoak). Arma «ez-hilgarri» haiek armarik gabeko protestatzaileen aurka erabili zituzten, indarkeria zeremonialarekin erabili ere; bi laguni kalteak eragin zizkieten ikusmenean, eta emakume bati besoan, eta beste hainbat eta hainbat lagun zauritu eta kolpatu zituzten. Lotura argia zen: tokiko polizia-agenteek eta segurtasun pribatukoek imajinatu zuten zibilen aurkako mundu-mailako kontrairaultza batean parte hartzen ari zirela, hedatzen zena Palestinatik Baltimoreraino, Fergusoneraino, AEB-Mexiko arteko mugaraino, eta, orain, Standing Rockeraino. Beltz-jendeen bizitzen aurkako gerra zen, palestinarren, migratzaileen, natiboen bizitzen aurkako.

DAPLeK segurtasun-kontratista mertzenario ilun bat kontratatu zuen, TigerSwan izenekoa, eta hark erabilitako taktikek ere argi erakutsi zuten hura mundu-mailako gerra bat zela. Segurtasun-konpainiak itzelezko ahalegina egin zuen AEBren «izuzaren aurkako gerra» amaigabea, zeinaren testuinguruan kontratatu baitzuten lehenago, Irakeko eta Afganistango zibilen aurkako kontrairaultza-operazioak egiteko. Orain, TigerSwan

434 Christopher Schano, «North Dakota Department of Corrections and Rehabilitation emails re: protests, protests, September 7–18 2016.» *MuckRock*, 2016ko irailak 19, muckrock.com.

teknika berak erabiltzen ari zen Uraren Babesleen aurka. *The Intercept* onlineko agerkariaren arabera, segurtasun-konpainia-ko langileek «terrorista» hitza erabiltzen zuten askotan Uraren Babesleei buruz berba egiteko; otoitz-ekintzak planifikatzean «eraso» hitza baliatzen zuten, eta kanpamentuei, ostera, «borroka-zelai» zeritzen. Ekialde Ertainekoen ondorengoak zirenei arrastoa jarraitu zieten, eta berariaz begiratu zituzten kanpamentuetako palestinarrak. Baina TigerSwan urrunago ere joan zen, eta altxamendu indigenari «matxinada jihadistista» deitu zion. Polizia-agenteei kanpamentuko jardueren berri ematen zienean, askotan aireko argazkiak aipatzen zituen, kanpamentuaren tamaina eta mugimendua kontrolatzeko erabiltzen baitzituen. Egoerari buruzko txosten batean, gorila baten irudi bat jarri zuten kanpamentuaren gainean; Harambe zen, Cincinnati-ko zooan hil zuten gorila, haur beltz bat haren kaiolara erori zenean. Alde batetik, zuri supremazistek Haramberen eraiketa erabili zuten beltz-jendeak Internet bidez iraintzeko, adierazi nahian guraso beltzak arduragabeak direla eta horregatik hil behar izan zutela gorila. Bestetik, beltz-jendeak tximinoekin eta gorilekin konparatzea erro sakonak dituen tropo arrazista bat da. Orduko hartan, TigerSwan beltz-jendeen kontrako istorio hura erabiltzen ari zen Uraren Babesleak primitibismoaren tropoen bidez arrazializatzeke, iraintzeko eta behehitzeko. DAPLentzat eta polizia-agenteentzat, kanpamentuak heriotza-leku bat ziren, suntsitu beharreko leku bat, kolonoen ezarpenaren bidegabeke-ria agerian utz zezakeen leku arriskutsu bat.

#NoDAPL kanpamentura iritsi berri zirenei ematen zitzaizen argibide-orrian eskuz marraztutako mapa bat zegoen, esparru osoa hartzen zuena. Bideei heroi iraultzaile indigenen izenak jarri zitzaizkien, hala nola Hodei Gorri eta Gudari Gorrien Elkarteak. Nazio indigenek beren kanpamentuak ezarri zituzten esparruaren barruan, eta mapa hartan haien kokapenak ere erakusten ziren. Segurtasun-zerbitzuarekin harremanetan jartzeko jarraibideak ere bazeuden, zeinak drogak eta alkohola sartzen ez uzteko ardura baitzuen, neurri batean. Era berean, adierazita zegoen non lortu zitezkeen janaria, osasun-arreta eta kanpamenturako hornigaiak. Hori guztia komunitate berriaren balioen isla zen: indigenek, bizirik irauteaz gain, aurrera egiten dute. #NoDAPL kanpamentuak erakusten zuen, gutxi goiti-beheiti,

nolakoa izango litzatekeen justizia indigenan oinarritutako etorkizun bat. Akatsak akats, bada Missouri eta Cannibal ibaiek bat egiten duten gunean ezarritako itun-kanpamentuetatik ikasi beharrekorik. Doako janaria, doako hezkuntza, doako osasun-arreta, doako lege-aholkularitza, komunitate-sen sendoa eta segurtasuna bermatu zitzaizen parte-hartzaile guztiei. Estatu Batuetako erreserba gehienetan ez dute zerbitzu horiek erabiltzeko aukerarik, ezta jende pobre gehienek ere. Eta, halere, inperialerik gabe, jendeek bat egin zuten elkarri laguntzeko, elkar zaintzeko. #NoDAPL kanpamentuak beharren arabera antolatu ziren, ez irabazien arabera. (Ez zegoen presondegirik, ez estatuaren kidego armaturik.) Horrek bereizten zituen kanpamentuko kideak esparrua inguratuz zuten polizien, kolonoen eta petrolio-konpainien mundutik. Kapitalismoa ez da sistema ekonomiko huts bat, gizarte-sistema bat ere bada. Eta han argi baino argiago geratu zen gizarte-sistema indigenek beste pertsona batzuekin eta munduarekin harremanak izateko modu erabat diferentea eskaintzen dutela.

Tradizio beltz erradikaletik abiatuta, Ruth Wilson Gilmore-k «abolizioaren geografia» deritzo era horretako mundu bat sortzeari; «premisax goxo eta etxetiar batetik abiatzen da, alegia, askatasuna toki bat dela».⁴³⁵ Eta hala da: askatasun indigena zen, eta da, toki bat; eta, une batez, #NoDAPL kanpamentuen itxurarekin gorpuztu zen. #NoDAPL kanpamentuek kolonialismorik gabeko eta estatua bezalako instituzio zapaltzailerik gabeko etorkizun bat irudikatu zuten, baina ez hori bakarrik; sortu egin zuten etorkizun hori, orain eta hemen. Berriz agertutako geografia bat zen, herri indigenak berriz ere lurraekin lotzen zituen. Kolonoaren mundu ziniko eta baztertzaila ez bezala, zeinak herri indigenak beren tokitik kendu, konfinatu, desagerrarazi eta desjabetu baitzituen, toki hark zabaltasunez hartzen zituen baztertuak, eta, era berean, erdigunean jartzen zuen bizitzaren mundu indigenaren⁴³⁶ muina, erlazonaltasuna.

435 Ruth Wilson Gilmore, «Abolition Geography and the Problem of Innocence,» in *Futures of Black Radicalism*, editoreak Gaye Theresa Johnson eta Alex Lubin (New York: Verso Books, 2017).

436 Jatorrizkoan «indigenous lifeworld» ageri da; «Lebenswelt» (bizitzen mundua) kontzeptua Edmund Husserl filosofoak sortu zuen, bere fenomenologiaren parte gisa, eta gure «bizitzak» gaituztu ezin dituen ekintza kultural, sozial eta indibidual guztiei egiten die erreferentzia. [l.o.]

Eta horren guztiaren erdi-erdian zeuden Oceti Sakowin jendeen susperraldia eta bateratzea. Palestinarren Lehenengo Intifadan bezala, komunitatea kolonoen estatutik deslotzetik abiatu zen kolonialismoaren aurkako erresistentzia. 1987-1993 bitartean, palestinarrek ekonomia alternatiboak eraiki zituzten, hezkuntza-eredu herritarrek, osasun-zerbitzuak eta emakumeen batzordeak. Emakume palestinarrek ere abian zen iraultza baliatu zuten heteropatriarkatua zalantzan jartzeko, zeina anatema bat baitzen Palestina Israelen okupaziotik askatzeko.⁴³⁷ #NoDAPL kanpamentuek iraun zuten bitartean, emakumeek, LGBTQ komunitateak eta bi-espíritu ekintzaileek kolonialismoari aurre egin zieten, eta egin ere beren ohiturei jarraituz egin zuten, hau da, zisgizon indigenei eskatuz onartzeko heteropatriarkatua AEBren okupazioa bezain defenda ezina dela, edo lurraren eta uraren suntsipena bezainbat.

Dakota Access Oliobidetik harago, gero eta handiagoa den nazioarteko mugimendu bat Ipar Amerikan zehar hedatzen ari den oliobide-sarearen aurka borrokatzen ari da. Kinder Morgan, Keystone XL, Enbridge 9, Bayou Bridge eta TransCanada Energy East oliobideek, baita beste askok ere, nazio indigenak eta lehen lerroko komunitateak lotzen dituzte. Borroka-gune berri bat pizten den aldiro, kolonialismoaren aurkako erresistentziak indarra hartzen jarraitzen du, kolonialismoaren eta kapitalismo estraktibistaren aurkako indigenak buru direla. Amaraun baten gisan, oliobide berriak agertzen ari dira isilka kontinentean zehar, abiadura beldurgarrian; baina, prozesu horretan, oliobideek esplotatuen eta desjabetuen komunitate askotarikoak ere elkar lotzen eta akuilatzen dituzte. Oliobide bakoitza gainerakoekin lotuta dago nolabait, eta nahiz eta DAPL teknikoki Ipar Dakotatik Illinoisera bakarrik hedatzen den, proiektu transnazional bat da funtsean, beste oliobide eta azpiegitura batzuekin ere lotzen baita, petrolioa mundu-mailako merkatura garraiatzeko, kolonoen estatuen mugak gaintuz eta lurralde indigenak baimenik gabe zeharkatuz.⁴³⁸

437 Ikus Linda Tabar eta Chandni Desai, «Decolonization is a Global Project: From Palestine to the Americas,» *Decolonization: Indigeneity, Education and Society* 6:1, X.

438 Ikus Katie Mazer, *Mapping a Many Headed Hydra: The Struggle Over the Dakota Access Pipeline*, Infrastructure Otherwise Report 1. zk., 2017ko urria, hemen eskuragarri: <infrastructureotherwise.org/DAPL_Report_20170921_FINAL.pdf>.

Askotariko elkartasun-sare mordo batek babestu zuten #NoDAPL borroka. Black Lives Matter mugimendua, justiziaren aldeko erakunde palestinarrak, erlijio-taldeak, veterano militarrek... eta beste toki eta mugimendu sozial batzuetatik iritsitako askok akuilatu zuten indigenak buru zituen erresistentzia, Standing Rock Indiar Erreserbaren geografia fisikotik askoz harago zihoana. #NoDAPL mugimenduak iraganean borroka indigenak aberastu zituzten beste borroka aliatu batzuk gogorarazten zituen; adibidez, Indiar Itunen Nazioarteko Kontseilua eta XX. mendeko mugimendu indigena internazionalistak. Kolonoen azpiegitura fisikoari aurre egitea –merkataritzea-bideak, trenbideak, presak eta oliobideak–, horixe da erresistentzia indigenaren azpiegitura, horiexek dira bere ideiak eta elkartasun-jarduerak. Erresistentzia-kanpamentuak aldi baterakoak izan baziren ere, askapen natiboaren aldeko borrokek aurrera darrai, eta gotorlekua erortzen ari da.

AEBren hedapenaren mendebaldeko muga 1890ean itxi zuten (XIX. mendeko Indiar Gerrak, borrokatuak eta irabaziak); indiar herritartasuna 1924an inposatu zuten; barkamen formula 2010ean egin zen; Nixonek 1970ean inauguratu zuen tribuen Autodeterminazio Garaia; Cobell auziaren babesean, iraganeko akatsak «konpondu» dira berriki; eta «naziotik naziora» erreterika eta politikak Obamaren agintaldian areagotu ziren (eta, era berean, lider indigenak administrazioko postu garrantzitsuetan jarri ziren). Beraz, hori guztia hala izanik, zer behar zegoen mugimendu berri bat sortzeko?

Galdera horri erantzuteko, Black Lives Matter aldarrikatzen duen mugimenduari begiratzen ahal diogu. Izan ere, zergatik sortu zen Obamaren administrazioaren garaian? Beltz-jendeen aurkako polizia-indarkeria ez zen sakonki areagotu Obama presidente zelarik, baina ezta nabarmen gutxitu ere.

Alabaina, Obamaren presidentziak agerian utzi zuen zer muga dituen arraza-inklusioak liberalismoaren eta kapitalismoaren agindupean. Demagun, adibidez, Freddie Gray-en heriotza, Baltimoren gertatu zena, 2015ean. Freddie Gray polizia-agente beltzek hil zuten, eta inork ezin izan zuen haren bizia salbatu, ez barrutiko fiskal beltz batek, ez alkate beltz batek, ez presidente beltz batek. Agintean dagoena dagoela ere, eta Keenga-Yamahtta Taylor-ek dioen bezala, gaur egungo sistema politikoak ezin

ditu salbatu beltz-jendeen biziak.⁴³⁹ Gauza bera esan daiteke herri indigenei buruz, baita berotze globalari buruz ere. Obamarren 2010eko «energia-segurtasunerako plan berriak» –2017an Trumpen agindupean asko hobetu zutena– AEBko petrolio-eta gas-ekoizpena sustatu eta drastikoki areagotu zuen, eta, ondorioz, ireki egin zituzten ordura arte federaliki babestutako lurra, Barne Departamentuak kudeatzen zituenak. Kapitalismoarekin, ez demokratek ez errepublikarrek ezin dituzte salbatu lur indigenak edo beltz-jendeen eta indigenen biziak. Estatuak zigortu egiten du beltz-jendeen eta herri natiboen aurkako arrazagatiko izua, baina praktika horrek bere horretan darrai, polizia-indarieriatik hasi eta energiaren garapenera arte, administrazio batetik bestera, eta erakusten du deskolonialismoan eta lur eta bizitza ebatsien berreskurapenean oinarritutako aldaketa erradikal bategen soilik desegiten ahal duela kolonialismoak mendeetan zehar egindakoa.

Pick-Sloan presek utzitako ondareak, oraindik ere badi-rauenak, etorkizun bizigarri bat izateko aukera oztopatzen die Oceti Sakowin jendei, eta baita ere bizitzeko Missouri ibaia ezinbestekoa duten milioika pertsoni. Presek kolonialismoa pertsonifikatzen dute, eta hormigoia eta lur xaflatua gai dira gizarte natiboa eten, urpetu, desjabetu, egotzi eta, azkenik, ezabatzeko. Dakota Access Oliobideak prozesu hori errepikatzen zuen. Kolonoaren estatuak eskura zuen ahalmen guztia –politikariak, polizia, segurtasun pribatua, bankuak eta enpresa pribatuak– erabili zuen Energy Transfer Partners-en nahia betetzeko. Korporazio hark 3,7 mila milioiko oliobide bat eraiki zuen, eta, horretarako, bi aldiz zulatuko zuen Missouri ibaia eta behin Mississipi ibaia, eta lau estatu zeharkatuko zituen (Hego Dakota, Ipar Dakota, Iowa eta Illinois). Gaur egun, tresna sofistikatuagoak ditu: eraso-errifleak, atxilotze-aginduak, landa-eremuko kartzelak, delitu txikiak eta delitu handiak, balen kontrako txalekoak, armadun droneak, gas negar-eragilea, mace gasa, Humvee ibilgailu blindatuak, Guardia Nazionala eta estatu-polizia, Black Hawk helikopteroak, beldar-hondeatzaileak eta komunikabideen zentsura. Nolanahi ere den, Uraren Babesleak

439 Ikus Keeanga-Yamahtta Taylor, *From #BlackLivesMatter to Black Liberation* (Chicago, IL: Haymarket, 2016).

iraganeko Uraren Babesleen historiatik zetozen, zeinak senide bera babesteko borrokatu baitziren, Mni Sose. Korporazioek AEBko zuzenbidearen arabera nortasun juridikoa dute, baina Uraren Babesleek ura pertsonifikatzen dute, eta urarekin –ibaia- rekin– duten senidetasuna aldarrikatzen dute, beren ordena juridikoa ezarriz. Baldin eta ura, senide bat, ez bada babesten, orduan ibaia ez da aske, ezta bere jendea ere.

Mni Wiconi iraganera ere iristen da, baina etorkizunera begirako proiektu bat da, eta batzuk behartzen ditu onartzera ez direla ez lurrarenak ez ibaiarenak. Nola irudika dezake kolonoen gizarteak justizian oinarritutako etorkizun bat, baldin eta ez badu funtsezko harreman etikorik lurra-ekin edo haren jatorrizko jendearekin? Ez dago erantzun errazik. Baina, erantzuna edozein dela ere, herri indigenak dira bidea zabaldu behar dutenak. Gure historiak eta erresistentzia indigenaren tradizio luzeek justizian oinarritutako etorkizunetarako aukerak eskaintzen dituzte. Azken finean, gure arbasoek uko egin zioten ahaztuak izateari, eta uko hori da erresistentzia indigena bizkortzen duena; uko egiten diogu erabat gure arbasoak eta gure historia ahazteari, eta uko hori da gure askapen-nahia sustatzen duena. Iraultzaile indigenak lehenagokoen arbasoak dira, eta lehenagokoenak, eta jada etorri badatozenenak.

Beharbada, indigenen eta ez-indigenen eta biok bizitoki ditugun lurren arteko senide-harremanetan ezkututzen dira erantzunak. Senidetasun indigenak harreman gizatiarretatik harago doan zabaltasun bat du, eta funtsezko desberdintasunak ditu familia heteronuklearrarekin edo familia biologikoarekin. «Senideak egitea da jendea familian sartzea, harremanak eduki ahal izateko», idatzia du Kim TallBear dakota adituak. «Itxura batean, horrek ez du inolako zerikusirik desberdintzat jotzen direnen artean –‘subiranoen’ edo ‘nazioen’ artean– harremanak negoziatzearekin, batez ere nazio horietako bat inperio militarizatu eta supremazista zuri bat denean».⁴⁴⁰

Uraren Babesleek galdetzen digute baita: zer eskatzen digu urak? Zer eskatzen digu lurra? Mni Wiconi –ura bizia da– kapitalismoaren logikatik kanpo kokatzen da. Iraganeko borroka

440 Kim Tallbear, «The US–Dakota War and Failed Settler Kinship,» *Anthropology News*, 2016ko azaroa, sfaa.net.

iraultzaileak lana kapitaletik askatzen saiatu dira; guri dagokiguna da ez bakarrik lurra kapitaletik askatzen dela irudikatzea, baizik eta hori gerta dadin exijitzea. Lurra biziko bada, kapitalismoak hil egin behar du ezinbestean.

Hecetu welo!

ESKER ONA

Harremanen bidez sortzen da jakintza oro. Liburu honek gure historia kontatzen du, iraganean, orainaldian eta etorkizunean jokatuta, hala kontatu baitzidaten niri hainbat norbanakok. Ez dagokit niri bakarrik. Hemen akatsik bada, ez da soilik nire ardura. Indibidualismo burges hutsa da hori. Tamainako istorio bat kontatzeko, ardura hartu behar da, eta hori beti da prozesu kolektibo bat. Istorio honen hutsuneei dagokienez, nik neuk onartzen dut, beste inork egin aurretik, beste batzuk gai izango lirakekeela lan hau ni baino hobeto egiteko. Azken batean, istorioak kontatzeko gure tradizioa prozesu kolektibo bat da, eta belaunaldiz belaunaldi igaro da. Gure historian, Oceti Sakowin garen aldetik, egia asko eta mundu ugari sartzen dira. Espero dut istorio hau, eta honen antzekoak, behin eta berriro kontatuko dituztela datozen belaunaldiek.

Liburu hau modu honetan sortzeko inspirazioa 2017ko urtarrilean piztu zen, gosari-garaiko elkarrizketan batean, Park City hirian (Utah). Auto bat alokatu genuen hainbat lagunen artean –Bobbi Jean Hiru Hanka, Melanie Yazzie, LaDonna BraveBull Allard, Miles Allard eta ni neu–, Michelle Latimer lagunak Standing Rockeko mugimenduari buruz egin zuen filma ikustera joateko; film horrek Bobbiren eta LaDonnaren bizitza erakusten zituen. Kafe baten bueltan, historiaz mintzatu ginen, baita #NoDAPL mugimenduan historiak izandako betekizun garrantzitsuaz ere. Jende gaztearentzat idatzi dut liburu hau, Bobbiren gisakoentzat. Hamasei urteko nire ni nerabearentzat idatzi dut: mugako herri batean bizi nintzen, Chamberlainen (Hego Dakota), non zurien supremazismoa baitzen nagusi; giro horretan hazten

ikasteko, teoriaren arma behar nuen, eta historiaren gidaritza. Profezietakoz Zazpigarren Belaunaldiaren historia da hau. Erresistentziaren suak piztu dituzte haiek, eta sugar horiek ezin dira amatatu. Espero dut, istorio honi esker, gure jendeak eta gure kausarekin bat egiten dutenek behar adina konfiantza bilduko dutela, eta bizkarra emango dietela suntsipenaren indarrei.

Liburuaren puska handiena lau astean idatzi nuen, besaulki batean jesarrita. Izeba Mary Alice-k eta osaba Dave-k, atsegin, beren etxeko ateak ireki zizkidaten: gure ibaiaren –Mni Sose– ertzean bizi dira, Missouri ibaiaren ertzean, Chamberlainen: liburuia idazten amaitzeko, bi toki horietan eduki behar nituen bai gogoia eta bai gorputza. Gure jendearen historia gehiena –kul kiwasa gara– nire aitak idatzi zuen; Ben du izena. Haren aitak –Andrew– eta aitona –Ruben– eman zioten historia gordetzeko ardura; orain, berak niri pasa dit ardura hori. Gure jendearen historia zabalagoa idazteko, elkarrizketak izan ditut Lewis Grassoperekin eta LaDonnarekin; biak miresten ditut, sakonki ezagutzen dutelako historia. (Metodologiaz den bezainbatean, ez dut aipatu zeremoniei edo kulturari buruzko informazio pribilegiaturik, non eta ez zegoen lehenagotik argitaratua; bestalde, ez dut aipatu niri aipatzea ez zegokidanik). Urtebetez, Melanien egonarriz aditu ninduen: purrusta egin eta pasarteak irakurtzen nizkion. Era berean, babesa eman zidan arrisku izugarriko garaietan eta sakontasun erradikaleko boladetan. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiot bihotzez, nire kidea eta burkidea den aldetik. Porrot erabatekoa izango litzateke ahozko kontakizunak helarazi dizkidaten mintzakide guztien zerrenda bat egiten saiatzea. Hori dela-eta, eskerrak eman nahi dizkiot gure jakintza gordetzen duten guztiei, zeinek, berekoikeria-arrastorik gabe, istorioak eta tradizioak partekatzen baitituzte gure gazteekin. «Gogoan izan istorioak», behin baino gehiagotan esan didate hori adinekoek. «Zure bizitza ez dagokizu zuri. Hemen zaude, soil-soilik, hurrengo belaunaldia ziurtatzeko», hori ere esan didate. Argibide umil horiek daramatzat bihotzean.

2016ko urrian, Jordan Camp-ek eta Christina Heahterton-ek, nire lagun minak biak, liburu hau idazteko behar nuen konfiantza eman zidaten. Andrew Hsiao eta Verso-ko burkidea zoragarriak aurkeztu zizkidaten. Alex Lubin, nire mentorea eta adiskidea, unibertsitateko gure departamentuko burua zen ga-

rai hartan, eta adoretu ninduen bertan behera utz nezan orduan egiten ari nintzen tesia, eta liburu hau bukatu. Hala egin nuen. Bertan behera utzitako tesiaren zati batzuk, azkenean, liburuan sartu nituen; beste zatiak, berriz, beste noizbait kontatzeko modukoak dira. Jennifer Denetdale izan zen nire tesiaren zuzendaria; historialari, mentore eta askatasunaren aldeko borrokalari indigena da bera, eta asko miresten dut: eskuizkribu sendo bat nahi zuen, prosa sendoan idatzia; ez zuen bestelakorik onartuko. Zorretan nago berarekin, betiko. Alyiosha Goldstein eta David Correia orobat izan ziren nire tesi-batzordeko kide, eta analisisia eta idazketa zorrozten lagundu zidaten, pazientzia handiz. Christina tartean sartu zen eta amaitzen lagundu zidan. Jordanek, Christinak eta Manu Karuka-k eskuizkribua landu zuten Barnard College unibertsitatean, Amerikar Ikasketen Norabide Berria deritzon proiektuaren barruan. Jaskiran Dhillon-ek, Roxanne Dunbar-Ortizek eta K-Sue Park-ek eskuizkribua irakurri zuten, eskuzabal. Audrea Lim-ek, berriz, azken iruzkinak eta ukituak eman zizkion testuari. Pertsona horiek gabe, ez zenukeen hau irakurri izango.

Walter Johnson-ek Amerikar Demokrazia diru-laguntza bat eskaini zidan Harvard unibertsitatean (2017-2018), Historia Amerikarraren Charles Warren ikasketa-zentroan. Bolada horretan, liburua editatzen amaitu nuen eta, Walterri esker, pila bat ikasi nuen historiaz eta kamisetaz. Cambridgen nintzen bitartean (Massachusetts), estimutan hartu nituen Wampanoag nazioko gure senideak, «Ingalaterra Berria» deitzen zaion horretan bizi direnak; haiei esker ezagutu nuen Eskerrak Emateko Egunaren egiazko historia: indigenontzat, dolu-egun nazionala da. Ez dut sekula ahaztuko. Halaber, aitortza egin nahi nioke, eta eskerrak eman, Hegomendebaldeko Ikerketa Zentroan diharduten artxibozainei (Mexiko Berriko Unibertsitatea), eta Newberry liburutegiko langile eta artxibozainei (Chicago). Proiektu hau 2016an hasi zen, eta, harrezkero, sofa eta zoru ugaritan egin dut lo, auto batean, eta kanpin-denda gehiegitan. Inoiz etxeko atea ireki dizkidazuenei, janaria eman edo zaindu nauzuenei, eskerrak ematen dizkizuet senide onak izateagatik. Pilamayaye, Stacy, Delane eta Tyrell: eskerrik asko atea zabaltzeagatik. Nazio Gorriko burkideek – Jennifer, Hope, Demetrius, Andrew, Kyon, Melissa, Kiley, Brandon, Radmilla, Majerle, Ua eta Cheyenne–

proiektu hau bukatzeko behar nuen astia eta adorea bermatu dizkidazue. Mila esker nire hutsunea betetzeagatik eta jende ona izateagatik mundu honetan. Ez duzue inoiz jakingo zenbateraino zareten inspirazio-iturri bat niretzat.

2016ko abuztuan Standing Rockera lehen aldiz bidaiatu baino aste batzuk lehenago, doluan ginen, poliziak Loreal Tsingine hil zuelako. Gogoan dut egun hartan bero itzela egiten zuela Arizonako Winslow hirian: zeruan ez zen hodei bakar bat ere. Baina euria hasi zuen. Lorealen lehengusuak esan zuen euri emea zela, freskoa eta leuna, bedeinkazio bat. Halako euria egin zuen irailean ere, Chicagoko kaleak hartu genituenean, eta Armadako Ingeniariaren Kidegoaren aurka protesta egin, Dakota Access-ekoek txakurrekin eraso egin ziotelako jendeari, Whites-tone muinoko masakrearen urteurrenean. Jakin nuenean Miles zendu zela, elur arin batek estali zuen Toronto, eta dolua egin nuen senideekin. Mni Wiconi! Gogoan gordetzen ditugu justizia eta askatasuna lortzeko bidean galdu ditugun guztiak. Nire amak –Angela– eta nire aiton-amonek –Joyce eta Andrew– ez zuten aukerarik izan ikusteko zer-nolako gloria erdietsi zuen gure jendeak ordu, egun eta aste eder haietan. Baina gure arbasoak bizi dira, gure bidez eta kontatzen ditugun istorioetan. Ez gaude inoiz guztiz bakarrik, eta ez gara inoiz guztiz joaten. Ella Deloria dakota ikertzaileak idatzi zuen eran: «Ez dut beldurrik, senideak dauzkat».

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet Uraren Babesleei, lehengoei eta oraingoei, agian biziko dugun sakrifizioarengatik. Bazenekiten zein zen zuen egitekoa, baita zer prezio izango zuen ere. Pilamayaye ota! Ezin digute kendu Zaldi Zorok eman zigun edertasun-ametsa. Hura bezala, betirako biziko gara geu ere. *Mitakuyapi Bliheiciyapo!*

TESTUAN AIPATUTAKO ZENBAIT ERAKUNDE

American Indian Movement (AIM)

Ameriketako Estatu Batuetako Indiarren Mugimendua; AEBko Indiarren Mugimendua

Army Corps of Engineers; Army Corps

Armadako Ingeniariaren Kidegoa

Black Hills Alliance

Muino Beltzetako Aliantza

Black Panther Party for Self-Defense

Autodefentsarako Pantera Beltzak Alderdia

Brave Heart Society

Bihotz Ausartaren Elkartea

Bureau of Indian Affairs (BIA)

Indiar Arazoetarako Bulegoa

Bureau of Reclamation

Lurren Berreskurapenerako Bulegoa

Canada's Six Nations

Kanadako Sei Nazioak

Canadian National Indian Brotherhood

Kanadako Indiarren Anaitasun Nazionala

Counterintelligence Program (COINTELPRO)
Kontrainteligentzia Programa

Emergency Management Assistance Compact
Larrialdiak Kudeatzeko Laguntza Hitzarmena

Great Sioux Nation
Siux Nazio Handia

Guardians of the Oglala Nation (GOON)
Oglala Nazioko Zaindariak

Housing and Urban Development (HUD)
Etxebizitza eta Hirigintza Saila

Indian Health Service (IHS)
Indigenen Osasun Zerbitzua

Indian Law Resource Center
Indiarrentzako Baliabide Juridikoen Zentroa

Indian Reorganization Act (IRA)
Indigenen Berrantolaketari buruzko Legea

International Indian Treaty Council (IITC)
Indiar Itunen Nazioarteko Kontseilua; Itunen Kontseilua

Industrial Workers of the World (IWW)
Munduko Industria Langileak

Land Defenders
Lurraren Defendatzaileak

Missouri River States Committee
Missouri Ibaiko Estatuen Batzordea

National Congress of American Indians (NCAI)
Ameriketako Estatu Batuetako Indiarren Kongresu Nazionala;
AEBko Indiarren Kongresu Nazionala

National Indian Youth Council (NIYC)
Indiar Gazteriaren Kontseilu Nazionala

Native American Sovereignty
Ameriketako Estatu Batuetako Natiboen Subiranotasuna;
AEBko Natiboen Subiranotasuna

Non-Aligned Movement
Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimendua

Office of Economic Opportunity (OEO)
Aukera Ekonomikoaren Bulegoa

Oglala Sioux Civil Rights Commission (OSCRC)
Oglala Siuxen Eskubide Zibilen Batzordea

Racial Conciliation Committee
Arrazak Adiskidetzeko Komitea

Society of American Indians (SAI)
Ameriketako Estatu Batuetako Indiarren Elkartea; AEBko
Indiarren Elkartea

Upper Missouri River Valley Development Authority
Missouri Garaiko Bailararen Garapenerako Agintaritzza

Tar Sand Blockade
Harea Bituminosoak Blokatu

Third World Liberation Front
Hirugarren Munduaren Askapenerako Frontea

Trail of Broken Treaties
Itun Hautsien Ibilbidea

United Nations Committee on Colonialism
Kolonialismoari buruzko Nazio Batuen Batzordea

United Native Americans
Ameriketako Estatu Batuetako Natibo Batuak; AEBko
Natibo Batuak

United Sioux Tribes
Siux Tribuen Batasuna

US Census

AEBko Errolda Bulegoa

War Relocation Authority

Gerrako Desplazatuentzako Agintaritza

Water Protectors

Uraren Babesleak

We Will Remember Survival School

Gogoan Izango Dugu Biziraupen Eskola

Women of All Red Nations (WARN)

Nazio Gorri Guztietako Emakumeak

World Council of Indigenous Peoples

Herri Indigenen Munduko Kontseilua

World Court; International Court of Justice (ICJ)

Nazioarteko Justizia Auzitegia

Wounded Knee Legal Defense/ Offense Committee

Wounded Kneeren Defentsa/Eraso Juridikorako Komitea

